Garbi dago tentuz eta neurritz egin beharreko arautzea dela, baina argi dago lekuan lekuko hizkuntza-ezaugarriek inon tokirik izatekotan leku-izenaren osagai espezifikoan daukatela.

1.5. Exotoponimoen erabilera etxe-izenetan

Euskal Herriko leku bat izendatzeko, exotoponimoak erabiltzean idazke-
ra egokitzeko ohitura dago, *Antekera* (Gorliz), *Aljexira* (Igantzi), *Arjel* (Donostia), *Bartzelona* (Luzaide), *Kordoba* (Erratzu), *Jibraltar* (Hernani), *Sibilla* (Donostia), *Tuniz* (Ituren), *Xibaltar* (Donapaleu) etab. Molde horretako toponimiak euskaraz emango ditugu eta exotoponimiaz Euskaltzaindiak emandako irizpide eta gomendioak kontuan izango ditugu, bai eta euskal tradizio toponomastikoa ere: *Gurugu*, *Sebastopol*...

1.6. Etxe-izen berriak izendatzeko gomendioak

Nork bere gogoaz etxegile dabilenak beti dauka estimuan zenbait jarraibide edo aholku izanari izena jartzerakoan, ondo eginaren pagua izenera eramán guran. Horrelakoetan, gomendio orokorra inguruko toponimia oinarri hartuta ondarea babesten duen izena jartzea da. Landa-eremu batean inguru fisikoarekin bat egiten duen etxea eraikitzen bada, gomendatzekoa da ondarearen parte diren leku-izenak iraunaraztea eta bazterrerara ez uztea, eta, hortaz, tokian tokiko toponimo jatorrak kontuan hartzea lehenik. Hona funtsezko zenbait gomendio:

- a. Etxea eraikiko den lekuaren izena.

- b. Inguruko etxe-izenetatik eratorritako izena (inguruan ohitura hori baldin badago), *-berri/barri*, *-goiko*, *-beko*, *-aldeko*, *-aurreko*, *-osteko*, *-atzeko* edo horrelako osagaiak erabiliz.
- c. Erabili egungo grafia akademikoa.
- d. Baztertu deklinabide-atzizkiz bukatzen diren izenak, nahasgarriak izateaz gain, deklinatzean erabilgaitzak baitira: *Eguzkiratz*, *Errekaginetik*, *Euripean*, *Gure Izerditik*, *Iretargibegira*, *Mendimagalean*, *Nire Eskuz*...
- e. Euskalkiari dagozkion hitzez baliatzea izen berria sortzean. Hau da, ez da egokia euskalki batek berezko dituen hitzak bere eremutik kanpo erabiltzea; konparaziorako, *Ekibegi* edo *Etxettiþia* Larrabetzun edo *Burdibide* edo *Kaleondoa* Izturitzen.
- f. Oikonimoan jabea ageri den kasuetan (izena, deitura, lanbidea...), inguruko atzizki-sistemaz (jabego genitiboaren hondarkia, *-baita*...) baliatu: *Andrexenea* (Behobide), *Anitaenea* (Kanbo), *Eduardorena* (Garaio), *Galtzagorribaita* (Senpere), *Gartxitonea* (Etxalar), *Jesusena* (Armintza), *Maitenabaita* (Ziburu), *Maittonea* (Etxalar)...

2. Molde berriko etxe-izenak idazteko proposamen-irizpideak

Azken mendean, ohiko bihurtu da etxe berriak izendatzeko sistema berriak erabiltzea, eta, ondorioz, irizpideak gaurkotu behar dira izenak egoki idazteko. Sistema zaharrarekin bat ez datozen kasuetan, irizpide hauek erabiltzea gomendatzen da:

2.1. Hitz batean idaztea proposatzen da

2.1.1. Izena (arrunta eta berezia): beste ezelako elementu barik dokumentatu denean.

Aitzol (Bergara), *Alazne* (Getxo), *Aldapa* (Lezama), *Atsedan* (Hondarribia), *Eguzki* (Usurbil), *Irati* (Orbara), *Iturri* (Aria), *Itzal*

(Eskiula), *Izarra* (Getaria), *Kitolis* (Mugerre), *Lilia* (Getaria), *Mendia* (Hiriberri), *Txistu* (Etxalar)...

Bai eta izena + eratorpen-atzizkia kasuak ere:

Aizetsu (Andoain), *Amatxo* (Barkoxe), *Erdizka* (Mugerre), *Etxebe* (Lasarte-Oria), *Izarpe* (Lezama), *Laketgarri* (Hazparne), *Mendaurpe* (Ituren)...

2.1.2. Izena, izenondoa, adberbioa, etab. + deklinabide-atzizkia: beste ezelako elementu barik dokumentatu denean. Hala ere, etxe-izena sortzeko bide hau ez da gomendagarria. Ikus. 1.6.d. puntua.

Azkenean (Arbona), *Denekin* (Sara), *Elgarrekin* (Arrangoitze), *Iguzkirat* (Luhuso), *Lagunentzat* (Arbona), *Xoriekin* (Bardoze) ...

2.1.3. Izena + izenondoa, izena, adberbioa, aditza, etab.: tartean deklinabide-hondarkirik ez bada.

Aizeona (Erandoio), *Aldasbarrena* (Erandoio), *Amesleku* (Lekuine), *Azkorrieder* (Hazparne), *Bideondoa* (Bidarra), *Birjinetxe* (Etxebarri), *Etxemaite* (Usurbil), *Etxezuri* (Getxo), *Haizeleku* (Ainhoa), *Ikusteder* (Irun), *Iriondo* (Almandoz), *Ithurrialde* (Mugerre), *Itsasobista* (Arrangoitze), *Iturrieder* (Gorliz), *Jardinetxe* (Zamudio), *Larrapilborda* (Etxalar), *Mendibidea* (Etxalar), *Neguetxea* (Gernika-Lumo), *Tximistondo* (Etxalar)...

2.1.4. Zenbatzaileak + atzizkia, izena, etab.: tartean deklinabide-hondarkirik ez bada.

Bianaia (Goizueta), *Biena* (Arrangoitze), *Bigarrena* (Arbona), *Biona* (Usurbil), *Hirurena* (Biarritz), *Hirukantoin* (Mugerre), *Hiruzedarriak* (Mugerre), *Irugazteak* (Oiartzun), *Iruiturri* (Lekaroz), *Lauaizeak* (Etxalar), *Lauaterpe* (Lasarte-Oria), *Laubide* (Ajangiz)...

2.1.5. Izenordainak + atzizkia, izena, etab.: tartean deklinabide-hondarkirik ez bada.

Gubiena (Ainhoa)...

2.1.6. Lekuzko morfema genitiboak espezifikokoaren eta generikoaren arteko lotura egiten badu.

Aurrekoetxe (Erandio), *Burdingoikoaldea* (Getxo), *Gainekoetxea* (Beskoitze), *Goikoaldatsea* (Etxalar), *Goikogaña* (Lasarte-Oria), *Goi-zekoiguzkiari* (Irisarri), *Iguzkikoetxea* (Ahatsa-Altzieta-Bazkazane), *Mendikoetxea* (Orbaizeta), *Primaderakolorea* (Senpere), *Urtekoetxea* (Elizondo), *Otsobidekoetxea* (Abaurregaina)...

2.1.7. *-baita* leku-atzizkia aurreko izenari lotuta dagoenean.

Amatxibaita (Azkaine), *Artolabaita* (Behobide), *Bergarabaita* (Behobide), *Galtzagorribaita* (Senpere), *Indianobaita* (Urdazubi), *Juanbaita* (Doneztebe), *Lizardibaita* (Lesaka), *Maitenabaita* (Ziburu), *Malakabaita* (Azkaine), *Urdinbaita* (Lesaka)...

2.2. Tarteko marratxoz idaztea proposatzen da

2.2.1. Bikoiztapen indargarriak eta bikote-hitzak (25. araua, II.2):

Anai-arrebak (Ziburu), *Emeki-emeki* (Ezpeleta), *Gain-gañean* (Irun), *Gorri-gorria* (Bidarrai), *Gozo-gozoa* (Aloze-Ziboze-Onizegaine), *Ixil-ixila* (Bidarte), *Nire-nirea* (Hondarribia), *Txoko-txokoan* (Ziburu), *Txuri-beltz* (Getaria)...

2.2.2. Bi pertsona-izen, abizen... edo gehiagoren batuketaz sortutakoa.

Erdotzain-Egino (Orbaizeta), *Fermin-Lorea* (Abaurregaina), *Karlos-Lorea* (Abaurregaina), *Loperena-Muxika* (Orbaizeta), *Txañar-Zabal-tza* (Orbaizeta), *Ugarte-Olaeta* (Gorliz), *Zabala-Bizkai* (Orbaizeta)...

2.3. Banan idaztea proposatzen da 'Espezifikoa Espezifikoa' egitura

Oharra: Atal espezifikoko osagai guztiak letra larriz hasita idatziko dira.

2.3.1. Hitz batean emanez gero, esangura erabat aldatzen denean.

Bi Izar (Lasarte-Oria), eta ez **Bizar*; *Gu Hau* (Lasarte-Oria), eta ez **Guau*...

2.3.2. Izenordain genitiboa + izena egiturak.

Ene Desira (Arrangoitze), *Gure Ametsa* (Arano, Barkoze, Berriz, Elizondo, Goizueta, Hondarribia, Irun Lekuine, Narbarte, Oiartzun, Orbaizeta, Usurbil), *Gure Atherbea* (Beskoitze), *Gure Aterpe* (Irun), *Gure Babesa* (Andoain), *Gure Borda* (Lasarte-Oria), *Gure Egoitza* (Arbona), *Gure Eguzkilore* (Oiartzun), *Gure Etxea* (Andoain, Donamaria, Lasarte-Oria, Lezama, Usurbil), *Gure Itzala* (Etxalar), *Gure Kuluxka* (Irurita), *Gure Ohantzea* (Arrangoitze), *Gure Xokoa* (Bardoze), *Zure Etxea* (Irun)...

2.3.3. Izena, izenordaina, etab. + deklinabide-atzizkia (lekuzko morfema genitiboa, edutezko genitiboa) + izena, izenordaina, etab.

Aitari Esker (Biriatu), *Biak Bat* (Lasarte-Oria), *Etxean Niz* (Hiriburu), *Guretzat Ongi* (Ezpeleta), *Irurak Bat* (Getxo), *Txoriak Kantuz* (Ahetze), *Zazpiak Bat* (Irurita)...

2.3.4. Interjekzioetatik sortutakoak.

Agur Deneri (Senpere), *Agur Maria* (Bidarte), *Egun On* (Hondarribia), *Mila Esker* (Senpere) *Ongi Etorri* (Irun, Sunbilla)...

2.3.5. Adizkiak tarteko dauden sintagmak.

Aski Da (Bokale), *Aski Zaut* (Itsasu), *Den Bezala* (Zuraide), *Ez Da Goizegi* (Ahetze), *Emak Bakea* (Baigorri), *Etxean Niz* (Hiriburu), *Hemen Gira* (Itsasu), *Nik Nahi Nuena* (Leaburu)...

2.3.6. Adberbioa + izena, izenondoa, etab. bezalakoak.

Beti Alai (Usurbil), *Beti Argi* (Amendüze-Unaso)...

2.4. **Banan idaztea proposatzen da ‘Espezifikoa generikoa’ egitura**

Oharra: Osagai espezifikoa letra larriz hasita idatziko da, osagai generikoa xehez.

2.4.1. Izena etab. + edutezko genitiboa + izena egiturak.

Aitaren etxea (Basusarri), *Amaren etxea* (Lezama), *Apezaren etxea* (Zubieta), *Arotzaren etxea* (Zubieta), *Arrubarrenaren etxea* (Getxo),

Brunoren etxea (Etxalar), *Elenaren etxea* (Elizondo), *Guardaren etxea* (Etxalar), *Lamsfusen etxea* (Etxalar), *Medikuaren etxea* (Ituren), *Salbadoraren etxea* (Etxalar), *Orradreren etxola* (Arizkun), *Rafaelen etxea* (Aria), *Romanen etxea* (Etxalar)...

Bada, hala ere, jabego-genitiboa erabiltzerik eta toponimoa hitz bakarean ematerik:

Aitarena (Basusarri), *Amarena* (Lezama), *Argiñenea* (Doneztebe), *Arrubarrenarena* (Getxo), *Brunorena* (Etxalar), *Elenarena* (Elizondo), *Guardarena* (Etxalar), *Lamsfusena* (Etxalar), *Salbadorarena* (Etxalar), *Orradrerena* (Arizkun), *Rafaelena* (Aria), *Zurgiñenea* (Zubieta)...

2.4.2. Lekuzko morfema genitiboa + *borda*, *benta* generikoa.

Antsoneko borda (Azpilkueta), *Altxuneko borda* (Ituren), *Apezuneko borda* (Doneztebe), *Azkarateko borda* (Zubieta), *Ikatzeleko benta* (Arizkun), *Iturregiko borda* (Erratzu), *Jaumesaltsuko borda* (Ituren), *Lezetako borda* (Arizkun), *Olako borda* (Etxalar), *Tximistako borda* (Etxalar)...

3. Bestelako gertaerak

Azterketa honetarako beren-beregi batutako corpusean izen generikoa bereiz ematen den multzo bat dokumentatu da. Batzuetan erdarazko *villa* ageri da espezifikoa aurrean; beste batzuetan, ostera, *etxe(a)* atzean. Bizuetan izen espezifikotik bereizita.

3.1. *Etxe(a)* terminoa, ezelako kasu-markarik gabe, izenari lotzea egitura zaharra da, bai kokapena adierazteko: *Aurteneche* (Zamudio, 1692), *Barrenechea* (Laukiz, 1704), *Goieneche* (Larrabetzu, 1825), *Larrechea* (Lezama, 1646); bai jabetza adierazteko: *Mirandaecha* (Ordizia, 1768), *Seroraecha* (Derio, 1796), *Vachilereche* (Urduliz, 1704), *Yssassagaecha* (Ordizia, 1568). Hala ere, badirudi, Euskal Herrian gehien zabaldu den sistema leku-nahiz jabego-genitiboaren kasu-markak espezifikoa gehitzea izan dela: *Adamena* (Getxo), *Adamenea* (Ahetze), *Agedaeneko* (Muxika), *Alontsoreneko* (Zizur), *Bergantzena* (Amurrio), *Mirandaenea* (Hondarribia), *Mirandarena* (Eritze, Ibero).

Etxe(a) generikoa izen espezifikokoaren ostean ageri denean etxe-izena normatibizatzeke hiru aukera proposatzen dira:

3.1.1. *Etxe(a)* generikoa espezifikokoari dautsala:

Baigorrietxe(a) < **Baigorri etxea* (Irurita); *Bidegainetxe(a)* < **Bidegain etxea* (Bergara); *Eguzkietxe(a)* < **Eguzki etxea* (Irurita); *Ezkerretxe(a)* < **Ezker etxea* (Burgi); *Leiretxe(a)* < **Leyre etxea* (Etxebarri); *Lekuonaetxe(a)* < **Lekuona etxea* (Goizueta); *Oiaraetxe(a)* < **Oiara etxea* (Errazu); *Pardixetxe(a)* < **Pardix etxea* (Orbaizeta); *Petraetxe(a)* < **Petra etxea* (Burgi); *Urdozetxe(a)* < **Urdoz etxea* (Erratzu); *Urkixetxe(a)* < **Urkijo etxea(a)* (Getxo).

3.1.2. Zenbait kasutan, espezifikoa pertsona izena, deitura edo ezizena denean, Euskal Herrian ohikoa den leku- nahiz jabego-genitiboaren kasu-markak gehituz espezifikokoari: *-(a)(r)ena*, *-enea* edo *-(en)(e)koa*. Kasu honetan, tokian tokiko aldaera erabiltzea da gomendio nagusia.

Baigorrienea < **Baigorri etxea* (Irurita); *Leirenekoa* < **Leyre etxea* (Etxebarri), *Lekuonarena*, *Lekuonaenea* < **Lekuona etxea* (Goizueta); *Leirena*, *Urkixoena* < **Urkijo etxea* (Getxo)...

3.1.3. Espezifikoa bakarrik ematea, *etxe(a)* osagai galduz:

Baigorri < **Baigorri etxea* (Irurita); *Bidegain* < **Bidegain etxea* (Bergara); *Leire* < **Leyre etxea* (Etxebarri)...

3.2. Euskarazko izen espezifikokoaren aurrean *Villa* ageri diren kasuak.

Zenbaitzuetan *villa* terminoa erabili izan da euskarazko espezifikokoaren aurretik etxe berriak izendatzeko. Sarritan erdal izenak dira, eta gure eremutik kanpo leudeke, hala nola: *Villa Bella* (Eibar), *Villa Castilla* (Getxo), *Villa Girasol* (Hondarribia), *Villa Suso* (Gasteiz)... Baina, beste batzuetan, *villa*-rekin batera euskarazko terminoa dokumentatu da: *Villa Atsedan* (Hondarribia), *Villa Ederra* (Getxo)...

Izenok normatibizatzeke proposamen bi leudeke:

3.2.1. Egitura bere horretan mantentzea, beti ere euskarazko terminoa euskal grafiaza ekarrita eta agirian bertan etxe-izen berrien idazkerarako jaso diren proposamen-irizpideak jarraituta.

Villa Agirre < **Villa Aguirre* (Getxo); *Villa Aizeder* < **Villa Aice Eder* (Hondarribia); *Villa Anjelitatxo* < **Villa Angelitacho* (Hondarribia); *Villa Donostia* < **Villa Donosti* (Gartzain); *Villa Esperantzaxipia* < **Villa Esperanza Txipia* (Elizondo); *Villa Gure Ametsa* (Irun); *Villa Izarzuri* < **Villa Izar-Zuri* (Hondarribia); *Villa Ondargain* < **Villa Ondar-gain* (Hondarribia); *Villa Plaialde* < **Villa Play-alde* (Hondarribia); *Villa Txiki* < **Villa-chiqui* (Usurbil); *Villa Txingurri* < **Villa Chingurri* (Hondarribia); *Villa Urkixo* < **Villa Urquijo* (Getxo); *Villa Urondo* < **Villa Ur-Ondo* (Hondarribia).

3.2.2. 3.1.2 atalean adierazi den moduan, leku- nahiz jabego-geniti-boaren kasu-markak gehitu dakizkioke espezifikoiari: *-(a) (r)ena*, *-enea* edo *-(en) (e)koa*. Kasu honetan, tokian tokiko aldaera erabiltzea da gomendio nagusia.

Agirrena < **Villa Aguirre* (Getxo); *Ainaraenea* (Hondarribia); *Anjelitaxoenea* < **Villa Angelitacho* (Hondarribia); *Aritzegienea* < *Villa Ariztegi* (Elizondo)...

3.2.3. Izen espezifikoa huts-hutsik ematea: *Aizeder* < **Villa Aice Eder* (Hondarribia); *Gure Ametsa* < **Villa Gure Ametsa* (Irun), *Izarzuri* < **Izar-Zuri* (Hondarribia), *Ondargain* < **Villa Ondar-gain* (Hondarribia).

4. Corpusa

Proposatzen diren idazkera egokiak letra lodiz nabarmendu dira. Desegokiak, berriz, hasieran izartxoak dute. Hurrenkera honetara bilbatu da Euskal Herriko etxe-izen berrien lagin bat.

A: **Abadena** (Armintza). **Abialai** < **Abi-alai* (Ajangiz). **Aburtobarri** (Mungia). **Adixkidetasuna** < **Adichkidetasuna* (Bidarte). **Agirrena** < **Aguirrena* (Getxo). **Agur** (Azkaine). **Agur Deneri** (Senpere). **Agur Maria** (Bidarte). **Agustiñamotxa** < **Agustiña motxa* (Usurbil). **Aiartzza** < **Ayartzza* (Getxo). **Aiestaenea** (Izaba). **Ainhoa** (Etxalar). **Aireder** < **Aire Eder* (Behauze). **Airemalda** < **Aire-Malda* (Hazparne). **Aireona** (Bardoze) < **Aire Ona* (Ahatsa-Altzieta-Bazkazane) | **Airé Ona* (Arrueta-Sarrikota) | **Aire-Ona* (Azkaine). **Aitarena** (Zuraide, Orbaizeta, Basusarri).

Aitari Esker (Biriatu). **Aitzol** (Bergara). **Aizealde** < Haize-alde (Irun). **Aizeleku** < *Haizeleku (Lekaroz). **Aizemendi** (Bergara). **Aizeona** < *Aize Ona (Erandio). **Aizetsu** (Andoain). **Aizetxe** (Erandio). **Aizgain** < *Aitzgain (Bergara). **Aizgana** < *Aizgane (Getxo). **Aizgoien** (Getxo). **Aizparreneberri** < *Nueva Aizparrenea (Usurbil). **Alaitxoko** (Irun). **Alangobarri** (Getxo). **Alazne** < *Alasne (Getxo). **Albaeder** < *Alba Eder (Ziburu). **Alboika** (Getxo). **Aldalurttikia** (Etxalar). **Aldapa** < *Aldape (Lezama). **Aldasbarrena** < *Aldazbarrena (Erandio). **Aldatsekoa** < *Aldatzecoa (Mungia). **Aldibat** < *Aldi Bat (Mugerre). **Alkortaenea** (Zizurkil). **Altuxneko borda** (Ituren). **Altzagaetxe** < *Alzaga-eche (Mungia). **Altzat** (Orbaizeta). **Altzatekoa** (Orbaizeta). **Amaikaizerdi** < *Amaika-Izerdi (Irun). **Amaliena** (Mungia). **Amalur** (Amaiur) < *Ama Lur (Bidarte). **Amandrena** (Getxo). **Amarena, Amaren etxea** < *Amaren Etxea (Lezama). **Amarri Esker** (Hendaia). **Amatxibaita** < *Amatchi-Baita (Azkaine). **Amatxo** < *Amacho (Barkoxe). **Amatxonea** < *Amachonea (Hondarribia). **Amesleku** < *Amets Leku (Lekuine). **Ametzola** < *Ametsola (Garralda). **Amezialde** (Elbete). **Amonanea** < *Amonania (Oiartzun). **Anai-arrebak** < *Anai Arrebak (Ziburu). **Anaiarte** < *Anai-Artea (Aiherra). **Anaienetxea** < *Anaienetxea (Abaurrepea). **Anaiena** (Getxo). **Analur** < *Ana-Lur (Andoain). **Andrexenea** < *Andrechenia (Behobide). **Anitaenea** < *Anita-Enia (Kanbo). **Anjelenaetxebarri** < *Angelena-echevarri (Mungia). **Antsoneko borda** (Azpilkueta). **Apezaren etxea** (Zubieta), **Apezeneko borda** (Doneztebe). **Aphalena** < *Aphal Ena (Kanbo). **Aranbera** (Etxalar). **Arangora** (Etxalar). **Arantaberria** < *Aranta Berria etxea (Gartzain). **Arantzazueña** < *Aránzazu-enea (Andoain). **Arbiaska** < *Arbi-Aska (Leioa). **Argia** (Bardoze). **Argieder** < *Argi Eder (Azkaine). **Argieder** (Bardoze eta Etxalar). **Argiñenea** (Doneztebe), **Argiola** (Erandio). **Argizabal** < *Argi Zabal (Hazparne) | *Argi-Zabal (Lehuntze) | *Argui Zabal (Martxueta). **Aritzetxea** (Elbete) < *Haritzetxea (Elbete). **Arizgain** (Bergara). **Ariztegi** (Elizondo). **Arkialdenea** (Elizondo). **Arotzaren etxea** (Zubieta). **Arotzetxea** (Elizondo) < *Arotz Etchea (Amendüze-Unaso). **Arotzondoa** (Elizondo). **Arpidenea** < *Arpidenia (Oiartzun). **Arranobel-tza** < *Arrano beltza (Burgi). **Arrasate** (Etxalar). **Arretxeberria** (Etxalar). **Arrigain** < *Harrigain (Garralda). **Arrigorri** < *Harrigorri (Garralda). **Arriluze** < *Arriluce (Getxo). **Arrosattikia** (Zubieta), **Arroseaberria**

(Etxalar). **Arruebarrenarena**, **Arruebarrenaren etxea** < *Arruebarrenaren etzea (Getxo). **Artatzagana** < *Artaza-Gane (Leioa). **Artizarra** (Behorlegi). **Artolabaita** < *Artola-Baita (Behobide). **Asindegiendo** < *Asindegui-ondo (Andoain). **Askagaina** (Hiriberri). **Askalategi** (Getxo). **Aski Da** (Bokale). **Aski Zaut** < *Aski-Zaut (Itsasu). **Astargia** (Abaurregaina). **Astorkiren etxea** < *Astorkiren-etxea (Getxo). **Atherbeona** < *Atherbe Ona (Hazparne). **Atseginolazaenea** < *Aseguinolazaenea (Ibaizabal). **Atzealdea** < *Atche Aldea (Arrangoitze). **Aurarena** (Abaurrepea). **Aurrekoetxe** < *Aurreko Etxe (Erandio). **Aurrekoetxea** < *Aurreko-Echea (Lezama). **Aurtenetxe** < *Aurten etxe (Lezama). **Axkoenea** < *Achko Enia (Arrangoitze). **Azkarateko borda** (Zubieta). **Azken Hauta** < *Asken-Hauta (Hazparne). **Azkenean** < *Azkenian (Arbona). **Azkilarrea** < *Azkilarrea (Arantza). **Azkorrena** < *Askorrena (Gorliz). **Askorribide** (Getxo). **Azkorrieder** < *Azkorri Eder (Arrangoitze).

B: **Bagordialde** (Elizondo). **Baigorri**, **Baigorrienea**, **Baigorrietxea** < *Baigorri etxea (Irurita). **Bakarrik** (Erandio). **Bakea** (Arboti-Zohota). **Bakeder** < *Bake-eder (Getxo). **Bakeona** < *Bake Ona (Azkaine). **Balangoberri** (Ornoz). **Baratzartea** < *Baratz Artia (Hazparne). **Baratze** (Abaurregaina). **Baratzeondoa** < *Baratze-Ondoa (Itsasu). **Barneuhartea** < *Barne Uhartia (Aiherra). **Basabarri** (Erandio). **Basaltzu** (Getxo). **Basauriondo** (Erandio). **Bautixtenea** (Etxalar). **Baztan** (Lezama). **Baztandarra** (Irurita). **Bazterreder** < *Baster Eder (Aiziritze). **Bazterretxea** (Etxalar). **Begaizu** (Irurita). **Begieder** (Irurita). **Begoenea** (Bardoze). **Bekolanda** < *Beheko landa (Goizueta). **Bekostatua** < *Beheko ostatua (Oiartzun). **Bentaberri** < *Benta berri (Arano). **Bentaondo** (Zizurkil). **Bentattikia** (Etxalar). **Beresalde** (Getxo). **Bergarabaita** < *Bergara Baita (Behobide). **Beroki** (Garralda). **Berri-berria** (Haltsu). **Beti Alai** < *Beti Alay (Usurbil). **Beti Argi** < *Beti Árgi (Amendüze-Unaso). **Bi Izar** (Lasarte-Oria). **Biaitzak** < *Bi-Aitzak (Biriatu). **Biak Bat** (Lasarte-Oria eta Irurita). **Bianaia** < *Bi anai (Goizueta). **Bianaiek** < *Bi Anaiek (Azkaine). **Bidarte** (Getxo eta Galdakao). **Bidartea** (Amaiur). **Bidaurre** (Getxo). **Bidealde** (Getxo eta Goizueta) < *Bide-Alde (Ainhua). **Bidearte** (Getxo eta Lezama). **Bideartea** (Arizkun) < *Bide Artea (Hazparne). **Bidebitarte** < *Videbitarte (Zamudio). **Bidegain**, **Bidegainetxea** (Getxo, Goizueta eta Iruri-

ta) < *Bidegain etxea (Bergara). **Bidegana** < *Bidegane (Getxo, Lezama eta Zamudio). **Bideganea** < *Bidegania (Arüe-Ithorrotze-Olhaibi). **Bideondo** (Zizurkil eta Andoain) < *Bide-Ondo (Lezama) | *Bide-ondo (Zamudio). **Bideondoa** (Bardoze) < *Bide Ondoa (Bidarra). **Bidetxe** < *Bideche (Lezama). **Bidetxenea** (Azpilkueta). **Biena** (Barkoze) < *Bi Ena (Arrangoitze). **Bieskuz** < *Bi-Eskuz (Senpere). **Bigarrena** (Arbona). **Bikarmen** < *Bi Karmen (Irun). **Bilbaoena** < *Bilbao-ena (Gorliz). **Billabasoena** < *Villabasoena (Mungia). **Biok Bat** < *Biyok-bat (Oiartzun). **Bion etxea** < *Biyon-echea (Andoain). **Biona** (Usurbil eta Goizueta). **Birjinetxe** < *Virgineche (Etxebarri). **Bistaeder** (Arizkun) < *Vista-eder (Usurbil) | *Vistaeder (Donibane Lohizune). **Bistalai** < *Bista Alai (Larsarte-Oria) | *Vista alai (Usurbil). **Bistaona** < *Viste-ona (Zamudio). **Bixenterena** (Aria). **Bixtaeder** < *Bichta Eder (Ainhoa) | *Bista Eder (Amendüze-Unaso) | *Bistaeder (Bardoze) | *Bitcha Eder (Azkaine) | *Bixta-Eder (Aiherra). **Bixtaederra** < *Bichta Ederra (Arrangoitze). **Bolondo** (Amaiur). **Bolubarri** < *Bolu-Barri (Lezama). **Bordaberri** (Arano). **Bosgarrena** (Getxo). **Botika** < *Botica (Mungia). **Brunorena, Brunoren etxea** (Etxalar). **Buenabistaberri** (Irun). **Burdinbitarte** < *Burdin-bitarte (Getxo). **Burdingoikoalde** < *Burdingoico-alde (Getxo). **Buztingorri** (Etxalar).

D: **Dantzariak** (Zuraide). **Den Bezala** (Zuraide). **Denekin** (Sara), **Doniene** (Getxo), **Domintxenetikia** (Zubieta)...

E: **Ederki** (Basusarri): **Ederrena** (Bergara). **Ederrenea** < *Eder Enia (Itsasu). **Eduardorena** (Garaio). **Egialai** < *Egi Alai (Oiartzun). **Egiane** < *Egiania (Oiartzun). **Egiaurre** < *Eguiaurre (Mungia). **Egieder** < *Egi Eder (Oiartzun). **Egiondo** < *Egi Ondo (Oiartzun). **Egoa** (Biriatu). **Egoitzona** < *Egoitz Ona (Baigorri). **Egonlekua** < *Egon Lekua (Azkaine). **Egun On** (Azkaine) | *Egun-on (Hondarribia). **Eguntxinta** < *Egun-chinta (Hondarribia). **Egurrola** (Elizondo). **Eguzki** (Usurbil) < *Eguzki etxea (Irurita). **Eguzkialde** (Almandoz, Amaiur, Elbete, Getxo, Irun eta Lekaroz) < *Eguski-alde (Getxo) < *Egusquialde (Gorliz) < *Eguzki-alde (Andoain). **Eguzkibegi** < *Eguzkibegi (Berriz). **Eguzkieder** (Bergara) < *Eguzki-Eder (Hondarribia). **Eguzkiena** (Getxo). **Eguzkietxe** (Erandio) < *Egusqui-etxe (Mungia). **Eguzki, Eguzkietxea** (Irurita). **Eguzkilore** <

*Eguzki-lore (Burgi). **Eguzkitxoko** < *Eguzki Txoko (Lasarte-Oria). **Eki-zabalean** < *Ekhi Zabalian (Arüe-Ithorrotze-Olhaibi). **Elenarena, Elenaren etxea** (Elizondo). **Eleneberri** (Irun). **Elgarrekin** < *Elgarekin (Arrangoitze). **Elizabide** (Etxebarri). **Elizaitzina** < *Eliza-Aitzinia (Arrueta-Sarikota). **Elizaondoa** < *Elisa-Ondua (Ezpeize-Ündüreine). **Elordi** (Etxalar). **Elorduina** < *Elorduy-ne (Erandio). **Elortegi** < *Elortegui (Getxo). **Emak Bakea** < *Emaq Bakea (Baigorri). **Emeki-emeki** < *Emeki Emeki (Ezpeleta). **Enararena** (Garralda). **Endoretxe** (Galdakao). **Ene Amentsa** (Jatsu). **Ene Desira** (Arrangoitze). **Erdizka** < *Erdiska (Mugerre). **Erdotzain-Eginoa** < *Erdotzain & Eginoa (Orbaizeta). **Ergoien** < *Ergoyen (Getxo). **Erlegune** (Orbaizeta). **Errazuñea** (Doneztebe). **Erredinena** (Aribe). **Errekaondo** < *Erreca-ondo (Zamudio). **Errekaondoan** < *Erreka ondoan (Arizkun). **Errekaundi** (Goizueta). **Errekazar** (Legasa). **Errekondoa** (Etxalar). **Errezustanea** < *Rezustanea (Usurbil). **Errigain** < *Herrigain (Etxalar). **Errokena** < *Errekone (Lezama). **Errotaondo** < *Errota-ondo (Zamudio) < *Errotondo (Amaiur). **Eskortaldea** (Abaurregaina). **Esperantza** (Makea). **Esperantzaxipia** < *Esperantza txipia (Elizondo). **Etxealai** (Irun, Usurbil) < *Etxe Alai (Lasarte-Oria). **Etxealaia** < *Etxea-Alaia (Getxo). **Etxean Niz** < *Etchean-Niz (Hiriburu). **Etxeargi** (Erandio). **Etxeargia** < *Etxe-argia (Oiartzun). **Etxeurrekoa** < *Echeurrecoa (Mungia). **Etxebe** < *Echeve (Lasarte-Oria). **Etxebitarte** (Lezama). **Etxederra** < *Echeederra (Usurbil) | *Etxe Ederra (Erandio). **Etxegaina** < *Etche Gaina (Arrangoitze). **Etxegoxo** (Etxalar). **Etxelaur** < *Etxe Laur (Irurita). **Etxelore** (Irun). **Etxeluzea** < *Eche Lucia (Bidarte) < *Etxe-luzia (Getxo). **Etxemaitea** < *Etxe Maitea (Etxalar) < *Echemaitea (Usurbil) < *Etxe Maitea (Gorliz) < *EtxeMaitea (Etxalar). **Etxeona** < *Etche Ona (Aiziritze). **Etxepe** (Lezama). **Etxepolit** (Abaurrepea). **Etxetipia** < *Eche Tipia (Barkoxe). **Etxettikia** < *Etche Ttikia (Ahetze). **Etxetxiker** < *Etxe txiker (Burgi). **Etxetxuri** < *Etxe-txuri (Usurbil). **Etxexuria** < *Etche Churia (Ahetze). **Etxezapal** (Getxo). **Etxezuri** (Lezama) < *Etxe-zuri (Getxo). **Etxolaeder** (Irun). **Etxolaurtsoa** < *Etchola Urtxoa (Irisarri). **Euskoizarra** < *Euzko Izarra (Irun). **Euskolorea** < * [Villa] Euzko-lorea (Hondarribia). **Ez Da Goizegi** < *Ez Da Goizegui (Ahetze). **Ez Duk Goizegi** < *Ezduk Goizegi (Arrangoitze). **Ez Kexa** < *Ez-Keza (Itsa-

su). **Ezkerretxea** < *Ezker etxea (Burgi). **Ezpelondo** (Aria). **Ezpondagaña** (Etxalar).

F: Fermin-Lorea < *Fermín Lorea (Abaurregaina). **Fermiñena** (Zubietta). **Frankoetxea** < *Francoechea (Leioa)

G: Gainekoetxea < *Gaineko Etchea (Beskoitze). **Gain-gañean** < *Gain Gaiñean (Irun). **Galtzagorribaita** < *Galzagorri Baita (Senpere). **Ganborena** < *Villa Ganborena (Andoain). **Gangoitienea** (Gorliz). **Garaburuberri** < *Garaburu-berri (Andoain). **Garaibarri** (Bakio). **Garaigana** < *Garai Gane (Lezama). **Garateberria** < *Garate-Berria (Lekorne). **Garateborda** (Doneztebe). **Gardetxea** (Gartzain). **Garmendia** (Elizondo). **Gartxitonea** (Etxalar). **Gatzatxarra** (Getaria). **Gaulan** (Amaiur). **Gaztaneña** < *Gaztan-enea (Azkoitia). **Gaztelualde** (Amaiur). **Gernika** < *Guerrika (Ortzaize). **Geure Etxea** < *Geure-echea (Mungia). **Gloriaren Gutizia** (Oiartzun). **Gobeloki** (Getxo). **Goienetxe** < *Finca Goienetxe (Elizondo), < *Goienetxe etxea (Hiriberri). **Goienetxea** (Amaiur eta Irurita). **Goierra** (Arantza). **Goikoaldatsea** (Etxalar). **Goikogaña** (Lasarte-Oria). **Goizanibarrea** (Donamaria). **Goizargi** (Bardozen eta Elizondo), < *Goiz Argi (Aiziritze, Etxalar eta Irun), < *Goiz-argi (Hondarribia), < *Goiz-argui (Usurbil eta Lezama). **Goizeder** (Irurita), < *Goiz-Eder (Oiartzun). **Goizeguzki** < *Goiz eguzki (Usurbil). **Goizekoiguzkiari** < *Goiseko Iguskiari (Irisarri). **Gorena** (Donibane Lohizune). **Gorordoena** < *Gorordo-ena (Gorliz). **Gorri-gorria** < *Gorri Gorria (Bidarra). **Goxo-goxoa** < *Gocho Gochua (Aloze-Ziboze-Onizegaine). **Goxoki** (Irurita), < *Gochoki (Mugerre). **Gu Hau** < *GuHau (Lasarte-Oria). **Guardarena, Guardaren etxea** (Etxalar). **Gure Aintzane** (Goizueta). **Gure Ametsa** (Arano, Elizondo, Irun, Nabarte eta Oiartzun), < *Gure-Ametsa (Berriz), < *Gure Ametcha (Barkoxe), < *Gure ametsa (Goizueta eta Orbaizeta), < *Gure Ametsa (Lekuine eta Usurbil), < *Gure-ametsa (Hondarribia). **Gure Arte** (Erandio). **Gure Atherbea** (Beskoitze). **Gure Aterpe** (Irun). **Gure Atsedan** (Irun). **Gure Atsegina** (Oiartzun), < *Gure atsegina (Goizueta), < *Gure-Atseguña (Hondarribia). **Gure Babesa** (Andoain), **Gure Bakea** (Urdiñarbe). **Gure Borda** (Lasarte-Oria). **Gure Desira** (Irisarri). **Gure Doia** < *Gure Doya (Arboti-Zohota). **Gure Egoitza** (Arbona), < *Guregoitza (Itsasu). **Gure Eguzkilore** (Oiartzun). **Gure Erroak** < *Gure erroak

(Orbaizeta). **Gure Etxe Ttikia** (Zuraide). **Gure Etxea** (Lasarte-Oria, Lezama eta Donamaria), < *Gure-echea (Andoain), < *Gure-etxea (Usurbil). **Gure Herria** (Mugerre). **Gure Ideia** < *Gure Ideya (Arnegi). **Gure Itzala** (Oiartzun), < *Gure itzala (Etxalar). **Gure Izarra** (Lasarte-Oria). **Gure Izartxo** (Irun). **Gure Izerdia** (Oiartzun). **Gure Izkina** (Kanbo). **Gure Kabia** (Lasarte-Oria), < *Gure kabia (Oronoz), < *Gure Kabiya (Irun). **Gure Kaiola** < *Gure Kaiola (Hondarribia), < *Gure Kayola (Hiriburu), < *Guré-Kayola (Arrueta-Sarikota). **Gure Kuluxka** < *Gure kuluxka (Iru-rita). **Gure Lana** < *Gure-Lana (Irisarri). **Gure Lanetik** (Irun, Izturitze), < *Gure lanetik (Basusarri). **Gure Lore** (Irun). **Gure Lorea** (Doniztiri). **Gure Lurra** (Lasarte-Oria). **Gure Maitea** < *Gure-Maitea (Hondarribia). **Gure Munduko Atal Txikia** (Lemoiz). **Gure Nahia** (Amorotze-Zokotze eta Elizondo), < *Gure naya (Usurbil), < *Gure-Naia (Hondarribia), < *Gure nahia (Iru-rita). **Gure Ohantzea** < *Gure Ohantzia (Arrangoitze). **Gure Osotxo** (Lasarte-Oria). **Gure Parkea** (Lasarte-Oria). **Gure Patxada** < Gure Patxara (Hondarribia). **Gure Txoko** (Tolosa, Oiartzun), < *Gure txoko (Burgi). **Gure Txokoa** (Arizkun), < *Gure chokoa (Usurbil), < *Gure txokoa (Elizondo). **Gure Txokoan** < *Gure Chokoan (Arrueta-Sarikota). **Gure Xokoa** (Bardoze). **Gurea** (Baigorri). **Gurea Da** < *Guria-Da (Arrangoitze). **Gurena** (Arrangoitze). **Guretzat Ongi** < *Gure Tzat-Ongui (Ezpeleta). **Gurugu** (Getxo). **Gurutze** (Etxalar). **Gurutzeberri** < *Hotel Gurutze Berri (Oiartzun). **Gurutzegorri** < *Gurutze Gorri (Biri-riatu).

H: Haitzazpian < *Haitza Azpian (Azkaine). **Haizealde** < *Haize-Alde (Arrangoitze). **Haizegoa** < *Haize Egoan (Azkaine), < *Haize-Hegoa (Bidarra). **Haizeleku** < *Haize Leku (Ainhua). **Haizemaruma** < *Aice Maruma (Bidarte). **Haizpea** < *Haitz Pia (Garindaine). **Haritzarte** < *Haritz Artea (Aiherra). **Harribeltza** < *Harri Beltza (Landibarre). **Harriondoa** < *Harri Ondoa (Kanbo). **Harrixuria** < *Harri Churia (Donamartiri). **Harrizaharrak** < *Harri Zaharrak (Irulegi). **Hegialde** < *Héguia Aldé (Amorotze-Zokotze). **Hegiluzea** < *Heguiluzia (Landibarre). **Hegoalde** < *Hego Alde (Arboti-Zohota). **Hemen Bakean** (Basusarri). **Hemen Goxoki** < *Hemen Gotchoky (Mugerre). **Hemen Naiz** < *Hemen-naiz (Arbona). **Hemen Ongi** < *Emen Ongui (Arbona), < *Hemen Ongui (Arrangoitze).

Irurak Bat < *Iruak bat (Oiartzun). **Hirurena** (Biarritz). **Hirukantoin** < *Hiru Kantoin (Mugerre). **Hirusemeak** < *Hiru Semeak (Mugerre). **Hiruzedarriak** < *Hiru Zedarriak (Mugerre). **Hitzemana** < *Hitz Eman (Kanbo). **Hordago** (Arrangoitze).

I: Iantzienea (Baztan, Aniz). **Ibaialde** (Orbaizeta). **Ibaialdea** (Ituren). **Ibaiertz** < *Ibai-Ertz (Usurbil). **Ibaiondo** (Etxalar) < *Ybaiondo (Zamudio). **Ibarmendia** < *Ibar Mendia (Mugerre). **Ibarrena** (Armintza). **Ibarretxe** < *Iberreche (Lezama). **Ibarrertz** (Ajangiz). **Ibionxarko etxe-multzoa** < *Ibionxarko etxeak (Orbaizeta). **Igeretxe** (Getxo). **Ignazioenea** (Ituren). **Iguzkibelar** (Mugerre). **Iguzkikoetxea** < *Iguzkiko Etchea (Ahatsa-Altzie-ta-Bazkazane). **Iguzkileku** < *Iguski Leku (Lekuine). **Iguzkirat** < *Iguskirat (Luhuso). **Ikusi Ederra** < *Ikusi EdeRa (Gorliz). **Ikusmendi** (Gartzain). **Ikusteder** (Irun). **Ilargi** (Getaria). **Ilargibai** (Berriz). **Ilargiena** (Getxo). **Indianobaita** (Urdazubi). **Indianoenea** < *Indianoene etxea (Oiartzun). **Ingurueder** < *Inguru eder (Hondarribia). **Iniñgonea** (Ituren). **Iparbidea** (Etxalar). **Iparralde** < *Ipar Alde (Beskoitze). **Iparraldea** (Lekaroz). **Iparreatxikia** < *Iparrea txikia (Irurita). **Irati** (Orbara). **Iriberry** (Etxalar). **Iriondo** (Almandoz). **Iruanaiak** < *Hiru anaiak (Goizueta). **Irubide** (Lezama). **Irugarrena** (Getxo). **Irugazteak** < *Iru Gazteak (Oiartzun). **Iruiturri** < *Hiru Iturri (Lekaroz). **Irurak Bat** < *Yrurac bat (Getxo). **Irutxori** < *Iru Txori (Oiartzun). **Ithurrialde** < *Ithuria Alde (Mugerre). **Ithurri-ona** < *Ithurri Ona (Banka). **Itsasbegi** < *Itsas Begi (Getxo). **Itsaslore** (Getaria). **Itsasmendi** < *Itsas-Mendi (Basusarri). **Itsasobista** < *Itsaso Bista (Arrangoitze). **Ituregiko borda** (Erratzu). **Iturri** (Aria), < *Iturria-Etxea (Elizondo). **Iturrieder** < *Yturri-eder (Gorliz). **Iturrietxea** < *Iturri-Echea (Hondarribia). **Iturrikoa** (Almandoz). **Iturriotz** < *Torrea Iturriotz (Oiartzun). **Itxasalde** < *Ichasalde (Getxo). **Itxasbegi** Leioa). **Itxasgana** < *Itxasgane (Getxo), < *Itxas-gane (Leioa). **Itxasoalde** < *Ichaso-alde (Gorliz). **Itxasogana** < *Ichaso gane (Getxo). **Itzalpea** (Elizondo). **Ixil-ixila** < *Ixilixila (Bidarte). **Izargi** (Etxalar). **Izarpe** (Lezama). **Izarra** (Getaria). **Izarrartean** < *Izar Artean (Irun). **Izarrazpi** < *Izar azpi (Usurbil). **Izarreder** (Ornoz) < *Izar Eder (Behaskane-Laphizketa). **Izarrona** < *Izar Ona (Itsasu). **Izarzubi** < *Izar-zubi (Irun). **Izerdigoxoa** < *Izerdi-Gochoa (Ezpeleta).

J: **Jangabarri** < *Yanga-barri (Zamudio). **Jaumesaltsuko borda** (Ituren). **Jauregia** (Elbete). **Jazintena** < *Jacintena (Mungia). **Jesusena** < *Jesus-ena (Armintza). **Joakina** < *Joaquina (Arrieta Artzibar). **Jokiñenea** (Almandoz). **Jolasetaetxea** < *Jolaseta-Etxea (Getxo). **Juanbaita** (Doneztebe). **Juanitaenea** (Irun). **Juantxoenea** (Goizueta). **Justorena** (Mungia).

K: **Kabialde** (Azkoitia). **Kabilaenea** < *Kabila enea (Uztarroze). **Kabixiki** < *Kabi-Chiki (Irun). **Kadaltsoalde** < *Cadalso-alde (Lezama). **Kadaltsobarri** < *Cadalso-barri (Zamudio). **Kaialai** < *Kai Alai (Oiartzun). **Kaialde** (Getxo). **Kaibide** (Getxo). **Kaiertza** (Getxo). **Kaioabia** (Getxo). **Kaminoazpi** < *Camino Aspi (Zamudio). **Karlos-Lorea** < *Karlos Lorea (Abaurregaina). **Katalienea** < *Catali enia (Arbona). **Katuin** (Etxalar). **Kitolis** (Mugerre). **Komensolo** < *Comensolo (Zamudio). **Kontzepzioena** < *Concepcion enea (Usurbil). **Kristinaetxea** < *Cristina-Echea (Getxo). **Kuatronea** < *Cuatronia (Usurbil). **Kukukanta** < *Kuku Kanta (Azkaine). **Kukulazpi** (Burgi). **Kurlinka** (Hondarribia).

L: **Laguntzat** (Arbona). **Lakainalde** (Etxalar). **Laketetxea** < *Laket Echea (Akamarre). **Laketgarri** < *Laket Garri (Hazparne), < *Laket-Garri (Itsasu). **Laketleku** < *Lake Leku (Ainhoa). **Lamsfusena, Lamsfusen etxea** (Etxalar). **Landabarri** < *Landa-barri (Zamudio). **Landabidea** (Landabidea). **Landakoetxea** (Etxalar). **Landalore** < *Landa-Lore (Hondarribia). **Landaorlegi** < *Landa Orlegui (Zamudio). **Landetxea** (Etxalar). **Lanez Sortua** < *Lanes-Ortua (Leioa). **Larrabarri** < *Larra-barri (Leioa). **Larrabegarrena** (Lezama). **Larrabegana** < *Larrabegane (Lezama). **Larraberdi** < *Larrabe-erdi (Lezama). **Larrabetzuena** < *Larrabetzune (Leioa). **Larraburua** (Etxalar). **Larralde** (Bardoze). **Larramendienea** (Irurita). **Larrapilborda** < *Larrapil borda (Etxalar). **Larrarteberria** (Arizkun). **Larratxori** < *Larrachori (Hondarribia). **Larrebidea** < *Larre Bidea (Arrangoitze). **Larreburua** < *Larre Burua (Arrangoitze). **Larregain** (Etxalar). **Larregia** (Etxalar). **Larriu** (Elizondo). **Lastozkoetxea** < *Lastozko etxea (Artzibar). **Lauaizeak** < *Lau Haizeak (Etxalar). **Lauaizetara** < *Lau Hai-zetara (Irun). **Laüaizetara** < *Laü-Aizetara (Basusarri). **Lauaterpe** < *Lau Aterpe (Lasarte-Oria). **Laubide** (Ajangiz). **Laurak Bat** (Lezama). **Leire, Leirena, Leirenekoa, Leiretxea** < *Leyre etxea (Etxebarri). **Lekanda** < *Lecanda (Etxebarri). **Lekuairosa** < *Leku Airosa (Baigorri). **Lekualai** <

*Leku Alai (Oiartzun). **Lekuarin** (Etxalar). **Lekuberri** < *Leku berri (Usurbil). **Lekueder** (Getxo, Goizueta, Elizondo eta Irurita) < *Leku Eder (Lasarte-Oria), < *Leku-eder (Leioa). **Lekuederra** < *Leku-Ederra (Hondarribia). **Lekuona** (Etxalar) < *Lecu-ona (Hondarribia eta Lezama). **Lekuona**, **Lekuonarena**, **Lekuonaenea**, **Lekuonaetxea** < *Lekuona etxea (Goizueta). **Lekupolita** < *Leku Polita (Elizondo). **Lertegi** (Getxo). **Lezetako borda** (Arizkun). **Lilia** (Getaria). **Lintzinborda** (Etxalar). **Lizardibaita** (Lesaka), **Lizarietako benta** (Etxalar). **Loitsuenea** < *Lohitsuenea (Irurita). **Lopekoa** < *Lopekua (Orbaizeta). **Loperena-Muxika** < *Loperena&Muxika (Orbaizeta). **Lorabbarri** < *Lora Barri (Getxo). **Lorearte** < *Lore Arte (Elgorriaga). **Loreartean** < *Lore Artean (Hondarribia). **Loreazabalena** (Abaurrepea). **Lorea-Redin** < *Lorea&Redin (Orbaizeta). **Lorebat** (Irun). **Lorebidea** (Irun). **Loretoki** < *Lore-toqui (Hondarribia). **Lumaberde** < *Luma Berde (Biriatu). **Lurberri** < *Lur Beri (Azkaine). **Lurraska** (Lurraska). **Lurrederrean** < *Lur-Ederrean (Azkaine). **Lurxuria** < *Lur Churya (Arrangoitze).

M: **Maitena** (Abanto, Elizondo eta Garralda). **Maitenabaita** < *Maite-na-baita (Ziburu). **Maitetxu** < *Maitechu (Luhuso). **Maittona** (Etxalar). **Malakabaita** < *Malaka Baita (Azkaine). **Margaritarena** (Almandoz). **Maridonantonio** (Mungia). **Marijuli** < *Mari Juli (Oiartzun). **Marimanu** (Mungia). **Maripoxaenea** < *Maripoxa-enea (Lezo). **Maritxu** (Irun). **Marcosena** < *Marcosene (Mungia). **Martinaberria** (Arizkun). **Martinauspogindeg** < *Martin Ezpaindeg (Oiartzun). **Marttinena** (Aldude). **Medikuarena**, **Medikuaren etxea** (Etxalar). **Medixola** < *Mendi Xola (Bidarra). **Mendaurpe** (Ituren). **Mendia** (Hiriberri). **Mendiaire** < *Mendi Aire (Azkaine). **Mendialde** (Amaiur eta Etxalar) < *Mendi Alde (Arrangoitze). **Mendiazpi** < *Mendi Axi (Erandio). **Mendibarren** (Erandio). **Mendiberria** < *Mendi Berria (Aldude). **Mendibidea** (Etxalar). **Mendibista** < *Mendi Bista (Ziburu). **Mendibixta** < *Mendi-Bixta (Aiherra). **Mendibixtan** < *Mendi Bichtan (Arboti-Zohota), *Mendi Bixtan (Ezpeleta). **Mendigaina** < *Mendi Gaina (Arbona). **Mendikoairea** < *Mendiko-Airea (Luhuso). **Mendikoetxea** (Orbaizeta). **Mendilore** > *Mendi-Lore (Irun). **Mendiondo** < *Mendi-Ondo (Lezama). **Menditurria** < *Mendi Ituria (Elizondo). **Mendixokoan** < *Mendi Chokoan (Itsasu). **Mendizola**

< *Mendi Sola (Irisarri). **Merionea** (Doneztebe). **Mertxenea** (Amaiur). **Mikelenea** (Elizondo). **Mila Esker** < *Milesker (Senpere). **Mintegiondo** < *Mintegui-ondo (Ajangiz). **Mirenjosune** < *Miren Iosune (Irun). **Motxoenea** < *Mocho-Enia (Aloze-Ziboze-Onizegaine). **Mugalde** < *Muga Alde (Arnegi). **Munagana** < *Muna-gana (Leioa).

N: **Nahi Bezala** (Biriatu), < *Nai Bezala (Behobide). **Nahi Genduena** < *Naigenduena (Usurbil). **Nahi Nuena** (Oiartzun), < *Nahi-Nuena (Azkaine). **Nahi Tokian** (Azkaine). **Narbaro** (Amaiur). **Natienea** < *Natyenea (Ziburu). **Negartiena** (Erandio). **Neguetxea** (Gernika-Lumo). **Nerbioietxea** < *Nervion-Echea (Getxo). **Nere Ametsa** (Lasarte-Oria eta Arizkun). **Nere Kabia** (Gernika-Lumo). **Nere Torrea** (Oiartzun). **Nere Xokoa** (Aiziritze). **Nerea Baita** < *Neria Baita (Oiartzun). **Neskatoenea** < *Neskato-Enea (Azkaine). **Nik Nahi Nuena** < *Nik nahinuena (Leaburu). **Nikola** < *Nicolás (Aribe). **Nikolasenaberria** < *Nikolasene-Berria (Bidarra). **Nire Aitarena** < *Nere Aitana (Oiartzun). **Nire Ametsa** (Gernika-Lumo), < *Nire ametsa (Elizondo). **Nire Etxea** (Getxo). **Nire-nirea** < *Nire-Neria (Hondarribia). * (Senpere), **Noizbait** < *Noiz-Bait (Elizondo). **Nun Hobeki** < *Nun-Hobeki (Arnegi), < *Nun-Hobeky (Ainhoa), < *Nunhobeki (Narbarte).

Ñ: **Ñaorena** (Aria).

O: **Oiara, Oiaraetxea** < *Oiara etxea (Erratzu). **Oiarkoa** (Abaurrepea). **Oihanbidea** < *Oyan Bidea (Arrangoitze). **Oihantxokoa** < *Oyhan Chokoa (Behaskane-Laphizketa). **Oiztarrena** (Zubieta). **Olabarribarri** < *Olabarri-Barri (Lezama). **Olabidea** (Doneztebe). **Olabideko** (Orbaizeta). **Olaeder** (Arizkun). **Olako borda** (Etxalar). **Olatua** < *Olhatua (Haltsu). **Ollarretxe** (Getxo). **Ondartziri** (Getxo). **Onena** (Getxo). **Ongi Da** < *Ongui Da (Ziburu). **Ongi Etorri** (Sunbilla) < *Ongietorri (Andoain), < *Ongui-etorri (Usurbil), < *Ongi etorri (Irun). **Ontsa Gira** < *Ontsa-Gira (Itsasu). **Orai Aski** < *Orai-Aski (Izpura). **Orhoitzapena** (Arrangoitze). **Orialde** (Abaurregaina). **Oroitzapena** (Basusarri). **Orradrerena, Orradrenren etxola** < *Orradrenren etxola (Arizkun). **Okarbi** (Irun). **Otaxko** (Amaiur). **Oteitzenea** (Arraioz). **Otheleku** < *Othe Leku (Biriatu). **Otsobidekoetxea** < *Otsobideko etxea (Abaurregaina).

P: **Pabloenea** (Arantzeta). **Pakea** (Usurbil). **Pardix, Pardixetxea** < *Pardix etxea (Orbaizeta). **Pausalekua** < *Pausa Lekua (Hazparne). **Pausona** < *Pauso Ona (Behobide). **Pelloena** < *Pello ena (Plentzia). **Peñaenea** < Peñaenea (Irun). **Petra, Petraetxea** < *Petra etxea (Burgi). **Pettubero** (Hiriberri). **Politena** (Irun, Lezama). **Primaderakolorea** < *Primaderako Lorea (Senpere).

R: **Rafaelena, Rafaelen etxea** (Aria). **Romanena, Romanen etxea** < *Romanen etxea (Etxalar).

S: **Sagarlore** < *Sagar-Lore (Hondarribia). **Salaburuandia** < *Salaburu handia (Elizondo). **Salbadorarena, Salbadoraren etxea** (Etxalar). **San Jo-seren etxea** < *San Jose Ren Etxia (Getxo). **Santa Klara** < *Santa Clara (Getxo). **Saratzagabari** < *Zarasa-barri (Zamudio). **Sarobe** (Etxalar). **Sarrialde** (Mungia). **Senideartea** (Oiartzun). **Solokoetxe** (Lezama). **Solondo** (Lezama). **Sorlekua** < *Sor Lekua (Ziburu). **Sorlurrean** < *Sor Lurrean (Arnegi). **Soroaldea** (Garralda). **Soroaldekoa** (Garralda). **Sorrogaina** < *Sorrogaina (Basusarri). **Sortabidea** < *Sorta-Bidia (Kanbo). **Sototxiki** < *Soto Txiki (Irun). **Sutegibari** < *Sutegui-barri (Zamudio).

T: **Tokialai** (Tolosa) < *Toki Alai (Azkoitia, Ezkurra eta Lasarte-Oria), < *Toki-Alay (Usurbil). **Tokiargi** < *Toki Argi (Lasarte-Oria). **Tokiarin** (Etxalar). **Tokieder** (Arizkun, Almandoz, Bardoze eta Elizondo) < *Toki Eder (Azkaine, Irun), < *Toki-Eder (Ainhua), < *Toqui Eder (Andoain). **Tokiederra** < *Toqui-ederra (Lezama). **Tokigoxo** < *Toki-Goxo (Irun). **Tokigoxoa** < *Toki Gochua (Ziburu). **Tokiona** (Etxalar) < *Toki Ona (Amorotze-Zokotze), < *Toki-Ona (Hondarribia). **Txapar-Zabaltza** < *Txapar&Zabaltza (Orbaizeta). **Txarantxagoikoa** < *Txarrantxa Alta (Oiartzun). **Txarantxabekoa** < *Txarrantxa Baja (Oiartzun). **Txautxaba** < *Chalet Txau-Txaba (Hondarribia). **Txerbolakoa** (Garralda). **Tximistako borda** (Etxalar). **Tximistondo** (Etxalar). **Txintxinpe** (Artzibar). **Txistu** (Etxalar). **Txokoberri** (Almandoz eta Irurita). **Txokolateroena** < *Chocolateroena (Mungia). **Txokomaite** < *Txoko-maite (Hondarribia). **Txokomaitea** < *Choco-Maitea (Usurbil), < *Txoko maitea (Leaburu). **Txokorik Ederrena** (Irun). **Txokotxiki** < Txoko Txiki (Oiartzun). **Txoriekin** (Etxalar). **Txorienea** (Ajangiz). **Txulaenegoikoa** < Txulaene-Alta (Oiartzun). **Txupetxabari** < Chupecha-barri (Lezama). **Txuri-beltz** (Getaria)

U: **Udondobarri** < *Udondo Barri (Erandio). **Ugaranetxea** < *Ugaran etxea (Azkoitia). **Ugarte-Olaeta** < *Ugarte-eta Olaeta-ren etxia (Gorliz). **Unaia** < *Unaya (Arnegi). **Uramendi** (Etxalar). **Urbazterra** < *Ur-Bas-terra (Hondarribia) < *Hur Baztera (Arnegi). **Urbegia** < *Ur-Beguia (Be-raskoitze). **Urdinbaita** (Lesaka), **Urdoz**, **Urdozetxea** < *Urdoz etxea (Erratzu). **Urepel** (Garralda). **Urgaina** < *Ur Gaina (Behaskane-Laphizke-ta). **Urgana** < *Urgane (Erandio). **Urgoiti** (Lezama). **Urkidigain** (Geta-ria). **Urkiolaberri** (Getaria). **Urkiondo** (Andoain). **Urkixo**, **Urkixoena**, **Urkixoetxea** < *Urkijo etxea (Getxo). **Urrenabarri** < *Urrena-barri (Le-zama). **Urrutia** < *Urrutia, Casa (Hiriberri). **Urrutikoa** (Abaurregaina). **Urtekoetxea** (Elizondo). **Urtsuondoa** (Arizkun). **Urtxindor** < *Ur-txin-dor (Hondarribia). **Urtzelai** (Etxalar). **Urxoko** < *Ur Choko (Biriatu). **Urziar** < *Ur Ziar (Oiartzun). **Usategi** (Etxalar). **Usozelai** < *Uso Zelai (Ortzaize). **Ustegabea** < *Uste-Gabia (Arrangoitze).

V: **Villa Agirre**, **Agirrena** < *Villa Aguirre (Getxo). **Villa Ainara** > **Ainaraenea** (Hondarribia). **Villa Aizeder** < *Villa Aice Eder (Hondarri-bia). **Villa Anjelitatxo**, **Anjelitatxoenea** < *Villa Angelitacho (Hondar-ribia). **Villa Argia** (Elizondo). **Villa Ariztegi** > **Ariztegienea** (Elizondo). **Villa Donostia** < *Villa Donosti (Gartzain). **Villa Eder** < *Villa-eder (Usurbil). **Villa Ederra** (Getxo). **Villa Elkar** (Irun). **Villa Esperantzaxi-pia** < *Villa Esperanza Txipia (Elizondo). **Villa Izarzuri** < *Villa Izar-Zu-ri (Hondarribia). **Villa Maritxu** (Elizondo). **Villa Ondargain** < *Villa Ondar-gain (Hondarribia). **Villa Paialde** < *Villa Play-alde (Hondarri-bia). **Villa Polita** (Lezama eta Hondarribia). **Villa Txiki** < *Villa-chiqui (Usurbil). **Villa Txingurri** < *Villa Chingurri (Hondarribia). **Villa Ur-kixo** < *Villa Urquijo (Getxo). **Villa Urondo** < *Villa Ur-Ondo (Hon-darribia).

X: **Xindolaberri** (Etxalar). **Xokobia** < *Chocobia (Arbona). **Xokona** < *Choco Ona (Ahetze), < *Choko Ona (Arberatze-Zilhekoa), < *Chokoo-na (Behauze). **Xoko-xokoan** < *Choko Chokoan (Ziburu). **Xoriak Kan-tuz** < *Choriak-kantuz (Ahetze). **Xoriekin** (Arrueta-Sarrikota eta Bardo-ze). **Xorikanta** < *Chori Kanta (Ahetze), < Chori-Kanta (Hazparne). **Xumilenea** (Etxalar).

Z: **Zabala-Bizkai** < *Zabala & Bizkai (Orbaizeta). **Zabalalde** < *Zabal Alde (Lezama). **Zabaldi** (Etxalar). **Zatiberri** < *Zati-berri (Burgi). **Zazpiak Bat** (Irurita). **Zazpihaitzak** < *Zaspi Haitzak (Urdiñarbe). **Zelaia** < *Zelaia Etxadia (Oiartzun). **Zelaialde** (Lezama). **Zelaiardi** < *Zelai-erdi (Burgi). **Zelaieta** < *Celayeta (Lezama). **Zelaietxe** < *Celayeche (Lezama). **Zerua** < *Sherua (Irun). **Zerubide** (Gorliz). **Zokobi** < *Sokobi (Biriatu). **Zoragarri** < *Soragarri (Hondarribia). **Zoriona** (Hondarribia). **Zortziko** (Irun) < * [Villa] Zorcico (Hondarribia). **Zuaitzondo** < *Zuhaitzondo (Elizondo). **Zubialde** (Abanto). **Zubiartea** (Arizkun). **Zubiaurre** (Lezama). **Zubierdi** (Etxalar). **Zubiondo** (Etxalar). **Zubipunta** < Zubi Punta (Izpura). **Zubizarretaenea** (Zizurkil). **Zuhaitzetik** (Arrangoitze). **Zuk eta Nik** < Souk eta Nik (Azkaine). **Zure Etxea** (Irun). **Zurgiñenea** < *Zurgiñenea (Zubietza). **Zurginetxea** (Elizondo).

Bibliografia eta iturriak

a. Liburu eta artikulak

APEZETXEA, P. eta SALABERRI, Patxi (2009). *Etxalarko etxeen izenak*. Etxalar: egileon argitalpena.

BATZUK (2018). *Aezkoako etxeen izenak*. Iruñea: Aezkoako Batzarre Nagusia.

——— (2019). *Artzibarko etxeak- Las casas del Valle de Arce*. Eskirotz: Pamiela.

BIDART, Asier, ETXEBARRIA, A. (2003). *Lezamako Toponimia*. Bilbo: Labayru Fundazioa & Lezamako Udala.

BIDART, Asier, APRAIZ, A. (2006). *Etxebarriko Toponimia*. Bilbo: Labayru Fundazioa & Etxebarriko Udala.

DOIKE ESKUARA TALDEA (2005). *Baztango etxeen telefono gida*. Elizondo: Doike.

EGAÑA ABAD, A. (2014). *Urdulizko Leku-izenak. Toponimia de Urduliz*. Urduliz: Urdulizko Udala.

EIBARKO UDALA, Ego Ibarra Batzordea (1995). *Eibarko Hiri-toponimia*. Onomasticon Vasconiae 13. Bilbo: Euskaltzaindia.

ERDOZIA, Jose Luis (2019). *Etxarri Arana*zko leku-izenak herrigune historikotik kanpo. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

EUSKALTZAINDIA (1979). «Bergarako biltzar ondoko erabakiak», *Euskera* aldizkariaren separata, 21-22: 53-57.

FURUNDARENA, Juan Jose (2002). *Hondarribiko toponimia*. Bilbo: Euskaltzaindia.

FURUNDARENA, Juan Jose, ZALDUA, Luis Mari (1996). *Donostiako toponimia*. Donostia: Donostiako Udala & Etnogintza.

GOIKOETXEA, Imanol, LEKUONA, I. (2013). *Oiartzungo toponimia*. Oiartzun: Oiartzungo Udala.

GORROTXATEGI, Mikel (2010). *Getxoko izenak, aldeetxe eta leku izenak. Nombres de caseríos y lugares*. Getxo: Getxoko Udala.

IÑIGO, Andres (1996). *Toponástica Histórica del Valle de Santesteban de Lerin*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

IÑIGO, Andres, REKALDE, Paskual (2018). «Euskal oikonomia Baztan-Bidasoa eremuko lekukotasun historikoen argitan», *Engraxitik Garazira. Izenen misterioa Nafarroan*, Zizur Txikia: Aranzadi, 163-249.

KNÖRR, Henrike, MARTÍNEZ DE MADINA, Elena (2009). *Gasteizko Toponimia I, Hiria*. Onomasticon Vasconiae 27. Gasteiz: Euskaltzaindia.

MINISTÈRE DES POSTES, TÉLÉGRAPHES ET TÉLÉPHONES (1988). *Annuaire officiel des abonnés au téléphone. Pyrénées-Atlantiques*, 1988. Paris : Ministère des postes, télégraphes et téléphones.

PERURENA, Patziku, SALABERRI, Patxi eta ZUBIRI, Juan Jose (2011). *Goi-zuetako etxeen izenak*. Iruñea: Pamiela.

b. Lan argitaragabeak

DIBON, P. (2019). *Bardo*zko etxe-izen berriak. Txosten argitaratu gabea.

GORROTXATEGI, Mikel (2019). *Etxe-izen berriak*. Txosten argitaratu gabea.

Onomastika batzordekideen ekarria.

c. Interneteko baliabideak

1. ALLIKA, I., URIARTE, B. (2007). *Bermeoko toponimia*.
<http://www.bermeo.org/toponimia/>.
2. EAEko Izendegi Geografiko Ofizialeko datuak. HPS.
<https://www.euskadi.eus/app/eaeko-izendegi-geografikoa/nomenclator/>.
3. *Ttípi-Ttáparen* telefono gida, 2019.
<https://erran.eus/telefono-gida/>.
4. Lesakako Euskara Batzordea. Lesakako etxeen gida.
<http://www.lesaka.eus/wp-content/uploads/2020/12/Lesakako-etxeen-izenak.pdf>.

Onomastika batzordeak 2019ko abenduaren 17an Agurainen onartua,
2020ko azaroaren 24an Bilbon berretsia.



Eskualduna astekariko kideak eta laguntzaileak

Miembros y colaboradores del semanal *Eskualduna*

Membres et collaborateurs de l'hebdomadaire
Eskualduna

Members and collaborators of the weekly *Eskualduna*

BIDEGAIN, Eneko
Mondragon Unibertsitatea

GOSTIN, Andres
Mondragon Unibertsitatea

Noiz jaso: 2020-12-21
Noiz onartua: 2021-03-09

Euskera. 2020, 65, 2. 363-400. Bilbo
ISSN 0210-1564

Dozenaka lagunek parte hartu zuten *Eskualduna* astekarian, gisa batez edo bestez. Orain arte agertutako izen zerrendatik harago, ez zen xehetasun handirik kide gehienei buruz. Kide horien sorterriak, sortegunak, lanak, lantokiak, karguak eta abar bildu dira lan honetan, laguntzaile bakoitzaren biografia txikia egiteko eta, bereziki, *Eskualdunaren* argazki xeheagoa egiteko. Astekariak Ipar Euskal Herri osoan zeuzkan laguntzaileak, eta asko ziren ardura politikoren bat zutenak.

Gako-hitzak: *Eskualduna*, euskal prentsa, euskaltzaleak, Ipar Euskal Herria.

Docenas de hombres y mujeres tomaron parte en el semanal *Eskualduna*. A parte de los nombres aparecidos hasta la fecha, no había muchos detalles sobre la mayoría de estas personas. En este artículo se han recopilado los lugares y fechas de nacimiento, trabajos, lugares de trabajo, cargos etc. de estas personas, con el fin último de completar la biografía de dichos colaboradores y hacer la fotografía de *Eskualduna* mas definida. Son muchos los colaboradores que el semanal tenía en el País Vasco Norte, algunos de de los cuales ostentaban a su vez cargos políticos.

Palabras clave: *Eskualduna*, prensa vasca, euskaltzales, País Vasco Norte.

Des dizaines d'hommes et de femmes ont collaboré à l'hebdomadaire *Eskualduna*. Mis à part les noms de ces collaborateurs, on ne savait pas grand-chose d'eux. Cet article nous donne leurs lieux et dates de naissance, leurs métiers, lieux de travail, fonctions, afin d'enrichir leurs biographies et de donner une image plus précise de *Eskualduna*. Cet hebdomadaire avait de nombreux collaborateurs en Pays Basque Nord et certains d'entre eux avaient des responsabilités politiques.

Mots-clés : *Eskualduna*, presse basque, euskaltzales, Pays Basque Nord.

Dozens of people took part in the weekly *Eskualduna* in one way or another. Beyond the lists of names that have appeared so far, there has been little detail about most of the members those stakeholders. Their origins, dates, jobs, workplaces, positions, etc. have been gathered in this work to offer a short biography of each contributor and, in particular, a more detailed view of *Eskualduna*. It had supporters from all over the Northern Basque Country, and many of them had political roles.

Keywords: *Eskualduna*, Basque press, Basque language enthusiasts, northern Basque Country.

1. Sarrera

Euskal prentsaren historiaren oinarri funtsezkoa zen *Eskualduna* astekaria (1887-1944), ez bakarrik euskarazko lehenbiziko hedabide iraunkorra izan zelako, baita ere hainbat euskal idazle ezagunek hartu baitzuen parte: Jean Etxepare, Jules Moulier *Oxobi*, Piarres Lafitte, Jean Barbier, Jean Elizalde *Zerbitzari*, Jean Saint-Pierre *Anxuberro*... Baina beste dozenaka lagunen lumarekin eta beste zenbaiten laguntza materialarekin edo ekonomikoarekin ere bete zituzten orrialdeak. Artikulu honen helburua da astekari hartako partaide jakin guztien zerrenda osatzea, bakoitza nor zen identifikatzea eta haien bizitzaz xehetasun batzuk ematea.

2. Aurrekariak

Eskualduna astekariak Baionan zuen egoitza, eta Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako berriak ematen zituen, mundu zabaleko berriez gain. 1908tik aitzina, astean 7.000 ale banatzen zituen Ipar Euskal Herrian, barnealdean bereziki, eta hura zen Ipar Euskal Herriko astekari irakurriena (Bidegain 2012: 119-122). Gehiena euskaraz zen. Frantzian, Errepublikak berriz ezarri ondoren, monarkia eta, are, bonapartismora itzultzearen aldekoa zen astekari hori (Bidegain 2012: 100-106).

Lehendik ere hainbat aldiz aipatu zen astekari hori, baina aipatzen duten lan gehienak Manex Hiriart-Urrutiri buruzkoak dira (Lafitte 1971a; Intxausti 1972; Camino 1994; Altzibar 2004). Hura izan zen astekariko zuzendari zalapartatsuena, eta ikerlarien interesa piztu zuena. Nahiz eta gaia Hiriart-Urruti izan, astekariaren historiaz eta estiloaz xehetasun anitz eman zuten. Euskal prentsaren historiari buruzko zenbait lanek (Diaz Noci 1994, 1995) ere aipatzen dute astekari hori. Piarres Xarriton euskaltzainak 1987an *Eskualduna* astekariaren mendeurrenaren karietara egin zuen artikulua (Xarriton 1987) ere biziki baliagarria da astekariaren historia osatzeko, baita ere hark landutako Jean Saint-Pierreren biografia (Saint-Pierre “Anxuberro” 1998) edota Jean Etxeparerena (Charriton 1988, 1992). Aipatu behar dira Kepa Altonagak (2006) idatzi biografia eta Jon Casenaveren (2002) tesia

ere. Azken honen lanekin, Etxeparez aparte, Etxepareren belaunaldiaz hainbat xehetasun jakiteko parada dago. Halaber, Patri Urkizuk Jean Elizalde *Zerbitzariren* lanekin osatutako bildumaren sarrera (Urkizu 1995) ere aurrekariaren zerrendan sartu behar da.

Baina, funtsean, oinarrizko lana, ikerlari guztiek aipatzen dutena, Piarres Lafitterena da (1971b). Lafittek zerrendatu zituen astekari hartako partaideak, eta xeheki kontatu zituen astekariaren gorabeherak. Lafitteren lanari interesatu zitzaion Amelia Hernández (2001), eta zerrendatu zituen Lafitteren garai berean astekarian idatzi zuten pertsonak, Lafitteren lanean oinarrituz eta astekarian agertu ziren sinadurak zerrendatuz.

Hernándezek aipatzen duen “Lafitten sare intelektuala” osatzen zuten pertsonak ez zuten bakarrik, edo bereziki, *Eskualdunan* idazten, baizik eta baita *Gure Herria*, *Bulletin du Musée Basque* eta *Aitzina* aldizkarietan ere (Hernández 2001: 582). Hernándezek zerrendatu zituen aldizkari horietan guztietan idatzi zuten pertsonak, betiere bost artikulutik gora idatzi zutenak, eta neurtu zuen horietatik zein ziren “ohiko lankideak”, hala nola *Eskualdunan* idatzitako artikuluen % 60 baino gehiago (274 artikulua) idatzi zutenak (Hernández 2001: 584). Zerrenda honen arabera, egile produktiboak (sinatu zutenak) ziren, gehien idatzi zuenetik hasirik: Pierre Duhour, Maurice Otacéché, Domingo Soubelet, Pablo Fermin Irigarai, Xalbat Arotzarena eta Piarres Lafitte (Hernández 2001: 591). Zehaztu behar da, ordea, *Eskualdunaren* lehen hamarkadetan, artikulua gehienak izenpetu gabeak zirela. Beraz, ezin gatazka osoki irizpide horri fidatu, laguntzaileen sarea osatzeko.

Hernándezen zerrenda gehitu diogu Lafittenari. Lafittek proposatutako zerrendak, ordea, bazituen gabezia batzuk, hala nola, gehienetan, idazleen deiturak baizik ez ematea. Zerrenda horrek ez du balio partaide guztiak ezagutzeko. Ez zuen askotan zehaztu nor ziren, nongoak ziren, noizkoak, zer egin zuten... Deitura horien gibelean zein pertsona zegoen bilatu behar zen. 1918ra arteko kolaboratzaileen zerrenda osatu zen (Bidegain 2012), eta haietako ahal bezainbat identifikatu. Falta zen, ordea, gainerakoak hobeki identifikatzea eta 1887tik 1944ra arteko guztiak zerrendatzea, zerrenda bakarrean.

3. Ikerketa galderak eta metodologia

Ikerketa lan honen helburua da ahal bezain xeheki jakitea zein ziren *Eskualdunako* partaideak, eta horren bidez, ezagutaraztea euskal kulturari ekarpena egin zioten baina hain ezagunak ez ziren pertsonak. Horrekin batera, ez dugu bakarrik idazle zerrenda bat osatu nahi; atera nahi dugu astekariaren argazki orokorra, ondoko ikerketa galdera hauen bidez:

- Zein ziren *Eskualduna* astekarian parte hartzen zuten pertsonak?
- Nolakoa zen *Eskualduna* astekariaren laguntzaileen mapa? Ipar Euskal Herriko eskualde guztietatik ba ote zen parte-hartzailerik?
- Nolakoa zen laguntzaile multzoaren profila? Zein ofiziokoak ziren? Zein kargu zeukaten, kargurik baldin bazuten?

Galdera horiei erantzun ahal izateko, bilaketak egin dira *Euskera* aldizkarian eta, oroz gainera, Eskualtzaleen Biltzarreko kongresuen aktetan (1905, 1913), Lafittek deituraz bakarrik izendatutakoen nortasuna jakin ahal izateko. Akta haietan agertzen zen pertsonen zerrenda Lafitteren zerrendarekin erkatuz, zenbait pertsona identifikatu ahal izan dira. Zenbait kasutan, laguntzaileen ofizioa ere zehaztu zuen Lafittek (bereziki apaizak zirenean). Apaizen kasuan, Baionako apezpikutegiko artxiboko apaizen erregistroan egin dira bilaketak, eta baita Daranatzen liburuan (1924) ere. Behin izen-deiturak lortuta, *Gure Herria* aldizkarian edota *Eskualduna* eta *Herria* astekarietan jarraitu dira bilaketak, pertsona horien heriotzen berriak irakurtzeko.

Astekariari buruzko datu administratibo gehiago jakiteko, astekarian be-rean begiratu da, izenburuaren ondoan ageri baitziren xehetasun legalak (kudeatzailea, inprimatzailea, helbidea). Bestalde, astekaria inprimatzen zuen sozietatearen estatutuak (1917) ere kontsultatu dira. Halaber, Baionako suprefeturaren garai hartako agiriak kontsultatu dira Paueko Artxiboan, astekariari buruzko datu administratibo gehiago lortzeko. Zerrenda horretan agertzen diren pertsonen sortze eta heriotza datak, falta zirenean, begiratu dira Pirinio Atlantikoetako artxiboan dauden estatu zibileko aktetan. Eta akta horiek artxiboan eskuragarri ez zeudenean (berriegiak zirela-

ko), bilatzen zen pertsonaren herriko Herriko Etxean galdetu zen aktaren kopia igortzea.

Azkenik, bilatutako informazio hori guztia xeheki sailkatu da, datu base batean.

4. Emaitzak

Jarraian zerrendatuko ditugu *Eskualduman* gisa batez edo bestez parte hartu zuten pertsonak, eta ahaleginduko gara haien biografia txiki bat egiten.

4.1. Zuzendariak

Eskualdunako kideen artean, zuzendari kargua izan zutenak dira ezagunenak, haiek markatu zutelako bakoitzaren garaiaren ildoak. Erredaktore lanetan ari zirenak bezala, zuzendari kargua zuten pertsonak ere ez ziren profesionalak. Zuzendari horiek beste ofizio bat zeukaten, astekariko arduraz gain. Orainsu arte, zuzendari guztien izenak ezagunak baziren ere, zenbait duda agertzen ziren, data batzuen inguruan. Ondoko zerrendaren asmoa da duda horiek guztiak argiturik uztea, aldizkariaren edukiak eta administrazioko artxiboak begiratu ondoan.

Louis Etcheverry (Baiona, 1853ko otsailaren 22a – Donazarre, 1907ko urriaren 15a) izan zen lehen zuzendaria. Ofiziosz notarioa zen, Donazarren. Asmo politikoekin sortu zuen astekaria. Alderdi bonapartistako kide zen. Zuzenbideko doktoretza atera zuen Parisen. 1889an Frantziako diputatu hautatu zuten, Mauleko hauteskunde barrutian. Ondoko urtean, Donazarreko auzapez bihurtu zen, eta Garaziko herri elkargoko sindiko (Lafitte 1953: 342). 1901eko uztailaren 19ko *Eskualduna* astekarian, zuzendaritza kargua uzten zuela iragarri zuen, izan zituzten desadostasun batzuen ondorioz (Lafitte 1971a: 3).

Renaud d'Elissagaray (Atharratze, 1871ko maiatzaren 8a – Baiona, 1950eko martxoaren 6a) kazetaritza lanetan ibilia zen Parisen, eta horregatik hartu zuten astekariko zuzendari. Etcheverry eskuinekoa bazen, hau are

eskuinagokoa; Edouard Drumont Parisko politikari eta kazetari antisemitarren laguna zen (Xarriton 1987: 248). Bi urte eta erdiz baizik ez zen egon zuzendari karguan. 1908tik 1914ra Gironde departamenduko diputatu izan zen, independente gisa.

Nicolas d’Arcangues (Baiona, 1858ko agorrilaren 17a – Arrangoitze, 1926ko ekainaren 6a) Arrangoitzeko markesa zen, Frantziako armadako zalditeriako kapitain. Monarkiaren aldeko politikari giristinoa zen. 1895ean bihurtu zen Uztaritzeko kantonamenduko kontseilari nagusi. 1910ean Frantziako Legebiltzarrerako hauteskundeetan aurkeztu zen, Baionako hautesbarrutian, erregezale gisa. Hauteskundeak galdu zituen, ordea.

Nahiz eta zuzendari ofiziala izan, ez bide zuen hark agintzen (Lafitte 1971a: 34). Astekaria kudeatzen zuena Manex Hirart-Urruti zen, ordurako. Zuzendari kargua noiz arte izan zuen zehazten duen datarik ez dago. 1909an, ofizialki, astekariko zuzendari gisa ageri zen, eta 1914an epaitu zuten, egunkariaren jabe gisa, difamazio kontu bategatik.

Jean Hiriart-Urruty (Hazparne, 1859ko urtarrilaren 30a – Baiona, 1915eko azaroaren 4a) izenarekin lotzen dugu *Eskualduna* astekaria. Hala ere, ez dago artikulurik zuzendari kargua hartu zuela azaltzen zuenik. Lafitteren ustez (1971b), 1904an jadanik zuzendari lanak egiten zituen, kargua beste batek bazuen ere. Hiriart-Urruti 1907an bihurtu zen Baionako kalonje.

Hamahiru urtetan joan zen Larresoroko seminario ttipira, ikastera. Ikasle hoberenetako bat omen zen (Lafitte 1971a). Gero, Baionako seminario handira joan zen, eta han Arnaud Abbadie izan zuen irakasle. Hura ere *Eskualdunako* partaidea zen. 1881ean berriz elkartu zen harekin Larresoron, baina lankide gisa, alemaneko eta erretorikako irakasle gisa hasi baitzen lanean, Abbadiek eskaturik. Ikasle izan zituen gerora *Eskualduman* idatzi zuten eta euskal idazle aski ezagunak izan zirenak: Jean Etxepare, Jean Saint-Pierre, Jules Moulier *Oxobi* eta Jean Elizalde *Zerbitzari*.

Hiriart-Urrutik aldaketa handiak egin zizkion astekariari. Zuzendari zen garaian, indar handia egin zuen laguntzaile sarea zabaltzeko eta Ipar Euskal Herri osoko herrietako berriemaileak lortzeko (Altzibar 2004).

Ikus, halaber, Bidegileak bilduma (Arbelbide 1998) eta Camino (1994).

Blaise Adéma (Senpere, 1861eko urriaren 2a – Baiona, 1936ko maiatzaren 7a), Gratien Adéma *Zaldubiren* iloba, 1918ko agorrilaren 8an izendatu zuten zuzendari, Baionako apezpikuak kalonje kargura deitu zuenean. Manex Hiriart-Urruti hil ondoin, astekaria zuzendari ofizialik gabe egon zen zenbait denboraz (Lafitte 1971b). Baina, garai hartako editorialak Blaise Adémak idatzi zituen (Bidegain 2012: 225-229).

Hiriart-Urrutik bezala, Larresoron eta Baionan egin zituen apaiz ikasketak, eta Larresoroko irakasle izan zen 1884tik 1906ra, Frantziako historia-geografia irakasle gisa. 1906an Sarako erretore izendatu zuten, eta 1910ean Uztaritzeko erretore nagusi. Uztaritzen Jean Elizalde *Zerbitzari* izan zuen bikario. 1895ean hasi zen *Eskualduman* idazten (Lafitte 1971b), erran nahi baita, lanean eta astekarian, Hiriart-Urrutirekin harreman hurbila izan zuela. 1925era arte izan zen zuzendari. 1919an Euskaltzaindiaren sorreran parte hartu zuen (Euskaltzaindia 2009).

Jean Saint-Pierre Antxuberro (Milafranga, 1884ko urtarrilaren 18a – Baiona, 1951ko abenduaren 18a) Larresoroko eta Baionako apez-eskolako irakaslea izan zen. 1906an letretako lizentzia hasi zuen Tolosan (Okzitania), eta 1908an teologiako doktoretza Erroman. 1910ean Baionako San Andres elizako bikario bihurtu zen. 1912an Hazparnera joan zen, eta 1914an Naye-eko eskolako moral irakasle jarri zuten. 1914tik 1918ra, gerrara joan behar izan zuen. 1918ko martxoan alemanek preso hartu zuten, eta gerla bukatu arte preso egon zen Limburgen.

Gerla bukatu ondoin, Baionako apez-eskolara joan zen irakasle gisa. Haren irakasle izan ziren, besteak beste, Piarres Lafitte, Domingo Soubelet edota Leon Leon, gerora astekariko parte-hartzaile izan zirenak. Bestalde, harekin gerlan ibili ziren beste idazleekin, *Gure Herria* hilabetekaria sortu zuen, 1921ean. 1919tik landa, Hego Euskal Herriko *Euzkadi* egunkari jeltzalean idatzi zuen. 1925ean hartu zituen *Eskualdunako* zuzendari eta Baionako kalonje karguak. 1930ean, apezpiku bihurtu zen, Kartagon (Tunisia) lehenik, eta Gordusen gero. 1937an itzuli zen Euskal Herrira. Eusko Ikaskuntzako presidente ardura hartu zuen 1948an, eta ondoko urtean euskaltzain egin zuten.

Xehetasun gehiago: Bidegileak bilduma (Xarriton 2003) eta Saint-Pierren artikulu bilduma Xarritonen edizioan (1998).

Domingo Soubelet (Hazparne, 1897ko agorrilaren 10a – Baiona, 1970eko uztailaren 28a) Belokeko ikasle izan zen, eta Erromako unibertsitatean egin zuen teologiako lizentzia. Kalonje hautatu aitzin, bi urtez egon zen bikario Donibane Lohizunen, eta beste bi urtez Baionan. 1937an Azkaratera igorri zuten, erretore gisa, eta 1947an Hazparnera, misionest modura. Euskarazko bederatzia libururen egilea da, eta beste bat idatzi zuen frantsesez. D. Etchegoyen izenordearekin izenpetzen zituen astekariko artikuluanit. Horrez gain, euskaltzain urgazle egin zuten 1951n.

Sauveur Arotçarena (Izturitze, 1892ko martxoaren 29a – Baiona, 1966) Maulen hasi zen bikario gisa eta Landibarren erretore gisa. Handik Baionara joan zen. *Eskualduna*ko zuzendari gisa aritu zen Bigarren Mundu Gerra piztu zenean. Pétain mariskalaren eta Alemaniaren alde jarri zen, eta juduen eta komunisten kontra, errotik. Alemaniak gerla galdu ondoren, preso sartu zuten Eyssesen (Frantzia) Vichyko Gobernuarekin kolaboratzeagatik. Liberazioaren gortean epaitu zuten. Zazpi hilabetez preso egon ondoren itzuli zen Euskal Herrira. Ordurako *Eskualduna* astekaria debekatua zuten, eta *Herria* astekariak hartua zuen segida, Piarres Lafitteren gidaritzapean. Ez zuen astekari hartan parte hartu, edo arras gutxi. Gerlatik landa euskaraz eta euskarari buruz idazten jarraitu zuen.

4.2. Astekariaren bultzatzaileak

Zuzendariak aipatzean, aldizkariaren ibilbide kronologiko laburra egin dugu. Baina komeni da argitzea zein izan ziren astekariaren bultzatzailetzat jo diren pertsonak.

Bertrand Belsaguy (Donibane Lohizune, 1821eko otsailaren 24a – 1892ko maiatzaren 19a) apez gisa ibili zen Donapaleun, Bithirinan, Senperen eta, azkenik, Donibane Garazin. *Eskualdunaren* arabera, hura izan zen astekariaren bultzatzaile nagusietako bat. Abizena “Beltzagi” gisa idatzi izan da aurreragoko dokumentu batzuetan.

Jean Etcheverry (Senpere, 1855eko apirilaren 7a – 1909ko iraila) Kanboko bikario gisa aritu zen denbora franko, eta azken hamazazpi urteak Martxuetako erretore gisa iragan zituen. Anitz parte hartu zuen astekarian, besteak

beste itzulpen lanak egiten, eta hark galdegin zion Manex Hiriart-Urrutiri lagun zezan astekariko lanetan. Astekariaren hedatzaile garrantzitsua izan zen.

Jean Ithurry (Larresoro, 1845eko urriaren 19a – Sara, 1896ko ekainaren 20a) 1871n bihurtu zen apaiz, lehenik Kanboko bikario gisa eta Arüe eta Sarako erretore gisa gero. *Grammaire Basque : dialecte labourdin* liburua argitaratu zuen 1895ean, eta *Napoleon - Bonaparteren pastoralak* 1920an argitaratu zioten, Arüeko erretore zen garaian idatzi zuena eta herritarrek eman zutena (Daranatz, 1920). *Eskualdunaren* hasiera-hasierako laguntzaile eta sustatzailea izan zen.

Dolhagaray apaiza zen, baina ez dago xehetasunik haren izenari buruz. 1910etik landa, oraino beste belaunaldi bat erakarri zuen.

Gustave Berdeco (Amorotze-Zokoze, 1854ko abenduaren 26a – 1899ko martxoaren 11) Lore Jokoetan parte hartu izan zuen idazle eta bertso egilea zen. Garrüzen bizi izan zen, eta abokatu lanetan aritu zen. Garrüzeri buruzko monografia bat idatzi zuen, Euskal Herriko ohiturei buruzko artikulu bat eta hil ondoan argitaratu zen Hazparneri buruz egin zuen ikerketa bat. Gazterik hil zen, eritasunez. Hil zenean, *Eskualdunak* goraiatu zuen hastapen-hastapenetik parte hartu zuela astekarian.

Jean-Baptiste Constantin (Santa Grazi, 1847ko irailaren 5a – Atharratze, 1922ko urtarrilaren 26a) Garazi eskualdera joan zen irakasle lanak egitera, Izpurara hain zuzen. Horregatik, *Joanes Garaztarra* ezizena erabiltzen zuen. Bereziki idazle gisa egin zen ezagun, eta baita Eskualtzaleen Biltzarreko kide izateagatik ere. Euskaltzain urgazle izan zen, hastapenetik. Pertsona garrantzitsua izan zen *Eskualduna* astekariarentzat, berriemaileen bila ibili zelako, eta Zuberoko berri gehienak hark idazten zituelako.

Albert Constantin (Izpura, 1873ko agorrilaren 22a – 1957ko urtarrilaren 26a) Jean-Baptiste Constantin idazlearen semea zen. Aski gazterik joan zen Atharratzera bizitzera, gurasoekin. Hango mediku egin zen. Atharratzeko auzapez izan zen eta kontseilari nagusi, 40 urtez. *Eskualduna* astekariko administrazio kontseiluko buruzagia izan zen garai batez. Horrez gain, Eskualtzaleen Biltzarreko presidenteorde izan zen, euskarazko testu anitz idatzi zuen eta bilketa franko egin zuen. Euskaltzain urgazle bihurtu zen 1953an.

Pierre Broussain (Hazparne, 1859ko agorrilaren 5a – Ortheze, 1920ko apirilaren 27a) Hazparneko medikua, auzapeza eta Euskaltzaindiaren sortzaileetakoa izan zen. Euskaltzale suharra zen, eta garai hartako Ipar Euskal Herriko abertzale bakarretako bat. *Eskualduna*ko buruzagietako bat zen, eta zenbait aldiz artikuluak idazten zituen. Parisen ikasten ari zen garaian jarri zen harremanetan Manex Hiriart-Urrutirekin. 1899an itzuli zen Euskal Herrira, eta Hazparnen ireki zuen bulegoa. Euskaltzaindia sortu berritan hil zen.

Xehetasun gehiago: Xarritonen 1985eko tesia (Charriton 2008).

Charles Minjonnet (Baigorri, 1854ko urriaren 17a – 1910eko agorrilaren 20a) astekariaren jabe eta buruzagietariko bat zen, urte anitzetan Baigorriko kontseilari nagusi izan zena eta Charles Harispe diputatuaren iloba. Larresoroko apez-eskolan ikasi zuen.

4.3. Akziodunak

30 urteko ibilbidearen ondoren, *Eskualduna* argitaratzen zuen enpresa bat sortu zuten 1917an, hala nola Société du Journal «Eskualduna» S.A. enpresa. Hamasei akziodun izan zituen.

Taula 1. *Eskualduna*ko akziodunak

Lau akzio	Bi akzio	Akzio bat
Pierre Broussain	Nicolas d’Arcangues	Alexis Dourisboure
	Eugène Celhabe	Clément Fagalde
	Albert Constantin	Jean Etxepare
	Jean-Baptiste Alamon	Joseph Sala
	Pierre Elissague	Jean-Blaise Adéma
	Joachim Elissague	
	Laurent d’Andurein	
	Gaston de Laborde	
	Marie-Catherine Sajoux	

Iturria: Statuts de la Société Anonyme « Eskualduna » (1917).

Akziodun horietako batzuk bultzatzaile edo zuzendari ere izan ziren, lehenago aipatu ditugunak. Beste batzuk garrantzi handiko erredaktoreak izan ziren, geroago aipatuko ditugunak. Jarraian agertuko dira akziodun izan ziren besteak.

Eugène Celhabe (Bardoze, 1864ko otsailaren 27a) Bardozeko notario eta Baionako notarioen elkarteko presidente izan zen. Haren aita Bernard Celhabe ere notarioa zen, eta Bardozeko auzapez eta kontseilari nagusi izana. Bardozeko herriko bozetan aurkeztu zen behin baino gehiagotan, “naziionalista” gisa, baina ez zuen zinegotzi kargurik eskuratu. Auzipetua ere izan zen 1906an, Frantziako Estatuaren eta Elizaren bereizte legearen ondorioz, “inbenterioen auzian”.

Jean-Baptiste Alamon Donibane Garaziko notarioa zen eta *Eskualduna*-ko akzioduna. Garazi eskualdeko kontseilaria zen.

Pierre Elissague Sarako errentaduna zen.

Joachim Elissague (Mexiko, 1863ko uztailaren 7a) Donibane Lohizuneko lur-jabea zen eta Sarako errentaduna, ofizioz abokatu, eta gero uxer. Donibane Lohizuneko zinegotzi eta barruti-kontseilari ere izan zen. Eskualtzaleen Biltzarreko kide izan zen.

Laurent d’Andurain (Maule, 1876ko maiatzaren 9a – Maule, 1971ko agorrilaren 8a) pilotari gisa ezagun egin zen, baina baita ere Lehen Mundu Gerrako gerlari ohien elkarteko kide gisa.

Gaston de Laborde-Noguez (Baiona, 1848ko urtarrilaren 21a – Uztaritze, 1926ko irailaren 21a) Uztaritzeko jabea zen. *Eskualduna* enpresaren komisario-orde hautatu zuten.

Marie-Catherine Sajoux zen zerrenda osoan agertu zen emakume bakarra. Baina akzioduna zen, Charles Minjonnet laguntzaile eta politikariaren alarguna zelako.

Alexis Dourisboure (Mugerre, 1863ko martxoaren 6a – 1931). Senpereko medikua zen. Eskualdeko barruti-kontseilari kargua ere izan zuen. Haren koinatua zen Jean-Blaise Adema.

Clément Fagalde (Kanbo, 1851ko urriaren 26a – Hiriburu, 1936ko urtarrilaren 24a) zen, ofizialki, enpresaren fundatzailea, Eskualduna SA enpresako estatutuak idatzi baitzituen. Senpereko notario izan zen, eta zinegotzi 23 urtez. Haren anaia, aldiz, Kanboko auzapez izan zen, aitatxi bezala.

Joseph Sala (Baiona, 1888ko apirilaren 27a) Baionan ari zen lanean, Parisko banku bateko ordezkari gisa.

4.4. Kudeatzaileak

Zuzendaritza karguez eta akziodunetz gain, astekariak bazituen beste arduradun batzuk ere; hala nola astekariaren kudeaketa ekonomiko eta administratiboaz arduratzen zirenak. Hauek izan ziren kudeatzaile edo gerenteak:

- Arnaud Pochelou (1887-1906)
- Clément Monge (1906-1907)
- Henri Dératte (1907-1909)
- Etienne Dubourdieu (1909-1922)
- A. Milox (1922-1944)

Arnaud Pochelou (Donibane Lohizune, 1865eko urtarrilaren 18a – Donibane Lohizune, 1913ko agorrilaren 8a) astekariko lehen kudeatzailea izan zen. Louis Etcheverryrentzat funtsezko laguntzailea zen, hura gabe nekez eraman baitzezakeen aitzina astekaria. Donibane Lohizuneko Herriko Etxeko idazkaria zen, eta Albert Goyeneche auzapezaren laguntzailea. Haren bidez hasi zen *Eskualdunan* parte hartzen. Astero egiten zuen Donibane Lohizunetik Baionarako bidea, trenez. Hiriart-Urrutirekin zeuzkan desadostasunen harira, Pochelouk kudeatzaile kargua utzi zuen, 1905ean.

Clément Monge (Baiona, 1880ko urtarrilaren 31 – Craonne, 1914ko irailaren 15a) kontulari gisa ari zen lanean, Société Générale bankuan. *Eskualdunako* kontuak ere kudeatzen zituen. Gerlan hil zen. Hura hil ondoan, ez zen izan administratzailearik, baizik eta kudeatzaileak bakarrik.

Henri Dératte (Baiona, 1867ko maiatzaren 25a) 1908ko abenduaren 14an hamar hilabeteko kartzela zigorrera kondenatu zuten iruzurra egiteagatik. Bi asteren buruan utzi zuen *Eskualdunako* kudeatzaile lana.

Etienne Dubourdiu baionarra zen. 1922ko uztailaren 21era arte izan zen gerente. Aste hartan hil zen, *Eskualdunako* “langile zaharrenetarik bat”, astekariak idatzi zuenaren arabera.

A. Milox bukaera arte izan zen gerente. Ez dago hari buruzko xehetasunik.

4.5. Erredakzioko kideak

Parte-hartzaileen zerrenda luze horretako pertsona bakoitzaren biografia osatzerakoan, batzuk garbi agertu dira *Eskualdunako* erredakzioko kide erregular zirela, Baionako ordezkartzan ari zirelako idazten edo zuzenketak egiten, administrazio kontseiluko kide zirelako edo astero idazten zutelako.

Michel Iriart (Baigorri, 1862ko urtarrilaren 20a – 1929ko apirila) Larresoroko irakasle, Gabadiko, Aldudeko eta Uztaritzeko apaiz eta azkenik kallonje izandakoak anitz parte hartu zuen astekarian.

Laurent Apesteguy (Donazarre, 1887ko azaroaren 8a – 1928ko urtarrilaren 20a) apez eta misiolariak astero idazten zituen mundu zabaleko berriak. Halaber, interes handiarekin jarraitzen zituen astekariaren nondik norakoak, eta haren zabalkundea. Zinez euskaltzalea zela idatzi zuen Jean Saint-Pierrek, haren heriotzari buruz idatzi zuenean. *Gure Herria* astekarian ere parte hartu zuen, eta hark bultzatu zuen Piarres Lafitte idaztera.

Jean Olhagaray (Larresoro, 1892ko apirilaren 4a) apaiza zen. Lehen Mundu Gerran zauritu zuten, eta geroago preso egon zen Alemanian, Jean Saint-Pierrerekin. Gerratik landa Baiona Tipiko bikario izan zen, 1930ean Ainhoako apez nagusi jarri zuten eta 1938an Baigorriira igorri. *Arantzeko ama birjina eta Ainhoako kapera* liburua idatzi zuen 1933an. *Eskualdunan* arduratzen zen testuak zuzentzeaz, baina zenbait aldiz artikuluak idazten zituen.

Jules Moulrier Oxobi (Bidarrai, 1888ko apirilaren 7a – Hiriburu, 1958ko otsailaren 7a) astekariko arduradunetako bat izan zen, bereziki Lehen Mun-

du Gerra hasi zenean. Ondoren ere anitz idatzi zuen. Gurasoak Baigorriko Oxobi etxean bizitzera joan ziren, eta handik datorkio ezizena. Apez ikasketak bukatu ondoan, Hiriburuko bikario izan zen, eta geroago Donostiriko eta Arrangoitzeko erretore. *Gure Herria* aldizkariko kidea zen, eta Ipar Euskal Herriko berriak idazten zituen *Euzkadi* egunkarirako. Poesia ere idatzi zuen. Euskaltzaina izan zen, 1952tik landa.

Xehetasun gehiago: Bidegileak bilduma (Xarriton 1990).

Jean Etchepare Bidegorri (Mar Chiquita, Argentina, 1877ko urriaren 30a – Kanbo, 1935eko urtarrilaren 9a) haur denboran joan zen Argentinatik Euskal Herrira, Lekornera, gurasoekin. Larresoroko apez-eskolan ikasi zuen. Mediku lanetan aritu zen Alduden. Anitz idatzi zuen *Eskualduna* astekarian. *Buruxkak* eta *Beribilez* liburuak idatzi zituen, *Gure Herrian* parte hartu zuen, Euskaltzaleen Biltzarreko buru izan zen eta euskaltzain urgazle, Euskaltzaindiaren sorreratik.

Xehetasun gehiago: Altonaga (2006), Bidegileak bilduma (Arrigain 2004), Charritonon edizioak (1988 eta 1992).

Jean Elissalde Zerbitzari (Azkaine, 1883ko agorrilaren 29a – Lekorne, 1961eko maiatzaren 5a) apez izan zen Liginagan eta Lekornen. Itzultzaile lanak egin zituen hainbat aldiz, eta zenbait liburu idatzi. Euskaltzain izan zen, 1930etik landa.

Pierre Lafitte (Luhuso, 1901eko maiatzaren 21a – Baiona, 1985eko otsailaren 23a) apez egin zen, eta Uztaritzeko apez-eskolako irakasle gisa aritu zen. Euskarari buruzko ikerketa ugari egile eta euskaltzain oso izateaz aparte, *Eskualduna* eta *Gure Herriako* partaide izan zen. Euskaltzain oso bihurtu zen, 1949an, Georges Lacombe utzitako lekua betetzeko. 1945ean Frantziak *Eskualduna* debekatu zuenean, *Herria* astekaria sortu zuen, *Eskualduman* ildo kontserbadoreena zutenengandik aparte.

Xehetasun gehiago: besteak beste, Bidegileak bilduman (Arbelbide 1997).

Edmond Goyeneche (1885eko urriaren 1a – Uztaritze, 1973ko azaroaren 11) Uztaritzeko mediku, auzapez-orde eta kontseilari nagusia zen. Maiz

agertzen ziren haren gutun irekiak eta artikuluak *Eskualduman*. Haren aita ere politikan ibilia zen, Txileko kontsulorde baitzen. Itsasoan sortu zen, gurasoek Euskal Herrirako bidea hartua zutenean. Larresoroko apez eskolan ikasi zuen lehenik, eta gero medikuntzara bideratu zen. Haren anaia Baionako katedraleko kalonjea izan zen, *Eskualdumak* maiz aipatzen zuena. Eta haren semea geroago egin zen ezagun: Eugène Goyeneche historialaria.

Louis Dassance (Uztaritze, 1888ko agorrilaren 20a – Uztaritze, 1976ko apirilaren 14a) Uztaritzeko auzapez izateagatik izan zen ezagunena. Laborantza-ingeniarria zen. Euskaltzain ere izan zen 1949tik aitzina. Horrez gain, hainbat ikerketa eta libururen egilea izan zen. *Eskualduman* parte hartu zuen, baita administrazio kontseiluan ere, eta *Gure Herria* sortzen ibili zen. Eskualzaleen Biltzarreko lehendakari izan zen garai batez.

Xehetasun gehiago: Bidegileak bilduma (Itzaina 2008).

Jean Barbier (Donibane Garazi, 1875eko uztailaren 9a – 1931ko urriaren 31), teologiako doktore eta apez gisa, Larresoroko apez-eskolako irakasle izan zen. Geroago, Baionako katedraleko bikario eta, 1913tik goiti, Senperekoko erretore. Liburu anitz idatz zuen. *Eskualduman* idazten zuen eta *Gure Herriaren* sortzaileetako bat zen.

Xehetasun gehiago: Bidegileak bilduma (Duhau 2009).

Arnaud Abbadie (Bithirina, 1843ko apirilaren 15a – Beloke, 1916ko martxoaren 2a) apez izan zen eta Larresoroko apez eskolako filosofia irakasle. Azken urteak Belokeko fraide-etxean iragan zituen. *Eskualduman* maiz idatzi zuen («Laborarier» saila bereziki).

Pierre Duhour (Beskoitze, 1890eko ekainaren 20a – Hazparne, 1968ko urtarrilaren 18a) Frantziako itsas-armadan ibili zen hainbat urtez, Lehen Mundu Gerran barne. Geroago, Hazparnen ireki zuen Gizarte Segurantzako bulego bat. Aldizkari anitzetan idatzi zuen, baina bereziki *Eskualduma* eta *Herria* astekarietan. Hainbat liburu idatzi zuen, nahiz eta idazle gisa ez den ezagun egin. Euskaltzain urgazle egin zuten, 1966an.

Salvat Dirassar (Hazparne, 1873ko maiatzaren 23a – Baiona, hil zen 1946ko apirilaren 3a). Baionako ospitaleko omonier gisa aritu zen 27 urtez.

Kalonje izendatu zuten 1938an. Ordurako *Eskualdunan* anitz parte hartzen zuten, pilotari eta Baionari buruzko berriak idazten baitzituen, beste sail anitzez gainera.

Pablo Fermin Irigaray Larreko (Auritz, 1869ko urtarrilaren 25a – Iruñea, 1949ko irailaren 3a). Mediku hark astero idazten zuen *Eskualdunan*, 1916tik goiti, Nafarroako berriak emateko. Idazle ere izan zen. Beste aldizkari frankotan ere idatzi zuen. Euskaltzain urgazle izan zen, 1919tik aitzina.

Xehetasun gehiago: Bidegileak bilduma (Irigarai 2004).

Arnaud Othacéhé (Ilharre, 1873ko ekainaren 7a) Erroman aritu zen ikasten. Ondotik, hamasei urtez aritu zen misiolari gisa Hazparnen, eta 1922an Arbonako erretore izendatu zuten. A. O. inzialen bidez izenpetzen zituen bere artikuluak.

Auguste De Menditte (Mendikota, 1875eko abenduaren 3a) Urdiñarbeko erretorea zen. Hango berriak idazten zituen erregulariki, eta *Eskualdunak* maiz aipatzen zuen. Justin de Menditte astekariko beste berriemaile baten anaia zen. Haren beste anaietako bat, Celestin, bankaria zen; hura ere maiz aipatua.

Maurice Souberbielle (Kanbo, 1872ko uztailaren 4a) Parisen aritu zen lanean, mediku gisa, zenbait denboraz. Gero Uztaritzera joan zen bizitzera eta lanera, eta hango auzapez izan zen 1910etik 1939ra. *Eskualdunako* administrazio kontseiluko kide eta Eskualtzaleen Biltzarreko arduradunetako bat izan zen.

Janbattitt Etcheberry (Donoztiri, 1903ko martxoaren 14a) apez eta idazle gisa izan zen ezagun. Euskarazko hamahiru liburu idatzi zituen, denak erlijioaz. Bigarren Mundu Gerran preso hartu zuten, eta handik ihes egitea lortu zuen. Bereziki Uztaritzen, Hazparnen eta Baionan ibili zen apez lanean. Halaber, Almanakan parte hartzen zuen, eta, gerora, *Herrian*.

Amédée Larrieu (Sault-de-Navailles, 1877ko abenduaren 23a) aseguru-etxe bateko jabea zen, eta itxura guztien arabera, jende ezagun eta estimatua. *Eskualdunako* administratzaile izan zen. Astero idazten zuen frantsezko kronika, nazioarteko politikaz, A. L. izenpetuz. Irargarkiak ere jartzen

zituen aldizkarian, eta *Eskualdunaren* egoitzaren helbidea eta telefonoa jartzen zituzten bere zerbitzueterako. *Le Courrier de Bayonne* egunkariko kudeatzaile ere izan zen. Action Libérale Populaire alderdiko kidea izan zen.

4.6. Berriemaileak

Astekaria ez zuten kazetari profesionalek osatzen. Herriz herri zeukaten berriemaile sareari esker osatu zituzten astez asteko orrialdeak. Berriemaile erregular andana bat identifikatu dugu.

Julien Heguy (Aiherra, 1860ko urriaren 11 – Donapaleu, 1930eko ekainaren 4a) Santa Grazin, Ainhoan, Uztaritzen, Beskoitzen eta Arrokiagan apaiz izana zen, eta horrez gain euskaltzale sutsua eta euskaran maisua. Euskaltzain urgazle izendatu zuten erakundearen sorreran. *Eskualdunan* kronika anitz idazten zuen, bereziki bitxikeriak eta berri laburrak. Bertze egunkarietatik berriak bildu eta euskaratzen zituen. Almanakan ere idazten zuen. *Eskualdunak* haren testuak bildu zituen liburuxka batean, hil eta hiru hilabetera. Urte bukaeran Piarres Lafittek idatzi zuen hari buruzko liburu bat (Lafitte 1930).

Henri Arbeletche (Baiona, 1893ko apirilaren 7a – Gorlingen, Frantzia, 1940ko ekainaren 16a) Lehen Mundu Gerrako gudari ohien Euskal Herriko batasuneko presidente izan zen, eta batzar anitzetan ibili zen herriz herri. Boluntario gisa joan zen armadara, eta Lehen Mundu Gerran egindakoagatik hainbat sari eman zizkion Frantziak, baita ohorezko legioa ere. Zauritua ere izan zen. Bigarren Mundu Gerran ere hartu zuen parte, eta gerran hil zen.

Jean Ithurbide (Ahatsa, 1886ko maiatzaren 12a – 1944) apeza zen. Beloken eta Maulen irakasle ibili zen, eta kalonje izendatu zuten 1935ean. Halaber, 1944an zenbait haur judu aterpetu zituen Mauleko kolegioan, alemanengandik babesteko. Ikastetxe hartako zuzendaria zen.

Léon Lassalle (Beskoitze, 1881 – Uztaritze, 1961) Baionako kalonjea izan zen eta Uztaritzeko seminarioko irakasle. Hainbat aldizkaritan parte hartu zuen, besteak beste *Eskualdunan* eta *Gure Herrian*. Ikherzalea, *New Politic* eta *Zaharra* izengoitiekkin izenpetu zituen bere artikuluak. Haren liburu bat argitaratu zuten 1961ean.

Martin Minvielle (Labetze-Bizkai, 1886ko agorrilaren 6a – Labetze-Bizkai, 1948) medikua zen, eta *Eskualdunan* hainbat artikulu idatzi zituen osasunaz, eta baita *Herria* astekarian ere. Parisen egin zuen biziaren zati handiena. Zahartzaroan itzuli zen sorterrira.

Pierre Lanouguère Mauleko kolegioko apez-irakasle izan zen, baina baita ere Garindaineko erretore garai batez, eta Altzürükükoa beste garai batez. Hainbat artikulu idazten zuen *Eskualdunan* Pette Xibero gisa izenpeturik edo, behin, P. Lanouguère gisa. *Gure Herria* aldizkarian hainbat irri istorio ere idatzi zuen (Coyos 2013), bereziki 1930eko urte inguruetan.

Jean-Pierre Chorho Espil (Zalgize, 1884ko agorrilaren 2a – Garindaine, 1968ko azaroaren 15a) Garindaineko erretore izan zen, baina beste hainbat lekutan ibili zen irakasle eta apaiz gisa. *Eskualduna* eta *Herria* astekarietan 40 bat urtez eman zituen Zuberoako berriak.

Saint-Martin Valence (Haltsu, 1881eko martxoaren 3a) Itsasuko bikario izan zen, gero Donibane Lohizuneko zahar-etxeke omonier eta geroago Pausuko erretore. M. Valence edo M. V. gisa izenpetzen zituen artikuluak.

Arnaud Borotra (Bidarte, 1894ko uztailaren 17a) Donibane Garaziko bikario egon zen hamar urtez, eta 1931n Senpereko erretore izendatu zuten.

Jean Jaureguiberry (Aloze-Ziboze, 1880ko apirilaren 30a – Aloze-Ziboze, 1952ko uztailaren 23a), gerla egin ondoan, mediku lanetan aritu zen zenbait urtez Donibane Lohizunen, eta han hazi zuen familia. *Eskualdunan* aipamen gehien izan zuen jauregiberritarra izan zen. *Gure Herrian* anitz parte hartu zuen, baina baita *Eskualdunan* eta *Herrian* ere. Horrez gain, Eskualtzaleen Biltzarreko kidea zen, eta euskaltzain urgazlea, 1950etik.

Piarres Larzabal (Azkaine, 1915eko maiatzaren 5a – Ziburu, 1988ko urtarrilaren 12a) oraindik aski gaztea zen *Eskualduna* desagertu zenean, baina azken urteetan parte hartu zuen. Apez egin zen, baina idazle gisa egin zen ezagun, kantu eta antzerki anitzen egilea baitzen. Ziburuko Zokoa auzoko apez gisa aritu zen bizitza gehienez. Euskaltzain oso izan zen, 1963tik aitzina.

Xehetasun gehiago: Bidegileak bilduma (Xarriton 1999).

Felix Ospital Donibane Lohizunen, euskal dantzez arduratzen zen. Herri hartako berriketaria izan zen.

Léon Léon (Hazparne, 1896ko agorrilaren 18a – Uztaritze, 1962ko otsailaren 12a) antzerkiak idazteagatik izan zen ezaguna, baina Elizako testuak ere itzuli zituen. Euskaltzain urgazle izan zen 1950etik landa. Hainbat aldizkaritan hartu zuen parte. Apez egin zen eta Arrangoitze eta Uztaritze izan zituen haren lekuak. Bi Mundu Gerretan parte hartu zuen.

Gratien Istilart (Hazparne, 1864ko maiatzaren 11 – Makea, 1954ko ekainaren 24a) laboraria zen, eta Makeako auzapez izan zen. Ideologikoki, eskuinekoa eta Elizaren aldekoa zen. Pierre Broussainen laguna izan zen.

Alexandre Camino (Kanbo, 1897ko martxoaren 27a – Kanbo, 1972ko urriaren 6a) Kanboko medikua zen, eta hango auzapez eta kontseilari nagusia.

Laurent Hirigoyen (Uztaritze, 1859ko otsailaren 24a – 1935eko uztailaren 18a) Senperen hasi zen bikario gisa, eta 1889an hasi zen Larresoron irakasle gisa lanean. Manex Hiriart-Urruti lankide izan zuen, ondorioz. Maulen, Beloken eta Uharte Garazin ibili zen irakasle edota erretore. 1923an misionest gisa joan zen Hazparneko eskolara. Edizio lan batzuk egin zituen, bereziki Jean Ithurryren *Grammaire Basque* liburuaren zirriborroa berreskuratu eta garbira pasatu zuen.

Jean Curutchet (Hendaia, 1846 – 1907) apaiz eta irakaslea zen.

Mixel Elizanburu Anai Innocentius (Heleta, 1826ko otsailaren 17a – 1895eko urtarrilaren 4a) fraide eta Hazparneko lanbide ikastetxeko zuzendari izan zena beste guztiak baino zaharragoa zen, *Eskualduna* hasi zenean 61 urte baitzituen. Jean-Baptiste Elizanbururen lehengusua zen. Lau liburu idatzi zituen, besteak beste *Lehenagoko euskaldunak zer ziren*, 1889an, eta masoien kontrako bat, politikan ibili baitzen, “zurien” alderdian.

Xehetasun gehiago: Anai Innocentius Elizanbururen mendeurrena (1995).

René Delzangles (Milafranga, 1889ko uztailaren 8a – Milafranga, 1979ko agorrilaren 31), ofizioz abokatua, diputatua izan zen 1936an, baita

Milafrangako kontseilari nagusi ere, 1937tik landa. Bigarren Mundu Gerra garaian erresistentzian ibili zen, eta gerlatik landa ez zen berriz aurkeztu diputatu izateko. Milafrangako auzapez hautatu zuten orduan. *Eskualdunak* haren aldeko boza eskatzen zuen, nahiz eta ezker erradikaleko talde parlamentariokoa izan.

Dominique Dufau (Mexiko, 1880ko maiatzaren 11 – Senpere, 1956ko urtarrilaren 6a) notario lanetan aritu zen eta Senpereko auzapez izan zen, 1919tik 1935era, gerlatik itzuli zenean. Hainbat aldizkaritan hartu zuen parte eta zenbait liburu idatzi zuen. Euskaltzain urgazle izendatu zuten 1951n.

Arnaud Agirre Anai Juvenal (Tolosa, 1850eko otsailaren 11 – Maule, 1932ko otsailaren 7a) Hazparneko lanbide ikastetxeko zuzendari izan zen. Maiz heletar gisa aurkeztu zuten, baina, Gipuzkoan sortu zen, Tolosan. Hazparneko ikastegian hasi aitzin, ikastetxe anitzetan ibili zen irakasle gisa: Euskal Herritik kanpo Bordele, Pibrac, Paue eta Plaisance-n, eta, Euskal Herrian, Uztaritzen. 1880tik 1911ra arte egon zen Hazparnen, 1892tik landa zuzendari gisa. Ikasleek erabiltzeko asmoz, *Vocabulaire trilingue français-espagnol-basque* hiztegia argitaratu zuen 1899an. 1911n Donostiako San Bernardo ikastegira joan zen. Irunen eta Maulen jarraitu zuen.

Justin de Menditte (Mendikota, 1867ko ekainaren 12a – Atharratze, 1922ko uztailaren 26) Atharratzeko erretore izan zen. Idazle gisa egin zen ezagun, zenbait pastoral ondu baitzituen. Euskaltzaleen Biltzarreko kide izan zen. Euskaltzain urgazle izan zen, 1919tik. *Eskualdunak* zenbait bertso argitaratu zituen.

Jean Ybarnégaray (Uharte-Garazi, 1883ko urriaren 16a – Paris, 1956ko apirilaren 25a) *Eskualdunak* guztiz sostengatu zuen politikaria zen Ibarnegarai. Ofizioz abokatua zen. 1914an Lehen Mundu Gerrara joan zen, ordurako diputatu hautatu berria zutela. Urte anitzez izan zen diputatu, eta baita ministro ere Vichyko Gobernuan.

Xehetasun gehiago: Isabelle Bilbaoren liburua (2013).

Pierre Bidart Oxlax (Donazaharre, 1847ko irailaren 6a) Ibarrolako erretorea izan zen eta bertsolari gisa ezagun egin zen.

Gaston Larre (Arrangoitze, 1853ko otsailaren 23a – Miarritze, 1936ko urria) Charles Floquet Euskal Herriko politikari eta Frantziako Lehen Ministro izandakoaren iloba zen. Erroman egin zituen ikasketak eta Larresoroko apaiz-eskolako irakasle izan zen hamalau urtez, eta azken 46 urteak Miarritzeko erretore eta kalonje gisa iragan zituen. Hark eraikiarazi zuen Miarritzeko Santa Eugenia eliza.

Dominique Giron (Bidarte, 1859ko agorrilaren 3a – Ainhoa, 1928ko abenduaren 20a) Heletako bikario izan zen, eta Liginagako eta Ainhoako erretore.

Laurent Jaret (Kanbo, 1853ko agorrilaren 25a – Hazparne, 1911ko urriaren 24a) Hazparneko misiolaria zen, 1895etik. *Hazparneko kalbarioa eta Kantika eskuarak bere aireekin* kantika bilduma osatu zuen, 1892an. Lehengo Larresoron aritu zen irakasle, eta gero bikario Senperen eta Donibane Lohizunen. Ez da argi *Eskualdunan* zenbat parte hartu zuen; haren heriotzari buruzko artikulua araberara, atxikimendu handia zeukan aldizkariarekiko, eta gomendioak ematen zituen.

4.7. Sostengatzaileak

Eskualdunaren lagunen zerrenda osatzen zuten, halaber, itxura guztien araberara zerbait gisako laguntza materiala edo ekonomikoa ematen zutenek, baina ez bide zutenek idazten. Hori ondoriozta liteke, gutxienez, haiei buruz idatzi zirenetatik.

Charles Harispe (Baigorri, 1817ko uztailaren 15a – Lekunberri, 1896ko otsailaren 11) diputatu izan zen 1876tik 1889ra. Urte hartan ez zen berriz aurkeztu eta haren kargua Louis Etcheverryk hartu zuen. Harispe mariskalaren iloba zen. Merkatari lanetan ibili zen, Kuban, eta aberastu ondoan itzuli.

Jean-Pierre Jean-Baptiste Eugène d'Etchandy (Onizegaine, 1846ko agorrilaren 1a – Atharratze, 1896ko irailaren 17a) Atharratzeko notarioa zen. Soldadu ibili zen 1870eko gerran, eta politikan ere aritu zen, nahiz eta haulteskundeak galdu, 1892an. *Eskualdunaren* araberara, hizlari biziki trebea zen.

Jules d'Apat (Duzunaritze, 1823ko ekainaren 26a – 1890eko urtarrilaren 6a) Apat jauregiko semea zen. Frantziako itsas-armadan sartu zen, eta Kri-

meako gerran eta Frantziaren eta Prusiaren arteko 1870eko gerran parte hartu zuen, koronel gisa. Bere herriko auzapez eta Garaziko sindiko izan zen.

Albert Goyeneche (Donibane Lohizune, 1847ko martxoaren 5a – Donibane Lohizune, 1900eko urtarrilaren 18a), ofizioz medikua, politikak egin zuen ezagun, 1888tik hil arte Donibane Lohizuneko auzapez kargua izan baitzuen, nahiz eta Frantziako Gobernuak bi aldiz kargugabetu. 1870eko gerlan parte hartu zuen, Alemanian preso egon zen eta handik ihes egin zuen. Donibane Lohizunen euskal besta antolatu zuen 1892an, 1894an eta 1897an, eta “Zazpiak bat” aldarrikatu, ozen. Hiru liburu idatzi zituen, euskaraz.

Xehetasun gehiago: Kepa Altonaga (2008).

Salvat Saint-Germain (Mugerre – 1895eko urtarrilaren 6a) Mugerreko notarioa zen 1860tik, eta hango auzapez izan zen 1866tik hil arte. Erregeza-lea zen, eta errepublikaren aurkari sutsua.

Bertrand Amestoy (Beskoitze, 1827ko agorrilaren 11 – Urketa, 1896ko otsailaren 22a) medikua zen, eta Urketako auzapez izan zen hainbat aldiz, eta Bastidako kantonamenduko kontseilari nagusia 1884tik 1892ra.

Alphonse Dutey (Peru, 1845 – Baiona, 1891ko agorrilaren 17a) Lekunberrira joan zen haur denboran. Garaziko kantonamenduko kontseilari nagusi izan zen 1873tik 1891ra.

Michel D’Arcangues (Saint-Samson-sur-Ranc, 1889ko uztailearen 27a – Milafranga, 1980ko maiatzaren 11) *Eskualdunako* administrazio kontseiluko kidea zen. Nicolas D’Arcangues astekariko zuzendari izandakoaren semea zen.

Hyppolyte Mathieu (Hazparne, 1889ko abenduaren 10a) medikua zen, eta *Eskualdunako* administrazio kontseiluko kidea. Clément Mathieu Baionako apezpikuaren anaia zen.

4.8. Zehaztu gabe

Astekarian parte hartu zutenen zerrenda luze horretako beste izen andana bat ezin izan dugu sailkatu, ez baita argi zein izan zen haien funtzioa: idazten zuten, ala laguntza materiala edo ekonomikoa ematen zuten. Azpi-

marratu behar da artikulua asko ez zela izenpetu, eta, beraz, datorren zerrenda horretako andana baten ekarpena bide zela tarteka idaztea.

Jean Oihenart (Sohüta, 1862ko ekainaren 24a – 1932ko uztaila) Maulen hasi zen apaiz-eskolan ikasten. Donibane Garaziko erretore, Mauleko bikario eta Gotaineko erretore izan zen hurrenez hurren. Saint Pierre eta Miquelonera joan zen geroago, eta han eliza eraiki zuen. Muskildin egin zituen apaiz gisa azken urteak.

Janbattitt Etcheberry (Donaixti-Ibarre, 1806ko abenduaren 2a – Uztaritze, 1898ko urriaren 6a) Uztaritzeko serorategiko omonier egon zen 1843tik aitzina. *Eskualdun laborarien adiskidea* euskarazko lehenbiziko almanaka sortu zuen, 1848an, eta hil arte almanakaren 49 zenbaki atera zituen. Bertsoak eta liburuak ere idatzi zituen, besteak beste *Testament zaharreko eta berrico istorioa* eta *Miguel Garicoitz aphezaren bizitza*, bere lehengusuaz.

Jean Duvoisin (Ainhoa, 1810eko maiatzaren 17a – Ziburu, 1891ko urtarrilaren 30a) bi urte zituenean joan zen Ezpeletara bizitzera. Aita hil zenean, 1830ean, hark bezala Ezpeletako mugazain lanak hartu zituen. Geroa aduanako kapitain kargura igo zen. Euskaltzalea eta literaturazalea zen; Louis-Lucien Bonaparte hizkuntzalariaren lagun egin zen, eta baita Anton Abadiarena ere, eta honen bidez, Lore Jokoetako epaimahaikide izan zen. Biblia osoa itzuli zuen. 1840tik hainbat aldizkaritan idatzi zuen. Haatik, *Eskualdunako parte-hartzaileen zerrendan* agertzen bada ere, *Eskualduna* sortu zenerako zahartua zen. Haren hainbat testu agertu zen aldizkarian, baina *Revue des Basses-Pyrénées et des Landes* aldizkarian argitaratuak zituen testuak ziren.

Xehetasun gehiago: besteak beste, Bidegileak bilduma (Touyarou Phagaburu 2010).

Auguste Fourcade Baionako idazlea zen. *Gure Herria* eta *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* aldizkarietan idazten zuen. Bereziki *Contes du Labourd* eta *La nuit étoilée* idazteagatik zen ezaguna.

Léon Hiriart (1829 – Kanbo, 1915eko irailaren 25a) Baionako liburute-giko artxiboaren arduraduna eta idazlea zen, eta Euskaltzaleen Biltzarreko kidea. Frantziako Iraultzak Euskal Herrian izan zuen eragina ikertu zuen.

Boluntario gisa joan zen Krimeako gerrara, 1853an. 1870eko gerran ere parte hartu zuen.

Amédée de Laborde-Nogués (Baiona, 1823ko apirilaren 26a – 1910eko otsailaren 23a) abokatua zen, eta Gaston de Laborde-Noguezen aita. Uztaritzeko auzapez izan zen, baita kontseilari nagusi eta diputatu ere. Azken kargu hau lau urtez baizik ez zuen bete, 1885etik 1889ra.

Hyppolyte Ritou (Hazparne, 1866ko apirilaren 22a) notarioa eta politikaria zen. Hazparneko kontseilari nagusi bihurtu zen 1895ean.

Cabillon (Baigorri) nekez ziurta daiteke nor zen.

Alexandre Mendiboure (Sara, 1858ko ekainaren 10a) medikua zen, eta Baigorri iragan zituen urte gehienak. Baigorriko kontseilari nagusi kargua izan zuen 1892tik 1898ra, Charles Minjonneten ondoan.

Augustin Etcheverry (Sara, 1849ko martxoaren 21a – Sara, 1890eko otsailaren 4a) zapataria zen ofizioz, baina olerkari gisa izan zen ezaguna, Anton Abadiak antolatu kopla lehiaketetan hainbat aldiz parte hartu eta 1869an lehen saria irabazi baitzuen.

Emile Debibié (Donibane Lohizune, 1860ko agorrilaren 9a – 1919ko otsailaren 23a) Donibane Lohizuneko auzapez-orde izan zen Albert Goienetxeren garaian; ofizioz saleroslea zen. Euskaltzaleen Biltzarreko kidea zen. Kantuz ere aritzen zen.

Gustave Diriar (1832ko irailaren 21a – Donapaleu, 1901eko urtarrilaren 12a) Donapaleuko notarioa zen. Euskaltzaleen Biltzarreko diruzain izan zen, baita ere Irisarriko eta Donapaleuko auzapez eta Kontseilu Nagusiko kide.

Michel Gombault (Donibane Garazi, 1864ko azaroaren 4a – 1956ko urtarrilaren 5a) herri frankotan ibili zen bikario gisa, hala nola Larrañen, Alduden, Maulen edota Donazaharren. Lekunberriko erretore izan zen eta 1917tik landa Donazaharrekoa. Jakintza handiko pertsona gisa aurkeztu zuten hil zenean. Katixima euskaraz idatzi zuen, ez bazuen inprimatu ere.

Sauveur Etchegaray (Hazparne, 1879ko apirilaren 20a – Hazparne, 1955eko martxoaren 23a) edo Salvat Getarian, Hendaian eta Saran izan

zen bikario eta Beskoitzeko eta Donaixtiko erretore, besteak beste. Saran Blaise Adéma izan zuen apez nagusi gisa, eta handik izan zuen lotura *Eskualduna* astekariarekin. Eskualzaleen Biltzarreko kide izan zen.

François Bidegaray (Donibane Garazi, 1877ko urtarrilaren 12a) Hazparnen, Maulen eta, bereziki, Jatsun (Garazi) ibili zen apez 1907tik 1924ra.

Pierre Harispe (Donibane Lohizune, 1854ko apirilaren 6a – Paris, 1929ko azaroaren 5a) apez egin zen, baina gerora apezgoa utzi zuen. Filosofo, soziologo eta olerkari gisa ezagun egin zen, baina baita kazetari gisa ere. Hainbat liburu idatzi zuen, besteak beste *Ainhoa* eleberria eta *Perkain* antzerkia. Belgikako *Le Devoir* egunkariaren sortzaileetako bat izan zen.

Martin Landerretxe (Duzunaritze, 1842ko uztailaren 26a – Ezpeleta, 1930eko urtarrilaren 29a) apaiz, idazle eta Eskualtzaleen Biltzarraren sortzaileetarikoa zen. Euskaltzaindiko Lapurdiko ordezkaria izan zen, 1920tik landa. Oragarreko eta Aiziritzeko erretore izan zen.

Georges Lacombe (Ortheze, 1879ko urtarrilaren 31 – Paris, 1947ko uztailaren 13a) idazle, hizkuntzalari eta Eskualtzaleen Biltzarreko sortzaile eta buru izan zen, baita Eusko Ikaskuntzako, Baionako Euskal Erakustokiko eta beste hainbat erakundetako kide ere. Euskaltzain ere izan zen. *Gure Herria* aldizkarian idazten zuen.

Dominique Mocoçain (Ezpeleta, 1859ko urriaren 5a – Mugerre, 1914ko urtarrilaren 20a) Aldudeko eta Baigorriko bikario izan zen eta gero Game-re-Zihigako, Irulegiko eta Mugerreko erretore.

Jean Donetx (Uztaritze, 1884ko azaroaren 7a) Zerbitzari eta Oxobiren laguna zen. Arnegiko erretorea izan zen. Jean Barbier erretorearen alboan Senpereko bikario izan ondoan, erretore izendatu zutenean, 1926an, jende andana bat bildu zen Arnegin, besteak beste Blaise Adema eta Jean Ibarnegaray. Jean-Baptiste izena agertzen da hainbat dokumentutan, baina Jean-Baptiste Donetx Lehen Mundu Gerran hil zen. Hura anaia zen, eta hartaz gain beste anaia bat ere hil zen. Arnegiko erretorea, aldiz, Jean zen; hark ere gerla egin zuen. Bigarren Mundu Gerran, aldiz, haur juduak lagundu zituen mendiz beste aldera pasatzen.

Jean Athor (Landibarre, 1883ko ekainaren 5a – 1975) Heletako erretore izan zen.

Leon Esperne (Hazparne, 1900eko otsailaren 28a – Baiona, 1980ko apirilaren 13a) Baionako San Andres elizako bikario izan zen lehenik, eta Bokaleko erretore gero, Miarritzen geroago, eta kalonje ere bai.

Jean-Baptiste Lompageu (Landibarre, 1894ko maiatzaren 8a) Ahatsako erretore izan zen. Jean Ibarnégarayren auzian deklaratu zuen, azken hau Vichyko gobernuko kide izateagatik epaitu zutenean.

Jean Lissar (Rosario, Argentina, 1871ko otsailaren 6a – Hazparne, 1943ko urriaren 3a) politikari gisa egin zen ezagun, Hazparneko auzapez eta kontseilari nagusi, diputatu eta senatari izan baitzen. Haur denboran joan zen Euskal Herrira. Larresoroko ikastetxean ikasi zuen, eta geroago medikuntza ikasi zuen Parisen. Pilotari ere izan zen.

Seber Altube (Arrasate, 1879ko azaroaren 8a – Gernika, 1963ko agorriaren 27a) euskaltzain, idazle eta musikaria zen. Ez zen *Eskualdumako* kidea. Gutun bat idatzi zuen *Eskualdunan*, bere alde idatzitako artikulua bategatik eskertzeko.

Jean-Pierre Picochet (Barkoxe, 1899ko urriaren 17a – Barkoxe, 1981eko urriaren 6a) apezka zen. Eskualtzaleen Biltzarreko ipuin lehiaketa bat irabazi zuen 1926an. Urte berean Miarritzeko bikario bihurtu zen.

Martin Saldumbide (Donazaharre, 1880ko urtarrilaren 31) Hiriburuko erretore izan zen, eta hori baino lehen Lasako eta Hazparneko bikario. Antzerkiak idatzi zituen.

Jean Mailluquet Hazparnen sortu zen, eta han apeztu, 1930ean. Haren aita Gabriel Eskualtzaleen Biltzarreko kidea zen.

Philippe Aranart (Baigorri, 1901eko irailaren 9a – Maule, 1981eko uztailearen 13a) Piarres Lafitteren hurbileko idazle eta hizkuntzalari izan zen. Uztaritzeko apez-eskolako irakasle bihurtu zenean, bien artean Piarres Lhande lagundu zuten haren hiztegegintzan. Baionako ikastetxeko omonier izan zen Uztaritzetik landa, eta gero erretore ardurak izan zituen Hendaian, Hazparnen eta Maulen. Euskaltzain urgazle izan zen, 1930etik aitzina.

Clément Armagnague (Ainharbe, 1870eko agorrilaren 12a – Maule, 1824ko martxoaren 5a) Sarrikotapeko erretore izan zen. 1909an Eskualtzaleen Biltzarrean sartu zen.

Jean-Baptiste Daranatz (Ezpeleta, 1870eko apirilaren 26a – Ezpeleta, 1945eko abenduaren 29a) 1889an egin zen apez eta 1899an Baionako apezpikuaren idazkari. Liburu gehienak frantsesez idatzi zituen, ikerkuntzan oinarriturik, nagusiki. Baiona eta Baionako elizbarrutia izan zituen ikerketa ardatz nagusi. Euskaltzain urgazle izan zen, Euskaltzaindiaren hastapenetik.

G. Berho. Xehetasun gutxi jakin ahal izan dugu Lafittek aipatzen duen G. Berho-ri buruz. Lafittek argitu zuen apaiza zela, baina ez bertzerik. Garai haietan Berho deitura zuten bi apaiz zeuden Ipar Euskal Herrian. Haietarik bat zen Bertrand Berho, 1827ko maiatzaren 10ean Irisarrin sortu zena, eta Iholdin hil 1904ko apirilaren 14an. *Eskualdunak* artikulua luzea egin zuen Bertrand Berhoren heriotzaz 1904ko apirilaren 22an, aipatu gabe astekarian parte hartu zuen ala ez. Bigarrena makearra zen, eta Hazparneko misionetegian ibilia, 1846tik hara.

5. Taldearen argazkia


5.1. Belaunaldiak

Grafiko batean bildu ditugu *Eskualdunan* parte hartu zuten eta zerrendatu ditugun pertsona guztiak. Grafikoa bost zutabetan jarri dugu, sailkapen kronologikoa egiteko, belaunaldien arabera. Zutabe bakoitzak hogeituro urteko epea hartzen du, eta lerro bakoitzak urte batekoa.


Ageri da parte-hartzaile gehienak XIX. mendeko bigarren erdian sortu zirela, eta zehazki laugarren laurdenean. Garaien arabera, horrela banatzen dira *Eskualdunako* belaunaldiak:

Hots, parte-hartzaile gehienak (% 60,9) 1860tik 1900era bitartean sortutako pertsonak ziren. Aldiz, 1900etik landa sortutakoak bakar batzuk baizik ez ziren. Horrek erran nahi du, orain arte agertu diren parte-hartzaileen zerrenden arabera, nahiz eta astekaria 1945era arte argitaratu zen, ez zuela lortu XX. mendeko belaunaldi berrien parte-hartzerik.

Grafikoa 1. Eskualdunako kideak, sortu ziren urteen arabera




Grafikoa 2. Eskualdunako kideak, sortu ziren urte tarteen arabera



Goiko grafikoan hogeituroko tartek hartu ditugu, belaunaldi multzoak ikusteko. Alabaina, Manex Hiriart-Urrutiren belaunaldia ez da Jean Elizalderen edo Jean Saint-Pierrerena. Goiko taulan ageri da bakoitza zein belaunalditan dagoen. Hiriart-Urrutiren belaunaldikoak (1840-1859) 27 ziren, eta Elizalde, Saint-Pierre, Etxepare eta hauenak (1880-1899) 33. Hots, gehiago ziren azken hauek. Haatik, hogeituroko multzokatze hori zenbaki borobilekin egin ordez, urte bat gorabeherako aldaketa egin bageneza, eta Hiriart-Urruti bere ondoko belaunaldian jarriko bagenu, ikus genezake 1859tik 1880ra bitartekoak 40 lagun zirela. Hots, ehun urteko tarte horretan (bazterrean utziz XX. mendeko sei lagunak), *Eskualdunako* kideen % 40 hogeituroko adin tartekoak ziren.

Goiko grafikoaren antzeko beste bat egin dugu, oraingoan mende laurdenka sailkatuta:

Grafikoa 3. *Eskualdunako* kideak, sortu ziren urte tarteen arabera (mende laurdenka)




Garbi ageri da *Eskualdunako* kideen hiru laurdenak 1850etik 1900era bitartean sortu zirela.

5.2. Sorterria edo herri nagusia

Eskualdunako parte-hartzaileak sailkatu ditugu, halaber, beren sorterriaren eta bizilekuaren edo laneko lekuaren arabera. 22 laguneren sorterriak ez ditugu zehaztu ahal izan. Lantokiari edo bizitokiari dagokienez, aldiz, pertsona batek bat baino gehiago izan ditzake. Apaizak, bereziki, hainbat lekutan egon ziren beren bizian gandi. Ipar Euskal Herriko mapa bat egin dugu, ikusteko sorterriaren eta bizilekuaren artean, lurraldearen zein eremutan zabalzen zen *Eskualdunaren* sarea.

Grafikoa 4. *Eskualdunako* kideen sorlekuak (urdinez) eta laneko lekuak (gorritz)




Ipar Euskal Herriko 51 herri agertu dira sorlekuen zerrendan. Gehitu behar lirateke Amerikan sortu baina haur denboran Euskal Herrira jinda-

koak. Hazparnen sortu ziren hamar laguntzaile, zazpi sortu ziren Baionan, eta launa sortu ziren Donibane Lohizunen, Baigorri eta Kanbon.

Erdia baino pixka bat gehiago dira lapurtarrak, eta laurdena baino gehixeago Nafarroa Beherekoak.

Grafikoa 5. Eskualdunako kideen sorlekuak, herrialdeen arabera




Bizilekuari edo laneko lekuari dagokionez, aldiz, 67 herri zerrendatu ditugu. Sorterrien eta laneko lekuen artean, Ipar Euskal Herriko 84 herri daude ordezkaturik, hau da, Ipar Euskal Herriko 158 udalerrien % 53. Lapurdiko herrien % 78 dira ordezkaturik, Zuberoako herrien % 47,6 eta Nafarroa Behereko herrien % 42,7. Laneko eta bizitzeko lekuari dagokionez gehien agertzen diren herriak dira: Baigorri, Baiona, Donibane Lohizune, Hazparne, Larresoro, Maule, Senpere eta Uztaritze.

5.3. Ofizioak

Laguntzaile gehienek ofizioak zein ziren argitu ahal izan dugu, eta ofizioa ere sailkatu nahi izan ditugu ondoko zerrendan, aldizkariaren erredakzioaren argazki zehatzagoa lortzeko. *Eskualdunako* laguntzaileen zati handi

bat, ia erdia, apezak (apez-irakasleak barne) zen; horien ondotik gehien ager-
zen zen ofizioa medikuntzari lotua zen, hamabost baitziren medikuak. No-
tarioak bederatzi ziren, eta abokatuak bost. Ekonomiari eta finantzari lotu-
tako beste ofizioetako zenbait laguntzaile ere bazeuden, hala nola bankari
bat, kontulari bat, aseguru-etxeetako bi nagusi, bi merkatari eta baita ere
zapatari bat eta laborari bat. Laborantza-ingeniari bat ere bazegoen. Horiez
gain lau militar eta mugazain bat ere bazeuden.


Grafikoa 6. Eskualdunako kideen ofizioak




Proporzionaliki, beraz, parte-hartzaileen % 45,9 ziren apezak. Apezen ar-
tean, bederatzi izan ziren kalonje kargua izan zutenak, beste batek apezpiku
kargua izan zuen. *Eskualdunan* ibilitako zortzi apez Larresoroko apez-eskolan
aritu ziren irakasle lanetan, eta beste lau Baionako eta Uztaritzeko apez-esko-
letan. Beste zazpi apez-irakasle izan ziren, Hazparden eta beste zenbait tokitan.

5.4. Kargu politikoak

Laguntzaileen eta parte-hartzaileen argazkia osatzeko, zerrendatu ditugu
nolabaiteko kargua zuten pertsonak, eta zenbatu nahi izan dugu zein zen
kargudunen pisua erredakzioan.

Grafikoa 7. Kargu politikoren bat zuten kideak

Eskualdunako laguntzaileen artean, bi heren kargu politiko edo erlijiosorik gabeak ziren. Laurdenak zeukan kargu politiko bat, eta % 8,3k elizako kargu bat, hala nola kalonje kargua, eta horietako bat apezpiku kargura ere heldu zen.

Grafikoa 8. *Eskualdunako* kideen karguak

Kargu politikoak zituzten askoren parte-hartzea, haatik, ez da beti handia izan, edo ez zuten zehaztu zein zen haien inplikazioa. Litekeena da horietako anitz laguntzaile moral soil izatea edo biltzar nagusi batzuetara agertzea.

5.5. Euskaltzainak

Eskualdunako hainbat parte-hartzaile euskaltzain izan ziren. Zehazki, hamar izan ziren euskaltzain oso eta beste hamabi euskaltzain urgazle. *Eskualduna* astekaria desagertu artean gutxienez hogeitaz zituzten Ipar Euskal Herriko euskaltzainen artean bost euskaltzain baizik ez ziren *Eskualdunako* parte-hartzaileen zerrendetan agertzen ez zirenak. Hots, Ipar Euskal Herriko euskaltzain gehienak *Eskualdunako* kide edo laguntzaileak ziren.

6. Ondorioak

Eskualdunako arduradun, idazle eta laguntzaileen zerrendak baldin baizeuden ere, abizen zerrendaz haragoko datu gutxi zegoen. Ikerketa honetan, zerrenda horietako ia guztiak xeheki identifikatu ditugu. Oinarrizko xehe-tasun biografikoak eman ditugu.

Batetik, astekariak Ipar Euskal Herriko herri gehienetan eta eskualde guztietan zeuzkan erroak, laguntzaileen bidez. Bereziki apezki esker izan zen hori, baina baita ere hainbat politikari, mediku edo notarioen bidez ere. Argi dena da, garai hartako arduradun anitzen parte-hartze zuzena ez bazen, hurbileko sostengua bederen bazuela astekariak. Aski ulergarri da, beraz, zergatik zeuzkan 7.000 erosle baino gehiago astero.

Bestetik, astekaria, bereziki XIX. mendearen hirugarren laurdenean sortu ziren pertsonen osatu zuten. XX. mendean sortutakorik ia ez zegoen, beraz, ez zen belaunaldi berritzerik gertatu. 1944an itxi izan ez balute ere bere baitarik eroriko ote zen, berritze horren faltaz? Gazteagoek, beste gisan ere, beste aldizkari bat sortuko ote zuten, *Eskualdunan* sartu ordez?

Bibliografia

ALTONAGA, K. (2006). *Etchepare Aldudeko medikua*. Bilbo: Euskaltzaindia; EHU/UPV.

——— (2008). «Albert Goienetxe (1847-1900) politikari euskaltzale ia ezezagunaren berri laburra». *Uztaro*, 66: 43-73.

ALTZIBAR, X. (2004). «Sarrera», in X. Altzibar (ed.), *Ni kazeta-egilea naiz. Artikulu, berri, istorio*. Bilbo: Labayru Ikastegia; Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.

ANAI INNOCENTIUS ELIZANBURUREN MENDEURRENA (1995). *Euskera* 40, 711-776.

ARBELBIDE, X. (1997). *Piarres Lafitte (1901-1983)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

——— (1998). *Manex Hiriart Urruti*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

ARRIGAIN, I. (2004). *Jean Etchepare (1877-1935)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

BIDEGAIN, E. (2012). *Lehen Mundu Gerra 'Eskualduna' astekarian* [Doktorego tesia. Zuz. Charles Videgain, Josu Chueca, Bordeaux 3; EHU], <http://www.theses.fr/2012BOR30018>.

BILBAO, I. (2013). *Jean Ybarnegaray*. Donostia: Elkar.

CAMINO, I. (1994). «Hitzaurrea», in I. Camino (ed.), *Gontzetarik jalgiaziak*. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.

CASENAVE, J. (2002). *De l'article de presse à l'essai littéraire: Buruchkak (1910) de Jean Etchepare*. Universidad Nacional de Educación a Distancia.

CONGRÈS BASQUE (ESKUAL-ZALEEN BILTZARRA) (1995). *Tenu dans la ville d'Irun le 29 septembre 1904 sous la présidence de Don Arturo Campion, ancien député de la Navarre*. A. Lamaignère.

COYOS, J.-B. (2013). *Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri: Gure Herria aldizkariaren idazleak (1924-1939)*. Euskaltzaindia.

CHARRITON, P. (1988). *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak. III. Kazetaritza (A) (1903-1915)*. Donostia: Elkar.



——— (1992). *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak. IV. Kazetaritza (B) (1916-1935)*. Donostia: Elkar.

DARANATZ, J.-B. (1920). «Avant-propos», in J. Ithurri, *Napoleon-Bonaparten: Pastoral* (5-9). A. Foltzer, <http://82.116.160.16:8080//handle/10690/2220>.

——— (1924). *L'Église de Bayonne*. Baiona: Lasserre.

DIAZ NOCI, J. (1994). *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

——— (1995). *Euskal prentsaren sorrera eta garapena, 1834-1939*.

DUHAU, H. (2009). *Jean Barbier (1875-1931)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

ELISSALDE, J. (1995). *LVI.a gerlan*, ed. Patri Urkizu. Alberdania.

EUSKALTZAINDIA (2009). Euskaltzaindiak gaur betetzen ditu 90 urte, <https://www.euskaltzaindia.eus/fr/3124-euskaltzaindiak-gaur-betetzen-ditu-90-urte>.

EUSKALZALEEN-BILZARRA (1913). *1912garreneko Bil-Aldia egina 28ean Jaun Georges Lacombe buru-lehen*. Honoré Champion.

HERNÁNDEZ, A. (2001). «Eskualduna eta Piarres Lafitte», in *Lapurdum. Euskal ikerketen aldizkaria | Revue d'études basques | Revista de estudios vascos | Basque studies review* 6: 195-203, <https://doi.org/10.4000/lapurdum.1202>.

INTXAUSTI, J. (1972). «Hitzaurrea», in J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*. Donostia: Jakin.

IRIGARAI, J.A. (2004). *Fermin Irigarai 'Larreko' (1869-1949)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

ITZAINA, M. (2008). *Louis Dassance (1888-1976)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

LAFITTE, P. (1930). *Julien Heguy apheza*. Baiona: La Presse.

——— (1971a). «Sarrera», in P. Lafitte (ed.), *Jean Hiriart-Urruty. Mintzaira, aurpegia: Gizon!*. Donostia: Jakin.

——— (1971b). «Eskual astekariaren ixtorioa», *Gure Herria Almanaka*, 32.

SAINT-PIERRE «ANXUBERRO», J. (1998). *14eko Gerla Handia*, ed. Piarres Xarriton. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.



STATUTS DE LA SOCIÉTÉ ANONYME "ESKUALDUNA" (1917). A. Foltzer.

TOUYAROU PHAGABURU, E. (2010). *Jean-Pierre Duvoisin (1810-1891)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

XARRITON, P. (1987). «Eskualduna-ren mendeurrena Baionan», in *Euskera* 32 (2): 245-252.

——— (1990). *Jules Moulier Oxobi*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

——— (1999). *Piarres Larzabal (1915-1988)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

——— (2003). *Jean Saint-Pierre «Anxuberro» (1884-1951)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Arabako Zalla ibai-izenak nozitu duen itxuragabetze-prozesua

Proceso de deformación del nombre del río alavés Zalla

Processus de déformation du nom du cours d'eau
alavais Zalla

The river name Zalla in Araba has undergone a process
of distortion

GONZÁLEZ DE VIÑASPRE, Roberto
Euskaltzaindiaren Onomastika batzordearen burua

Noiz jaso: 2021-01-27

Noiz onartua: 2021-03-09

Euskera. 2020, 65, 2. 401-443. Bilbo
ISSN 0210-1564

Arabako Zalla ibaiaren izenak etengabeko itxuragabetze-prozesua nozitu du XX. mendean barrena. *Zalla* izena XVI. gizaldiaz geroztik erruz dago izkribu historikoetan, eta ahoz ere horrela iritsi da gaur arte. Hala ere, XX. mendearen hasieran *Zaya* agertu zen, yeismoaren eraginez. Sasoi hartan gertakari hori Arabaz kanpoko bazen ere, idazkera berria pixkanaka hedatu zen agiri administratiboetan. Ondoren *Zayas* sortu zen eta, azkenik, *Zaia* ustezko euskal grafia okerra. Itxuragabetze horien nondik norakoak aztertzen dira lan honetan eta *Zalla* izenaren egokitasuna berresten da.

Gako-hitzak: Zalla ibaia, dokumentazio historikoa, yeismoa, izendapen administratiboa, itxuragabetze toponimikoa.

El nombre del río alavés Zalla ha sufrido durante el siglo XX un progresivo proceso de deformación. El nombre *Zalla* figura profusamente en los textos históricos desde el siglo XVI, y así ha pervivido oralmente hasta la actualidad. Sin embargo, a comienzos del siglo XX apareció la variante *Zaya*, por influencia del yeísmo. A pesar de que entonces era un fenómeno externo a Álava, la nueva grafía fue extendiéndose poco a poco en los documentos administrativos. Después surgió *Zayas* y, finalmente, la errónea grafía supuestamente vasca *Zaia*. En este trabajo se estudian los pormenores de esas deformaciones y se concluye la idoneidad del nombre *Zalla*.

Palabras clave: río Zalla, documentación histórica, yeísmo, denominación administrativa, deformación toponímica.

Le nom du cours d'eau alavais Zalla au connu au cours du XXe siècle un processus progressif de déformation. Le nom *Zalla* figure à de très nombreuses reprises dans les textes historiques depuis le XVIe siècle. Ce nom a survécu ainsi oralement jusqu'à aujourd'hui. Pourtant, au début du XXe siècle, est apparue la variante *Zaya*, sous l'influence du yeïsme. Bien que cela ait été alors un phénomène externe à l'Alava, la nouvelle graphie s'est étendue peu à peu dans les documents administratifs. Puis est apparu *Zayas* et enfin la graphie erronée et supposément basque *Zaia*. Ce travail étudie les détails de ces déformations et tire la conclusion que la graphie qui convient est *Zalla*.

Mots-clés : cours d'eau Zalla, documentation historique, yeïsme, nom administratif, déformation toponymique.

The name of the river Zalla in Araba underwent a continuous process of distortion during the 20th century. The name *Zalla* has been recorded in historical writings for centuries, and it is still used orally to this day. However, *Zaya* was recorded in the early twentieth century under the influence of excessive use of the letter -y. Although that phenomenon was taking place outside Araba at the time, the new spelling gradually made its way into administrative

documents. Later *Zayas* appeared, and finally *Zaia* was incorrectly believed to be the Basque spelling. The details of these distortions are examined in this work, and the appropriateness of the spelling *Zalla* is confirmed.

Keywords: Zalla River, historical documentation, excessive use of the letter Y, administrative designation, toponymic distortion.

1. Atarikoa eta ibaiaren kokapen geografikoa

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak Arabako Zalla ibaiaren izen egokiaz galdetu dio Euskaltzaindiko Onomastika batzordeari. Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean *Zalla* izen arautuarekin ageri da, baita *GeoEuskadi* bisorean ere. Alabaina, forma horrekin bat ez datozen zenbait aldaera (*Zaya*, *Zayas* eta *Zaia*) aspaldian hedatzen eta ugaltzen hasiak direla oharturik, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak irizpena eskatu dio Onomastika batzordeari, *Zalla ibaia* “izen arautu egokia den edo ez ziurtatzeko”.

Azterlan honek erantzun funtsatua eman nahi dio kontsultari. Xede horrekin, berariazko ikerketa egin da. Iturri dokumentalak arakatu dira, zaharretik garaikidera,¹ aztergaiaren bilakaera historikoa zehazteko asmoz. Ibaiaren izenak nozitu dituen itxuragabeteen nondik norakoak erakusten dira, horiek guztiak arauketan baztertzekoak direla ondorioztatzen da eta, azken buruan, *Zalla* izenaren egokitasuna berresten da.

Zalla laburrenetakoa da Zadorra ibaira isurtzen diren ur-lasterretan. 940 metroko altitudetan sortzen da, eta 28,3 kilometroko ibilbidea du Zadorrarekin bat egiten duen tokiraino (Confederación Hidrográfica del Ebro 2010).

Ibaiaren sorburua, ibilgua eta ahoa zein diren jakiteko, informazio zehatz-mehatza dakar *Diccionario Geográfico-Histórico de España* (1802), *Zalla* edo *Lendia* sarreran:

Rio de la pr[ovincia] de Álava. Se forma de 4 riachuelos que nacen en distintos parages de las faldas de la sierra de Gorbéa: el principal descende del monte de Ogueta, ramificación de aquella sierra, pasa por junto á la ermita de la Magdalena, y haciendo mover despues los molinos de Ocaranca [sic, *Ocarança* ordez] y Echaguen, cuyos términos baña por o[este] dexándole á la izquierda, llega hasta Murua, donde se une con otro que trae su origen y nace en el

¹ Pedro Uribarrena artxibozainaren lankidetzara oparota izan dut egiteko horretan. Berari zor dizkiot Eztarroa, Gereña, Mendotza eta Tresponde kontzejuen artxiboetako datuak, baita Arabako Proibintzia Artxibo Historikoan dauden protokoloetakoak ere.

monte tocornal de este lugar y del de Manurga, corriendo desde aquí por el sitio donde está la ermita de santo Tomás: incorporados los dos, discurren de n[orte] á s[ur], por términos de dicho pueblo de Murua y por los de Larrinoa que baña por e[ste] dexándole a la derecha, Gopegui por o[este] y Ondátegui por e[ste]: poco más adelante de éste se juntan con el que descendiendo de la falda de la mencionada sierra, pasa por el e[ste] de Manurga, dexándole a la derecha. Unidos en esta forma los tres ramos, se ocultan en la dehesa de Ondátegui, entrando por un grande agujero de peña viva que hay en ella, al qual llaman los naturales bocaron de Zaragoza,² y corriendo por debaxo de tierra como quarto y media de legua, vuelve á salir poco ántes de llegar á Apodaca junto al camino real de pos-

² *Bocarón de Zaragoza* lekuaz dihardu Landazurik, izenik eman gabe: “[...] despues de haber corrido algun pequeño terreno, se sepultan, y á la similitud del Guadiana vuelve uno de ellos [...]” (Landazuri 1798). Moldeko letran estreinako aldiz ageri da leku-izen hau 1802ko *Diccionario Geográfico-Histórico de España*. Izen bera du *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España* (Madoz 1845-1850). Ondoren, Gorbeia-ko uren aprobetxamenduari buruzko lan batean aipatzen da: “Bocarón de Zarragua” [sic] (Robert; González de Lopidana 1867). Gehiagotan ageri da XX. mendearen hasieran inprimaturako idatzietan: El Bocazón [sic] de Zaragoza (Becerro de Bengoa 1880 [1918]) eta El Bocarón / Bocarrón de Zaragoza (Carreras i Candi circa 1915).

Aldiz, hurrengo idatzietan *Zaracua* da nagusi, *Zaragua* aldaeraren kaltean. Halaber, *bocarón* izen generikoa alboratuta, *bocarrón* gailendu zen: “Bocarrón o torco de Zaracua” (Susaeta 1925). Horrela ere idoro daiteke: “Boquerón de Zaracua” (Apraiz 1929). XX. gizaldiaren bigarren erdian, Apodakako ikerketa etnografikoan: “Bocarrón de Zaracua” (Sáenz de Urturi 1982). Hala ere, *Zaragua* aldaera XX. mendeko azken hamarkadetan ere ageri da: “Zaragua, bocarrón donde se oculta el arroyo Lendia” (López de Guereñu 1989). Aunamendi Eusko Entziklopedian biak erabiltzen dira, “Bocarrón de Zaragoza” (<http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/zaragua-bocarron-de/ar-146169/>) nahiz “Torco de Zarakua” (<http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/ondategi/ar-110610/>). Ohargarria da Ondategiko herritarren gaurdainoko ahozko aldaera *Zarakua* dela (González Salazar 1996). Erabilera horrek zuzeneko lotura du dokumentaturiko lekukotasun zaharrenarekin: “Zaracua, 1792, labrantío de Ondátegui” (López de Guereñu 1989). Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialak *Zarakua* du toponimo lehenetsi gisa, eta *GeoEuskadin* ere ageri da. Uste izatekoa da jatorrizkoa *Zarakua* dela, eta *Zaragua* erak idatzizko erregistroan dukeela sorburua, zehazki *Diccionario Geográfico-Histórico de España* (1802).

Espainiako Errege Akademiaren hiztegian *boquerón* da arauzko hitza: “boquete o abertura de gran tamaño”. Arabako toponimian *boquerón* zein *bocarón* daude. Berroztegi-tako haitzuloak dira: “Los Bocarones” eta “Los Boquerones” (López de Guereñu 1989).

tas. Aquí recibe nuevos caudales, incorporándosele el que corriendo de n[orte] á s[ur] con alguna inclinación á e[ste] baña por o[este] los términos de Olano, dexándole á la izquierda, Zaitegui y Letona por e[ste] y á la derecha, pasa por medio de Foronda, por Antezana y Estarota [sic, Estarrona orde] á la izquierda, y poco mas delante de esta villa enfrente de Margarita desemboca en el Zadorra (Academia de la Historia 1802).

2. Ibaia izendatzeko aldaeren lekukotasunak

Jakina da ibai gutxi batzuek –nagusiek baino ez– izan ohi dutela antzinatik izen berezi bakarra beren bide osoan.

Arabakoetan horietakoa da Zadorra ibaia, lurraldeko ezagunena. Estreina aldiz ageri da Miranda de Ebroko foru-gutunean (1117)³ eta aurrerago ere, 1241ean, izen bera hartzen du Ebrorekin bat egiten duen tokian.⁴ Ibilguan gora, Argantzongo foru-gutunean aipatzen da (1191),⁵ eta, ondoren, Trebiñuko foru-gutunean (1254) ere bai: “ffasta el agua que es dicha Zadorra”.⁶ Berriz azaltzen da, 1317. urtean, Añanako gatzá sal zitekeen lurralde-mugak zehazten diren erregalian: “aquende Ebro fasta el agua de Cadorra [sic, Çadorra orde]”.⁷ Hortik aurrerako izkribuetan ere izen hori du, grafiak grafia: 1495ean⁸ eta Argantzongo mugarri-bisita batean (1536).⁹ Gorago, Aguraindik gertu, XIV. mendearen bukaeratik aitzina dokumenta-

³ (Martínez Díez 1982: 43-44): “pro alhoç usque dum coniunguntur Çadorra et Ebro [...]. Et Çadorram uerssus sursum totam aquam” [“por alfoz incluso hasta donde confluyen el Zadorra y el Ebro [...] y, Zadorra arriba, toda el agua”].

⁴ (Ruiz de Loizaga 2016: 166): “las dos [piezas] yssen a Zadorna [sic]”.

⁵ (Martínez Díez 1982: 169-171): “Et qui fecerit molendinum in aqua de Zadorra”.

⁶ *Ibidem*, 203. or.

⁷ (López Castillo 1984: 60)

⁸ (Iñurrieta 1983: 83)

⁹ (Vergara 1977: 97-106) Zadorra erreka zenbait aldiz aipatzen da: “el dicho mojon [...] por la dha cequia e rivero asta el Rio de Zadorra”.

tzen da: “el río de Çadorra” (1488),¹⁰ “ryo que se llama Çadorra” (1493)¹¹ eta “rio que dizen Çadorra” (1519).¹² Ibaiari ez zaio beste izenik ezagutu.

Antzinatek izen bakarra duten Arabako ibai bakanetan, beste bat dugu *Ihuda*. Kapildui mendia magalean sortu, Trebiñu Konderria zeharkatu eta, Miranda de Ebrotik gertu, Zadorrara isurtzen da. Aski goiz ageri da izkribu zaharretan, XI. mendean, *Ibita* (eta *Ibida*) erarekin. Trebiñuko foru-gutunean (1254) *Ibdara* aldatuta azaltzen da: “el agua de Ibda”. Ondoren, *Ibdatik Yudara* urrats laburra dago. Bigarren aldaera erruz aurkitzen da XVII. mendearen bukaera bitarteko testuetan, *Ayuda* aldaera agertu arte. Uste izatekoa da bilakaera hori gaztelaniaren eraginez gertatu zela, garai hartan nabaritzen ari baitzen euskararen gainbehera Trebiñu Konderrian. Orduz geroztik azkar hedatu zen *Ayuda* izena, harik eta hegemoniko bihurtu arte.

Alabaina, salbuespenak dira horrelakoak. Berandu arte ez da ohikoa ibai txikiek izen bakarra izatea. Alderantziz, gehienek izen desberdinak izan dituzte beren bidean, sarrienik ibaiaren ondoko leku-izenetatik hartuak. Dio-gunaren argigarria da azken hamarkadetan *Inglares* aldaerarekin ezagutu den Arabako *Jugalez* ibaiaren kasua:

Como es frecuente en los pequeños cursos fluviales, el río [Jugalez] no ha tenido una denominación común en todo su recorrido, sino que ha recibido distintos nombres a lo largo del mismo. Eso fue cambiando, sobre todo en el siglo XIX, porque surgió la necesidad de emplear denominaciones que lo abarcaran en su conjunto, para su representación cartográfica y su mención en los grandes diccionarios geográficos. A pesar de eso, todavía se mantienen denominaciones parciales del río [...]. Hay en su curso otro término que ha dado nombre al río [...]. Se trata del topónimo que actualmente se dice Jubalez en Santa Cruz del Fierro [...]. Ese nombre de lugar, aplicado a una amplia heredad ribereña del río, es heredero de la denominación Jugalez. A partir de ese término se ha ido extendiendo el nombre a todo el curso fluvial (González de Viñaspre 2017: 231-232).

¹⁰ (Paz 2013: 254)

¹¹ (Pozuelo 2005: 204)

¹² (Paz 2013: 333)

2.1. Izen generiko hutsa, espezifikorik gabe

Sarritan ageri ohi da ibaia Gereñako kontzejuaren XVII.eko eta XVIII. mendearen lehen erdiko izkribuetan, osagai espezifikorik gabe, soil-soilik izendapen generikoa baliatuta: “Río Mayor”, “Río Caudal” edo sinpleki “Río”.

Lehenbizikoaren erakusgarri dira, besteren artean: “vn riuaço en el dho Rio Mayor” (1664)¹³ nahiz “una ysla en el Rio Mayor” (1665).¹⁴ Hurrengo gizaldiaren lehen erdikoak dira etsenpluok: “quando se conpuso el rio Mayor” (1715)¹⁵ eta “deri[r]bando las yslas del rio Mayor para que megor cor[r]iese el agua” (1718).¹⁶

Izendapen generiko gisa “Río Caudal” ere aurkitzen da. Esaterako, “conponer puenttes y caminos y ribazos del rio Caudal” (1735).¹⁷

Azkenik, “Río” generiko soila ere ageri da ibaiari erreferentzia egiteko: “componer ribazos en la orilla de el Rio” (1738).¹⁸

2.2. Lendia izena

2.2.1. Lekukotasun zaharrena

Agiri zaharretan idoro dugun lekukotasun goiztiarrena Gereña herrikoa da, eta XVIII. gizaldiko kopia baten bitartez iritsi zaigu. Jatorrizko izkribua 1523koa izanik ere, informazio zaharragoa dakar, bertan jasotzen baita 1385eko epai baten transkripzioa. Bi bider ageri da ibaia XIV. gizaldiko testu horretan. Bietan *Lendia* izena hartzen du: “comenzando en la fuente

¹³ Gereñako kontzejuaren artxiboa, 2H kutxa, 23. dok, 9. argazkia.

¹⁴ *Ibidem*, 11. argazkia.

¹⁵ *Ibidem*, 104. argazkia.

¹⁶ *Ibidem*, 111. argazkia.

¹⁷ *Ibidem*, 151. argazkia.

¹⁸ *Ibidem*, 158. argazkia.

de Sarniendi [sic] fasta el Rio de Lendia”;¹⁹ eta “asta el agua de Lendia por do están los moxones de piedra puestos”.²⁰

2.2.2. XVII-XVIII. mendeak: Gereñako izkribuak

Aurrerago ere, XVII. mendean eta XVIII. gizaldiaren hastapenean, *Lendia* da Gereñako izkribuetan ageri den izen espezifikoa bakarria. Esaterako, 1579ko lekukotasun hau: “una pieza en termino de Lendiaburua, al rio Lendia”.²¹ Horrela ere irakurtzen da 1661-1741 bitarteko kontu-liburuan: “un madero [...] por puente en el Rio de Lendia” (1675).²²

2.2.3. XIX-XX. mendeak: *inprimatutako lanak*

XIX. gizaldiaren muga-mugan ikusi zuen argia Landazuriren Arabako Historia Zibilak (1798). Bertan, *Zalla* sarreran, *Lendia* izena aipatzen du egileak. Itxura denez, soilik Apodakako iturburuari egiten dio erreferentzia izen horrek, ez ibai osoari:

ZALLA. [...] despues de haber corrido algun pequeño terreno, se sepultan, y á la similitud del Guadiana vuelve uno de ellos á renacer en el expresado manantial del rio Zalla, llamado por los naturales Lendia.

Lan honen lehenbiziko atalean aipatu bezala, *Zalla* eta *Lendia* sarrera bikoitza ageri da *Diccionario Geográfico-Histórico de Españan* (1802). Madozen *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de Españan* (1845-1850) ibaiak *Zalla* izen bakarria hartzen du Zadorrarainoko ibilgu osoan, salbu eta

¹⁹ Gereñako kontzejuaren artxiboa, 1H kutxa, 7. dok, 16. argazkia: “Poderes, concordia y sentencia arbitraria entre los conzexos y vezinos de los lugares de Guarena y Mandoxana sobre los monttes, pasttos, terminos y señorío de Zauala y Arana, fasta Muscurruchagana e Tortula, y la Herea de Yuso, Vizcar Veá y Bori ostea y otros de el señorío de tierra, leña y aprouechamiento”.

²⁰ *Ibidem*, 17. argazkia.

²¹ APAH, 6881. f. Elena Martínez de Madinak jakinarazi dit datu hau.

²² Gereñako kontzejuaren artxiboa, 2H kutxa, 23. dok, 28. argazkia.

Apodakan. Herri horretan lurpetik birsortzen denean izen bikoitza hartzen du: “a las márgenes del riachuelo Zalla o Lendia”.²³

Urte gutxira, 1862an, Krispiña-Izarra burdinbidearen zati bat eraikitzeari buruzko memoria tekniko batean, berriz ageri da izendapen bikoitza:

El ramal de ferrocarril que proponemos [...] salva el pequeño río Zalla ó Léndia y continua entre Ullivarri-Viña y Martioda.²⁴

Ricardo Becerro de Bengoak bi izenak darabiltza 1880an izkiriatu baina 1918an argia ikusi zuen *Descripciones de Álava* izeneko liburuan: “Guereña sobre el Zalla, ó Lendía” (67. or.). Alabaina, idazlan bereko beste pasarteren batean, izen bakarra baliatzea hautatzen du:

Las arboledas del río Zalla [...] que van á juntarse con las del Zadorra en el escondido puente de Mamario (62. or.)

XX. gizaldiaren hasieran, *Geografía General del País Vasco-Navarro* obra-
ren barruan Vicente Verak Arabako probintziaz prestatu zuen liburukian
(Carreras i Candi circa 1915) *Zalla* izena baino ez da erabiltzen aipu gehie-
netan. Hala ere, izendapen bikoitzik ere ageri da noizbait:

Cerca de Margarita acrecenta también el Zadorra su caudal con las aguas del río Zalla ó Lendia, formado por cuatro riachuelos que nacen en varios puntos de las estribaciones de la sierra de Gorbea (26.-27. or.)

Mendearen akaburaino idoro daiteke izen-aniztasun horren lorratza, areago handiturik, Sáenz de Urturiren Apodakako azterketa etnografikoan: *Lendía* [sic, *Lendia* ordez], *Zalla* eta *Zaya* –nahasian– izenak ematen dizkio ibaiari:

Situado sobre un altozano bordeado por el río Zalla o Zaya, también llamado Lendía [...]. El río Zalla nace en el Gorbea, aquí se llama Subialde, hasta el Bocarrón de Zaracua. Desde Zaracua hasta la desembocadura en el Zadorra toma el nombre de Zalla o Zaya. En el Bocarrón de Zaracua desaparece para aparecer en el pozo de Len-

²³ *Ibidem*, 87. or.

²⁴ *Ferro-carril de Crispijana á Izarra en la provincia de Álava*, 1862, Gasteiz, <http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/26081>, 9. or.

día, a 500 mts. aproximadamente de Apodaca. Desde aquí hasta la desembocadura se le conoce también por Lendía” (121.-124. or.)

2.3. Zalla izena

2.3.1. *Hasierako lekukotasunak*: XVI-XVII. mendeak

Behin baino gehiagotan azaltzen da *Zalla* izena XVI. mendeko izkribuetan, ibaiari erreferentzia eginez. Lehenbiziko testigantza 1542ko auzi zibil batean idoro dugu,²⁵ Mendotzako lekuko baten ahotan: “las aguas e abenidas que byene por el ryo de Çalla”.²⁶ Horrezaz gainera, Gereñako Juan de Zaldueño artzainaren zinpeko deklarazioan, sei bider irakurtzen da “ryo de Çalla”.²⁷

Zalla izenaren hurrengo lekukotza 1546koa da. Mendotzako kontzejua-ren artxiboan gordetik dago, 1546tik 1863ra bitarteko paper-sorta batean:

Contrato entre la villa de Mendoza y el lugar de Trespuentes, en razon de la division de propiedad y comunidad de terminos, montes y pastos, desde la Sierra Braba de Badaya, hasta el rio Zalla cerca de Zadorra.²⁸

Eskribau berak idatzia da hurrengo lekukotasuna. 1560ko izkribu baten 1568ko kopian iritsi zaigu. Nabarmentzekoa da kasu honetan *Zalla* izena ez dagokiola ibaiari, baizik eta ur bazterreko lursail izenkideari: “los termynos y pastos del prado q[ue] se dize y nombra el prado de Bengo Ugaldea y Subacohasa [sic] y Laba Yturre y Zalla y Sarburua y Landazabal y Solaburueta”.²⁹

XVI. mendearen bukaerako izkribu gehiagotan ageri da izena. Kasurako, Eztarroa herrian: “un molino en el rio de Çalla [...] deuaxo de la hermita de

²⁵ Valladolideko Errege Kantzelaritzaren artxiboa. Pleitos Civiles, Fernando Alonso (F), Caja 1148.0003.

²⁶ *Ibidem*, 50. argazkia.

²⁷ *Ibidem*, 99.-101. argazkiak.

²⁸ Mendotzako kontzejua-ren artxiboa, 1H kutxa, 3. dok., 1. f. Eskribaua: Yñigo de Ugarte.

²⁹ Mendotzako kontzejua-ren artxiboa, 2H kutxa, 24. dok., 6 f. itzulia.

San Mames” (1589).³⁰ Eta Trespondeko artxiboan: “mas arriba de la madre del dho Rio de Çadorra, rio arriba de Çalla, a la p[ar]te de Mendoça” (1594).³¹

Hortik aurrerako lekukotasunak XVII. mendearen bigarren erdikoak dira. Beraz, ulertu behar da ibaiaren izenak jarraitutasuna izan zuela lehen mende erdian ere, gutxienez Mendotza eta Eztarroa herrietan, dokumentazioaren isilaldiaren ondoren *Zalla* forma erruz berragertzen delako. Esaterako, Eztarroan: “zerca de el rio caudal que llaman Zalla” (1658).³²

Handik hurbil, Mendotza herrian, zenbait aldiz dokumentatzen da XVIII. gizaldiaren bigarren erdian. Adibidez, Mendotzako eta Trespondeko mugarrietan: “desde este dho sitio de Requeta asta llegar al Rio Zalla, serca [sic] de la entrada del Rio Zadorra” (1682).³³ Eskribau berak idatzia da Mendotza eta Uribarri Dibiña herrien arteko mugarren bisita-agiria: “azequia que baxa desde la dha fuente de Labayturri al dho rio caudal de Zalla” (1685).³⁴ Mendotza eta Tresponde herrietako mugarren bisita-agiritik hartua da honakoa: “mojones divisorios de propiedad y comunidad entre dicha villa y lugar de Trespuentes, desde la Sierra Braba de Badaia hasta el rio Zalla” (1694).³⁵

2.3.2. XVIII. mendeko testigantzak: *ibaiaren bokaletik gora*

Honaino aipatutako lekukotasunak ibaiaren bokaletik hurbilen dauden herriei dagozkie. Aldiz, XVIII. mendearen hastapenean, ibaiaren ibilguan

³⁰ Eztarroako kontzejuaren artxiboa, C19 kutxa, 249. dok., 17. f. Eskribaua: Martín Sáenz de Asteguieta.

³¹ Trespondeko kontzejuaren artxiboa, C59 kutxa, 612. dok. Eskribaua: Martín Ortíz de Uriarte.

³² Eztarroako kontzejuaren artxiboa, C16 kutxa, 170. dok., 5. f. Eskribaua: Francisco Díaz de Sarralde.

³³ Mendotzako kontzejuaren artxiboa, 1H kutxa, 3. dok., 15. f. Eskribaua: Andrés Francisco Esquivel.

³⁴ Mendotzako kontzejuaren artxiboa, 2H kutxa, 24. dok., 23. f. Eskribaua: Andrés Francisco Esquivel.

³⁵ Mendotzako kontzejuaren artxiboa, 1H kutxa, 3. dok., 1. f. itzulua. Eskribaua: Jerónimo Díaz de Sarralde.

gora hedatzen joan zen *Zalla* izena, harik eta Gereña herrira iritsi arte. Lehenago esan bezala, XVIII. gizaldiko lehen hamarkadak arte “Río Caudal” eta “Río Mayor” erako izendapen generikoak izan ditu ibaiak Gereñan, baita *Lendia* izen berezia ere. Gereñan *Zalla* izenaren agerpenik goiztiarrena kontzejuaren kontu-liburuan aurkitu dugu, 1700. urtean: “se abrió la zequia y arroyo que empieza en el sitio que llaman el puente y paso de Azubea asta dar junto al rio caudal que llaman de Zalla”.³⁶

Gereñako kontu-liburu berean gehiagotan aipatzen da *Zalla* izena hurrengo urteetan, maiz ibaiaren ur-goraldiek eta gainezkaldiek eragindako kalteak konpontzeko lanen kariaz. Besteak beste:

Con el motiuo justo de çerrar ribazos, abrir zanjas, componer puentes y camino y que con las continuas aguas y crezidas de rio que el dho año se experimentaron en este dho lugar y otros de su cercanía, se ocupo el conzejo y vezinos de este dho lugar, muchos dias / asi en la riuera de el Rio Zalla como en otros parages a donde se hizo mucho y considerable daño (1737).³⁷

Muchos dias que los vezinos de este dho lugar se an ocupado en obras conzejiles en el penoso trabajo de componer y lebantar ribazos q[ue] las continuas crezidas abrieron en las orillas de el Rio Zalla (1739).³⁸

Ibilguaren behealdeko herrietako agirietan *Zalla* izena du ibaiak XVIII. gizaldi osoan barrena. Esaterako, Eztarroan, “pegante al rio Zalla” (1714).³⁹ Hala ere, izkribuetan *Zalla* izena ez dagokio beti ibaiari, baizik eta ibai-bazterreko lursail bati. Gaur egun ere mantentzen da izena Uribarri Dibiñan (González Salazar 1988). Testu zaharretan ere badago horren aztarrenik. Kasurako, 1742an, Mendotzako kontzejuak Eztarroakoari eraikitzen ari zi-

³⁶ Gereñako kontzejuaren artxiboa, 2H kutxa, 23. dok., 67-68. f. Eskribaua: Carlos Sáenz de Asteguieta.

³⁷ Gereñako kontzejuaren artxiboa, 2H kutxa, 23. dok., 156. f. Eskribaua: Matías González de Otazu.

³⁸ Gereñako kontzejuaren artxiboa, 2H kutxa, 23. dok., 161. f. Eskribaua: Matías González de Otazu.

³⁹ Eztarroako kontzejuaren artxiboa, C 16 kutxa, 170. dok. Eskribaua: Jerónimo Díaz de Sarralde.

ren errotaren presa eraits zezatela eskatu zionekoa. Honela jasotzen da auzi hartan emandako ahalorde batean:

En razon del modo en que pudiera edificar dha villa de Estarrona en su propio territorio y jurisdiccion molino o rueda en la rivera que descende del Rio que nace donde llaman Lendia, y pasa por los terminos de Zalla, Zubinoviarte, propios de esta dha villa de Mendoza y de los lugares de Ulivarri de Viña, Guereña y otros.⁴⁰

Goiko pasartean hiru jakingarri biltzen dira: ibaia “El Río” generiko soilaz aipatzen da, ibaiaren sorburuak *Lendia* izena du eta *Zalla* izena duen ibai-bazterreko lursailaren ondotik iragaten da.

Alabaina, izkribu berean *Zalla* izenarekin erreferentzia egiten zaio ibaiari ere:

Los vecinos de dha villa de Estarrona han abierto en su propia jurisdiccion y territorio un cauce para conducir la agua desde el referido Rio Zalla a un molino que nuevamente han fabricado en parage que nunca le ha avido hasta ahora.⁴¹

Lekukotasun gehiago daude hurrengo urteetan. Mendotzan, “desde la Sierra de Badaya hasta el rio Zalla” (1757).⁴² Eztarroan, “pegante al rio de Zalla” (1762).⁴³ Mendotza eta Uribarri Dibiña herrien arteko akordio batean: “que se yntroduzca al rio de Zalla” (1768).⁴⁴

Bestalde, XVIII. gizaldian, Zalla ibaiaren izena probintzia-administrazio-ko agirietan ere azaltzen da. Kasurako, Arabako Probintzia Artxibo Historikoan dagoen 1758ko zigor-arloko eginbide judicial honetan:

Ha auido varias queexas sobre el mal passo que se a allado y alla en el camino que de esta dha villa tira para el puente mayor de el Rio de Zalla y lugar de Vllibarri.⁴⁵

⁴⁰ APAH, 746 protokoloa, 22. f. itzulia - 23. Eskribaua: José de Luco.

⁴¹ *Ibidem*, 23. f. itzulia.

⁴² Mendotzako kontzejuaren artxiboa, 1H kutxa, 3. dok. Eskribaua: Juan Antonio de Sarralde.

⁴³ Eztarroako kontzejuaren artxiboa, C 16 kutxa, 170. dok. Eskribaua: Juan Antonio Sarralde.

⁴⁴ Mendotzako kontzejuaren artxiboa, 2H kutxa, 25. dok. 2. f. Sortzailea: auzokoak.

⁴⁵ APAH, Signatura: Justicia 26591, 1. f.

Reparar y componer en toda forma dho camino de carro por que por el no salga a sus terminos y montes la agua de dho rio de Zalla.⁴⁶

Arabako Probintzia Artxibo Historikoko 1765eko protokolo batean, María Ana de Lezanaren ondasunen inbentarioan, Gereñako lursail baten mugak zehazten dira: “por el mediodia alinda con un rribazo y con el rio Zalla y por el nortte con el camino de Zubialdea”.⁴⁷

XVIII. mendearen bigarren erdikoak dira Tomás López geografoari Tomás Fernández de Zuazo informatzaileak bidali zizkion bi gutunak. Lehenbizikoak 1766ko abuztuaren 30eko data du:

Se pasa por dos puentecitos el río Zalla, que entra en Zadorra sobre Momario [...]. Continuando cerca de media legua desde Legarda pasa un buen puente sobre el río Zalla. (Altarriba 2000: 176-177)

Bigarren gutuna urte bereko irailaren 17koa da:

Ocaranza son unos molinos dentro del monte Gorbea, [...] que muelen con el agua que allí mismo nace de unas fuentes que al i[n]vierno dan principio al río Zalla, que corre por la Hermandad de Zigoitia y al verano se suma y se cree es la misma agua que sale en Lendea [sic, *Lendia* ordez], a dos tiros de bala sobre Apodaca al norte. (Altarriba 2000: 179)

Handik lau urtera, Madrilen inprimatu zen Tomás Lópezen Arabako mapa. Bertan “Río Zalla” irakurtzen da (López 1770).

Urte horretakoa dugu Arabako diputatu nagusiak Eztarroa, Gereña eta Uribarri Dibiña herriei zuzendutako jakinarazpena, bi urteko epean ibaier-tzak konpon zitzaten agindua ematen ziena. Zenbait aldiz ageri da *Zalla* izena dokumentuan ibaiari erreferentzia eginez:

La acequia del term[in]o de Ormetea que pega al río Zalla en la jurisdicción propia de dho Guereña.⁴⁸

⁴⁶ *Ibidem*, 1. f. itzulia.

⁴⁷ APAH, 1.002 protokoloa, 17. f. itzulia. Eskribaua: Andrés de Lezana.

⁴⁸ Gereñako kontzejuaren artxiboa, 3H kutxa, 35. dok., 1. f. itzulia.

Del dho puente de Vllibbarri arriba se hace notabilísimo daño a los lugares de Guereña, Vllíbarri y Estarrona por la falta del ojo en dho puente pues pierde los mejores términos que pegan al río Zalla.⁴⁹

Por lo correspondiente al río Zalla debe hacerse la misma operación de limpiarlo de broza y árboles.⁵⁰

Uste izatekoa da dokumentu berean, zenbait aldiz, ibaiertzeko *Zalla* izeneko lursailaz diharduela, ez errekaz:

Será muy útil y beneficioso al pueblo el que el río se endereze por el mismo cotiado dejando el recodo q[ue] hace a la parte de Zalla y quedando aquella parte por donde pasa actualmente el río p[ar]a el mismo lugar de Vllibbarri.⁵¹

La cequia de Capanaza que es desde el campo de Landetea asta q[ue] entra en Zalla se deve limpiar de toda la broza y maleza que tiene y quitar los árboles q[ue] existen en ella.⁵²

Landazuriren Arabako Historia Zibilean honela deskribatzen da ibaiaren ibilgua:

ZALLA. Este río tiene uno de sus manantiales cerca del pueblo de Apodaca, perteneciente a la Hermandad de Badayoz. No se dixo primer manantial, por que desde él á la montaña de Gorbea se encuentran otros en corta distancia en jurisdiccion de la Hermandad de Cigoytia, los quales despues de haber corrido algun pequeño terreno, se sepultan, y á la similitud del Guadiana vuelve uno de ellos á renacer en el expresado manantial del rio Zalla, llamado por los naturales Lendia [...].⁵³ Luego que toma su curso el rio Zalla en el manantial de Lendia sigua [sic] de norte á poniente por los pueblos de Apodaca, Foronda, y Antezana, pertenecientes a la Hermandad

⁴⁹ *Ibidem*, 3. f. itzulua.

⁵⁰ *Ibidem*, 3. f. itzulua.

⁵¹ *Ibidem*, 2. f. itzulua.

⁵² *Ibidem*, 3. f. itzulua.

⁵³ Azterlan honen 6. orrialdean adierazi bezala, badirudi hemen soilik Apodakako iturburuari egiten diola erreferentzia *Lendia* izenak, ez ibai osoari.

de Badayoz. Introdúcese despues en la de Mendoza, pasando por cerca de la villa de Estarrona, y á poca distancia de ella se une con el rio Zadorra (Landazuri 1798: 94).

2.3.3. XIX. mendea: askotariko testuetako lekukotasunak

XIX. mendea hiztegi geografiko-historikoen garaia da. Bereziki interesekoa da Historiaren Errege Akademiak (1802) plazaratu zuen lana, bi liburukitan bildu baitzuen Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako geografia historikoa. *Zalla* edo *Lendia* ibaiari dagokion sarrera azterlan honen lehen atalean jaso da, ibaiaren kokapen geografikoa zehazteko.

Hiztegi horren beste zenbait sarreratan ageri denez, Gorbeialdetik datorren errekastoa Ondategi herriaren mugapeko troka batean amildu eta lurpean desagertzen da. Horraino ez du *Zalla* izena hartzen. Aurrerago, Apodaka herrian azaleratzen da berriro ibaia, *Lendia* izeneko lekuan. Toki horretan, ibaiak izen bikoitza du: *Lendia*, sorburutik hartzen duena, eta *Zalla*, ibaiaren bokaletik gora hedatzen joandakoa:

APODACA [...]. En la ribera del **rio Zalla** ó *Lendia*, que baña sus términos por o[este]. (Academia de la Historia 1802: I. 81)

Hortaz, ibaiaren behealdean, Zadorrako urekin elkartzen den inguruan, *Zalla* izen bakarra du: “ESTARRONA [...] bañánla por s[ur] el rio Zadorra por o[este] el Zalla” (I. 263).

XIX. mendeko hiztegi geografiko-historikoetan erreferentziazko obra da Pascual Madozena (1845-1850). *Zalla* edo *Lendia* sarreraren testuak ageriko zorra dio 1802koari, ia hitzez hitz hartua baita.

Hiztegi horretan, Zadorrarainoko ibilgu osoan *Zalla* izena besterik ez du ibaiak, salbu eta Apodakan. Herri horretan lurpetik sortzen den urak izen bikoitza hartzen du: *Lendia* eta *Zalla*. Honela ageri da izena Zadorrako elkargunetik ibilguan gora: Eztarroan, “le bañan por Sur el río Zadorra y por Oeste el Zalla”;⁵⁴ Uribarri Dibiñan, “le atraviesa por el Este el rio

⁵⁴ (Madoz 1845-1850: 125)

Zalla”;⁵⁵ Gereñan, “le baña el río Zalla”;⁵⁶ Forondan, “le baña el río Zalla”;⁵⁷ Apodakan, “a las márgenes del riachuelo Zalla o Lendia”.⁵⁸

Tokiko eta probintziako dokumentuetan sarritan aipatzen dira ibaiaren uraldiak eragindako kalteak. Esaterako, 1817an, Arabako Batzar Nagusietako agiri honetan:

Comisionados del lugar de Ullívarri de Viña, en que exponiendo la necesidad de la reposición de un segundo arco, del puente del río Zalla, y reparos del anterior, pretenden el abono de la mitad del coste de los fondos comunes. (73-74 or.)⁵⁹

Orobat, Gereñako kontzejuaren artxiboan gordetzen da ibaiaren kariaz inguruko herriekin izandako akordioen eta auzien berri. Kasurako, 1833koa da Zalla ibaian egin beharreko lanei buruz Martín Saracibar probintziako arkitektoaren irizpena eta Eztarroa, Gereña, Mendotza eta Uribarri Dibiña herrien arteko ahozko epaiketaren ebazpena:

Comisioné en forma al arquitecto don Martín de Saracibar para que personándose en unión de los mismos comisionados en los límites y jurisdicción de los cuatro pueblos narrados por donde atraviesa el río Zalla, me propusiese medidas capaces de cortar los males que causan las aguas en tiempos de avenidas, por falta de limpieza de sus yslas y motas que inpiden su libre curso.⁶⁰

Gereña eta Uribarri Dibiña herriek Eztarroarekin lortutako akordioa jasotzen da Gereñako kontzejuaren artxiboko bi dokumentutan, lehena 1844koa eta bigarrena 1845koa:

⁵⁵ *Ibidem*, 189. or.

⁵⁶ *Ibidem*, 130. or.

⁵⁷ *Ibidem*, 126. or.

⁵⁸ *Ibidem*, 87. or.

⁵⁹ *Actas de las Juntas Generales Ordinarias y Extraordinarias del mes de mayo de 1817, celebradas en el lugar de Zurbano y ciudad de Vitoria, por esta M.N. y M.L. Provincia de Álava* <https://euskalmemoriadigitala.eus/handle/10357/47290>, 73-74 or.

⁶⁰ Gereñako kontzejuaren artxiboa, 4H kutxa, 51. dok., 1. f.

Para impedir que sus términos labradíos se inunden de agua por ambos lados de la villa en las crecidas y avenidas del dho río Zalla.⁶¹

Que se haga la limpia y ensanche que se contemplen necesarios en el insinuado río Zalla.⁶²

Agiri teknikoetan ere azaltzen da Zalla ibaiaren izena. Horietako bat da, 1855ean, kolera-epidemiak hiria ez ezik probintzia osoa ere jo zuenean, Gasteizko zirujau titularrak idatzi zuen memoria historiko-estatistikoa. Lehen kapituluan aipamen topografikoak biltzen ditu. Honela ari da probintziako ibaiiez: “los [ríos] de Zalla, Ayuda etc. son muy insignificantes para merecer mención particular”.⁶³

Beste memoria tekniko bat da Krispiña-Izarra burdinbidearen zati bat eraikitzeari buruzkoa, 1862an argitaratua:

El ramal de ferrocarril que proponemos [...] salva el pequeño rio Zalla ó Léndia y continua entre Ullivarri-Viña y Martioda.⁶⁴

No presentando mas accidente que la colina de Estarrona que se levanta por su derecha y cuya falda puede aprovecharse favorablemente para ir ganando altura y enlazarse con la de Ullivarri-Viña despues de pasar el pequeño rio Zalla que las separa.⁶⁵

XIX. mendearen bigarren erdian zenbait proiektu aztertu zituen Gasteizko Udalak hiria urez hornitzeko. Horietako bat izan zen 1867an Eugenio Robert-ek eta Juan González de Lopidanak beren memoria teknikoan aurkeztu zutena, Gorbeia iturria Gasteizko ur-horniduran baliatzeko:

⁶¹ Gereñako kontzejuaren artxiboa, 4H kutxa, 54. dok., 2. f., 1844-12-24.

⁶² *Ibidem*, 3. f., 1845-10-28.

Mataza horren baitan, beraz, gazteek aisialdian dituzten hizkuntza-praktikei begira aritu gara gu, betiere arreta aisialdiaren eremuan jarrita, gazteen identitatea osatzeko ezinbestekoa den gunean, alegia. Alde horretatik, *D ereduko kirola* ikerketak nabarmendu duen ideia bat honako hau da: gazteen eta, batez ere, nerabeen identitate-osaketan –hots, gazte-identitatean– garrantzi handikoa den aisialdi esparru horretan euskararen presentzia urria da eta horren adierazle nagusienetarikoa bat kirola da. Beste ikerketa batzuetan jaso dugunaren arabera (Eusko Jaurlaritza 2016), antzeko egoera gertatzen da nerabeek dituzten kultura-ekoizpenen kontsumoarekin. Nerabeek kontsumitzen dituzten kultura-produktu gehienak gaztelaniaz (nagusiki) edo ingelesez egindakoak dira. Telebista dela-eta jasotako hitz hauek horren adibide dira:

Neska: Telebista erderaz ikusten degu dena.

Mutila: Nik euskeraz ikusten nun txikitan telebista ta, zen hori Doraemon, Lazkao Txiki ta holakoak baino...

Neska: Ta oain ze ikusiko dezu?

Mutila: ... handitan hasten bazera ikusten: futbola gazteleraz, «*Mujeres y hombres*» hori gazteleraz, «*La que se avecina*» gazteleraz... Azkenian ikusten dezu ta ikasten dezu.

Neska: Gazteleraz dena.

(Gazteak, neska eta mutila, Lezo).

Zinema ere gaztelaniazkoa ikusten dute eta, azken bi urteotan beste ikerketa batzuetan jasotzen ari garena kontuan hartuta, plataforma digitalen bidezko serieak ere euskaraz ez diren hizkuntzetan egindakoak ikusten dituzte. Agerikoa da hori, nerabeek aipatzen dituzten telesailen erdal izenburretan. Hona hemen, adibide gisa, elkarrizketa batean batutakoa:

Neska 1: Bueno orain ari naiz ikusten serie bat: «*Mujeres deseperadas*».

Neska 2: Nik... ez dakit. E..., «*Elite*», «*Pequeñas Mentirosas*», «*Mujeres deseperadas*» bi aldiz dut ikusia. Orain, «*Modern Family*», «*La Casa de Papel*», «*Big Little Lies*»...

(Gazteak, neskak, Oiartzun).

Musikari buruz hitz egitean, ingelesezko eta gaztelaniazko musika aipatu dute nagusiki. Hau da, nerabe horiek entzuten duten musika bi hizkuntza horietan egindakoa entzuten dute. Lagunarteko aisialdiko harremanetan ere gaztelania ohikoagoa da euskara baino. Gure ikerketan parte hartu zuten Gasteizko eta Arrigorriagako nerabeen artean, lagunartean gaztelaniaz aritzen zirela jaso genuen, baita, Realeko hainbat jokalariren artean ere. Talde horretako beste batzuek lagunarteko harreman gehienak euskaraz zituztela esan zuten. Elkarrizketetan holaxe azaldu ziguten, lagunarteko hizkuntza-praktiken egunerokotasuna eta salbuespena zein diren:

Ba, normalean, nabaritzen da..., zeinek hitz egiten duen nabariago euskeraz, baina normalean, beti aritzen gara gaztelera. (Gazte kirolaria, mutila, Zaramaga)

Bueno, ni batzutan gelditzen naiz lagun batekin aparte, ze kuadrilla osoa ez da geratu edo edozer gauza eta berarekin gehienetan izaten da... gehienetan egiten dut euskeraz. Mobiletik eta gero geratzen garenean. Baina lagun talde handiagoa bada gaztelaniaz. (Gazte kirolaria, neska, Padura)

Gu euskeraz ere bai, baino igual, batzutan, esaldi bat edo horrela ateratzen zaigu erderaz, erderaz, erderaz eta hasten gera erderaz. (Gazte kirolaria, mutila, Real Sociedad)

Kirol-praktiken esparruan ere antzeko egoera topatu dugu, eta gazteei kirol-espezialitate ezberdinak hizkuntzekin lotzeko eskatu izan genienean,

argi erakutsi zuten futbola eta saskibaloia, adibidez, ez zutela euskararekin lotzen. Bi kirol horiek gaztelaniarekin uztartu zituzten eta zenbaitetan ingelesarekin ere bai. Ohikoagoa da, ostera, esku-pilota euskararekin batzea. nolabait euskal tradizioarekin lotutako kiroltzat jo zutelako:

Pilota lotzen dugu euskararekin. Bueno kirol euskalduna da eta gero ere, ba partidotan eta aurkariak, entrenatzaileekin eta gehien, bai egia da agian entrenatzaileek esaten dietela zerbait erderaz eta baina bestela dena euskeraz da. (Gazte kirolaria, mutila, Zaramaga)

Dena den, azpimarratu behar da, ikerketan parte hartu zuten hiru taldeek nolabaiteko lana garatzen dutela (egun ere) euskararen biziberritzearen alde. Gazteen aipamenetan horixe antzeman genien, eta horren adibidea da, esaterako, Padurako nesken elkarrizketetan jaso genuena: eskolarekin batera, entrenamendua zuten euskara gehien erabiltzen zuten gunea.

Azaldutakoaren ondorioz, esan behar dugu, euskarak, egun, zailtasunak dituela gazteen identitatearekin bat egiteko, besteak beste, euskararekin loturiko «kulturak» bat egiten ez duelako (euskal) gazteriak garatutako kulturarekin (gazte-kultura, alegia). Hori diogu, zeren eta, gazteek gazte gisa definitzeko erabiltzen duten aldagai nagusiaren eremuan –hau da, aisialdian eta aisialdiarekin lotutako praktketan–, euskara gazteen bizimoduan, praktketan, diskurtsoetan, nahietan... txertatzen joateko funtsezkoak diren elementuak ez baitira garatu.

Bestalde, haur eta nerabeen sozializazioan etxea eta eskola garrantzi handiko guneak dira, eta azken hamarkadotan izan den euskararen biziberritze prozesuan, bi gune horiek zeresan handia izan dute. Euskalduntze-prozesuan eskolak izan du paper garrantzitsuena, eta horrek ondorio batzuk ekarri ditu. Batetik, hiztun berrien kopurua handitzea. Bestetik, euskara eskolarekin identifikatutako hizkuntza izatea. Hain zuzen ere, bigarren aldagai hori oso argi azaldu da ikertutako gazteen artean. Eskola euskaraz egiteko/ikasteko/aritzeko espazio gisa identifikatzen dute, baina askotan horrek, ikasgelatik kanpokoa nolabait «derrigortasun» horretatik at uztearen nahia ere ekartzen du. Hurrengo aipu honekin halaxe ematen du:

Gazte kirolaria 1: Igual esaten badizute hitz egin euskaraz, bai hala bai, ez zait gustatzen porque nik hitz egin al dut erderaz edo euskaraz. Esatea bai hala bai hitz egin behar dudala euskaraz eskolaz kanpo ba ez zait gustatzen.

Gazte kirolaria 2: Niri ez dit molestatzen ze ez zait kostatzen hitz egitea euskaraz. Baina, ez dakit, ematea agintea hitz egiteko eskolatik kanpo ba ez zait gustatzen asko.

(Gazte kirolariak, neskak, Padura)

Etxearen eta euskararen arteko lotura, aldiz, anitzagoa dela jaso dugu. Nerabe horien gurasoen artean hizkuntza-egoera ezberdinak daudenez, etxean hizkuntza-sozializazio prozesu ezberdinak bizi dituzte. Dena den, haurtzaroarekin konparatuz, nerabezaroan eta gaztaroan, bai eskola, bai etxea, garrantzia galtzen hasten dira aisialdian garatzen dituzten beste praktiken aldean, eta horrek isla argia du hizkuntza-sozializazioan.

Euskara etxean eta eskolan sustraitu da bereziki. Bata zein bestea helduok eraikitako erakundeak dira. Nerabezaroa edo gaztaroa iritsi bitartean hortxe kokatuko dute haur hiztunek bere burua. Baina une batetik aurrera, gazte-identitatea garatzeko asmoz –eta helduak izateko bidea harturik– praktika, pentsamendu, erreferente... berrien bila abiatzen dira. Ordura arteko helduek eraiki, osatu eta antolatutako mundu horretatik ihes egin nahi dute. Hizkuntzari dagokionez, ihesaldi hori askotan isiltasunaren bidez adierazten dute, batzuek euskarari egiten dioten ukazio horren bidez. Zer esaten ari dira jarrera horiekin? Nondik hitz egiten digute?

Gure hipotesia hauxe da: erabileran eragina duten faktore soziolinguistikoek gain,²³ gazte-kulturekin lotutako ideologiek, praktikek eta subjektibotasunek erabateko garrantzia dute euskal hiztun gazteen errealitatean zein jardunetan. Horregatik, planteatzen diren esku-hartzeek zein gogoetek

²³ Gazteen hizkuntza-erabilerari buruz egin den lan osatuenetarikoa bat, *Soziolinguistika Klusterrak, Urtxintxa Eskolak eta Topagunea* euskara elkarten federazioak elkarlanean egindakoa da. Hainbat aditu, aritu eta gazterekin, «Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa» burutu zen. Azterketa hura egin zenetik hona, hartzaile mota ezberdinen artean aurkeztua eta bide askotatik zabaldua izan da. Baina horrez gain, beste emaitza bat ere eman du azterketa hark: «Erabileraren GPSa» argitalpena (2011).

ideologia, praktika eta subjektibotasun horiexetan izan beharko lukete oinarria. Edo horiexek ikertu eta ezagutu beharko lituzkete, behintzat.

6. Ondorioak: ikerlariontzako erronka

Hasteko, erreferentzia egin nahi diogu testu honetan ikergai nagusia izan denari: gazteen aisialdiari. Euskararen ikuspegitik, hizkuntzaren ikuspegitik, aisialdia ihesbide bilakatu dela esan behar dugu. Hori euskal testuingurua-ekin konparagarriak diren beste herrialde batzuetan ere gertatzen ari da, Galesen, kasu (Selleck 2016).

Charlotte Selleckek egindako lan etnografikoak, eskolan oinarritutako ideologiak eta praktikek gazteengan eragindako ondorea argi erakutsi digu, aisialdiaren eremuan antzeman daitekeena:

I draw on the Youth-Club as a site that captures a component of young people's leisure time and leisure space, in order to explore the informal contexts and processes whereby young people can shape and manage their identities. It is such a space, away from parents and teachers, that significant aspects of young people's personal and social identities are affirmed, contested, rehearsed and re-worked. (Selleck 2016: 554)

Eta Selleckek berak azpimarratu duenez, espazio horiexetan, eskolaz kanpoko espazio «aske» horiexetan, hartan ere, galesa arriskuan jartzen ari da: «(...) *outside in the "real" world the Welsh language is threatened on a daily basis*» (Selleck, 2016).

Eskolakoa eta eskolatik kanpoko; Selleckek berak nabarmendu du, bi espazio horien artean sortutako hutsunea: «(...) *a gulf between the increasing number of young people receiving their education through the medium of Welsh, and the levels of Welsh language use outside school*» (Selleck 2016: 561). Eta, beraz, etorkizunari begira horixe dela erronka nagusienetarikoa galesa bezalako hizkuntza gutxiagotu batentzat. Horrekin lotuta, azken urteotan hizkuntza-politikak hartutako hainbat erabakiren gainean zalantzak agertu ditu; izan ere, Galesen nagusitu den joera gazteen aisialdian esku-hartze zuzenagoa eta zorrotzagoa bultzatzea izan da. Horrek, Sellecken ustez, hain-

bat galdera erantzuteke utzi du: lortuko ote du bide horrek hizkuntza (galesa) «bizi» bat? Zein jarrera sorraraziko ote ditu gazteengan? Asaldatuko ote dira gazteak eta politika horien kontra joko al dute? Eta euren aisialdirako bultzatutakoa ez den beste hizkuntza bat (kasu honetan ingelesa) aukeratzeko dutenak, baztertuak izango ote dira?

Selleckek planteatutako galderak baliagarriak eta aplikagarriak izan daitezkeelakoan gaude, euskal soziolinguistikaren eremuan. Gorago ikusi dugun bezala, gure lurraldean ere hizkuntzari dagokionez eskolaren eta aisialdiaren arteko ezberdintasuna nabarmena da eta gazteek hala adierazten digute. Horregatik, egoera horren aurrean Selleckek duen jarrera biziki interesgarria iruditzen zaigu. Soziolinguistika kritikoaren alde eginez, egungo egoeraren konplexutasuna azpimarratu eta gero, «boterea» gazte-belaundien eskuetan uztearen aldekoa agertu da: «(...) *if the future of the Welsh language is ultimately down to younger generations, then power and control needs to be delivered to them*» (ibid.).

Ildo beretik doa Mary Bucholtz, Dolores Ines Casillas, Jin Cook Lee egiten duten proposamena:

Rather than seeking to “empower” such young people, who are already powerful agents of social change in their own right, we aim to work in accompaniment with them and their teachers, families, and communities in order to achieve the goals of sociolinguistic justice: the valorization and legitimation of all ways of using language, access to both locally meaningful and institutional powerful varieties, the recognition of all language users as linguistic experts, and an understanding of the material and ideological bases of linguistic inequality. (Bucholtz, Casillas eta Lee 2016: 39)

Puntu honetan, ondorioetan azpimarratu nahi dugun bigarren elementua aipatzera gatoz: gazteen eta ikertzaileen zein (hizkuntza-) eragileen arteko harremanak.

Ausartuko ginateteke esatera, harreman horiek eragile helduok bultzatuta direla, helduon ikuspegitik eta beharretatik. Horrek guztiz baldintzatu ditu bi alderdi horien arteko elkarrekintza eta lankidetzak posibleak.

Gazteek nahiko paper pasiboa izan dute.

Ikerlariontzat, adibidez, gazteak ikerketa objektu erosoak izan dira eta dira. Normalean eskura izaten ditugu gazteak; denbora eta gogoak adierazten ohi dituzte parte hartzeko. Ildo horretatik doa Joan Pujolarrek egindako hausnarketa (2008). Egileak gazteek hizkuntza-plangintzaren ikuspegitik sortzen duten ikusmira (eta hainbatetan egonezina) izan du sarritan mintzagai. Bere ustez bi dira fenomeno horren arrazoi nagusiak (Pujolar 2008). Alde batetik, gazteak, hau da hiztunen belaunaldi berriak, etorkizunerako haziak kontsideratzen dira normalean –MacDougallek azpimarratu duen moduan– eta bere parte-hartzea ezinbestekoa da hizkuntza gutxituen berreskurapen prozesuetan. Beste aldetik, Pujolarrek dio, gazteak beste populazio-talde batzuk baino eskuragarriagoak dira.

Arrazoi horiek direla eta, gazteen inguruko ikerketen inflazioaren arriskuan eror gaitezkeela uste dugu. Etengabe hitz egin daiteke gazteek euskararekiko dituzten harremanez, jarreraz, iritziz..., bukaeran antzeko ondorioak nabarmentzeko. Joera horri aurre egin behar diogula uste dugu, nolabaiteko jauzi kualitatiboa eraginez. Jauzi horrek maila epistemologikoan, teorikoan eta metodologikoan egin behar dugulakoan gaude. Belaunaldi berriei zuzentzen dizkiegun «galderak» berrikusi behar ditugu, «ezkutatzen» dituzten kezkek eta beldurrak identifikatuz eta aitortuz. Garaiko egoerari dagozkion teoriak eta kontzeptuak barneratu eta aplikatu behar ditugu –hau da, garaian garaikoa–, daukagun errealitatea kontuan hartuz. Eta honekin guztiarekin batera, planteamendu metodologikoak berrikusi behar ditugu, bertan gazteei protagonismoa emanez.

Haur, nerabe eta gazteak egoera soziolinguistikoaren parte diren neurrian, aukera izan beharko lukete bertan parte hartzeko. Ildo horretatik joanda, bereziki iradokitzailea iruditzen zaigu Richard Henne-Ochoa eta Richard Baumanek egindako proposamena:

(...) showing children and youth as active agents in the construction of language ideologies and conceptions of sociolinguistic organization (...) we demonstrate how members of a speech community experience language shift and revitalization in a specific situational context. (Henne-Ochoa eta Bauman 2015: 129)

Bide beretik doa Barbra A. Meekek egindako proposamena, berriz ere umeak eta gazteak erdigunean kokatzera gonbidatuz:

(...) *children are portrayed as passive observers rather than active participants in a shifting sociolinguistic landscape. Instead (...) we should ask, "how are novices, especially children and youth, interpreting or conceptualizing the sociolinguistic conditions.* (Meek 2007, in Henne-Ochoa eta Bauman 2015: 130)

Hiru hamarkada igaro dira Euskadiko Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean hezkuntza-ereduak (A, B, D eta G) martxan jarri zirenetik eta, oso gutxi dakigu eredu horien pean haziak eta heziak izan diren gazteen esperientziaz eta iritziez. Ez dugu zalantzarik euskararen kasuan, ezinbestekoa dela aitortzea, euskalduntze-prozesuak emandako fruituak. Azpimagarrien artean, ziur aski, eskolak sortutako hiztun berrien kopurua²⁴ dugu. Baina datu horiek errealitate oso ezberdinak eta anitzak ezkututzen dituzte, hiztunen profilek nabarmen erakusten duten moduan. Estatistiken eta ehunekoan atzean bestelako datuak topa daitezke, kualitatiboagoak direnak, hiztunen subjektibotasunetan sakontzen ahalbidetzen dutenak, hain zuzen ere. Eta hor hamaikatxo istorio aurki daiteke. Zorionez gero eta gehiago dira, testigantza horiek jaso nahian esperientzia horietara hurbiltzen ari diren ikerlariak. Balio handiko lanak dira, gazteak euskal hiztun bilakatzeko bidean izandako bizipenen berri ematen digutelako eta, ukazio, ezintasun edota erresistentzia horien atzean dagoen zenbait gako ematen dutelako.

D ereduko kirola egitasmoan *colaborative approach* (Lamarre 2013: 13) edo «hurbilpen kolaboratibo»-aren alde egin dugu eta pozik gaude lortutako emaitzekin, besteak beste prozesuak gazteengan ez ezik, ikerlariongan ere eragin nabarmena izan duelako. Ikerketa-esparrua partekatu dugu eta neurri batean ikerlari gisa dugun agentzia ere bai.

Québeceko testuinguruan gazteekin lanean dabilen Patricia Lamarre ikerlariak antzeko kezka agertu ditu. Hauxe proposatu digu egile horrek:

²⁴ EAEko 16-24 urteko euskaldunen erdia baino gehiago hiztun berriak direla diote gaian adituak diren Ane Ortega, Esti Amorrortu, Jone Goirigolzarri, Jacqueline Urla eta Belen Uranga (2013: 152).

gazteen parte-hartzea (baita ikerketa-prozesuetan eurotan ere) dinamizazioa, egunerokotasunarekin lotutako praktikan (*linguistic repertoires in the day-to-day*) erreparazioa, eta, batez ere, malgutasunez jokatzeko. Izan ere, gaur egungo munduan, eta gazteek ari garenean batik bat, ia ezinezkoa da hizkuntza, hizkuntza-identitateak zein hizkuntza-praktikak, galdetegiak betetzeko eskaintzen dizkiguten «kaxatxoetan» sartzea.

Monica Hellerren ideia hartuta (Heller 2007, in Lamarre 2013: 12), Lamarrek 1960-1970 hamarkadako «betaurrekoak» aldatzera gonbidatu gaitu. Gure (gaurko) munduan, hizkuntzak ez dira sistema itxiak, komunitate trinko bati guztiz atxikita daudenak. Hizkuntzak gaur egungo munduan kokatuta daude, eta hizkuntza-identitateak beste ezer baino lehen malguak eta aldakorak dira. Azken finean, ezin dugu ahaztu hauek sozialki eraikiak direla. Are gehiago, –Lamarrek dio– aintzat hartu behar dugu, hizkuntzaren nazioaren eta estatuaren arteko lotura denbora eta espazio jakin (eta historiko) bati lotutako eredu dela.

Lamarrek, ikuspegi eta eredu teorikoak ez ezik, planteamendu metodologikoak ere eraldatzeko eskatu du. Bere hitzak bereziki adierazgarriak dira:

A good deal of the massive corpus of research on language in Québec rests on the questions “which language do you use most often at home, at work, at play, in public interactions?” with findings often invoked in political agendas and used to foment public alarm about the future of the French language. By seeing things through a competition and essentially assimilationist model, what has gone unnoticed and virtually unstudied is how linguistic resources are really being used in the everyday, as well as how the language dynamics and politics of identity in Québec are changing. (Lamarre 2013: 12)

Testu honetan txertatutako gazteen ahotsek erakusten digute, euskaraz hitz egin ala egin ez, gaitasun bikaina eduki ala eduki ez, hizkuntza-adituak direla eta esperientzia horietan oinarritutako jakintzak aitortza merezi duela. Eta aitortzarekin batera, laguntza; hiztun bakoitzak bere bidea egiteko. Gazteekin egin beharreko lanak zeregin nagusi bat izan beharko lukeela erakutsi digu ikerkuntzan egindako ibilbideak: hiztun gazteei euron iritziz euskal hiztuna zer den definitzen eta gauzatzen laguntzea. Gainera, zer-no-

lako hiztunak izan nahiko luketen zehaztea eta xede horretara iristeko laguntza eskaintzea litzateke beste helburu bat gehiago.

D ereduko kirola egitasmoaren barruan garatutako ikerketa eta esku-harztearen prozesua amaitzeko, hizkuntza-ohiturak aldatzeko erronka egin genien gure kirolari gazteei. Horiek baietz esan eta bikain burutu zuten. Orain, gu helduok, gai izango al gara, egoera soziolinguistikoak luzatu digun erronka berri hori erantzuteko?

Bibliografia

AHEARN, L. M. (2001). «Language and Agency», *Annual Review of Anthropology* 30 (2001): 109-137.

ALTUNA, J. (2015). «Euskara pasilloetan baldin. Praktiken aldaketak eta hizkuntz mudantzak nerabezaroan», *BAT* 97 (2015): 39-65.

——— (2017). «Genero identitatearen hizkuntza jokoa. Hurbiltze etnografikoa nerabeen hizkuntza-praktiketara» *BAT* 104 (2017): 139-157.

BERRIO-OTXOA, K., MARTÍNEZ, Z. eta HERNÁNDEZ, J. M. (2000). *Haur eta nerabeen aisialdi antolatua Gipuzkoan*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

——— (2003). *Gaztetxoak eta Aisialdia. Etorkizuna aurreikusten (2001-2002)*. Soziologiako Euskal Koadernoak, 13. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak.

BUCHOLTZ, M. (2000). «Language and Youth Culture», *American Speech* 75, 3 (2000): 280-283.

BUCHOLTZ, M., CASILLAS, D. I. eta LEE, J. S. (2016). «Beyond Empowerment: Accompaniment and Sociolinguistic Justice in a Youth Research Program», in *Sociolinguistic Research. Application and impact*. London and New York: Routledge: 25-42.

CASAS, F. (2006). «Infancia y representaciones sociales», *Política y sociedad* 43, 1 (2006): 27-42.

ECKERT, P. (2003). «Language and Gender in Adolescence», in *The Handbook of Language and Gender*. Oxford: Blackwell: 381-400.

EUSKAL KULTURAREN BATZARRA (1992). «Gazteen mundua euskalduntzeko egitasmoa», *BAT* 7/8 (1992): 159-175.

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) (2016). *Gu gazteok*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

EUSKO JAURLARITZA (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila) (2014). *V. Mapa Soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

EUSKO JAURLARITZA (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila) (2017). *Euskadiko Gazteak 2016*, *Gazteak Bilduma* 13 (2017). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

EUSKO JAURLARITZA (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila), NAFARROAKO GOBERNUA (Euskarabidea) eta EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA / OFFICE PUBLIC DE LA LANGUE BASQUE (2019). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Nagusia.

FERNÁNDEZ, I. (2016). *Nerabezarako maitasun bizipenen etnografia: Harremenen antolaketa, gorputz-lana eta heteroaraua Bilboko gaztetxoaren artean*. (Doktorego-tesia, UPV/EHU). Argitaratu gabea.

GARCÍA CANCLINI, N. (2000). «La globalización: ¿productora de culturas híbridas», *Actas del III congreso latinoamericano de la Asociación Internacional para el Estudio de la Música Popular*. Bogota: IASPM-AL: 23-27.

GARCÍA CANCLINI, N., CRUCES, F. eta URTEAGA, M. (2012). *Jóvenes, culturas urbanas y redes digitales*. Madrid: Ariel.

GOODWIN, CH. (2004). «A Competent Speaker Who Can't Speak: The Social Life of Aphasia», *Journal of Linguistic Anthropology* 14, 2 (2004): 151-170.

GOUGHLAN, E. (2021). «Accommodation or rejection? Teenagers' experiences of tensions between traditional and new speakers of Irish», *Journal of Sociolinguistic* 25, 1 (2021): 1-18.

HENNE-OCHOA, R. eta BAUMAN, R. (2015). «Who Is Responsible for Saving the Language? Performing Generation in the Face of Language Shift», *Linguistic Anthropology* 25, 2 (2015): 128-150.

HERNÁNDEZ GARCÍA, J. M., MARTÍNEZ DE LUNA PÉREZ DE ARRIBA, I. eta OLASO GARITANO, O. (2006). «Theoretical, Social and Political Discourses on the Basque Language», in *The Case of the Basque: Past, Present and Future*,

M.^a J. Azurmendi eta I. Martínez de Luna argitaratzaileak. Andoain: Soziolinguistika Klusterra: 103-116.

HERNÁNDEZ GARCÍA, J. M. (2010). «Baina gu ere gazteak izan ginen! Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur», *Euskara* 55, 2 (2010): 579-607.

HERNÁNDEZ GARCÍA, J. M. eta ALTUNA RAMÍREZ, J. (2016). *D ereduko kirola. 2016ko ikerketaren txostena*. Argitaratu gabea.

——— (2017). «Gazteak euskararen jolastokian», in *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea (UEU): 53-70.

HERNÁNDEZ GARCÍA, J. M., ALTUNA RAMÍREZ, J. eta BEITIA, I. (2018). *D ereduko kirola. Ikerketaren txostena 2017-2018*. Argitaratu gabea.

HERNÁNDEZ GARCÍA, J. M. eta ALTUNA RAMÍREZ, J. (2020). *Euskara Kirolkide. Lankeita teoriko-kontzeptuala*. Argitaratu gabea.

LAMARRE, P (2013). «Catching “Montreal on the Move” and Challenging the Discourse of Unilingualism in Quebec», *Anthropologica* 55 (2013): 1-16.

MACDOUGALL, D. (1998). *Transcultural cinema*. Princeton, New Jersey: Princeton University Press.

——— (2005). «Films of childhood», in *Film, ethnography, and the senses. The corporeal image*. Princeton, New Jersey: Princeton University Press: 67-93.

ORTEGA, A., AMORRORTU, E., GOIRIGOLZARRI, J., URLA, J. eta URANGA, B. (2013). «Hiztun berrien hizkuntza-identitatea: nolako euskalduna naiz?», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 87/88 (2013): 151-170.

PUJOLAR, J. (2008). «Els joves, les llengües i les identitats». *Noves SL. Revista de Sociolingüística*, Hivern 2008. Barcelona: Generalitat de Catalunya.

Sarean: <http://www.gencat.cat/llengua/noves>.

ROSALDO, M. Z. (1982). «The Things We Do with Words: Ilongot Speech Acts and Speech Act Theory in Philosophy», *Language in Society* 11, 2 (1982): 203-237.

SELLECK, CH. (2016). «Re-negotiating ideologies of bilingualism on the margins of education», *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 37, 6 (2016): 551-563.

SKUTNABB-KANGAS, T. eta PHILLIPSON, R. (1989). «Mother Tongue: The Theoretical and Sociopolitical Construction of a Concept», in *Status and Function of Languages and Language Varieties*. Berlin: De Gruyter: 450-475.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (Euskara biziberritzeko ikergunea), UR-TXINTXA ESKOLA eta TOPAGUNEA (2011). *Erabileraren GPSa*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (Euskara biziberritzeko ikergunea) (2017). *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa*. *Euskal Herria*, 2016, O. Altuna Zumeta zuzendaria. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.

Sarean: http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016-_eu_1.pdf.

——— (2020). *Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia*, J. M. Hernández García zuzendaria. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.

Sarean: <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/gazteak-euskararen-eszenatokian-erabileraren-auzia/>.



Lehen eleberrigintza urbanoa: Saizarbitoria kasu paradigmaticoko gisa

Primera novela urbana: Saizarbitoria como caso paradigmático

Premier roman urbain : Saizarbitoria comme cas paradigmaticque

First urban novel writing: Saizarbitoria as a paradigmatic example

MAJUELO, Irati
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Noiz jaso: 2021-01-23
Noiz onartu: 2021-03-09

Euskera. 2020, 65, 2. 481-515. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskal eleberrigintzan hiriaren lehen irudikapenen jatorria eta nolakotasuna aztertuko du artikulu honek, Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* (1969) eta *Ehun metro* (1976) liburuen bidez. Irudikapenok 60ko eta 70eko hamarkadetako testuinguru politiko-sozialera lotuta egonik, ez dute Mendebaldeko literatura hegemonikoaren parametroekin bat egiten, ez denboran ezta nolakotasunean ere. Eredu horien aurrean sortutako bide alternatiboak bilatuko dira Saizarbitoria lehen eleberririk hirian kokatzeko egindako hautuan.

Gako-hitzak: euskal literatura, eleberria, hiria, Saizarbitoria.

Este artículo analiza el origen y las características de la primera imagen de la ciudad en la novela en euskera, a través de los libros *Egunero hasten delako* (1969) y *Ehun metro* (1976). Estas imágenes, estando sujetas al contexto socio-político de las décadas de 1960 y 1970, no coinciden ni en el carácter ni en el tiempo con los parámetros de la literatura hegemónica occidental. Son caminos alternativos a esos modelos los que buscará Saizarbitoria en su apuesta por situarse en la ciudad.

Palabras clave: literatura vasca, novela, ciudad, Saizarbitoria.

Cet article analyse l'origine et les caractéristiques de la première image de la ville dans le roman en basque, à travers les livres *Egunero hasten delako* (1969) et *Ehun metro* (1976). Ces images, qui sont liées au contexte socio-politique des années 60 et 70, ne coïncident ni dans le caractère ni dans le temps avec les paramètres de la littérature hégémonique occidentale. Saizarbitoria recherche des chemins alternatifs à ces modèles pour se situer dans la ville.

Mots-clés : littérature basque, roman, ville, Saizarbitoria.

This article examines the origins and quality of the first urban representations in Basque novels in Saizarbitoria's books *Egunero hasten delako* (1969) and *Ehun metro* (1976). These representations, linked to the political-social context of the 60s and 70s, do not correspond to the parameters of hegemonic Western literature in time or characteristics. Alternative ways of looking at these models will be examined in Saizarbitoria's choice to set his first novels in the city.

Keywords: Basque literature, novel, city, Saizarbitoria.

Sarrera

Sarri esan da euskal literatura berantiarra izan dela (eta hala ulertu du askotan euskal literaturak bere burua), garatu gabea edota beste literaturen mailara iritsi ez dena, besteak beste, hiriak ez duelako presentzia nabarmenik eduki 60ko hamarkadara arte. Ikerlari ugarik ikusarazi duten gisan, euskal literaturaren historiara jotzea baino ez dago ohartzeko hiria ez dela euskal eleberrigintzaren espazio naturala izan XX. mendearen bigarren erdialdera arte (Retolaza, 2005; Aldekoa, 2008; Apalategi, 2008); hala ere, egitate horrek arrasto sakona utzi du gure eleberrigintza ulertzeko eran, “berantiar” edota “atzeratu” gisa irakurri baita sarri. Aldekoak (1998: 11) agerian uzten duenez, Sarasolak (1971), Lagasabasterrek (1986) zein Otegik (1976) ondutako ikerketetan edota literaturaren historietan Mendebaldeko tenporalizazioekiko atzerapena jo izan da euskal eleberrigintzaren ezaugarri nabarmenentzat. Argi dago ezezagunarekiko urruntasun eta ezinegon sentimenduez baldintzatuta iritsi zirela euskal literaturaren eta hiriaren arteko harremanak XX. mende hasierara, eta hurrengo hamarkadetan ere, landa eremuan gotortutako gizarte batek errefusatutako espaziotzat hartu zela hiria. Mendearen bigarren herenetik aurrera, ordea, aldaketa igartzen hasten da adierazpen urbanoago baterantz, aldaketa espazialaz gain begirada estetikoaren eraldaketa gisara funtzionatuko duena.

Hortaz, interesgarria da ikustea euskal eleberrigintzaren hiritartzea zein testuingurutan hasten den, eta nola ematen dituen Saizarbitoriak horretarako lehendabiziko pausuak. Eleberrigintzaren modernizazio eta urbanizazio prozesu horren azterketak, halaber, Mendebaldeko literatura hegemonikoaren ezaugarri urbanoek ezarritako marko teoriko bat errebisatzeko beharra erakusten du, literatura txikietan irakurketa gatazkatsuak sortzen baititu ezinbestean. Ildo horretan, hiri-irudikapenen eredia zalantzan jarriko da, baita Mendebaldeko literaturak ezarritako erritmoa eta erdigune-periferietan oinarritutako botere-harremanak ere. Hori dela eta, literaturaren historiaren bazterrean dauden literatura txikiak islatzeko formula posibleak bilatuko dira Saizarbitoriaren hiriaren irudikapenetan. Horretarako, 60ko eta 70eko hamarkadetan jazotako aldaketa sozial eta kulturalaz gain, idazlearen lehen bi eleberririk aztertuko dira. Lana liburuen analisi espazialean zentra-

tuko da, baina betiere espazioak traman hartzen duen posizio diskurtsibo eta sinbolikoa aintzat hartuta, eta argitaratze-garaiaren testuingurua alde batera utzi gabe.

1. Euskal eleberrigintzaren eta hiriaren arteko harremana

Garrantzitsua da XX. mende hasieran Euskal Herriko hirien morfologia zein zen eta euskal idazleek harekiko zeukaten jarrera ezagutzea, euskal eleberrigintzaren eta hiriaren arteko harremana hobeto ulertzeko. XX. mendeko, industrializazioak eta kosmopolitismoak oinarri sendoak zituen Europako hiritarren pentsamenduan, baina horrek, ordea, talka nabarmena egiten zuen Euskal Herriko errealitatearekin, baita euskal literaturak Mendebaldeko literatura hegemonikoekin ere. Frantzia, Alemania edo Ingalaterrak –eta are Espainiak, nahiz eta gainerako potentzia handien parean aldez landatarragoa izan– euren mundu literarioa modernitatean berreraiki eta hirietan ardaztua zuten, hiriburuetan, bereziki. Estatu-hiriburuak industrialki garatutako hiriak ziren ordurako, pertsona eta merkantzien joan-etorri etengabea gidatzen zuten erdiguneak. Literaturan, XVIII.-XIX. mendeetako aldaketa espaziala sendoturik, sorkuntzarako espazio bilakatuak ziren hiriak, literatura modernoak garatzeko inspirazio iturri. Hortaz, XX. mendearen hasierarako, Europako eta AEBtako literatur sistemek euren modernizazio eta urbanizazio prozesuen agertoki eta subjektutzat zituzten metropoli handiak. Paraleloan eta elkar elikatuz garatu ziren hiri modernoak eta haren irudikapen literarioak, eta elkarrekintza horren ondorioz bilakatu zen hiria modernitatearen *locusa* (Sharpe & Wallock 1987).

Hirien morfologiaren eraldatzeak aldaketa sakonak eragin zituen, hortaz, Mendebaldeko gizarte tradizionalan, eta bizimoldea, ohiturak eta sinesmenak errotik transformatu. Metropolia izango da aurrerantzean modernitatearen objektua, eta horrek sortuko du hausturarik handiena. Hiri modernoaren aurretik, hiri klasikoak eta erromantikoak irudikatzerakoan naturarekiko mimesia egiten zen, Natura baitzen artearen benetako objektua. Modernitatearen etorrerarekin, ordea, Natura ukatu egin zen eta mimesia zalantzan jarri, metropolia bezalako giza entitate batek ez baitu berehalako mimesirik

onartzen (Azúa 1979: 136). Bilakaera horretan, baina, talka handiak izan ziren ezinbestean, mundu landatar tradizionalaren eta jaiotzen ari zen mundu urbanoaren artean. Hiri modernoak sortu zenetik existitu da aurkakotasun hori inguru baten edo bestearen bertute zein akatsak nabarmentzeko (Williams 2001: 75), baina batez ere hiri-eremuen eta izaera urbanoaren hedapenak eragin zuen erresistentziaren ondorio da. Bizi esperientziaren desdoinkuntza horrek erantzun soziopolitikoak sortu zuen bai gizarte mailan, baina baita estetikan ere, modernitate estetikoari bide emanez. Talka horiek, beraz, literaturarako gai izan ziren sarri, hiria espazio literario bihurtzeko bidean zelarik. Munstro kontrolaezin baten modura irudikatu zuten eleberri eta poemetan, besteak beste Jerrold, Balzac, Dickens, Coleridge edota Wordsworthek, eta hirira migratutako nekazarien eleberriak ugaritu ziren, esate baterako *Sybil* (1845), *Mary Barton* (1848), *Hard Times* (1854) edo *Felix Holt* (1866), zeinetan metropolira halabeharrez bizitzera joandako nekazariak moralki eta fisikoki suntsiturik amaitzen zuten hiri industrialaren erritmo eta bizimoldearengatik (Azúa 1979; Matas 2010). Baina nahiz eta literaturaren historia hegemonikoak fase hori bereziki XIX. mendean kokatu, ukalezina da hiriarekiko talka zein ondorengo onarpena ez dela modu uniformeetan gertatu munduko literaturetan.

Landa eremuaren eta hiriaren arteko gatazkak bizirik jarraitzen du XX. mende hasieran Euskal Herrian eta, ondorioz, literaturan. Mende hasieran ez da kontzientzia urbanorik igartzen euskal idazleengan, eta ohiturazko eleberriak islatzen du korapilo horrek eragindako ezinegona (Agirrerren *Kresala* (1906) eta *Garoa* (1912) gailentzen dira batez ere, zeinen itzal luzeak ondorengoak utzi zituen hurrengo hamarkadetan: *Uztaro* (1937), *Joanak joan* (1955), *Arranegi* (1958)). Argitaratzen den apurrak lotura hertsia dauka landa eremukiko edota arrantzale herrietako errealitateekin, izan ere, paisaia eta ohitura horiek edertu eta, bide batez, tradizioa, moral kristaua eta nazionalismoa bultzatzeko erabiliko dira. XX. mendearen hasieran, euskal literaturaren produktzioa txikia da zinez, irakurleak ere urri, eta bere txikitasunean imaginario landatarrean hartzen du babes. Kostunbrismoak bere sentitzen zuen landa- eta itsas-bizitzaren idealizaziora jo zuen, inguru industrializatuetan antzematen ari ziren eraldaketa eta gatazkak islatu beharrean (Aldekoa 2008: 166).

Kontrajarria irudi lezake, industrializazio-prozesua XIX. mendearen amaieran hasia baitzen, eta Espainiako Gerra Zibila hasi bitarteko urteetan euskal gizartea gutxi-asko industrializatu baitzen. Nahiz eta hasiera batean oso fokalizaturik egon Bizkaian, Somorrostroko meatzeetan, siderurgian eta Bilboko portuan, XX. mendearen hasierarako Gipuzkoan enpresa txikiek gero eta garrantzi handiagoa hartu zuten, maila apalagoan bazen ere, eta papergintzak, ehungintzak, zapatagintzak eta armagintzak (gerrei esker indartua) hiriburutik kanpoko herriak handitu, industrializatu eta guztiz eraldatu zituen (besteak beste Bergara, Eibar, Azpeitia). Argigarria da industrializazio-prozesua hiriburutik kanpoko herrietan gertatzea, Donostiak turismoan oinarritu baitzuen bere ekonomia. Araban, Nafarroan eta Iparraldean nekazaritza gailendu zen XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran, nahiz eta hainbat alor hazten hasi (esaterako, zapatagintza Lapurdin eta Maulen; edo nekazaritza industria Nafarroan eta Araban: azukre-lantegiak eta kontserba-fabrikak). Hala ere, 20ko eta 30eko hamarkadetan gutxinaka handitzen joan ziren lurralde osoko industriak, Espainiako Gerra Zibilak eten arte. Hori dela eta, 50eko eta 60ko hamarkadetan hartu zuen berriz abiada industriak, eta orduan eragin zituen eraldaketarik nabarmenenak hiriguneetan, herritarren bizimodu, pentsamolde eta praktika kulturalak transformatuz (Fusi 1975; González Portilla 1988, 2015; eta beste hainbeste historialarik ondo dokumentatu duten bezala).

Hala ere, euskarak, edo hobeto esanda, euskarazko giro ikasi eta intelektualak ez zuen bere lekua aurkitzen hiri-eremuan. Izan ere, Unamunok 1901ean Bilbon ospatutako Lore Jokoetan egindako hitzaldiak (“El vascuence se extingue sin que haya fuerza humana que pueda impedir su extinción; muere por ley de vida. (...) En el milenario eusquera no cabe el pensamiento moderno; Bilbao hablando vascuence es un contrasentido.” Unamuno in Agirreazkuenaga, 2002: 13) polemika piztu bazuen ere, hamarkadak beharke ziren oraindik Bilbori buruz euskaraz irakurtzeko. Hala, nahiz eta Bilbon mende hasieran euskal nazionalistek zuzendu eta finantzatutako *Hermes* aldizkariaren inguruan hiritartasun modernoaren alde egin zuen idazle ugari (Unamuno, Pío Baroja, Ramiro de Maeztu, Ignacio Zuloaga), hiriaren garai oparoa probesturik, ez zen apenas ezer idatzi euskaraz (Aldekoa 2008: 159). Inguru urbano baten testuinguruan girotutako edota

hiria erdeinurik gabe hartzen zuten euskarazko eleberriak pentsaezinak ziren. Euskal literatura eroso zegoen landa eremuko paisaia ezagunetan, tradizioarekiko eta naturarekiko harreman estuan, Lore Jokoetarako proposatutako gaiak zein jasotako testuek agerian uzten zuten. Balore tradizionalak arriskuan ikusteak, edo aldaketa handi baten aurrean egoteak, hiriarekiko eta industrializazioarekiko beldurra eta demonizazioa sortu zuen gizarte landatarrean, aurretik Ingalaterran edo Frantzia gertatu gisa. Jadanik XIX. mendean kaletartzearen eta proletariotzearen kontrako erresistentzia bizi izan zen Euskal Herrian, baserriko bizitzak duintasun eta independentzia pertsonala sinbolizatzen baitzuen industrian besteen menpe lan egitearen aldean (Sarrionandia 2010: 369). XX. mendera iristean ere, industrializazioak landa eremuan eragin zituen lekualdatzeek eta langile klase berriak berekin zekartzan ideario berriek joera kontserbadorea agerian utzi zuten garaiko idazle eta intelektualen artean.

Agirrerren eleberriek, zein haren ostean imitazioz idatzitakoek, joera horiek jartzen dituzte agerian: baserriko ohituren goraiapamena, euskararen eta erlijioan gotortzea, emakumeekiko gutxiespena, aurrerabide teknikoei (adb. burdinbidea) kontra egitea, ideia “modernoen” arbuioa, eta Ameriketara joatea euskal balio zintzoen galerarekin lotzea, besteak beste (Aldekoa 2008: 171). Giro orokor horren beste adibide bat da Arturo Campiónen *La Bella Easo* (1909) eleberria, gaztelaniaz idatzi arren, hiriak euskal munduan zeukan konnotazio negatiboa argi erakusten baitigu. Campiónen iruditeria euskaldunaren eredu zen nafar mendialdeko herriak hustea deitoratzen du, familia atzean utzi eta kulturalki deserrotu beharra hirira edota Ameriketara lanera joan behar izateagatik. Hiriak, beraz, balio moral berrien espazioa irudikatzen zuen, perbertsiorako eta galbiderako bidea zen, eta euskal literaturaren talaia landatar tradizionaletik interes gutxi edota beldur gehiegi eragiten zuen eremua zen. Pentsamolde tradizionalaren atzean egon liteke, beraz, euskal literaturarentzat hiria eremu arrotz eta ezezaguna izatea, bide batez euskararentzat ere hala zen heinean.

Testuinguru horretan, hala ere, zaila litzateke euskal literatura pentsamolde tradizional eta kristautik kanpo irudikatzea, ordura arte eginiko ibilbideari behatuz gero. Nahiz eta Euskal Herria industrializazio-prozesu batean egon, eta ondorioz, hirien hazkuntza eta gizartearen bizimodu zein

ohituretan aldaketa nabarmenak sumatu, euskal hiriek ez zioten landa-ere-
muarekin harreman estua zuten probintzia hiriburu izateari utzi, ez ziren ez
tamainan ez izaeran metropoli handi bihurtu. Horrez gain, bai hiriko bizitza,
bai alfabetatze- eta hezkuntza-sistemak erabat aldendurik zeuden euskal
mundutik. Intelektual eta, bereziki, elizgizonen artean euskararen aldeko
ekimenak bultzatzen ziren, hala nola Euskaltzaindiaren sorrera (1919) eta
Lore Jokoak, baina balizko irakurleen kopurua oso urria zen. Euskaraz idaz-
ten zuten idazleak gutxi baziren, irakurleak zer esanik ez. Eleberrien prota-
gonista ziren nekazari eta arrantzaleak ez ziren euskal literaturaren irakurle,
are gutxiago hiri-eremuko merkatariak eta proletarioak. Ez zegoen euskaraz
irakurriko zuen burgesia indartsurik. Jauntxoak, intelektualak eta elizgizo-
nak ziren irakurle potentzialak, eta horietatik, euskararen inguruan (eurek
sortutako Lore Jokoen eta aldizkarien baitan) biltzen ziren gutxi batzuk har-
ditzakegu irakurletzat. Zalantzarik gabe, lotura zuzena egiten zuten euskal
literaturaren eta euren balio nagusiak ziren tradizionalismoaren (baserria,
familia), moral kristauaren (fedea, Elizarekiko leialtasuna) eta nazionalis-
moaren (euskara, foruak) artean. Euskal eleberrigintza ez zen hiri-eremura
hurbildu, azken finean bere irakurleek bultzatuta eta horiei begira idazten
baitzen. Sarrionandiak (2010: 432) adierazi gisa, irakurle gutxi izateak eus-
kal literatura zeharo baldintzatu du XX. mendean barneratu arte. Hizkun-
tzaren –eta berekin dakarren inguruaren– marjinalitateak bestelako testuin-
guru batzuetan eman ez zen hutsune bat eragin zuen euskal munduaren eta
mundu hiritarraren artean.

Berez, Matasek (2010: 229-230) adierazi gisa, ezin daiteke esan literatu-
raren ildo urbanoa industrializazioaren ondorio zuzena denik, baina bai,
ordea, harreman estua duela aurrerapen materialek bultzatutako praktika
kultural berriekin, eta ordura arte existitzen ez zen jendetza urbano baten-
gana iristeko ahalmenarekin. Hau da, praktika kultural berri horiek eta hiri
moderno jaio berrien erritmorra moldatutako jende saldoaren esperientziak
eragindako eta eskatutako estetikaren ondorio da eleberrigintza urbanoa,
baita aurreko ohitura eta sineskeriekin hausteko ahaleginaren ondorio ere.
Euskal literaturaren kasuan, ordea, esan daiteke industrializazioak izan zuen
berehalako lehen eragina kontrakotasuna suspertzea izan zela, hiri moder-
noak eta eleberrigintza modernoak elkar elikatu beharrean. Hala, industria-

lizazioaren aurkako usteek, hiriekiko beldur edo arbuioek zein literaturan Europatik zetozen eredueta bere burua ezagutzeko arazoek XX. mendearren erdialdera arte iraun zuten.

Eleberri kostunbristekin hartutako norabideak pentsarazi lezake, literaturaren historia hegemonikoak ezarritako erritmoei eta irizpideei jarraika, Casanovak (2001: 235-237) arrazoi zuela literatura txikien aukera murritzei buruz ari zenean, eta euskal literaturak ere exotismorako edo asimilaziorako bide zuzena hartua zuela. 60ko hamarkadatik aurrerako literaturak, ordea, norabidea aldatu eta baieztapen horiek zalantzan jarri zituen. Izan ere, auresuposatutako bide horri uko egin, eta eleberrigintza moderno eta urbano bat aurkitzeaz gain, Euskal Herriko testuinguruan fokua jarri eta hiria irudikatzeke era berezkoak azaleratu zituen. Ezin da ukatu euskal eleberrigintzak tradizio kostunbristaren eta moral kristauaren zama izan dituenik XX. mendean ongi sartu arte, errealismoari eta eleberri modernoari atea itxiz (Aldekoa 2008: 167). Literatura marjinal bat izateak ondorio nabarmenak utzi ditu: XX. mendeko bi gerrateen artean, European eleberri modernoan eraberritu zelarik, euskal literatura kostunbrismoan murgildurik zegoen. Hortaz, euskal eleberrigintzak ez du bizi izan XIX. mendeko errealismoa eta naturalismoa, ez eta XX. mendeko lehen herenean gertatu zen nobelaren eraldaketa sakona ere, teknika narratiboen berrikuntzaren bidez kontakizuna hankaz gora jarri zuena (hala nola Proust, Woolf, Joyce).

Euskal mundua Mendebaldeko modernitatetik urrun geratzen bada garai horretan, ulertu behar litzateke euskal eleberrigintzak bestelako tenpus batzuk izan dituela, eta ezin dela periodizatu eredu mendebaldar hegemonikoaren arabera harekiko begirada kritikorik eraiki gabe, tenporalizazio horrek berez dakartzan botere-harremanak erreproduzitzen. Europako literatura nagusien erritmoarekiko anakronismoak errotik baldintzatu du euskal literaturaren hiritartzea nola irakurri den gerora: literatura berantiar eta atzeratu gisa hartzean, Mendebaldeko tempusarekiko menpekotasunean alderatzen da beti, eta ondorioz, erdietsi beharreko normalitate baten logikan ulertu da euskal eleberrigintza, besteengana heltzeko lasterketa amaiezinean. Ildo horretan, ikerketa interesgarriak egin dira, hala nola hiriaren gabezia Apalategik (2008) proposatutakoak, kasurako. Hala ere, desdoikuntza tenporal horrek, euskal literaturaren izaera marjinalarekin loturan,

hiria irudikatzeko formula alternatiboak bilatzera bultzatu duela ere agerian geratu beharko litzateke.

Jadanik 50eko hamarkadan, industria bizkortu zen eta lekualdatze nabarmenak egon ziren, bai landa-eremuetatik hiriburu eta hiri ertainetara, bai lan bila Euskal Herrira joandako migranteen artean. Aurreko mundu tradizionalarekiko haustura gertatzen ari zen zentzu ugarritan, eta oinarrien asintze horrek bere isla topatu zuen artearen esparruan ere, gerraosteko tentsioek eta hiritartzeak markatutako euskal identitate berri baten bilaketa hasi zuten artista gazteei esker. Literaturan urte batzuk behar izan ziren oraindik hiriaren edo espazio urbanoaren zertzeladak sumatzen hasteko, hala ere, Arestik bide hori ireki zuen apurka-apurka poesian, eta baita zenbait narrazio labur eta bestelako idatzietan ere. *Jainkoa jai* da *Otxarkoagan* (1962) ipuinean, besteak beste, Bilbo zen hiri-eremu gatazkatsua ekarri zuen paperera, eta langile eta burgesen arteko klase gatazkan kokatu zuen hiriaren irakurketa, langile auzoetako migrazioaren eta jauntxo abertzaleen arteko talkan (Amezaga 2016: 185-186). Euskarak apenas lekurik zuen eta gaztelania gailentzen zen Bilboz ere aritu zen, hala nola *Bilbaoko kaleak* poeman (Aresti 1967). Tamalez ezin dugu Arestiren lana baliatu nobela urbanoan sakontzeko, baina eredu eta inspirazio izan zen ondorengo euskal idazle gehienentzat, baita Saizarbitoriarentzat ere, eta bere diskurtsoaren kokapenak eta espazio-aldaketak eragina izango zuen ondorengoengan ere.

2. 60ko eta 70eko hamarkadak: espazio aldaketarako arrakala

60ko hamarkada funtsezko garai bihurtzen da euskal literatur sistemaren modernizazio eta urbanizazio prozesua ulertzeko, eta bide horren baitan kokatzen dira Ramon Saizarbitoriaren lehen lanak. Aipatu gisa, Gabriel Aresti giltzarri izan zen euskal literatura berritzen hasteko eta ondorengo idazleei bide berriak irekitzeko. Gainera, Espainiako Gerra Zibilaren ondorenak eta Francoren errepresioak bultzatuta, Euskal Herrian sortutako erresistentzia mugimendu indartsuak euskal nazioa eraikitzeko nahia indartzeaz gain, bai hizkuntzaren defentsan, bai kulturaren bide propioa urratzeko beharra azalarazi zuen. 50eko hamarkadatik aurrera, aurretik espero gabeko produkzioan

lehertu zen euskal kultura, baina ez zen tradizioa mugatu, ez zuen aurreikusitako programarik jarraitu, garaiko errealitatea sortu eta eraldatzeari ekin zion nazioarteko esnatze politikoeekin bat eginik (Ansa 2019: 37-38). Izan ere, politikan, gerraostetik, eta ETArekin sorrerarekin batera intentsitate handiagoz, talka nabarmena gertatzen ari zen nazionalismo tradizionalaren (EAJk gidatua, katolikoa, burgesa) eta nazionalismo eraberrituaren (ETAk ordezkatua, gaztea, sekularizatua, langile klasearen gertukoa) artean, hurrengo hamarkadetakoko pulstu politiko eta soziala markatuko zuena, eta belaunaldi berri bat ekarriko zuena protagonismo politiko eta kulturaren lehen lerrora (Aldekoa 2015: 19). Mundu zaharraren eta berriaren arteko gatazkak euskal identitate tradizionala zalantzan jarri eta formula berriak aurkitu eta sakontzeko arrakalak sortu zituen. Literaturaren kasuan, jadanik 60ko hamarkadan sarturik, idazle belaunaldi berri batek –hala nola “1964ko belaunaldia” deiturikoa: Saizarbitoria, Lete, Arregi, Sarasola–mahai gainean jarri zuen testuingurura egokitzeko eta modernizatzeko beharra, eta horrek hiriari buruzko problematika suspertu zuen, baina, oraingo honetan, euskal letrak urbanizatzeko intentzio argi batekin.

Izan ere, 60ko hamarkadan literaturaren hiritartzea erraztu zuten zenbait baldintza sortu ziren, aurreko garaiekiko kontrastean euskarazko praktika kultural bat jaiotzea eragin zutenak, horien artean garrantzitsuena euskara batuaren sorrera, eta horri lotuta ikastolen ugaltzea eta komunikabideetan hizkuntzak hartu zuen presentzia. Ondorioz, euskararen aldeko mugimenduak prestigioa eta bultzada eman zion gutxinaka haziz zihoan ekoizpen literarioari. Euskarak, beraz, bere lekua egin zuen aurretik apenas zapaltzen zuen espazioan, hirian, eta gutxinaka presentzia hori literaturan ere islatu zen. Halaber, gerraosteko giro itxiak eta gatazka nazionalak munduan gertatzen ari ziren emantzipazio prozesu eta mugimendu iraultzaileekiko identifikazioa piztu zuen euskal gizartean, bereziki belaunaldi gazteengan. Espainiak ezarritako zentsurak Euskal Herriko lurralde zabal batean indarrean jarraitzen zuen, eta horrek argitalpenak urriak izatea eta atzerriko nobedadeak ere berandu eta gutxi iristea eragiten zuen. Frantzia, ordea, kulturaren erreferente nagusia zen oraindik, eta handik iristen ziren haize berriei adi jarraitzen zieten belaunaldi gazteek, baita kultura pop anglo-amerikarrari ere (Aldekoa 2015: 95-96). Horrek Europako literatur korrante nagusiak

idazle gazteengana gerturatzeko lagundu zuen, eta bilaketa estetiko moderno betean sartu ziren, 60ko eta 70eko hamarkadetako lanek erakusten dutenez.

Beste hitz batzuetan, espazio urbanoek arrotz izateari utzi zioten gutxina-ka eta euskal kulturak bere lekua bilatu zuen horietan, belaunaldi berriekin batera berrituz. Sarri modernizazio hori prozedura literarioen eraberritzearekin lotu izan da soilik, eta sinkronizazioaren kontzeptua erabili da Europako literaturen erritmora iritsi zela adierazteko. Hala ere, ideia horrek transformazio estetiko koiuntura soziopolitikotik at uzten du: isilarazi egin da kulturaren berpizte horrek, esperimentazio formalean oinarritua egonik ere, harreman zuzena duela hegemonia espainol eta frantsesak zalantzan jartzearekin (Ansa 2019: 13), eta ondorioz, bide propioa jorratzearekin. Zaharberritzearen bidez, beraz, euskal literaturak gutxiagotasun konplexuei hautsa kendu nahi izan ziela esan daiteke, bere buruari erakutsi nahi ziola inguruko literatura nagusiak bezain modernoak izan zitekeela. Hau da, euskal literatura sumatzen hasi zen anbizio literario handiagoa izatera hel zitekeela, kostunbrismo moralista eta folklorikoak ez zuela zertan bere zerumuga izan.

Testuinguru horretan, norabide berri bat hartzen du euskal literaturaren eta urbanotasunaren arteko harremanak, eta bete-betean jotzen du nazio eraikuntzaren eta literatura txikiaren harremanarekin. Sorreratik, munduko literatura desorekan eta botere harremanetan oinarritu da, eta ondorioz, nazioartean markatu diren literatura modernoaren tempo eta parametroak arbitrarioak bezain baztertzailak izan dira, baita botere-harremanok iraurarazi dituzten hiriaren irudikapenak ere. Nazioarteko literatur esparrua XVI. mendean osatu zen, Europako estatu zentralistak sortzearekin batera, eta hortaz, estatu horiek (bereziki Italia, bere ondare latinoarengatik, baina baita Frantzia, Espainia eta Ingalaterra ere) eta euren literatur tradizioak izan ziren nazioarteko aintzatespenaren lehen erreferentziak eta oinarriak jarri zituztenak (Casanova 2001: 23). Gerora ere, estatu-nazio hegemonikoek markatu dituzte munduko literaturaren parametroak.

Casanovak (2001) "Letren errepublika" deritzon nazioarteko literatur sistemaren funtzionamendua erdigunearen eta periferien arteko harreman eta tentsioetan ardazten du. Errepublika literarioaren logika, beraz, hiriburu

baten eta haren menpe dauden eskualdeen arteko oposizioan oinarritzen bada, eta hark nazioarteko hiriburuen arteko lehia bultzatzen badu, eskualdeek hiriburuarekiko duten distantzia politiko eta estetikoaren arabera definitu beharko dute beren burua. Nazioarteko sistema hori, beraz, nazioen arteko eta literaturen arteko gatazka kulturalak norabideratzen dute, “denbora literarioaren” erritmoak kontrolatzeko lehiak. Hala, bada, banaketa argia ezartzen du: literatura “garatuak” egonen dira, literaturaren arauak erabaki eta ezartzen dituztenak; eta “atzeratuak”, gainerakoek erritmorik iristen saiatzen direnak. Literatura garatuek, noski, Mendebaldeko estatu-nazio nagusiekin egiten dute bat, eta garatu gabetzat hartuko dira kolonizatutako herrialdeak, Ekialdeko literatur tradizioa edota literatura txikiak. Sarrionandiak (2010: 447) ezin hobeto azaltzen du:

Munduko Literatura zabaltzen zen artean, Afrika, Amerika, Australia eta Asiako hainbat literatura jatorrizko suntsitu edo baztertu egingo ziren. Munduko Literatura kontzeptua Europako balio kristau eta burges berrien zabalkundearekin sortua zen, eta zabalkunde horren estandarteetako zen. Inperialismoak orientalismoa ekarri zuen, exotismoaren inportazioa –berba ekonomikoa erabiltzeko–, herri konkistatuaren errekupeazio arkeologiko eta ornamentala.

Frantziako ereduari jarraiki, eskema guztiz zentralista bat aurkezten du Munduko Literaturak: hizkuntza nazionalen idatzitako literatura nazionala duen Estatu-nazioaren eredu, hain zuzen ere. Estatu-nazio horrek bere kapital sinboliko eta literarioaren zati handi bat hiriburuan kontzentratzen du, eta eskualde periferikoak guztiz menpeko geratzen dira, hiri handi horren eta Estatu-nazioan hartutako erabakien menpe egonen baitira. Miragarria litzake, beraz, hiriburutik aparte dauden eskualdeek bat-batean beren burua aldarrikatu eta euren literatura aintzateste eskatzea, marjinalitatea baita eskualde-literaturei ezarritako ezaugarria (Casanova 2001: 24). Ideia horretatik abiatuta, nazioarteko joko-zelaian agerpena egiteko, bi aukera edo estrategia aitortu ohi zaizkie bazterreko literaturei: asimilazioa edo desberdintzea. Asimilazioa nazio txikiaren literatur sistema nagusitasuna duen Estatuaren irizpideen arabera eraikitzean datza. Kasu horretan, idazleek alde batera utzi beharko lituzkete haien kultura propioak eskaintzen dizkien ezaugarri eta bereizgarriak (hizkuntza, historia, identitatea, etab.) edo kultura nagusiaren

menera jarri eta adierazi. Bestetik, desberdintzeak literatura bereizgarri horietan zeharo oinarritzea du helburu, erregionalismora makurtuta, komunitate txiki baten folklorea goratu eta bereizgarritzat jotzen dena exotikotzea.

Tarteko bide alternatiboak ukatuta, literatura txikiak edo bazterrekoak zigortuak izan dira sarri Munduko Literaturan, eta ez zaie aitortu merezi zuten lekua, argudiatuz literatura horietan ez dela autonomiaren ideia existitzen, eta ondorioz, idazleak euren komunitate marjinalaren desberdintasuna azpimarratzera lotuta egoten direla, “kondenatuta” daudelako ia beti gai nazional edo herrikoiei buruz idaztera eta nazioaren ideiak defendatu, garatu edo kritikatu behar izatera (Casanova 2001: 251-252). Baina literatura nazionalak estatu-nazioen jaiotzan sortuak izaki, ez al dute nazio guztiek, handiek zein txikiak, eta ondorioz, euren literaturek, nazionalismoari buruzko eztabaida barnebiltzen haien baitan? Sinpleegia litzake adieraztea soilik literatura txikiak daudela haien identitatearen zamapean zigorturik.

Ezin da errefusatu, noski, nazio ukatua izatearen gatazkak euskal literaturan izandako eragina. 60ko hamarkadan, euskaraz sortzeko borroka gain, euskal letrek politizazio handi bat bizi izan zuten. Hala ere, nazioaren aldeko produkzio propagandistikoa bihurtzetik urrun, literatura –oro har, kultura bezala– irekidura dispositibo bihurtu zen (Ansa 2019: 158). Kulturaren inguruan sortutako mugimenduak euskal identitatean sakontzeko aukera eman zuen, eta euskal nazionalismo tradizionalaren sistema patriarkal eta katolikoarekiko ahots kritikoak agertzen hasi ziren hamarkada amaieran: Artze (*Isturitzetik Tolosan barru*), Amaia Lasa (*Poema bilduma*) eta Saizarbitoria bera (*Egunero hasten delako*), kasurako. Haustura horretan, argi ikus daiteke tradiziotik edo folkloretik hurbilen geratzen ziren leku komunitatik –bereziki, euskaldun onaren landa mundutik– aldentzeko borondatea, beste espazio batzuk arakatuko dituen bide alternatiboak sortzeko (Ansa 2019: 117). Barrura begirako bilaketa horrek, ordea, Europatik eta, bereziki, Frantziatik zetozen proposamen estetiko eta diskurtsiboak izan zituzten akuilu. Nahiz eta 68ko maiatzaren ostean Parisen zentraltasuna agortzen joan, gertaera horien bueltan garatutako pentsamendu eta kultura korroneak dira Saizarbitoriaren belaunaldiarengan influentzia handiena eragin zutenak, idazle zein musikari gazte askoren inspirazio-iturri eta sormenerako espazio izan baitzen Paris, baita erregimen frankistatik ihes egindakoentzako etxe ere (Gabilondo 2013: 101).

Eleberrigintzan hirira egiten ari zen espazio aldaketak, beraz, harreman zuzena dauka euskal identitatearen bilaketa berri horrekin. Bide propioa urratzeko arrakala bat sortzen da 60ko eta 70eko hamarkadetan, euskal literaturari aurretik ezarria duen eremutik irteteko aukera emango diona, tarte baterako bada ere. Horrek bertako errealitatearen konplexutasuna onartzea (prototipo euskaldunari ihesi), adierazteko bide berriak esploratzea (Europatik zetozen estilo orduan apurtzaileak) eta espazio berriak bilatzea (hiria ere bere egitea) ekarri zuen, garaiko eleberrigintzaren oinarritzat jo ditzakegun ezaugarriak izanik aurreko horiek. Hiriak eleberrietan lehen aldiz irudikatzean, ordea, gatazkak sortzen dira: nola aurkeztu euskal irakurleari, erdeinurik sortu gabe, lehenago errefusatu den espazio bat? Izan ere, Mendebaldeko tradizioan hiriek baliabide literarioak metatu eta pilatu ohi dituzten heinean, zilegitasun eta iritzi literario gehien produzitzen dituzten espazioak izan dira, eta dira (Casanova 2001: 40), baina kontuan harturik Euskal Herriak ez zuela kapital kultural eta literarioa metatzen zuen hiriburu nazionalik eta euskal literatura hiriko esparruan marjinala izana zela beti, eredu faltarekin eta zailtasun ugarirekin egiten zuten topo irudikapenak egikaritzeko orduan. Arrakala horren baitan, ordea, eleberrigintza bere testuingurura moldatu zen, nahiz eta horrek Mendebaldeko eredu hegemonikotik kanpo utzi zuen hein handi batean, eta bazterrean jarraiarazi. Hala ere, hiri ertainen konplexutasuna erakutsi zuen bere lehen irudikapen urbanoetan, landa eremuko testuinguruarekin harremanean betiere. Hor kokatzen dira Saizarbitoriaren lehen eleberriak, izan *Egunero hasten delakok* atzerrian kokatutako hiri ertainak baliatzean eskaintzen duen trantsizioaren bidez, izan *Ehun metron* Donostia nobelatzean nazio-gatazkaz gain hiriaren konplexutasun soziala (egoera diglosikoa, turismoaren eragina, etab.) adieraztean. Ez da metropoli handirik ageri, ez da hiriburu literariorik osatzeko anbizioarik agertzen, baina urbanotasuna perspektiba propioago batetik iristen da euskal literaturara.

Spivakek (2009) dio subalternoak ez duela hizketarako aukerarik, enuntziazio lekua hartzen duen neurrian uzten baitio subalterno izateari. Behin hitza hartzeko onespina jasota ere, ordea, erdigunea urrun geratu ohi da. Euskal literaturak linbo horretan eraiki behar izan du bere izatea, zenbaitetan bazterreko espazio horretan bide propioa eginez, zenbaitetan existitzeko

baimen eske eta nazioartera ateratzeko baldintzen pean. Ikusienez, Mendebaldeko tradizioaren, eta ondorioz, Munduko Literaturaren irizpideen arabera, euskal literatura bazterrekoa eta gutxiagotua izango da beti, are gehiago Espainiako eta Frantziako literatur sistemen begietan. Izan ere, euskalduna inoiz kultura eta literatura normala izango delako usteak aurrez eskatzen du, baldintza gisa, euskal nazio-estatu inperialista kapitalista baten existentzia (Atutxa 2012: 155). Normalizazioaren ideia falazia da beraz, potentzia handien “normalitatearekin” bat egiten ez duen sistema literario batean. Horren ildora, hirien irudikapenek gurean sortutako “gabezia” eta “atzerapena” konparazio horren beste adibide bat baino ez dira. Euskal literatura ezin bada normala izan, urbanotasunaren esperientziak eta hiriaren irudikapenek ere ez dute Mendebaldeko ereduarekin bat egingo.

60ko eta 70eko hamarkadetan, zenbait saiakera antzeman daitezke anormaltasun horri heldu eta bere horretan adierazteko, baita hiriak eleberrietan txertatzerako orduan ere. Horien artean kokatzen dira Saizarbitoriaren lehen lanak, eta horregatik dira interesgarri urbanotasuna euskal eleberrigintzara nola ekarri zuen ulertzeko. Ez folklorizazioan, ez homogeneizazioan ez erortzeko Saizarbitoriak –beste zenbaitekin batera– egindako hautuak lotura zuzena dauka Madrilekiko markatu nahi zen urruntasunarekin, Frantziatik iristen ziren berritasunak euskaraz gorpuztearekin eta literatura autonomo baina era berean herriarekin engaiatu bat sortzen saiatzearekin. Hautu horrek Saizarbitoriari Euskal Herria adierazteko distantzia bat eman ziola esan daiteke, eta hortaz, Casanovarentzat pentsaezina den kategoria bat gorpuzten duela, bere Letren Errepublika zurrunk literatura txikiei ezarritako bi aukera gutxiesleei uko egiten baitie (Gabilondo 2013: 40). Azken finean, Europako modernitatearen korranteetatik edan zezakeenari adi, baina bertako anormaltasun berez normalari buruz idaztea hautatzen duelako Saizarbitoriak lehen eleberrietan, hirien irudikapenetan islatuko den eran.

3. Ramon Saizarbitoria: hiriaren irudikapen alternatiboa

Saizarbitoriaren bidez, euskal eleberrigintzan aurretik gertatu gabeko espazio-aldaketa jazotzen dela esan daiteke. Bere literatur ibilbidearen

lehen etapan, euskal literaturarentzat molde berriak bilatzeko berariazko nahia antzeman daiteke, bai gaitegian, bai forman. Ez da bide hori hartu zuen erreferente bakarra, aurretik Txillardegik ere bidea ireki baitzuen mundu zaharraren eta berriaren arteko haustura eragiteko (Aldekoa 2007: 629). Bereizten hasiak ziren fede katolikoan oinarritutako mundu ikuskera zuen belaunaldia eta filosofian eta iraultzan mundu berri bat aurkitu uste zuen belaunaldi gaztea, eta arrakala horren ikurtzat har daiteke *Leturiaren egunkari ezkutua*, landa eremuaren eta hiriarren arteko espaziotzat har dezakegun Zerubide parkean kokatua. Txillardegiren lanean hiria ageri bada ere, ezin esan daiteke espazioak protagonismo bereizgarririk duenik oraindik, ez da ageriko egiten, eleberri existentzialistan protagonistaren mundu intimoak eta hausnarketa pertsonal zein filosofikoek gidatzen baitute istorioa, zinez. Horrez gain, urtaroen joanak egituratzen du nobela, parkea hiriari baino naturari atxikiz. Saizarbitoriak, ordea, hiria eleberrian integratzen du, agertokiaz haragoko interes narratiboa dauka, eta besteak beste, protagonistaren izaera eraikiz (*Egunero hasten delakon* protagonistaren haurdunaldia irudikatzerakoan, adibidez) edota espazioen esanahi sinbolikoen bidez (esaterako, *Ehun metron* Konstituzio plazak duen esangura ukazina) bilakatzen du hiria ezinbesteko bere literaturan. Hala, euskal eleberrigintzan Txillardegik eragindako hausturari jarraiki, baina espazioari dagokionez beste urrats bat emanez, Saizarbitoriak espazio urbanoa erabiltzen du hasiera-hasieratik literaturaren bidez garaiko errealitatearen konplexutasuna adierazteko.

Idazle donostiarraren lehen bi eleberriak, 60-70eko hamarkadetan argitaratuak, euskal eleberrigintzan begirada urbanoa txertatzeko saiakeratzat har daitezke, beraz. Bi eleberrietan erabiltzen dituen espazioek, gehien-gehienak hiritarrak, lotura estua dute pertsonaien garapenarekin zein garai soziopolitikoaren irudikapenarekin. Ondorioz, eleberrien funtsezko elementua izango da espazioa, sarri pertsonaiak ezaugarritu edota istorioa diskurtsiboki bideratuko baitu. Orain azalduko den gisan, Euskal Herriko zenbait errealitate islatuko dituzten espazioak dira, non Donostiak erdigunea hartuko duen, mundu modernoaren arazo eta gatazkak azaleratzeko orduan.

*Egunero hasten delako*¹

60ko hamarkadaren amaieran, gai zein forma berritzaileez gain, eleberri honek espazio urbanoaren agerpen apurtzailea ekarri zuen. Hamarkada amaierako Europa erdialdean giroturik –idazlearen erreferente eta influentziak argi geratzen dira hasieratik–, inguru guztiz hiritarrean narratzen dira Gisèleren nondik norakoak: tren geltokiak, kafetegiak, unibertsitateko ingurugiroak, mediku espezialisten kontsultak, etab. Hiri bat baino gehiago aipatzen dira (Paris, Erroma, Lyon), baina garrantzitsuenak, zalantzarik gabe, Durkheim eta Riemmes dira. Asmatutako hiriak, biak hala biak, baina Friburgo eta Ginebrearekin erraz erlazioa daitezkeenak. Izan ere, Gisèlek hartutako trenak Durkheim-Bastian-Riemmes ibilbidea egiten du, baina Friburgo-Lausana-Ginebra geltokiak izan zitezkeen. Horrez gain, Durkheimgo kaleek Friburgoko izen berak dituzte (Hernandez Abaitua 2008: 164).

Saizarbitoriak ongi ezagutzen dituen hiri ertainak dira, probintzia edo kantoi-hiriburuak, Suitzako paisaiaren parte diren aintzirez eta mendi altuez inguratuak, naturarekin harreman estua dutenak. Hau da, lehen euskal eleberri urbanoa ez dago Euskal Herrian girotua, eta Europa erdialdeko hirien traza dute haren espazioek. Euskal Herritik kanpoko agertokia aukeratzea hiriarekiko zegoen mesfidantza gainditzeko bide izan zitekeen, baita errealismoak sor zitzakeen eragozpenak arintzeko ere, oraindik ere zail baitzen gatzelania edo frantsesa gailentzen zen hiri bat euskaraz irudikatzen. Bertakoari buruz aritzeak ekar lezakeen errefusa edo gutxiespena –atzerapenaren ideiarekin bidez literaturak bere burua desgaitzen baitu– oraingoz saihestu eta arrotza zen hori gutxinaka gerturatzeko modu bat. Hala ere, naturarekin kontaktuan dauden hiriak dira, ertainak eta probintzia hiriburuak, ez direnak Londres edo Paris bezalako metropoli-hiriburuak, baina hala ere, tesuinguru guztiz urbanoa dutenak. Espazio horien aukeraketa kultura urbanoa euskal literaturara hurbiltzeko lehen saiakera gisa uler daiteke: hiri ez-gatazkatsuak, era atsegin eta hurbilean aurkeztuak. Izan ere, Suitzako hiri ertainak izan arren, Euskal Herrikoen tipologiara gerturatzen dira, eta beraz, ez dira atzemanezinak edo arrotzak irakurle euskaldunarentzat. Gai-

¹ EHD, hemendik aurrera.

nera, ezin ahantz daiteke, 60ko eta 70eko hamarkadetan gazte askok atzerri jo zutela, sarri Europako hirietara ikastera edo lanera, Saizarbitoriak Friburgora egin bezala. Ez da kasualitatea, beraz, idazlearen lehen eleberri honek garaiko gazte askorentzako ezaguna zen agertokia izatea oinarrian.

Suitzako hirien hautaketak, esanahi zehatz batetik harago, funtzio jakin bat betetzen du *EHDn*: diskurtso bat osatzen du istorioaren barnean, eta liburuaren tesia indartu. Agerikoa da idazlea bizitoki zuen ingurunean inspiratu zela, baina errealitate hori islatzeko interesa baino, espazio horrek ematen dizkion aukeretan suma daiteke Durkheim eta Riemmes eraikitze-ko hautua. Izan ere, kantoiek garrantzi berezia dute eleberri honetan, geografian mugek eta lurralde-banaketek eragiten dituzten politika-aldaketak agerian geratzen baitira. Durkheim eta Riemmesek ordezkutzen dituzten bi kantoiak epai moralen erlatibotasunaren sinbolo dira (Hernandez Abaitua 2008: 164). Morala, eta bereziki oinordetzan jasotako moral katolikoa, da eleberri honen muinean protagonistek daukaten gatazka behinena, kasu honetan sexua eta ugalketa bereizteko nahian zentratzen dena (Aldekoa 2015: 128). Aurretik aipaturiko belaunaldi talka berresten da, zaharren munduaren eta gazteen munduaren artean, moral zaharraren eta moral berri baten bilaketaren artean. 60ko hamarkadaren amaierako gazte giroa dakar Saizarbitoriak bere lehen eleberrira, moral zaharraren dogmak zalantzan jartzeko eta gainditzeko beharra, baita horrek zekartzan buruhaustek ere. Aurrekoarekin hautsi eta moral berriaren bilaketarako espazioa da hiria, baina gatazkaren espazioa ere bada, gazteen askatasun eremuari kontrajarrita belaunaldi zaharraren eskuetan baitaude oraindik hirian kokatzen diren botere sinbolikoen guneak: Estatu, Eliza eta, eleberri honetan, osasungintza eta ginekologia; boterea, azken finean. Kasu honetan, abortuaren bidez azaleratzen da gatazka hori. Izan ere, Estatu beraren barnean, abortuaren legeak desberdinak dira *EHDn*, edota ez dira modu berean aplikatzen, eta ondorioz Durkheim hirian ezinezkoa da abortua praktikatzea, baina Riemmesen, ordea, Gisèlek prozesua aurrera eramateko aukera topatzen du.

Saizarbitoriak Suitzako testuingurua hautatzeko beste arrazoietakoa bat izan daiteke hori, abortuaren gaia jorratzekotan, Euskal Herrian guztiz debekatua baitzegoen garai horretan. Horiek horrela, abortatzeko baldintzak

ulertzeko begirada desberdinek lurraldetasuna markatzen dute. Bien bitartean, neska gazteak bi hiriak goitik behera ibiltzen ditu bere etorkizunarekin zer egin erabaki nahian. Testuinguru desberdin horiek legeen arbitrariotasuna agerian uzteaz gain, espazio urbanoak eleberraren argumentuaren zerbitzura jartzen ditu. Ondorioz, *EHD* eleberriko gatazka nagusia moralaren interpretazio partzial eta aldakorrek sortuko du eta ez, inolaz ere, hiriaren presentziak. Lehen aldiz, hiriaren irudikapena ez da korapilo, aurreko garaietan izan zitekeen bezala. Hiria ez da espazio gatazkatsua nobelan, kontrara, inguru natural, moderno gisa aurkezten da, baita nolabaiteko askatasuna sentitzeko beharrezko baldintzak aurki daitezkeen leku baten modura ere: erabakiak hartzeko, topaketarako, moral tradizionala zalantzan jarri edo kritikatzeko lekua da hiria *EHD*n. Hala ere, esan bezala, espazio moderno eta askatzaile baina, era berean, konplexu hori irudikatzen, Saizarbitoriak ez du metropoli handirik aukeratzen, baizik eta hiri probintzialak. Beren balioa eman nahi die, beraz, hiri ertainen urbanotasun eta modernotasunari.

Eleaniztasuna da *EHD*n aurki ditzakegun espazio urbanoen ageriko beste ezaugarri bat. Eleberrian zehar, txandaka agertzen dira Suitzako hizkuntza ofizialetako bi, frantsesa eta alemana, eta horrez gain ingelesa. Halaber, amaierako pasarteetako batean italierazko elkarrizketa bat irakur daiteke, herrialdeko beste hizkuntza ofiziala dena. Frantsesak eta alemanak, hots, irudikatzen diren bi kantoiei dagozkien hizkuntzek, herrialdeko eleaniztasuna ikusarazten dute, eta ingelesak nazioartekotasuna. Interesgarria da, beraz, ikustea zein momentu zehatzetan erabakitzen duen idazleak hizkuntza horiek eleberrian txertatzea. Hizkuntza aniztasuna erakusteko arrazoi garbientetako bat urbanitatearen adierazpenean aurki dezakegu. Saizarbitoriarentzat, hiria modernitatearekin lotzeko, ezinbestekoa da hiriek biltzen duten aniztasuna azaleratzea, munduko beste hiriekin konektaturiko hiriak diren heinean. Hala bada, *EHD*koak hiriburu ertainak izanik ere, hiri kosmopoliten isla dira, nazioarteko sare urbano batekin harremanetan daudena, eta ondorioz, hizkuntzen bitartez elkartuak. Alde horretatik, sinbolikoa gerta daiteke, trenei buruzko informazioa, iragarkiak eta egunkarietako titularrak frantsesez, ingelesez zein alemanez ematea.

Bestetik, hizkuntza desberdinen erabilerak nazioen errealitate eleaniztuna jartzen du agerian, kasu honetan, Suitzako errealitatearekin bat egi-

ten duena. Ezin esan daiteke eleberrian ispilatutako praktika hau inuzentea denik, gainera, Saizarbitoriaren bibliografian errepikatzen den teknika izanik. Hortaz, saihetsezina da Euskal Herriko egoera linguistikoari keinu bat igartzea eleberri eleaniztun honetan. Gure lurraldeko egoera diglosiakoaren aurrean, bereziki hirietan, eleberriko irudikapen urbanoak nazio eleaniztun baten eredu positibo gisa funtzionatzen du. Era horretan, egoera linguistikoari dagokionez, Saizarbitoriak harreman bat sortzen du irudikatutako espazio urbanoaren eta irakurle euskaldunaren errealtatearen artean. Hala, oso ongi neurtutako gertutasun bat proposatzen du: irakurleak bere espazio ezagun bat igar dezake proposatutako hirietan, espazio gatazkatsua ez dena gainera, baina betiere distantzia batetik, guztiz bere sentitu gabe.

Orobat, aurretik aipatu gisa, hiriaren irudikapenak pertsonaien karakterizazioarekin guztiz lotuta daude, gehien bat mikroespazioei dagokienez. Alde batetik Gisèlek gorpuzten duen neska gaztearen pertsonaia dago, protagonista guztiz dinamikoa. Haren dinamismoa espazioan ispilatzen da: etengabe aldatzen da bere ekintzaren agertokia, eta hiriak zeharkatzen ditu abortatzeko nahiriari soluzio bat eman nahian. Era berean, Gisèlek moralitate tradizionalaren kritikan neska gazte modernoaren papera hartzen du, ideiak argi ditu eta erabakiak amaieraraino eraman nahi ditu. Garbi ikus daiteke hori bere ingurukoekin dituen elkarrizketetan, esaterako, Bertherekin birjinitateari buruz hitz egitean edota Mauriceri argitzean berarekin oheratu izanak ez diola eskubiderik ematen bere etorkizunaz erabakitzeke (Hernandez Abaitua 2008: 152-153). Xehetasun txiki baina iradokitzaileen bidez eraikitzen du pertsonaia Saizarbitoriak, eta besteengatik nabarmentzen da ideia ireki eta ekintza irmoengatik. Eleberrian zehar, idazleak espazioa erabiltzen du adierazteko protagonistaren izaera errebeldea, korrontearen kontra doana, eta era berean, sentitu nahi lukeen lasaitasuna, barne-bakea. Eta alderantziz ere, neskaren mugimenduen bidez marrazten du espazio urbanoa (Saizarbitoria 2007: 121):

Jende uholdea lanetik etxera, euriari ihesi, aterkia eskuan isilik doazen gizon-emakumeak, artaldea bailiran. Gisèle ez da korronte horretan murgiltzera ausartzen eta, luzaroan zalantzan egon ondoren, kalean behera eramaten uzten dio bere buruari, etxe artean, eta

aurrera egin ahala, desio lukeen lasaitasuna iradokitzen duen argitasunez piztuz doaz leihoak.

Semaforo gorria. Uholdea gelditu egin da baina berak aurrera jarraitzen du. Klaxon hotsa, balaztaden kirrinka. Korrika hasten da. Oihu egiten diote.

Horrez gain, hiriak eleberraren korapilo nagusia azpimarratu eta garatzeko balio du. Idazleak lortzen du agertoki urbanoak protagonistaren barne gatazka irudikatu eta islatzea. Horretarako, Saizarbitoriak hiriaren eta naturaren arteko aurkakotasun txiki bat sortzen du, baina antagonismo bat bilatzea baino, elementu bakoitzaren konplexutasuna atzematea duena helburu. Hiriaren eta naturaren artean, batak bestea baztertu beharrean, elkarbizitza posible bat proposatzen du. Esanguratsua da, besteak beste, Gisèlek desio ez duen haurdunaldia hiriko harrien artean jaiotzen den zuhaitzarekin alderatzen duen pasarte. Interesgarria da ikustea nola protagonistak, bere izaera identitate guztiz urbano eta modernoan oinarritu arren, naturarekiko maitasun eta sentsibilitate berezia erakusten duen. Natura bizia preziatzen du, baina era berean, naturak bere barnean sortu duena gorroto du. Hala bada, Saizarbitoriak gatazka gurutzatu horiek hiriaren bidez plano berean irudikatzea lortzen du, berriz ere hiriak eleberraren diskurtsoan eta garapean bere lekua izanik (Saizarbitoria 2007: 122):

Aurrez aurre, enbor meheko arbola gazte bat, brontzezko historialariaren garaierakoa. Atsegina zaio plaza, hiri erdian galdua dirudiena, ahantzia bezala, trafikoaren zaratatik gordea, non hoditeriaren ur hotsa eta jolasean diharduten bi haurren pilotarena baino ez den entzuten. Arbola, harrien artean, haurren pilota baino askoz handiagoa ez den lur zirkulutik jaio da. Natura tematia. Bere barnean erroto den eta bere desioaren kontra bizi nahi duen natura hori. Arbola besarkatzen du eta bere azal leuna ferekatzen. Sarritan izan ohi du sentipen hori, arbolak taupa egiten dien bihotza dutelakoa. Sabelean daraman hori, ordea, ez du bizia bezala sentitzen, zigorra bezala baizik.

Pertsonaien karakterizazioa itzulita, argi ikus daiteke bigarren protagonista ere, gizon berritsua, espazio urbanoaren bidez eraikitzen dela. Gisèlaren kontrara, irakaslea pertsonaia guztiz estatikoa da. Irakurleak bakarrizke-

ten bitartez ezagutu dezake soilik haren identitatea, narratzaileak ez baitu esku hartzen berak okupatutako pasarteetan. Gizon berritsuaren mugimenduak, beraz, diskurtsiboak dira. Argi ikus daiteke darabiltzan erreferentzia kulturalak 60ko hamarkada amaieran adin ertaineko pertsona ikasi batenak direla, garaian Europako giro intelektualean borborrean zeuden eztabaida eta korronteak txertatzen baititu bere jarioan: existentzialismoa, marxismoa, surrealismoa... (Aldekoa 2015: 127-128). Horrez gain, pertsonaia hau ez da espazioan mugitzen, eserita dago beti, eta bere bakarrizketek bi toki hartzen dituzte soilik: tren-geltokiko kafetegia eta lokutorioa. Bi espazio hauek, ordea, estatikoak izatetik urrun, munduarekin komunikatzeko lekuak dira, konexio eta topaketarako puntuak. Mundu modernoari buruzko diskurtso eta hausnarketek gizon berritsuaren hizketaldiak betetzen dituzten eran, berak hartzen dituen espazio urbanoak ere mundu globalarekin konektaturik daude trenbideen eta telefono lineen bidez. Ondorioz, desplazamendu fisikorik gabeko pertsonaia izan arren, dinamismo diskurtsibo handiak hartzen du garrantzia kasu honetan. Izan ere, arazo moderno globalak puntu kardinaltzat hartuta, posizio aldaketa etengabeak eragiten ditu gizonaren jarioak, eta irakurlea berarekin eramaten du joan-etorri etengabe horretan.

Hitz batez, Saizarbitoriak istorio guztiz modernoa plazaratu zuen bai tematikaren, bai formaren aldetik bere lehen eleberrian, eta ezaugarri horiek trama garatzen den espazioan agerian geratzen dira halaber. Hori dela eta, espazio urbanoa hautatu izana ezinbesteko gertatzen da tramaren eraikuntzarako, baita pertsonaien karakterizaziorako ere. *EHDk* hiriaren irudikapena behar du moral tradizionala zalantzan jartzeko zein abortuaren gatazka klinikoa azalertzeko, baina baita kultura urbano eta modernoaren ezaugarriak dituzten pertsonaiak kokatzeko ere. Bidenabar, eleberriaren arazo nagusia espazio urbanoan islatzean, hiriak berak bere lekua hartzen du istorioan, eta zenbait pasartetan beste pertsonaia bat gorpuztera heltzen da. Ondorioz, esan daiteke lehen aldiz hiriak elementu diskurtsibo bilakatzen direla euskal eleberrigintzaren tradizioan. Nahiz eta *EHD* idazteko Euskal Herritik kanpoko hirien testuingurua erabili, ezin uka daiteke Saizarbitoriak euskal letretara hiri ekartzeko egindako lehen ahalegina, eta espazio urbanoa era atseginean eta landa eremuarekiko kontrakotasunik gabe gertura-

tzeko saiakera. Hala bada, atzerriko hiriek keinu egiten diete bertakoei, aldarrikatu nahian hiriaren potentzialtasun literarioa ageri-agerikoa dela, eta hiria/landa gatazka tradizioaletatik at, landa eremuarekiko oposiziorik gabe osa daitekeela diskurtso urbanoa.

Ehun metro

*EHD*rekin euskal eleberrigintzaren urbanizazioa hasi bazen, *Ehun metrok* pausu handi bat suposatu zuen prozesu horren sendotzean, euskal letra modernoetan hiriaren garrantzia nabarmendu baitzuen. Saizarbitoriaren lehen eleberriari jarraiki, bigarren honek ere narratiban eta forman ekarri zuen berrikuntza ezaguna da. Lehen inpresioan hamaika zatiz osatutako *collagea* dirudienak, errealitatearen konplexutasuna dakarren trama zatikatua bistaratzen du berehala. Saizarbitoriak plano eta azpi-istorio ugari txertatzen ditu bi kontakizun nagusien inguruan, eta hala, ustez independenteak diren bi norabide gurutzatzen dira eleberrian; elkar baldintzatzen dute, betiere espazio berean ardaztuta baitaude: Donostian.

Idazlearen lehen liburuan bezala, bigarren honetako espazio urbanoek ere garrantzi handia dute gurutzatutako istorioak garatu eta eleberriari paisaia komun bat emateko. Eleberrian agertzen diren espazioak bi taldetan bana daitezke, denbora literarioan hartzen duten posizioaren arabera: pertsonaia nagusiaren berehalako errealitatean eta oroimenean (Hernandez Abaitua 2008: 246). Ondorioz, espazioaren eta denbora literarioaren arteko harremana ezinbesteko bilakatzen da *Ehun metro* ulertzeko. Orainaldiko lekuak espazio urbanoak dira beti, Donostian bertan kokatzen direnak: Konstituzio plaza, polizia etxea, Kontxako paseoa edota hiriari buruzko inpresio orokorrak agertzen dituzten pasarteak, irakurleak auzokideen elkarriketen eta egunkariko notizien bidez jasotzen dituenak. Iraganeko lekuak, ordea, askotarikoak dira, nahiz eta presentzia urriagoa izan. Gainera, denak ez dira Donostian kokatzen eta zenbait ez dira espazio urbanoak. Hortaz, Micheleren Donostiako etxeaz gain, herri txiki baten zein Frantzia eta Suitzako inguruen zenbait zertzelada agertzen dira. Baina zalantzarik gabe, Gipuzkoako hiriburua da *Ehun metroko* espaziorik esanguratsuena.

Oraingo honetan, eleberria osatzen duten espazioak errealak dira, eta ekintzek Euskal Herrian hartzen dute leku, Donostian, irakurle euskaldunari irudikapen urbano ezaguna eskainiz. Donostiak ezinbesteko papera jokatzeko du eleberriaren eraikuntzan, espazioen egiazkotasunak sinesgarritasuna ematen baitie testuinguru zehatz horretan gertatzen diren ekintzei, eta bereziki, irakurlea hiri literarioa gerturatzen baitu sentimendu arrotzik sortu gabe. Ez dago asmatutako edo urruneko espazioen beharrik urbanotasuna euskal letretara ekartzeko, eta hala, Konstituzio plazak, San Martin edo San Jeronimo kaleek zein Udaletxeak euskal hirien potentzial literarioa sustatzen dute Saizarbitoriaren bigarren eleberrian. Hala ere, errealismoak ez du salbuesten espazio horiek, era berean, balio eta funtzio sinbolikoak izatea.

Ehun metroko espazioak, orainean eta iraganean kokatutako lekuak izateaz gain, “jazotako espazioak” eta “gogoratutako espazioak” etiketen pean ere bana daitezke (Hernandez Abaitua 2008: 249-250). Jazotako espazioetan orainaldiko ekintzak kokatzen dira, Donostian kokatuak, eta horietan gatazka armatuaren biolentzia, agresibitatea eta krudelkeria gailentzen da, baita biztanleriak errealitate gogor horren aurrean erakusten duen indiferentzia ere. Kontrara, gogoratutako espazioak afektiboagoak dira, eta zenbaitetan Donostiatik kanpoko oroitzapenak ekartzen dituzte. Leku horiek protagonistaren memoriara datoz analepsiaren bidez, elementu zehatz batzuek iraganera bidaia eginarazten baitiote, baita iraganetik orainaldira ere. Ondorioz, espazio horiek iheslariak korrika egin bitartean sentitzen dituen sentimenduekin daude lotuta, eta oroimena erabiltzen du espazio desberdinak konektatzeko. Sarri ez dira fisikoki guztiz hautemangarriak, baina pisu emozional handia dute lanean.

Bestalde, *Ehun metron* ere, hizkuntzaren hautaketak garrantzi handia du, eta hiriaren irudikapenarekin lotura zuzena ezartzen du. Eleberrian zehar agertzen diren gaztelaniazko, ingelesezko edo frantsesezko pasarteak oso era kontzientean hautatu dira eta karga sinboliko handia dute, errealitatea ikuspegi hurbil eta sineskor batetik adieraztea baitute helburu. Eleberrian presentzia txikiena duten hizkuntzak dira frantsesa eta ingelesa, eta abesti bera osatzen duten bi hizkuntzetako bertsoetan egiten dute agerpena: “Song in the blood” eta “Chanson dans le sang”. Josek, iheslariak, oroitzar-

pen baten bidez ekartzen du abestia istoriora, Michelerekin entzuten baitzuen nazioarteko abesti ezagun hori. Abestiaren bidez, Saizarbitoriak garai-ko pop kultura dakar, eta modernitateari eta unibertsaltasunari keinu egiten dio gatazkan dagoen lurraldean. Abestiaren erabilera ez da inolaz ere kasual- la, liburuaren tesi nagusia indartzen baitu: zein da borroka baten alde sakrifikatzearen eta odola isurtzearen zentzua, gizartea gidatzen duten logika eta arauak ez badira aldatzen, eta munduak axolagabe jarraitzen badu biraka (*Where's it going all this spilled blood / murder's blood... war's blood... / misery's blood [...] It doesn't give a damn / The earth / it turns and all living things set up a howl*). Horrela bada, eleberraren amaieran, ideia nagusia are gehiago nabarmentzen da, iheslaria zerraldo datzanean behin eta berriz entzuten baita abesti bera (Saizarbitoria 1980: 99): *It turns the earth / It turns with its trees... its gardens... its houses / It turns with its great pools of blood*.

Hizkuntzen erabileraren eta espazioaren artean dagoen harremanari dagokionez, ordea, gaztelania da esangura berezia duena. Gaztelaniaren erabilera euskal gizartearen egoera diglosikoa erakusten du, hirietan are nabarmentzen zena eta dena (Hernandez Abaitua 2008: 251), baina horrez gain, errealitatearen kontraste krudelak agerian jartzeko errefortzu agerikoa da. Halaber, hizkuntza bakoitzak lotura estua du sentimendu batzuekin, eta gaztelaniaren kasuan, boterea, biolentzia eta indiferentzia adierazteko baliatzen du. Zenbait pertsonaia edo elementu jakinek darabilte gaztelania: poliziak –galdeketa eta tiroketan–, eskola frankistako apaizek –boterea markatzeko erabiltzen dute–, hiritarren iruzkinak –txutxu-mutxuak eta indiferentzia jakitera ematean–, eta egunkari sentsazionalistetako notizia eta turismo iragarkiek. Gaztelania, beraz, hiriaren irudikapenarekin erlazio zuzena duen hizkuntza da, haren bidez deskribatzen baita hiria egunkarietan, eta kanpora begira bere burua saltzeko hizkuntza baita. Mundura atera eta atzerritarrei hiri modernoa eta burgesa dela ikusarazteko hizkuntza da. Era berean, gatazka armatuak eragindako gertaera lazgarrien aurrean zenbait herritarrek sentitzen duten indiferentzia adierazten da gaztelaniaren bidez, eta hala, Saizarbitoriak donostiarrek euren hiriaz duten irudi burges eta harroa azpimarratzen du sarri.

Ondorioz, gaztelaniaren erabilera ugaria, alde batetik, jazarpen eta biolentziatzko giroaren adierazle da, boterea erakusten duten pertsonaiek –ira-

kasleak, poliziak–, zein errelato ofiziala osatzen dutenek –egunkariak, irratia– erabiltzen baitute. Baina bestetik, mundura ateratzeko hizkuntza da, propaganda turistikoak, turista espainiarrek eta Donostiako zenbait herritarrek baitarabilte hizkuntza hau. Euskara ez da luzaroan hiriko hizkuntzat hartu izan, eta, ondorioz, Hego Euskal Herrian gaztelania izan da urbanotasunaren, garapenaren eta goi-mailako hiritarren legitimaziorako hizkuntza. Eleberrian dituen agerpenak behatuta, beraz, pentsa liteke Saizarbitoriak, uste horri jarraiki, kosmopolitismoa eta modernitatea adierazteko baliatzen dituela. Alabaina ukaezina da idazleak gaztelaniazko pasarte horietan darabilen ironia, kritika gogorra egiten baitio euskal gizartearen zati bati, bere hizkuntza eta hiri propioarekiko duen jarrera hipokrita azalarazita.

Zalantzarik gabe, idazleak *Ehun metrora* dakarren irudikapena Donostia burges eta harroarena da. Lehenean ez bezala, bigarren eleberri honetan hiri euskaldun bat jartzen du ekintzaren erdigunean, baina berriz ere, aurreko garaian gailentzen zen begirada arrotz eta ezezagunari iskin eginik, irakurleak gertutik ezagutzen duen espazio bat ekartzen du, bere konplexutasun guztiarekin, idealizatu gabe. Hala bada, hiri bere herritarren hitzen bidez deskribatzen da batez ere. Egunkarietan argitaratzen den propaganda turistikoak deskribapen topiko eta atemporal jartzen du mahai gainean, eta hiriaren giro zehatz bat erakusten du. Protagonista erail ostean argitaratutako egunkarian azaltzen da itxurakeria eta harrokeria adibiderik esanguratsuenetako bat (Saizarbitoria 1980: 89):

El paseo de la Concha es a San Sebastián lo que la Croisette es a Cannes, el paseo de los ingleses a Niza, el Boulevard de los Pirineos a Pau, la calle Príncipe a Edimburgo. Paisaje único e inconfundible con otro lugar de la misma especie, que no obstante, cuanto haya podido hacer en su favor la mano del hombre, se debe a la Naturaleza, y, en última instancia a Dios.

Era horretan, hiritarrek elikatutako topikoari jarraiki, hiri indiferentetzat aurkezten da Donostia. Hiri turistiko, pinpirin, handinahi eta frantsestua ageri da eleberrian, Kantauriko Paris izan nahi duen hiri ertaina. Postalezko agertoki horretan, ordea, tiroketa bat gertatzen da, eta berbenak, festak, poteoa eta aisialdi burgesaren jarduerak gailentzen diren giroa une batez

eten egiten da. Hala ere, ez dirudi plazan isuritako odolak eta heriotzak hiriko bizitza batere aztoratzen duenik, tiroketaren ondorengo eszenek lasaitasun itxura ematen baitute: Donostiaren edertasun zoragarriaren estampak erakusten dira, auzokideek gertaera komentatzen dute ezaxolati, kuadrilla batek ardoa edaten du tiroketaren plazan bertan, eta haurrek “polizia eta lapurretara” jolasten dira odol koagulatua gainean.

Eguneroko jarduera ohiko horiek amildegi bat zabaltzen dute espazio bakarrean, Donostiako hirian, derrigorrez elkarbizitza egin behar duten bi mundu oso desberdinen artean. Batetik, gatazka politikoaren inguruan egikaritzen den errealitatea ageri da, pertsonen bizitza baldintzatu eta heriotzaraino ere eramán ditzakeena. Kontrara, itxurakerian ardatzen den zenbait hiritarren bizitza, euren inguruko arazo sozialen aurrean ezikusiarrena egiten dutenak. Bi mundu horiek gurutzatzen direnean eta talka egiten dutenean, biolentzia eguneroko gertaera arrunten parean jartzen da, eta errealitatearen krudela gertzen da bistan, kontraesanak loratuz. Protagonista, konpromiso politikoa duen pertsonaia, kausa nazionalarekin batere konpromisorik ez duen hiri batean hiltzen da, hiribururik euskaldunena izanda ere, hiritarrek euskara eta gaztelania etengabe nahasten dituzten hirian, diktadorearen oporleku izandako hirian, ekonomia turismo espainiarrean oinarritzen duen hirian. Donostiak, beraz, pisu handia hartzen du nobelan espazio urbano sinboliko gisa, iheslariaren bakardadea azpimarratu eta haren heriotzak dakarren sakrifizio ustez absurdoa adierazten baitu (Hernandez Abaitua 2008: 251-252).

Donostiaren irudi indiferenteari kontrajarrita, biolentziaren eremu ere bada hiria. Horren harira, Konstituzio plazaren esanahi sinbolikoak berebiziko garrantzia hartzen du. Izan ere, *Ehun metro* nobelako espazio nagusia denak iheslariaren heriotza espazializatzen du, eta haren bidez gogorarazten aldi oro heriotzaren aurreko ihesaldi saiakera ezinezkoa. Hala, garrantzi semantiko handiko espazioa bilakatzen du etengabeko erreferentzialtasunak (Olaziregi 2001: 25). Plaza perspektiba ugaritatik deskribatzen da liburuan zehar: protagonistaren ikuspegitik, aterabide posible guztiak eta plaza inguratzen duten kaleak aztertzeko; liburuxka turistiko baten perspektibatik, Donostiako Parte Zaharraren edertasuna goresteke; eta indiferentzia azpimarratzeko, ardo batzuk hartzera joan diren txikiteroen eguneroko begiradatik eta “polizia eta lapurretara” jolasten diren haurren ikuskera inuzente-

tik. Esan daiteke Konstituzio plazak collagearen atzealdea osatzen duela, gatazka armatuaren eta gizarte ez-konprometituaren errealtate zatikatuari batasun bat ematen diona.

Halaber errepresioaren, sakrifizioaren eta, berriz ere, indiferentziaren eremua sinbolizatzen du. Errepresio frankistaren ikurtzat jo izan da (Hernandez Abaitua 2008: 251), eleberrian azaltzen den gisa, Frankoren diktadurapean izena aldatu baitzioten altxamenduaren data jarrita: “18 de julio”. Donostiari buruzko folleto turistiko baten bidez ematen da izen-aldaketaren berri (Saizarbitoria 1980: 27):

La Plaza de la Constitución, ahora conocida con el nombre de Plaza 18 de Julio, abre veintidós arcos en sus fachadas orientadas al Norte y al Sur (...)

Arroitaren iritzira (2015: 242), memoriagune frankista bat inposatzeko saiakeratzat har daiteke hiriko plaza nagusiaren izen aldaketa. Hori dela eta, eleberrian izendapen hori erabiltzen da, bai eleberria tenporalki frankismoaren garaian kokatzeko, bai espazioa menderakuntzarekin eta bortizkeriarekin lotzeko. Izan ere, plazan hiltzen du poliziak iheslaria, perspektiba desberdinetatik egiten den kontakizunaren arabera, guztiz inguratuta, salbu ateratzeko apenas aukerarik gabe. Hartara, Konstituzio plazak erabateko biolentzia sinbolizatzen du: eraiketa.

Horrekin lotuta islatzen da sakrifizioaren ideia. Izan ere, iheslariak bizirik irteteko inolako paradarik ez duela jakin arren, aurrera jarraitzen du, tiroak entzun eta aurrera jarraitzen du, lurrera zerraldo erori arte. Ezin saihestuzko heriotzaraino korrika ibiltzen dituen ehun metroek bilakatzen dute Konstituzio plaza eleberriko espazio esanguratsuen. Sakrifizioaren eta eraiketa-aren ideiak Konstituzio plazak iraganean izandako funtzioarekin harreman-tzen dute eleberria: zezen-plazarekin (Saizarbitoria 1980: 24).

–Hortxe plazan kiskali zitean.

–Beti zegok zerbait. Eta hiri zer pasatzen zaik.

– Ez diat begirik hertsi erreuma zikin honekin.

(...) Plaza errektangular bat. Haur batzuk bata beltzez jantziak, liburuek, karpetek, zorroek egiten duten piloaren inguruan lurrean

eseriak. Etxe zahar gristatua. Balkoia. Balkoiko atearen goialdean agertzen den numeroa. 108. *La plaza rectangular que en pasados tiempos fue el ágora y centro comercial social y festejero de la ciudad, ofrece la particularidad de que los dinteles de las puerta-ventanas de las fachadas de sus casas están correlativamente numerados en razón de la servidumbre a que estaban sujetos sus correspondientes balcones a servir de palco en la celebración de las corridas de toros...*

Donostiako plaza ezaguna aurretik izandako zezen-plaza gorpuzten da une batzuetan, eta ondorioz, zezenketarekin alderatu izan da iheslariaren hilketa (Kortazar 2013: 251), sakrifizioaren ideia muturreraino eramanez. Abaituak (2008: 251) argitara ekartzen duenez, lotura horretan iheslari euskalduna espainiartasun frankistaren sinbolo den zezen-plazan hiltzeak berebiziko interesa pizten du. Sinbolismo ezagun eta konpartituak garrantzi handiagoa ematen dio plazak espazioaren bidez kontaktzen duenari. Izan ere, sakrifizioaren ideia begien parean jartzen du, aterabide segururik gabeko espazioa den heinean. Boterearen ordezkari den poliziak plazan erailtzen du Jose, ihesean dabilen gaztea, toreroak zezena hiltzen duen eran: inguratuta, bakardadean eta heriotza nolabait eragozteko inolako laguntza edo aukerarik gabe. Are, zenbait pasartetan, zezenketaren irudia protagonistaren keinu eta ekintzetan islatzen da, Konstituzio plazak ematen dielarik zentzua gertaera horiei, balkoien zenbakiaren bidez zezen-plazara eramanez irakurlearen gogo (Saizarbitoria 1980: 80):

Eta eskuak odoletan irristatzen zaizkik lau hanketan hamalaugarren pausoa ematen duanean. Berrogeitazortzi segundo geratzen zaizkik bakarrik begi bat ireki ahal izateko bestea indarrez hertsiz leku koarenganako direkzioa asmatzen saiatzen haizenean. Plaza osoa hire inguruan jiratzen sentitzen duk eta mementu batez interesaturik bezala edo agian harriduraz presentziatzen duk heure gainean erortzearekin menazatzen hauten balkoi buruetako numeroen dantza zirkularra. 108 108 108 108. Altxatu egin nahi duk, baina belauniko ematen duk hamabostgarren pausoa eta aho zabalik lurreko hautsa mihazkatzen duk hamaseigarrena egiterakoan.

Era berean, eta pasarte berberari erreferentzia eginez, Saizarbitoriak nabarmentzen duen hiriaren izaera indiferentea agerian geratzen da Konstitu-

zio plazako gertakarien bidez. Tiroketa bat eta eraiketa bat gertatzen da non eta hiriko plaza nagusian, baina handik gutxira bizitzak berdin jarraitzen du, Arroitzak (2015: 243) adierazten duenez, sakrifizio absurdoaren ideia azpimarratuz. Aurretik aipatu gisa, heriotzaren ostean haurrak “polizia eta lapurretara” jolasean dabilta plaza, pistola imajinarioak erabiliz, helduek eguneroko minekin alderatzen dute jazotakoa (“Hortxe plazan kiskali zitean (...) Ez diat begirik hertsu erreuma zikin honekin.”) eta tiroketa bera Donostiako postal-irudiekin tartekatzen da. Hiriak bere espazio eta jendearen bidez hitz egiten du, gizartearen indiferentzia azaleratzeaz batera gatazkaren gordintasuna erakusten duelarik.

Hitz gutxitan, hiria oinarrizko elementua da *Ehun metro* eleberrian. Saizarbitoriak kontraesanez betetako garai nahasi eta paradoxiko baten lekuko modura erabiltzen du paisaia urbanoa, eta hala, Donostia bera beste pertsonaia bat bilakatzen da liburuaren zenbait pasartetan, nobelaren gako nagusiak ulertzeko ezinbesteko diskurtsoa garatzen baitu. Ildo beretik, espazio urbanoak hiri bakarrean gurutzatzen diren errealitate desberdin eta kontraesanezkoen zoru komun bat jartzeko helburua du, probintzia hiriburuen konplexutasuna eta urbanotasuna azalera ekarriz. Gatazka politikoa gauzatzen den espazioa da hiria, beraz, baina baita gizartearen alderdirik indifereentea eta goi burgesia harroena bizi den lekua ere. Ondorioz, idazlea hiriaz baliatzen da eleberriaren tesi nagusia behin eta berriz azpimarratzeko: errealitate desberdinen elkarbizitza kontraesanezkoa, gizarte ezaxolotia eta borroka armatuak dakarren sakrifizio absurdoa. Argi geratu denez, horretarako Donostiako espazio erreal eta zehatzak ekartzen ditu euskal letretara, eta errealitatean duten balio sinbolikoa baliatuz, funtzio konkretu bat esleitzen dio bakoitzari nobelaren diskurtsoa indartu dezan.

Ondorioak

*EHD*ren eta *Ehun metro*ren espazioaren azterketatik ondoriozta daiten Saizarbitoriak mundu modernoaren eta Euskal Herriaren errealitate kaleidoskopiko eta konplexua islatu nahi izan zuela, eta horretako, estilo narratiboaz edota trama zatikatuez gain, agertoki urbano baten

beharra ikusi zuela. Eleberri horietako espazio urbanoek funtzio zehatzak dituzte istorioaren garapenean, eta beraz, hiriak garrantzi diskurtsibo handia hartzen du. Izan ere, espazioen esanahi sinbolikoak eleberriaren balio erantsia dira, baita tramaren puzzlea osatzeko ezinbesteko baldintza ere.

Eleberriotan ez da hiriaren handitasuna ageri, espazio urbanoek ez dute ez lilurarik ez sentimendu arrotzik transmititzen. Argi geratzen da XX. mendean erdialdetik aurrera idatzi direla: hiriak ez dira ez mirariak ezta muntroak ere. Hor daude, eleberrien parte dira, gure bizitzen parte diren moduan: istorioen atzealdeko agertokia osatzen dute, baina trama zeharkatzen dute era berean. Hortaz, atzerrikoak ala bertakoak izan, Saizarbitoriak hiriak irakurlearentzat ezagun izango ziren eran irudikatzeko esfortzua egiten du, kontziente izanik euskal literaturan ez zela aurretik horrelakorik idatzi. Alabaina, ez dira literatura hegemonikoan agertu diren ohiko hiriak, ez dira euskal errealtatetik urrun geratzen diren metropoli edota hiri literario handiak. Hiri ertainak dira, probintzia-hiriak, landa eremuarekin izan ditzaketen harreman edo gatazkak ezkututzen ez dituztenak, baina era berean modernoak eta gatazka propioak dituztenak. Finean, euskal irakurlearentzat errealtate hautemangarri bat irudikatzen dutenak. Hori dela eta, eta *Ehun metron* zentratuta, Donostiak erdigunea hartzen du, eta Saizarbitoriaren ibilbide literarioan ezinbestekoa izanen den espazio baten lehen oinarriak jartzen dira.

Ondorioz, hausnarketa honek Saizarbitoriaren lehendabiziko lanak beste era batera irakurtzera eramane gaitzake: Mendebaldeko tradizioaren logika orokorraren bazterrean geratzen diren literaturei, gureari kasurako, balioko dien urbanotasun formula baten bilaketa gisa, alegia. Izan ere, hiria da Saizarbitoriak idazteko aukeratutako espazioa, hiriaren bidez azaldu nahi dituen mundu modernoaren kontraesanak eta Euskal Herriko gatazkak. Hautu kontzientea da ere, errealtate horiek literaturara ekartzeko exotismoaren bidea edota literatur sistema hegemoniko baten menpeko diskurtsorik erabili ez izana. Bazterrekoa den herri baten gatazkak bere horretan erakustea erabakitzen du, anormala normal irudikatzea, bere anormaltasuna agerian jartzeko. Hautu kontziente horietan datza eleberrigintzan gertatzen den aldaketa espazialaren garrantzia.

Dena den, araztasun eta fidelitasun eredu hori, gizonen begiradaren araber, Homeroren testuan bertan jarri izan da zalantzan: “Ahora bien, siempre en la imaginación masculina existen atisbos de desconfianza incluso para el comportamiento de Penélope. ¿Es posible una mujer tan perfecta? Una serie de dudas, como sabemos, planean incluso en el mismo texto de Homero” (López 1999: 329-330). Beraz, testu literarioan eredu jakin bat irudikatzeaz gain, horren gaineko irakurketek ere baldintzatu izan dute Penelope pertsonaiaren irudia. Alabaina, feminismotik Penelope garai berrietara egokitu eta birmifikatu da. Emakumea pasibotasunetik askatu eta agente bilakatu dute idazle batzuek, Penelope berriak sortuz:

Si en el mundo contemporáneo Penélope deja de ser un mito para convertirse en un símbolo (la mujer sacrificada y angustiada que convierte la renuncia en heroísmo), las escritoras feministas reaccionan contra ese comportamiento que le ha dado fama y que ha sido entendido como modelo de virtud, pretendiendo destruirlo para dar un nuevo significado a la heroína. (González 2005: 8-9)

Eleberri honetan mota ezberdinetako Penelopeak ditugu, gehienak josteari edota kontatzeari lotuak. Azken finean bi ekintzak metaforikoki eginbehar beraren aldaera gisa uler daitezke, kontatzea gertaerak harilkatzea, hari muturrak jostea delako, baina baita norbere ahotsaren jabe egitea ere, nortasuna eraikitzeo eta iragana onartzeko bidea. Zentzu horretan, eleberri honetako pertsonaia batzuek Penelope klasikoaren zantzuak dituzte, beste batzuek, berriz, haren isiltasuna iraultzen dute. Edozein kasutan, Penelope mitifikatuaren oihartzunetatik eraikitako pertsonaiak dira hemengoak:⁷

- 1) *Zorigaiztoko Penelope*: Teresaren amak, emazte leial gisa, igandero josten dizkio galtzerdiak etxetik ihes egin duen gizonari, herriko gaine-

⁷ Iratxe Retolazak (2013) deskribatutako Penelope motak baliatu ditugu obra honetako emakumezko pertsonaia batzuk sailkatzeko orduan.

rako emakumeekin batera. Etxera iristean, ordea, desjosi egiten ditu, bitartean bere barruko mina ateratzen duela (negarrari ematen baitio galtzerdiak desegin bitartean). Desjostearen ariketa bere burua engainatzeko amarrua da kasu honetan, emakumeak senarrik gabe bizitzen ohitu beharko duelako ideiarri uko egiteko modua.⁸ Penelope honen patua beste bat izanagatik (ez da bere Ulises bueltatuko, alde egitearen arrazoia neska gazteago batekin ihes egin izana baita), jokabide berbera du:

Artzopen biltzen ziren emakume guztiek senarrei josten zizkieten galtzerdiak, itsasorako batzuek eta sororako besteez. Gu, ordea, ama eta bi alaba baino ez ginen etxean, eta amak ez zuen galtzerdiak norentzat josirik. Horregatik desegiten zuen gauean arratsaldean egindakoa, puntuz puntu, eta bazi-rudien galtzerdi bat baino askoz gehiago ari zela desegiten. Amak galtzerdiak desegin egiten baitzituen, ez askatu. Nire ardura zen, goizean goiz, harrotutako haria lixatzea, gainontzeko emakumeek orduan ere aita falta genuela igar ez zezaten. (16-17)

- 2) *Penelope borrokalaria*: Teresa gizarteari eta bereziki gerrako bidegabekeriei kritika egiten dien gudaria da. Alabaina, mendeko rola apurtzeak, pasibotasunetik atera eta erabaki politiko bat hartzeak, zigorra dakarkio. Etsaien mende dela, herriko plazan lotsarazi ondoren, etxean jarritako zigorra bete behar du: soldaduei hotzetik babesteko jertseak josi behar dizkie. Hortaz, makurrarazpenari beste min bat eransten zaio, haren jazarpen publikoa egin dutenen bandokoak babesteko betebeharra. Halaber, Teresari ezarritako markak eta zamak familia osoari eragitea ohikoa zen, eta, ondorioz, pentsa daiteke amak alabari ezarritako betebeharra egoera horretatik askatzeko modua dela. Gainera, josteak iradokitzen duen bezala, Teresa esaneko eta menpeko bihurtzeko asmoa ere badu ama horrek, haren ustez alaba

⁸ Teresaren aita frantses udatiar batekin alde egin izanak indartu egiten du fidelitasunik eza, kanpotar batekin ihes egitean bertakoen eta kanpokoen arteko muga gainditzen delako ideia baitute herritar gehienek.

josten ari den bitartean ez baita berriro erresistentziara batuko. Haatik, asmo horietatik urrun, jostea ez zaio Teresari eragozpen bihurtzen, eta bere bandokoekin harremanetan jarraitzen du, harik eta une batean haietako bat kartzelan bisitatu eta baimenik gabeko erlazio sexuala jasaten duen arte. Bortxaketa horretan haurdun gelditzen da, eta bizitzan aurre egiteko beste biderik gabe, bakarkako borrokari heldetzen dio, bere gorputzaren jabe eginez, eta inoren beharrik ez duela adieraziz:

Ez nion inori nire sabelaren inguruko azalpenik eman. Ezta haurdun utzi ninduen mutilari ere, giltzapetik atera zenean. Gogoan dut *nirea dun?* galdetu zidala kalean gurutzatu ginen batean, eta *zertaz ari haiz?* erantzun niola, harrituta. Ezta niri gona behin altxatu izanak nire sabelaz galdetzeko eskubidea emango balio ere. (114)

Haurdunaldi horrek bazterkeria soziala areagotzen dio. Burua soilduta eta umea sabelean hazten ari zaiola, ordura arte lagun izandako Martiñak agurra ukatzen dio. Teresa bizitza pertsonalean, familian eta gizartean da borrokalari, eta hiru eremu horietan bizi dituen gatazkei parez pare begiratu jarraitzen du bere bidea.

- 3) *Penelope desobeditzailea*: Eutimio Maiterekin kateatuta dago, baina 36ko Gerran gizonen frontera joan behar dutela sinetsita, hara doa, Ulises bezala. Alabaina, Martiñari idatzitako gutun baten bidez, Maiteri bere zain gera dadin esateko eskatzen dio. Martiñak Eutimioren nahia betetzen duen ez da adierazten, Eutimioren maitasunik ez izatearen minak bitartekari izatea zailtzen baitio. Horregatik edo Maitek berak hala erabaki duelako, beste batekin ezkontzen da, Eutimiori itxaron gabe.
- 4) *Penelope klasikoa moderno* bilakaturik: Maite ezkondu izanak ekartzen du Eutimio gerratik etorri ondoren Martiñaren bikotekide bihurtzea. Martiña orduan bere aitaren autoritatetik senarrarenera igarotzen da, eta haren araberrako mundura egokitzen. Martiña Eutimioarekin has-tean, gainera, Teresa ukatzen du, ez berak hala nahita, arau sozialak hala behar zioelako, Martina irabazleen bandokoa izatera igarotzen

baita. Generoen araberako banaketari bandoen artekoa gehitzen zaio, beraz. Haatik, zahartzaroan elkarrekin irudikatzen dira pertsonaia horiek guztiak, eta bertan ikusten da bakoitzak gorde duen 36ko Gerraren memoria ezberdina dela. Hain zuzen ere, zahartzarora iristean, Martiñaren gorputz erdiak ez du erantzuten, eta paralisiaren ondorioz, ezin da bere kabuz mugitu. Laguntza behar izateak are mendekoago bihurtzen du, eta Eutimiori bere nahiak adierazi arren, gizonak ez ditu betetzen, egokiak iruditzen ez zaizkiolako. Ondorioz, bere azken desira Eutimio ezagutu zuen portura hurbiltzea da, eta hil aurretik bere kabuz bertara joatea lortzen du. Haurtzarora bueltatze horretan ematen ditu azken indarrak, eta portuari begira aurkitzen du Eutimiok:

–Moilan aurkitu nuen, ezpainak margotuta.

–Bera bakarrik?

–Koloretako batei begira.

–Nola jaitsi zen, ordea?

–Oinez. Makulua ere etxean utzi zuen.

–Baina...

–Azkeneko indarrak erabiliko zituen, Ixabel.

–Baina ondo zegoen?

–Sekula baino hobeto.

–Eta zer esan zizun?

–*Baietz bost minutu azalera irten gabe.*

–Zer?

–*Baietz bost minutu azalera irten gabe.*

–Ez dut ulertzen, Eutimio.

–Apustu egin zidan. Erreal bat zor diot. (121)

Portura bakarrik joanez, otzantasunetik irteten da, eta haur garaiko jolasarekin gogoratuta, bere buruaz beste egiten du. Apustua Eutimiok irabazi izanak iradokitzen du Martiña ur azpian hondoratu dela, hau

da, ez dela berriro ere azalera aterako. Badirudi Penelope klasikotik modernorako bidea egiten duela Martiñak, bere bizitzaren amaieran zama batzuetatik askatu eta bere borondatea betetzen duela, heriotzarako bidaia hasiaz. Gizonezkoen munduaren arabera bizi izan den Martiñak emakume gisa jasandako indarkeriarekin amaitzeko modutzat planteatzen da heriotza. Zentzu horretan, gainera, Martiñaren hiltzeko unek, itsasoari begira egoteak eta ondoren urpean galtzeak, Virginia Woolf idazlearen heriotza-moduari egiten dio keinu.

4. Gorputzaren diskurtsoek diskurtsoen gorputza antolatu zutenekoa: eleberriaren egitura

Eleberria eszena motzetan bereizia dago, guztira hogeita bi kapitulu izanik. Narratzaile ugaritasunak eta gertaera laburren irudiek indarra hartzen dute, batez ere kapituluaren hasierako baieztapenak zuzenak eta iradokitzaileak direlako, baita gogoetara bideratutako kapituluaren kasuan ere: “Nik uste nuen hiltzea, besterik gabe, ez egotea zela. Baina ez du horrekin zerikusirik” (53).

Horrez gain, nobelaren hasiera eta amaiera lotuta daude. Lehen kapitulu-luko paragrafoa errepikatzen da hogeigarrenean, eta hor argitzen da eleberria irekitzen duen Teresaren haurdunaldiaren esamesa egiazkoa ote den. Era berean, pertsonaien haurtzarora eta zahartzarora aurkezten dira, eta pertsonaien bizitza osoa ezagutu ez arren, haien bizitzako lehen eta azken urteak erakusten zaizkigu. Zentzu horretan, esan liteke eleberriaren egitura haurtzaroaren eta zahartzaroaren, jaiotzaren eta heriotzaren arabera antolatua dagoela. Nobela Teresaren haurdunaldiak zabaltzen du, eta Martiñaren suizidioak ixten. Joan-etorri hori ezinezkoa litzateke fikzio- eta narrazio-denboren arteko loturarik gabe. Pertsonaiek iraganera jotzeko plana, hau da, narrazio-denbora, 2006. urtekoa da, eta fikzio-denbora haien lekukotasunetan kontatzen diren haurtzaroko eta gaztaroko gertaerek hartzen dute, batez ere 1930eko eta 1940ko hamarkada ingurukoek.

Izenburutik hasita (*Aulki-jokoa*) egiten da haurtzaroaren eta zahartzaroaren arteko lotura, umetako jolasa izan arren, Ixabelek gozotegian kentzen dituen aulkiei ere egiten baitie erreferentzia, hiltzen diren pertsonaien aulkiak jaso-

tzen baititu. Esan bezala, denbora ziklikoa dela iradokitzen da etengabe, ziklo bakoitzaren hasierak aurrekoaren amaierak utzitako arrastoa baitarama.⁹ Azken kapituluan, Martiña hil aurretik, bizi-bizi sentitzen zuen haurtzarora bueltatzen da. Bere bikotekide Eutimiok kanpotarrei egindako apustuen garaira eta espaziora egiten du jauzi, eta itsasoari begira, maitemindu zen unera egiten du azken bidaia. Ez hori bakarrik, lehenengo kapituluetakoa gertaerak biribildu egiten baitira azkenekoan, eta guztiek baitute Martiña lotura-gune, gertatuko dena iragarri-edo: Teresak lehen kapitulu laburrean azaldutako zurrumurruek egia argitzen du hogeigarren kapituluan (bi kapituluak hasiera berbera izanik), baita gertaera horrek gaztaroan ekartzen dizkion ondorioak ere, bereziki Martiñarekikoak. Eulalik hitz egiten duen azken kapituluan (21. kapitulu), Martiña zahartzaroan nola ikusten duen azaltzen du, lagunaren heriotza fisikoa gertatu aurretik ere hilik nabari zuela adieraziz: “Baina azken asteetan Martiñaren aurpegiak ez zidan ezer esaten. Koadro huts bat zen. Film mutu bat. Begiratzen nion eta ez nuen haren irudiari soinurik jartzea lortzen” (119). Azken kapituluan narratzaile orojakileak Martiñaren suizidioak gertukoie nola eragiten dien kontatzen du. Eutimiori negargurak sortzen dion mina eratzunari leporatzen dio (*leporatu* hitzaren bi zentzutan), Eutimiok ezkontza-eratzuna galdu baitu, eta galera hori da zahartzaroan bikoteak bizi duen egoeraren metafora, garai bateko maitasun harremanaren dekadentzia erakusten duena. Zahartzaroan Eutimiok du Martiñaren zaintzaren ardua, baina emazteak ez du bizimodu hori onartzen, askatasuna nahi du, eta horretarako suizidiora jotzen du; bestalde, Martiñaren heriotzak Teresarena dakarrela edo Teresarengan zerbait hil dela iradokitzen da, itsasoko haizeak (Martiñaren indarrak) lore moredun soinekoa astintzen baitio, hain zuzen ere Teresak bere heriotzaren orduan eraman nahi lukeen jantzia: “Nik lore moreak dituen soinekoa jantziko dut hiltzera noanean” (92).

⁹ Teresaren amak egiten duen ariketak, galtzerdiak josiz eta deseginez, denboraren metafora irudikatzen du, baita zikloen funtzionamendu posible bat adierazten ere: denboraren joana adierazten da ekintza horren bidez, eta desegin ondoren berriro josteak hasiera batera bueltatzea iradokitzen du, hasiera hori berbera izan ez arren. Gerraren bidez ere erakusten da zikloen dinamika hori, gatazkak erdibitutako pertsonaiengan, hain zuzen: gerrak hasi eta bukatu egiten dira, baina hastapeneko pertsonaia eta amaierakoa ez dira berberak. Sorkuntza prozesuarekin oso loturik dagoen irudia ere bada galtzerdiena, idazleak harilkatutako narrazioa irakurleak desjosi egin behar baitu.

5. Espazioen eta gertaeren sinbologia

Eleberri honetan generoak espazioa, harremanak eta gizarteko esparru guztiak zeharkatzen dituela ikusi dugu; kontaketa bera ere baldintzatzen du, batez ere emakumezkoek haien diskurtsoen bidez genero arrakalak agerian uzten dituztelako.

Fikziozko herri txiki bat da Kantoieta (31, 58), kostaldeko edozein herri izan litekeena, baina, idazleak aipatu bezala, bizileku duen Getaria oinarri duena. Hainbat leku nabarmentzen dira herrian, eta horietako gehienetan genero ezberdintasuna ageriko egiten da. Artzapen, moila gaineko petrilean, gizon-emakumeek ezberdin erabiltzen dute espazioa. Arrantzaleek, itsasora atera ezin dutenean, bertan zorrotzen dituzte aiztoak: “Denek eramaten zuten aizto txiki bana patrikan, eta itsaso txarra zenetan, denborapasa, moilara begira egoten ziren berriketan eta aiztoak zorrotzen” (14). Emakumeek, ordea, josi egiten dute bertan: “Baina igandetan ez zen bertan aizto eta guraizerik izaten. Igandetan emakumeak joaten ziren Artzapeko gainera (...)” (15). Itsasoari begira josten zituzten galtzerdiak emakumeek igandero, arrantzaleen zain dauden Penelopeak bailiran.

Espazioaren erabilera horrez gain, bada herriaren etorkizuna aldatzen duen espazioaren bestelako apropiazioerik, Kantoieta frankistek hartzen duteneko, hain zuzen: lehenago esan bezala, pertsonaia bakar batek bizikletan eta inolako indarkeriarik gabe hartzen du herria, gerrako estrategia militarretatik urrun. Parodiatik gertu dagoen eszena dirudi:

Bizikleta bat zen, Peugeot markakoa, Basusta aldetik Kantoietara zetorrena. Besotik heldu zidan Teresak, eta elizpeko arkupeetara eramane ninduen. Baldeak lurrean utzi eta harrizko zutabe lodi baten atzean jarri ginen biok.

Gizona lasai sartu zen herrira, bizikletaren pedalei poliki eraginez. Bota beltzak zituen, galtza zabalak eta izterretaraino luze zuen jaka, gerriko beltzez estutua. Buruan txapel itsusi bat zeraman, arraroa.

(...) Gizona plaza erdian geratu zen, puntua egiten ari zen amona begira-begira zuela. *Ai, ene!* atera zitzaion amonari. Bizikletaren parrillatik atera, eta plazaren erdian zabaldu zuen Espainiaren ban-

dera. Haizeak mendebaldetik jotzen zuen. Gizonak bi tiro egin zituen airera:

–*Kantoieta, tomada!* (81)

Alabaina, herria konkistatzeko moduak talka egiten du beste espazio batzuetako erasoekin. Espazioak, beraz, adiera jakin bat hartzen du, bertan gertatzen denaren arabera. Hala da, esaterako, Teresari egindako bi bortxaketan kasuan: herriko Berdura plazakoan eta Olaetako udaletxeko kalabozokoan. Hamabost egunek bereizten dituzte bi gertaerak, baina bietan dago baimenik gabeko emakumearen gorputz-jabetzea. Bortxatzaileen ideologiek eta espazioek soilik egiten dituzte ezberdin. Lehenengoan, Teresaren kontrako ekimena Berdura Plazan kokatzeak herriaren erdigunean jartzea du helburu, batik bat azoka bertan egiten zenez, herritarrentzat sal-erosketetarako espazio ez ezik, sozializatzeko gunea ere bazelako, haien bizimoduaren erdigunea, alegia. Lasartek (2010) azaltzen duen bezala, eleberri honetan espazioak pertsonaiari gertatutakoarekin egiten du bat:

(...) espazioak, alegia, gehienetan pertsonaiaren metonimia edo metafora bezala funtzionatzen duela, eta kasu hauetan esan daiteke, genero indarkeriaren helburu behinena emakumearen suntsipena izanik, espazioak ere hartaratu egiten direla. Hartara, emakumeen ohorea ezabatzea helburutzat du genero indarkeriak gerra kasuetan (Cockburn 2007; Rich 1983; Castells 2007; Bourke 2009), eta hori da (AJ) nobelaren kasua. Lekurik publikoaren hautua egiten da kontakizun horretan. (2010: 83)

Hori ez ezik, Berdura Plaza izateak beste konnotazio bat ere eranstean dio gertaerari: bere izenak dioen bezala, naturarekin loturiko espazioa da, eta emakumeak naturatik, bulkadetatik, gertuago irudikatu izan dira historian zehar, gizonak kulturatik eta arrazionaltasunetik hurbilago ikusi izan diren bezala. Lehenengo bortxaketan, aurretik adierazi dugun bezala, Teresaren jarrera etikoa zigortu nahi da, eta bere ekintzaile izaera deuseztatu. Bigarrenean, ordea, ukatzea ezinezko zaion harreman sexual bat jasaten du kartzelan:

Egia zen: sabelean neraman haurra ez zen maitasunaren fruitua. Sinpleagoa zen hori baino (...) Olaetako kalabozora bisitan joan nin-

tzaion umetatik ezagutzen nuen Kantoietako mutil bati, eskumuinak eta zigarroak eramatera. Ez zeukan delitu handirik eta bakarrik utzi gintuzten gela batean, eta nik zigarroak eman nizkionean berak gona altxatu zidan eta gainean jarri zitzaidan. Ez nintzen apartatu, egia da. Isil-isilik egon nintzen.

Gogoan dut amak egindako kapelu granatea jantzita joan nintzela Kantoietatik Olaetara, oinez. (...)

Mutil hark hormaren kontra hartu nindueanean lurrera erori zitzaidan kapelu granatea (...), eta buru biluzia agerian nuela jo zidan larrua. Horrek lotsatu egin ninduen pixka bat, baina tira. Bukatu zuenean zigarro bat piztu zuen, eta beste bat luzatu zidan niri. Elkarrekin erre genuen, eta gero, kapelua jantzita, Kantoietara itzuli nintzen ni. (113-114)

Pasarteak deskribatzeko Teresak darabiltzan hitzek deserosotasuna erakusten dute, eta “larrua jo zidan” aditzak, adibidez, emakumearentzat ekin-tza pasiboa izan dela adierazten du. Orobat iradokitzen da, kapelua erortzen zaionean, emakumearen borondatearen kontrako ekin-tza dela, bere barruan zerbait apurtzen dela adierazi nahi baita. Teresak ez du erresistentziarik agertzen, ordea, eta horrek mutila talde berekoa izatearekin eta espazioarekin du lotura. Bortxaketa mutil antifrankista batek gauzatua da, noiz eta Teresa hari kartzelara zigarroak eramatera doanean. Mutila taldekide izateak Teresaren edozein salaketa deslegitimatuko luke, eta kartzelak (zigorren eremu pribatuak) eta lekukorik ezak ezinezko bihurtuko lukete Teresaren edozein kexa publiko. Emakumearen aldetik gertaera normaltasunez bizi izanak gertatutakoari oniritzia eman diola dirudien arren, gerran bando bereko baten bortxaketa salatzeke inolako aukerarik ez zegoela erakusten du. Gainera, kartzela, etsaia kontrolatzeko eremu izatetik, emakumearentzat bi aldiz biktima bihurtzeko espazio bilakatzen da, haren borrokakideen askatasuna ukatzen duen lekua izateaz gain, haren gorputzaren jabe egiten den gizona babestu eta emakumearen kontrako indarkeria zilegitzen baitu.

Sexu jazarpen horren ondorio guztiak bere gain hartzen ditu Teresak, eta lehen bortxaketan bere gorputzaren jabe ez den bezala, oraingoan bada, kideak umea berea ote den galdetzen dionean ematen duen erantzunak erakusten duen bezala: “Ez nion inori nire sabelaren inguruko azalpenik

eman. Ezta haurdun utzi ninduen mutilari ere, giltzapetik atera zenean” (114). Haatik, haurraren bizitza laburrak iradokitzen du bortxaketaren emaitzak ezin zuela luzerako ondorengorik utzi, eta umearen heriotzak askatzen du korapiloa:

Gizajoa. Bizitza laburra izan zuen. Lau urte baino ez. *Meningitis tuberculosis* idatzi zidan medikuak paperean (...).

Maite izan nuen. Ikaragarri maite izan nuen, eta askoz jertse gehiago josi nizkion. Baina, aitortzen dut: lanak izan nituen haren izena ikasten. (117)

Azkenik, espazioa herritarren nortasunean ere islatzen da. Kostaldekoak izateak haien izaeran eragina izateaz gain, gorputzean ere uzten du arrastoa: lepoa eskuinera eta gora dutenak dira kantoietar jatorrak, itsasoari begira emandako denboragatik, arrantzaleak etxera noiz bueltatuko zain egoteagatik; barnealdekoek, berriz, lepoa aurrera eta behera begira dute. Itsasoak baldintzatzen du, beraz, kantoietarren bizimodua, eta gorputzean markatua dute espazioaren aztarna.

Azken batean, espazio guztiek hartzen dute esanahi bat pertsonaiaz: Teresak herriko plazan haurra zela txurreroa pixa egiten zelatatzen zuen bezala ikusten du herria nola konkistatu zuten gerra garaian. Martiñarentzat ere portuak badu bere esanahi propioa, askatasunaren eta maitasunaren espazioa baita hura beretzat, hor maitemindu zen Eutimioekin, eta hor erabaki zuen bere buruaz beste egitea. Eulalirentzat bere gorputza da erosen sentitzen den espazioa, eta sormena baliatzen du errealitateari begiratzeko eta hura sentitzeko.

6. Ondorioak

Emakume izateak hiru narratzaile hauei ekarri dizkien oztopoak, minak eta bizimodua erakusten dituzte beren aitortzetan. Gertatu zaienaren kontzientzia hartzen dute, eta zahartzaroan horri guztiari aurre egiteko irtenbide ezberdinak aurkitzen dituzte. Zentzu horretan, 36ko Gerrari buruzko euskal eleberrigintzan gerra emakumeek nola bizi izan zuten erakusten duten narrazio bakarrenetarikoa da.

Ahots narratibo horiek kontatzen dutena ezin da haien gorputzetatik bereizi, eta ahotsaren eta gorputzaren arteko sinbiosi horrek pertsonaia hauek subjektu gorputzu gisa ulertzera garamatza. Ideia hori, gainera, indartu egiten da 36ko Gerrak haurtzaroko inozentzia apurtzen duenean, etxeko gatazken aurrean pertsonaia bakoitzak hartutako gorputz jarrerak nabarmenagoak bihurtzen baitira. Izan ere, emakumezko pertsonaia eta narratzaile bakoitzak bizi duen egoera pertsonalari erantzuteko hartzen duen gorputz-estrategia (gortzea, haurdunaldia aurrera eramatea, etab.) gatazka indibidualen aurrean erresistentzia egiteko modu gisa planteatzen da eleberri honetan.

Egitura narratibo fragmentarioak ere oroimenaren funtzionamenduari egiten dio keinu, istorioa lekukotza batetik bestera jauzika doala. Horrela, pixkanaka-pixkanaka, pertsonaia guztiek bizitako esperientziak, ezberdinak izanagatik, generoak zeharkatzen dituela jabetzen gara: espazioen erabilera pribatu eta publikoan, gizon-emakumeen roletan, pertsonaien jarreretan, bakoitzaren ofizioetan, etab. Azken batean, emakumezkoen ahotsetatik sortutako diskurtso hauetan genero arrakala handia nabaritzen da, baina pertsonaiek nobelaren amaieran beren bizitzaren agentzia hartzen dute, eta ibilbide horretan ahalduntze prozesu bat bizi izan dutela erakusten dute. Horren erakusgarri da, esaterako, Peneloperen birmitifikaziotzat har daitezkeen pertsonaiak izatea, edota zenbait gogoetaren ondoren agertzen duten jarrera aldaketa.

Bibliografia

EGAÑA, Ibon (2010). «Euskal literatura gaur egun», in Inés M.^a García & Karmele Bujan (koord.), *Euskara eta Literatura: Bigarren hezkuntzako irakasleak. Gai Hautatuak II*. Sevilla: MAD, 233-258.

ESTEBAN, Mari Luz (2013). «Gorputzak eta politika feministak: feminismoa gorputz gisa», in Isa Castillo & Iratxe Retolaza (koord.), *Genero ariketak*. Donostia: Edo, 167-202.

GONZÁLEZ, Ramiro (2005). «Penélope se hace a la mar: la remitificación de una heroína», *Estudios clásicos*, 47(148) (2005), 7-22.

JOLY, Maud (2008). «Las violencias sexuadas de la Guerra Civil española: paradigma para una lectura cultural del conflicto», *Historia social*, 61: 89-107.

LASARTE, Gema (2010). «Genero indarkeria euskal literaturan», *Lapurdum*, XIV (2010), 77-87, <https://doi.org/10.4000/lapurdum.2274>.

LÓPEZ LÓPEZ, Aurora (1999). «Interpretaciones de Penélope desde el mundo clásico al nuestro», in María Consuelo Álvarez & Rosa María Iglesias (koord.), *Contemporaneidad de los clásicos en el umbral del tercer milenio: actas del congreso internacional de los clásicos. La tradición grecolatina ante el siglo XXI*. Murcia: Universidad de Murcia, 329-338.

NAJMANOVICH, Denise (2005). «El sujeto encarnado: Límites devenir e incompletud», in Denise Najmanovich (arg.), *El juego de los vínculos: subjetividad y red social: figuras en mutación*. Buenos Aires: Editorial Biblos, 19-42.

RETOLAZA, Iratxe (2013, ekainak 11). «Voces desgarradas: narradoras en la literatura vasca actual». *Diagonal*, <https://www.diagonalperiodico.net/culturas/la-voz-desgarrada-penelope.html> [kontsulta: 2019-05-06].

RETOLAZA, Iratxe & EGAÑA, Ibon (2016). «The contemporary Basque Novel», in Jon Kortazar (arg.), *Contemporary Basque Literature*. Reno: Center for Basque Studies/University of Nevada, 11-68.

RODRIGUEZ, Eider (2019). *Idazleen gorputzak. Egiletasuna ezbaian literaturaren joko zelaian*. Zarautz: Susa.

SERRANO MARIEZKURRENA, Amaia (2019). *1936ko Gerra euskal nobelagintzan: Memoria Ikerketak narratologia kulturalaren ikuspegitik* (Doktorego tesia, UPV/EHU, Donostia).

TORRAS, Meri (2014). «Gorputzaren (hitz) gakoa(n): Ekintza eta pentsamendurako paradigma bat», in Gema Lasarte & Amaia Alvarez (koord.), *Gorputza eta generoa. Teoria, didaktika eta esperientziak*. Bilbo: UEU, 17-25.



Gipuzkoako hizkuntzen mapa: hizkuntza-aniztasunaren azterketa, euskara biziberritzearen testuinguruan

El mapa lingüístico de Gipuzkoa: análisis de la
diversidad lingüística en el contexto de la revitalización
del euskera

La carte linguistique du Guipuzcoa : analyse
de la diversité linguistique dans le contexte de la
revitalisation de la langue basque

Map of the languages of Gipuzkoa: an analysis of
linguistic diversity in the context of the revitalization
of the Basque language

URANGA, Belen
Soziolinguistika Klusterra
b.uranga@soziolinguistika.eus

Noiz jaso: 2021-01-12
Noiz onartua: 2021-03-09

Euskera. 2020, 65, 2. 579-604. Bilbo
ISSN 0210-1564

Gipuzkoako hizkuntza-aniztasunaren mapak azaltzen du Gipuzkoako biztanleek zein hizkuntza hitz egiten dituzten euskara, gaztelania eta ingelesa ez direnak. EUSTATEk argitaratzen dituen biztanleriaren udal-errodako datuen azterketa eginez, jatorri atzerritarreko biztanleriaren banaketa erakutsi da, artikulua honetan herrialde- eta eskualde-mailan, nahiz eta udal-erri-mailako banaketa egitasmoak argitaratu duen webgunean kontsulta daitekeen. Azterketaren emaitzak erakusten du Gipuzkoan badirela 10 hizkuntza 1.000 hitzun baino gehiago izan ditzaketenak, eta 120 hizkuntza inguru hitzun-kopuru txikia dutenak. Ikerketa kualitatiboaren emaitzek erakutsiko dutenaren zain, proposatzen den hizkuntzen banaketa hipotesi-mailan hartu beharrekoa da.

Gako-hitzak: inmigrazioa, hizkuntza-aniztasuna, kultura-aniztasuna, kulturartekotasuna, biztanleria.

El Mapa de la diversidad lingüística del euskera en Gipuzkoa explica la lenguas habladas por los habitantes de Gipuzkoa y que no son ni el euskera, ni el castellano, ni el inglés. Haciendo un análisis de los datos del padrón municipal que publica el EUSTAT, este artículo ha mostrado la distribución de la población de origen extranjero a nivel provincial y comarcal, si bien es cierto que los datos a nivel municipal se pueden consultar en la web de este proyecto. Los resultados del análisis muestran que en Gipuzkoa existen 10 lenguas que pueden tener más de 1.000 hablantes, y otras 120 lenguas con un porcentaje menor de hablantes. A la espera de lo que muestren los datos de la investigación cualitativa, la distribución lingüística que se propone hay que tomarla a nivel de hipótesis.

Palabras-clave: inmigración, diversidad lingüística, diversidad cultural, interculturalismo, población.

La carte de la diversité linguistique du basque montre quelles sont les langues parlées par les habitants du Guipuzcoa et qui ne sont ni le basque, ni l'espagnol, ni l'anglais. Après une analyse des données du recensement municipal publié par EUSTAT, cet article montre la répartition de la population d'origine étrangère au niveau provincial et régional, les données municipales pouvant être consultées sur le site du projet. Les résultats de l'analyse montrent qu'au Guipuzcoa sont présentes 10 langues qui sont parlées par plus de 1000 locuteurs et 120 autres langues avec un pourcentage plus faible de locuteurs. En attendant les résultats de la recherche qualitative, il convient de considérer la répartition linguistique comme une hypothèse.

Mots-clés : immigration, diversité linguistique, diversité culturelle, interculturalité, population.

The Map of Linguistic Diversity in Gipuzkoa shows languages spoken by the people of Gipuzkoa other than Basque, Spanish and English. An analysis of the municipal population

census data published by EUSTAT shows the distribution of the population of foreign origin is given in this article at national and regional level; this is also available on the website published by the municipal distribution plan. The results of the study show that there are 10 languages in Gipuzkoa that may have more than 1,000 speakers, and about 120 languages with a small number of speakers. Pending what the results of the qualitative study will show, this proposed language distribution is to be taken as hypothetical.

Keywords: immigration, linguistic diversity, cultural diversity, interculturalism, population.

1. Sarrera

Euskal Herriko gainerako herrialdeetan bezala, Gipuzkoan gero eta handiagoa da migrazio-mugimenduen ondoriozko hizkuntza-aniztasuna. Herrialdera XXI. mende hasiera honetan heltzen ari den biztanleria gero eta ugariagoak bertako hizkuntza-egoera modu esanguratsuan aldatu du. Eta hala jarraituko du aurrerantzean ere, zalantza handiegirik gabe.

Ez da berria migrazio-mugimenduek Euskal Herriko hizkuntza-egoeran eragina izatea; lehendik ere hala gertatu zen XX. mendean, Gipuzkoari dagokionez bigarren erdialdean, batez ere. Orduko hartan, hizkuntza-egoeraren aldaketa gaztelania elebakarreko biztanleriaren etorrerak eragindakoa izan zen. Perspektiba soziolinguistiko batetik begiratuta ez legoke gaizki gertakari hori duela 50 urte jada formulatutako bizi-indar etnolinguistikoaren teoriaren baitan kokatzea (Gilles, Bourthis Taylor 1977). Alegia, hizkuntza hegemonikoan hitz egiten zuten biztanle elebakarrak heldu ziren, bertakoa izan arren euskara baztertua zegoen lurraldera, tokian tokiko balio demografikoak eta linguistikoak sakonki aldatuz. Gipuzkoan, esate baterako, euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioa higitzen hasia zegoen –zenbait lekutan baita eteten hasia ere–, eta erabileraren beherakada hainbat lekutan ia erabatekoa zen, bazterketa horren ondorioz. Beraz, migrazio-mugimenduen eragina aztertzeko merezi du arreta jartzea hizkuntzaren bizi-indar etnolinguistikoan eragina duten gainerako aldagai soziolinguistikoetan, alegia, balio demografikoetan ez ezik, garai hartan euskarak (hizkuntza eta hizkuntza-komunitate bezala) eremu ofizialean zuen lekuan (edo leku gabezia), eta komunitatearengan zuen balioan (kulturala edota sinbolikoa).

Izan ere, gaur egungo migrazio-mugimenduen errealitateak ezaugarri oso desberdinak ditu: kopuru absolutuen aldetik, jatorri-estatuen aniztasunaren aldetik, jatorrizko kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren konplexutasunaren aldetik. Eta, desberdina da oso egungo egoera soziolinguistikoa, euskararen hizkuntza-komunitatearen ikuspegitik: aintzat hartu behar diren aipaturiko aldagai horiei guztiei erreparatuz gero, are eta egoera konplexuagoaren aurrean gaude.

Beraz, erronka oso handia dugu, alde batetik, fenomeno konplexu hori zehatz-mehatz ikertzeko, kasu honetan, migrazio-mugimenduen egoerari

dagokionez; eta, bestetik, ikuspegi propositibo batetik begiratuta, kultura-eta hizkuntza-aniztasunaren errealitatearen azterketatik kulturartekotasun-ean oinarrituko den kudeaketa baten aurrean kokatzeko (Giménez 2010), betiere, euskararen biziberritze-prozesua erdigunean jarritz.

Kontuan izan behar da ordea, hizkuntza-aniztasunari buruzko datuak biltzeko ez dagoela ezarrita immigrazioko populazioaren hizkuntzen berri jasotzeko protokolo edo era sistematikorik, eta, beraz, ez dagoela zehazki jakiterik zein diren jatorri atzerritarreko biztanleek hitz egiten dituzten hizkuntzak; soilik, orain artean egindako ikerketa kuantitatiboek ahalbidetzen dute hizkuntza-aniztasunaren inguruko hipotesiak planteatzea, eta horien araberrako banaketa geografikoa proposatzea.

Artikulu honetan *Gipuzkoako hizkuntza-aniztasunaren mapa* proiektuan aztertutako datuen emaitzak eskainiko dira, biztanleriaren jatorriari buruzko datuetan arreta jarritz, zehazteko zein diren Gipuzkoako hizkuntza-aniztasunaren inguruko hipotesiak.¹

2. Gipuzkoako hizkuntza-aniztasunaren mapa proiektua

Gipuzkoako hizkuntza-aniztasunaren mapa Soziolinguistika Klusterra Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenez egiten ari den proiektua da. Aldundiak 2017-2019 eperako prestaturiko *Aniztasuneko Bizikidetzarako Foru Planak* bere ikerketa-esparruan identifikatu zuen mapa hau osatzea, “Informazio eguneratua izatea, aniztasuna kudeatzeko premiak hobeto identifikatzeko” helburuarekin. Helburu horri jarraiki, proiektu honek honela zehaztu zituen bi xede nagusiak:

1. Euskara, gaztelania eta ingelesa ez diren Gipuzkoako hizkuntzen mapa osatzea. Kontuan izan behar da hiru hizkuntza horiek hizkun-

¹ Egitasmoak badu kudeaketarako proposameneko atal berezitua, baina artikulu honetan ez dugu aukerarik izan horren berri emateko. Interesa izanez gero jo beza irakurleak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berdintasun sailera: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/hizkuntzaberdintasuna/gipuzkoakohizkuntzak/aurkezpena> edo Bizikidetzeta sailera: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/bizikidetzeta/gipuzkoakohizkuntzak/aurkezpena>

tza-aniztasunaren inguruko tratamendu berezitua eskatzen dutela, euskarak eta gaztelaniak euren izaera ofizialarengatik, eta ingelesak hezkuntza sistema formalean eta ez formalean duen pisuarengatik.

2. Hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa egokiaren helburuarekin esku-hartzerako ildoak proposatzea, euskararen biziberritze-prozesua erdigunean kokatuz.

Gipuzkoako hizkuntza-aniztasunaren mapa abian dagoen proiektu bat da. Artikulu honetan zehaztasunez azaltzeko tartea ez dugun arren, garrantzi berezia du aipatzeak bi esparrutan egiten ari zaiola jarraipena proiektu honi. Alde batetik, 2019ko datuekin bilakaerak begiraturaz, egoeraren ezagutzan sakontzeko aukera izango dugu, ez soilik Gipuzkoan, baizik eta baita Euskal Autonomi Erkidegoko (EAE) gainerako lurraldeetan ere. Eta bigarrenik, aukera izango dugu ikusteko hizkuntza-aniztasunaren inguruan proposatu ditugun hipotesiak zuzenak diren –eta zein neurritan–, edo datuek beste errealitate desberdin bat erakusten duten; helburu horrekin abian jarri dugu 2020ko urte amaiera bitartean burutu dugun ikerketa kualitatiboa. Espero izatekoa da epe laburrean horren berri emateko aukera izatea.

3. Metodologia

Gipuzkoako hizkuntzen mapa proposatzeko, azken urteetan herrialdera heldutako immigrazio-mugimenduaren inguruko joera orokorrak eta biztanleriaren jatorria eta ezaugarriak aztertu dira. Datuok hizkuntza-aniztasunaren sortzaile den jatorri-estatuaren arabera begiratu dira, jakinik ez direla homogeneoak jatorri-estatuetik bertaratutako biztanle-kopuruak, ez eta banaketa Gipuzkoako geografia osoan. Horrez gain, Espainiako estatutik etorritakoen inguruko datuak ere hartu dira kontuan.

Zehaztu behar da ikerketa honetan jatorri atzerritarreko biztanletzat honako hiru ezaugarrietakoren bat duten guztiak hartu direla: a) *Espainian jaio eta atzerritarra*² izatea; b) *atzerrian jaio eta espainiarra*, eta c) *atzerrian jaio eta*

² Ikerketa honetan *atzerria* kategoriaz kanpoko estatuei esleitzen zaie; *atzerritar*, Espainiako estatuko nazionalitatea ez duten biztanleei.

atzerritarra. Garrantzikoa da egindako hautu hori kontuan izatea, izan ere, hizkuntza-aniztasunaren ikuspegitik ikerketa-taldeak egokia ikusi du ofizialki espainiar nazionalitatea izan arren, atzerrian jaiotako hizkuntza-aniztasuna aztertzeke aukera baliatzea. Eta garrantzikoa da, hain zuzen, biztanleria atzerriarraren inguruko datuek ez dituztelako kontuan hartzen, logikoa den bezala, azken talde horretako kideak (*atzerrian jaiotako espainiar nazionalitatea dutenak*); ikerketa honetan ordea, hizkuntza-aniztasunaren inguruko datuak aztertzea helburu denez, azaldu den hautu hori egin da.

4. Azterketako hipotesiak

Gipuzkoako hizkuntzen mapa osatzeko kontuan izan behar da, arestian aipatu den eran, gaur egun ez dagoela biztanleriaren hizkuntza-datu zehatzak biltzen dituen prozedura formal edo protokolorik, EUSTAT-ek euskarrari eta gaztelaniari buruz egiten duenaz gain. Beraz, ez dago ziurtasun jakiterik zein diren Gipuzkoako biztanleek hitz egiten dituzten hizkuntzak. Izan ere, galdera horri erantzutea soilik berariaz egindako ikerketa kualitatibo bidez da posible. Nolanahi ere, gogoan izan behar da dagoeneko egin diren ikerketek hurbilketa bat egiteko aukera eman dutela, nahiz eta ez diren modu sistematikoan egin. Lan honetan, bereziki kontuan izan dira Ahotsak proiektuak argitaratutako lana (Ahotsak 2016) eta Ikuspegik argitaratutakoak (Uranga et al. 2008, Fernández Aragón et al. 2017).

Hori horrela, eta aipaturiko ikerketa kualitatiboaren emaitzen esperoan, momentuz egin daitekeen lehen hurbilketarako, azterketa honetan erabili diren hipotesiak ondorengoak dira:

- Jatorri atzerriarreko biztanleek jatorri-herrialdeetako hizkuntza ofizialak hitz egiten d(it)u(z)te. Baina, jakina da, era berean, ez dela beti horrela izaten.
- Jatorrizko herrialdeetan, hizkuntza ofizialez gain, beste hizkuntza bat (edo batzuk) hitz egin dezakete (edo ditzakete), baina hori(ek) ere identifikatu behar d(ir)a. Alegia, jatorrian beste hizkuntza-komunitate bateko kide direnek, hizkuntza ofizialaz gain, (edo hori hitz egiten ez

dutela ere), beste hizkuntza bat (edo gehiago) hitz egiten dute (edo dituzte).

- Jatorri atzerritarreko biztanleriaz gain, Espainiako estatuko hizkuntza-aniztasuna kontuan hartzeko, gaztelaniaz gain beste hizkuntza bat duten erkidegoetan jatorria duten biztanleek jatorriko hizkuntza hitz egin dezakete.

5. Immigrazioko joera nagusiak

Jatorri atzerritarreko biztanleak Gipuzkoan, 2018ko datuen arabera, 73.922 dira (biztanleria osoarekiko % 10,3). *Atzerrian jaio* eta *atzerritarrak* direnak Gipuzkoan 45.821 biztanle dira (% 62), eta kopuru horren erdia dira *espainiar nazionalitatea* jaso dutenak: 22.688 biztanle (% 31). Horiez gain, *bertan jaio arren, nazionalitatea ez dutenak* 5.413 lagun dira. Beraz, datu horiek adierazten dute immigrazioa egonkortzen ari den fenomeno dela, eta, datozen urteetan gerta daitekeenaren iragarle ere badela. Alegia, immigrazioko biztanleria, erroldan izena eman ondoren, nazionalizatze-prozesuetan sartu ohi da, baina jatorriaren arabera, urte gehiago edo gutxiago behar izaten duen arren, parte handi bat nazionalizatzen joango da (Aierdi 2019).

Sexuaren araberako banaketari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan bezala Gipuzkoan ere, gehiago dira jatorri atzerritarreko emakumeak gizonetakoak baino (% 52,2 emakumeak). Batez ere, Hego eta Erdialdeko Amerikako herrialdeetako jatorria dutenen artean nagusitzen dira emakumezkoen proportzioak. Azpimarratu behar da gainera, ohikoa izan den joera orokorra aldatu duela gertakari horrek. Izan ere, migrazio-mugimendu historikoetan gizonen kopurua handiagoa izan da, migrazio-prozesuetan *lehenak irteten* edo *pioneroak* izan baitira. Gaur egun, ordea, migrazioaren fenomenoak *feminizazio* antz doa.

Aldaketa horrek badu lotura xede-lurraldeen behar nagusietan gertatu diren aldaketekin; Gipuzkoako kasuan, XXI. mende hasieran behar industrialak nagusi izan ziren, baina gaur egun horiek aldatu dira. Esate baterako, bertako populazioaren zahartze-prozesuak, landa-eremua ahultzen joateak

eta tokian tokiko industria espezializatuari erantzuteko beharrak bi immigrazio-talde bereizi ditu nagusiki: populazio zaharkituaren zaintzara egokituko diren pertsonak, bereziki (baina ez beti) emakumeak, eta industriaren eremuan lan egiteko kualifikatutakoak, bereziki (baina ez beti) gizonak.

Horrek immigrazioaren feminizazioa finkatzea ekarri du. Batez ere, Hego eta Erdialdeko Amerikako herrialdeetan jatorria dutenen artean emakume gehiago dira: Nikaragua (emakumeak % 75), Honduras (% 71), Bolivia (% 59), Peru (% 58), Kolonbia (% 57). Halere, ez soilik Amerikatik datozenen kasuan, Ukrainan eta Nigerian jatorria dutenen artean ere, hala gertatzen da. Baina esatea komeni da joerak aldatu egin daitezkeela, eta hala gertatu da, jada, kasu batzuetan. Esate baterako, Ekuadorreko jatorriko immigrazioaren lehenengo fasean (2000-2005 urteak) emakumeen presentzia nagusia zen; gaur egun, ordea, gehiago dira gizonezkoak emakumezkoak baino (% 55 gizonezkoak). Gizonen proportzioa handiagoa da, baita ere, honako jatorri-estaturen kasuetan: Maroko (gizonezkoak % 59), Errumania (% 53), Portugal (% 62), Pakistan (% 70), Aljeria (% 69), Senegal (% 79).

Aipatutako joeren aldaketek (zehazturiko Ekuadorren kasuan, esate baterako) sakoneko beste joera zabalduago bat ere azaltzen dute: zenbat eta luzeagoa izan herrialde jakin bateko immigrazio-prozesua, hainbat eta sexuaren araberako egoera parekatzeko joera handiagoa izango du. Hau da, badirudi gizona ala emakumea izan lehen migratzen duena, ondoren, beste kidea eta seme-alabak erakartzen dituela, sexuaren araberako banaketa parekatuz (Aierdi 2019). Beraz, gaur egun ditugun datuekin ezin dugu ziurtasunez aurreikusi emakume/gizonen arteko banaketa nola bilakatuko den.

6. Immigrazioko datuak eta hizkuntza-aniztasuna: jatorri atzerritarreko biztanleriaren hizkuntza-aniztasuna


Erroldaturik dagoen jatorri atzerritarreko biztanleria 73.922 pertsonak osatzen dute³ (Gipuzkoako biztanleriaren % 10,3). Horien artean, 20 jato-

³ EUSTAT. Biztanleriaren udal-errolda 2018.

rri-estatuetakoz biztanleek jatorri atzerritarreko populazioaren % 80 osatzen dute, estatu bakoitzetik 1.000 biztanle baino gehiago. Beraz, pentsa daiteke jatorri horietako hizkuntzek izango dutela herrialdean hiztun-kopuru handiena, hainbat kasutan, 1.000 hiztun baino gehiago.

Aipatutako biztanle-kopuru handiena (% 80) ondoren zehazten diren hogei estatu hauetatik dator: Maroko, Errumania, Ekuador, Nikaragua, Kolonbia, Honduras, Portugal, Ekuador, Frantzia, Argentina, Pakistan, Dominikar Errepublika, Brasil, Aljeria, Txina, Ukraina, Venezuela, Peru, Kuba, Bolivia eta Senegal (ikus 1. Irudia). Horien artean nagusitzen den jatorria Maroko da, bertatik baitator jatorri atzerritarreko populazioaren % 12,2 (9.017 biztanle), eta bigarrena den Errumaniari tarte handiarekin urruntzen zaio, ia bost puntuko aldea ateratzen baitio (% 7,6; 5.628 biztanle). Ondorengo jatorri atzerritarreko biztanleen jatorrizko estatuak tarte txikiarekin

1. Irudia. Jatorri atzerritarreko biztanleria jatorri-estatuaren eta jatorri atzerritarreko populazioaren arabera (%)



Iturria: EUSTAT. 2018ko Biztanleriaren udal-errolda. Irudia egileak egina.

bereizten dira. Kontuan izan behar da, gainera, horiek guztiak herrialde osoan barreiatuta daudela. Nolanahi ere, oso kontuan hartzekoa da estatu horietatik guztietatik bertaratutakoak 1.000 lagun baino gehiago direla, eta, beraz, pentsa daitekeela biztanle horien hizkuntzek izango dutela Gipuzkoan hitzun-kopururik handienak.

Ezarritako irizpideak kontuan izanda, aurreikus daiteke Gipuzkoan hitzun-kopuru handienak izan ditzaketen jatorri atzerritarreko hizkuntzak honakoak direla:

- **Arabiera:** Marokon hitz egiten den arabiera darija izenarekin ezagutzen da, eta Aljerian hitz egiten denarekin elkar ulergarritasun oso handia du. Horietako bakoitzean aldaera geografiko desberdinak hitz egiten dira; horiez gain, arabiera estandarra funtzio ofizialetan edota erlijio-esparruan erabiltzen da. Kontuan izan behar da Marokotik eta Aljeriatik etorritako biztanleak 10.000tik gora direla Gipuzkoan (Marokotik 9.017, Aljeriatik 1.697).
- **Amazigera:** Ez dago datu zehatzik hizkuntza hori hitz egiten duten biztanleen gainean, baina hainbat hurbilketen arabera, Marokoko populazioaren % 40k amazigeraz hitz egiten du eta Aljeriako populazioaren % 17k (Mezhoud eta El Kirat, 2020: 27). Beraz, pentsa daiteke Gipuzkoan ere asko izango direla hizkuntza horretan hitz egingo duten biztanleak.
- **Errumaniera:** Jatorria Errumanian duen biztanle-kopurua 5.628koa da, jatorri atzerritarreko biztanleriaren % 7,6.
- **Portugesa:** Jatorria Portugalen eta Brasilen duten pertsonak dira; jatorri atzerritarreko biztanleriaren % 5,0 (3.703 biztanle) eta % 2,5 (1.862 biztanle) hurrenez hurren, 5.565 pertsona guztira.
- **Frantsesa:** Jatorria Frantzia dutenak 2.805 biztanle dira, baina horiez gain, ohikoa da Maroko eta Afrikako beste lurralde batzuetako biztanleek ere frantsesez hitz egitea; esate baterako Aljeriatik edota Senegaletik datozenak. Bestalde, Frantzia jatorria duten zenbaitek beste hizkuntza batzuk ere hitz egin ditzakete, hala nola bretoiera edo okzitaniera. Hala baieztatu du 101L proiektuak gutxienez bretoierari dagokionez buruz (Ahotsak 2016).

- **Urdua** eta **punjabera**: Jatorria Pakistanen dutenek hitz egin dezakete (2.379 biztanle). Bi kasuetarako lekukotasunak badira (Ahotsak 2016 eta Uranga et al 2008).
- **Ukrainera**: Jatorria Ukrainan dute 1.666 biztanlek. Horietako askok errusiera ere hitz egiten dute, jaso diren lekukotasunen arabera.
- **Mandarin txinera** eta **kantonera** (besteak beste): Jatorria Txinan dutenak 1.376 lagun.
- **Wolofera, fula, sererera, diolera, mandinkera**, soninkera, frantsesa eta ingelesa: jatorria Senegalen dutenen artean badira lekukotasunak. 1.409 lagun dira (Uranga et al. 2008).

Bestalde, bada 140 bat lurraldetatik etorritako populazioa, jatorri atzerri-tarreko biztanleriaren % 20 osatzen duena, eta lurraldeko hiztun-kopuru txikiko hizkuntza-aniztasun oso handia eratzten da horien artean ere; batzuek 500 biztanletik gora dituzte, baina gehien-gehienek 100 baino gutxiago. Horien jatorriaren arabera honela banatu daitezke, besteak beste, Gipuzkoan hiztun-kopuru txikia duten hizkuntzak:

- **Afrika**: akanera, bubiera, diolera, fangera, fula, igboera, kombo, lingala, mandinkera, moorea, sekiera, soninkera, pulaarera, yorubera...
- **Amerika**: guarania, kitxua, mapudunguna, aimara, maia hizkuntzak, nahuatl...
- **Asia**: bahasa, bengalera, hindia, japoniera, koreera, mongoliera, nepalera, tagaloa, thaiera...
- **Europa**: alemana, Eskoziako gaelikoa, galesa, errusiera, italiera, bulgarierra, moldaviera, poloniera, nederlandera, erretorromaniera, armeniera, frisiera, georgiera, bosniera, hungariera, letoniera, kroaziera, suediera...
- **Ozeania**: maoriera, tagaloa...

Azkenik, hizkuntza-aniztasunaren aldetik oso kontuan hartzekoa da Espainiako estatuan jatorria duten biztanleen hizkuntza-aniztasuna. Eta, alde horretatik azpimarratzekoa da, badela Gipuzkoan Galiziako jatorria duen populazio oso handia (10.000 biztanletik gora), eta -ikerketa zehatzen esperoan- aurrei-


kusi daitekeela horietako askok galegoa ere hitz egingo dutela. Antzera esan daiteke Kataluniako Herrialdeetako biztanleriari dagokionez ere, 5.000ra hurbiltzen baita jatorri horietako biztanle-kopurua. Azkenik aipa daiteke, Espainiako beste hizkuntza bat hitz egin dezakeen populazioa oso txikia dela Gipuzkoan, asturiera edo aragoiera hitz egin dezaketenak, esate baterako.

7. Jatorri atzerritarreko biztanleria jatorri-estatuen arabera Gipuzkoako eskualdeetan

7.1. Biztanleria jatorriaren arabera Gipuzkoako eskualdeetan

Bidasoa Behean kokatzen da jatorri atzerritarreko biztanleriaren ehuneko handiena (ikus 2. irudia), zalantzarik gabe, estatuen arteko mugak eraginginda. Bertan % 13koa da jatorri atzerritarreko biztanleria, 10.000 lagunetik gora (Gipuzkoan % 10,3). Gipuzkoako batezbesteko horretatik zertxobait gora kokatzen dira baita ere Goierri (% 11) eta Debabarrena (% 10,9).

2. Irudia. Jatorri atzerritarreko biztanleria eskualdearen arabera. Gipuzkoa (2018) (Biztanleria osoarekiko %)



Iturria: EUSTAT. 2018ko Biztanleriaren udal-errolda. Mapa egileak egina.

Donostialdeak bere pisu demografikoaren eraginez markatzen du batezbestekoa (% 10,2), eta esan gabe doa eskualde horretan kokatzen dela, espero izatekoa den bezala, kopuru absolutuetan jatorri atzerritarreko biztanle-kopuru handiena (33.640 biztanle), Gipuzkoako jatorri atzerritarreko biztanleriaren ia erdia bertan errolatuta baitago (% 45).

Nolanahi ere, esan daiteke, jatorri atzerritarreko biztanleria herrialdeko eskualdeetan modu orokortuan zabaldu dela. Egia da muga eta hiriburua biltzen dituzten eskualdeetan nabarmentzen dela dentsitate handixeagoa, baina, gainerakoetan tartea ez dela oso handia (% 8,2tik % 10,9ra). Herrialdearen izaera ekonomiko eta sozial deszentralizatuaren isla ere baden ezaguarria, bestalde.

1. Taula. Jatorri atzerritarreko biztanleria jatorri-lurraldean arabera. Eskualdeetako banaketa. Gipuzkoa (2018)

	(Abs.)	Jatorri atzerritarreko biztanleriarekiko (%)	Biztanleria osoarekiko (%)
Bidasoa Behea	10.247	13,9	13,0
Goierrri	7.502	10,1	11,0
Debarrena	6.068	8,2	10,9
Debagoiena	5.130	6,9	8,2
Donostialdea	33.640	45,5	10,2
Tolosaldea	4.529	6,1	8,2
Urola Kosta	6.806	9,2	9,0
	73.922	100,0	

Iturria: EUSTAT. 2018ko Biztanleriaren udal-errolda.

7.2. Jatorri-estatueta gaztelania ofiziala duten biztanleak


Aurreko atalean azaldu den bezala, hizkuntza-aniztasunaren kudeaketaren ikuspegitik oso interesgarria da begiratzea zein den Gipuzkoan jatorri atzerritarreko biztanleriaren jatorri-estatueta gaztelania duten biztanleria-

ditugu, besteak beste, bokalarteko <b, d, g, r> kontsonanteen ahoskera eta <zd> kontsonante bilkurarena.¹⁵ Bi hizkera-mailetan ahoskera bera erabili denean adierazi dugun bezala, kasu honetan ere, batzuetan (bokalarteko <b, d, g, r> kontsonanteen ahoskeraren kasuan) EBAZ arau edo proposamenak bete dira eta beste batzuetan (<zd> bilkuraren ahoskeraren kasuan) ez dira bete.

- Bokalarteko <b, d, g, r> kontsonanteen ahoskera

Hizkera-maila arduragabeen hitzunek bokalarteko <b, d, g, r> kontsonanteak askotan ez dituzte ahoskatu:

(5) IU: *oain* ‘orain’; *meiku* ‘mediku’.

LL: *biali* ‘bidali’; *launekin* ‘lagunekin’.

MB: *gorra* ‘gogorra’; *geatu* ‘geratu’.

OB: *eukiko* ‘edukiko’; *proatzea* ‘probatzea’.

MLE: *besteik* ‘besterik’; *eunen* ‘egunean’.

AO: *neonek* ‘neronek’; *badao* ‘badago’.

Maila zainduan, aldiz, beti ahoskatu dituzte bokalarteko kontsonante hauek:

(6) Hitzun guztiek: *pro[β]atuko*; *e[ð]o*; *e[ɣ]iten*; *o[r]aindik*.

Hitzunen datuek erakusten dutenez, hizkera-mailaren arabera ahoskera aldatu egin da. Arduragabeen emankorra izan da bokalarteko <b, d, g, r> kontsonanteak ez ahoskatzea eta, aldiz, zainduan beti ahoskatu dira.

Kontsonante hauek ahoskatzen ez direnean, herskari ahostunen kasuan, bi bilakabide gurutzatzen dira. Batetik, herskari ahostunen jarraitutzea ger-

¹⁵ EBAZen <zd> bilkurarekin batera aurkezten dira <zb, zg> bilkurak, guztietan txistukari gehi herskari ahostun kontsonante bilkura baitugu. Artikuluaren luzera muga dela eta, ordea, hemen <zd> bilkuraren ahoskera baino ez dugu aztertuko, <zb, zg> bilkuren kasuan baino hitzunen datu gehiago baititugu.

tatzen da (ahoskatzen direnean ere gertatzen da hori); hau da, kontsonante hauek ingurune jarraituan daude (bokal artean, zehazki) eta aldameneko bokalen jarraitutasunera (artikulatzaileek ez diote trabarik egiten aire-etorriari) asimilatzen dira, erabateko hersketa galdu egiten baitute, herskari izatetik hurbilkari izatera igaroz (Romero 1996: 103). Bestetik, hurbilkari horien eta /r/ ttakaren kenketa gertatzen da. Errazagoa da ekoizpen ahaleginaren aldetik, eta ohargarritasunaren kaltetan, ingurune jarraituko kontsonante hauek ez ahoskatzea. Ekoizpen ahaleginari begira errazagoa dela diogu, hurbilkaria galtzen denez, segmentu bilkuran zehar artikulatzaileek ez diotelako aire-etorriari etenik jarri beharrik; honek, ordea, ez dio mesederik egiten ohargarritasunari, segmentu bat kentzen denez, seinalea ahuldu egiten baita. Maila arduragabeetan ez zaionez entzungarritasunari edo argitasunari hizkera-maila zainduetan adinako lehentasunik ematen, kontsonante hauen kenketak, oro har, beste kenketak bezala, *lenitio*ak izanik, hizkera-maila arduragabeko jardunetan gertatzea ohikoa da (Donegan; Stampe 1979: 142-143). <zd> bilkuraren ahoskera aztertzerakoan (ondorengo azpiatala) azalduko ditugu *lenitio* edo ahultze bilakabideen eta *fortitio* edo indartze bilakabideen arteko alde nagusiak.

Maila zainduko jardunetan, berriz, bokalarteko <b, d, g, r> kontsonanteak, EBAZ arau edo proposamena betez, beti ahoskatu dira. Aldagarritasuna norabide egokian gauzatu da, beraz.¹⁶

Galdetegian bi esaldi irakurri zaizkie hiztunei eta euren zeregina izan da esatea ea zerbait aldatuko luketen edo ez, esaldi horiek ETB1eko dokumental baterako balira. Esaldi horietako bat hauxe izan da: *geo etorriko zela [x]akinarazi zuen*. Hiztun guztiek berehala adierazi dute *geo* ez luketela esango, *ge[r]o* baizik. Are gehiago, harrigarri gertatu zaie *geo* irakurri eta galdetzea ea zerbait aldatuko luketen edo ez, ahoskera hori maila zaindurako posible

¹⁶ Antzeko joera topatu da, besteak beste, bi bokalen artean <h> duten bokal bilkuren ahoskaren azterketan. Hiztunak Hegoaldekoak izanik, ez dute <h> ahoskatzen eta, maila arduragabeko jardunetan, oro har, bokalak diptongoan edo bokal bakarria eginez ahoskatu dituzte. Zainduan, berriz, gehiagotan ahoskatu dira bokalak bi silabatan. Esate baterako, hiztun berak (AO-k) hitz bera (*ahal*) bi eratara ahoskatu du, hizkera-mailaren arabera: [*a*] maila arduragabeen eta [*a.a*] zainduan.

dela pentsatzea “ezinezkoa” iruditu zaie. Eskatu zaien aldaketa (*geo* beharrean, *ge[r]o*) “errazegia” dela pentsatu bide dute, “nabariegia” balitz bezala erantzun dute, galdetzen ari ginenak zentzu handiegirik ez balu bezala. Galdera bat erantzuteko errazegia denean, ezkutuan beste zerbait (“tranpa” bat) dagoela uste izateko joera izan ohi dugu maiz; horixe izan bide da hiztunek sentitu dutena *geo* irakurri eta zerbait aldatuko luketen galdetu zaientean. Honela, bada, nahiko argi dute maila zainduan bokalarteko <b, d, g, r> kontsonanteak ahoskatzearen alde egingo luketela. Bokalarteko <r>-ren kenketarekin bakarrik egin da proba, baina norabidearen seinaleztat har genezake; hau da, gainerako kontsonante “ahulekin” ere erantzun bertsuak izango genituzke ziurrenik. Bide batez, esaldi bereko *[x]akinarazi* formako *[x]* ahoskera belarraz ez du inork ezer esan.

- <zd> kontsonante bilkuraren ahoskera

<zd> kontsonante bilkura, gehienetan, ez partikularen eta <d> kontsonantez hasitako aditz formen bidez eratzen da. Hizkera-maila arduragabeen bilkura horretako herskaria *[t]* ahoskabe ahoskatu dute hiztun guztiek kasu guztietan:

- (7) IU: *ez [t]ue jartzen* ‘ez dute jartzen’; *ez [t]aket* ‘ez daukat’; *ez [t]iela* ‘ez direla’.

LL: *ez [t]eu iten* ‘ez dugu egiten’; *ez [t]igue uxten* ‘ez digute uzten’; *ez [t]itut ikusi* ‘ez ditut ikusi’.

MB: *ez [t]akit* ‘ez dakit’; *ez [t]ie* ‘ez dira’; *ez [t]igue erakusten* ‘ez digute erakusten’.

OB: *ez [t]io uxten* ‘ez dio uzten’; *ez [t]it ematen* ‘ez dit ematen’; *ez [t]itut erosi* ‘ez ditut erosi’.

MLE: *ez [t]a ikusten* ‘ez da ikusten’; *ez [t]unak* ‘ez duenak’; *ez [t]akizumen* ‘ez dakizunean’.

AO: *ez [t]et esango* ‘ez dut esango’; *ez [t]iela* ‘ez direla’; *ez [t]ezula* ‘ez duzula’.

Maila zainduan, berriz, <zd> bilkurako herskaria [d] ahostun ahoskatu dute:

(8) Hitzun guztiek: *ez [d]a; ez [d]ugu; ez [d]en; ez [d]ira.*

Ahoskera hauek kontuan izanda, hizkera-mailaren arabera, kontsonante bilkura honen ahoskera aldatu egin da. Maila arduragabeen <zd> bilkurako herskaria ahoskabe ([t]) ahoskatu dute hitzun guztiek eta zainduan, berriz, ahostun ([d]).

Ez-en ondorengo herskaria ahoskabe ahoskatu denetan (maila arduragabeen), ahoskabetze asimilazioa gertatu da, herskaria aurreko igurzkariaren ahoskabetasunera hurbildu baita, segmentu bilkura ahoskagarriago eginez; ahots kordek ez dute bilkura osoan zehar dardararik egin beharrik. Donegan eta Stampek (1979: 142-143) diotena kontuan hartzen badugu, asimilazioak *lenitio* edo ahultze bilakabideak dira, segmentu edo segmentu bilkurak ahoskatzeko errazago egiteko helburua edo ondorioa dutenak, eta argitasuna eskatzen ez duten egoera edo estiloak (hizkera-maila arduragabeak, besteak beste) izan ohi dira hauen gertaleku naturalenak.

Ohargarritasunari begira jarrita, ordea, ahoskabetasuna trabari optimoen ezaugarri denez, asimilatu den segmentua (/d/ > [t]) indartu eta entzungarriago bihurtu da; alde honetatik, *fortitio* edo indartze bilakabideen aldera hurbilduko ginatke. *Fortitio*ek, oro har, segmentuen euren tasunak indartzen dituzte edo segmentuak aldameneko segmentuetatik nabarmentzen dituzte. Hauen helburua edo ondorioa, oro har, ohargarritasunari laguntzera zuzendua egon ohi da eta argitasuna eskatzen duten egoera edo estiloetan (hizkera-maila zainduetan, besteak beste) gertatu ohi dira (Donegan; Stampe 1979: 142).

Silaba-egitura zenbaitetan bilakabide fonologikoen erantzule izaten dela kontuan izanik (Donegan; Stampe 2004: 17-18), pentsa liteke herskaria silaba hasieran agertzeak ere lagun dezakeela herskaria ahoskabe ahoskatzeko (Vennemann 1988: 13-14), euskarak silaba ekinak indartzeko joera baitu (Jauregi 2007: 279) eta, esan dugun bezala, herskaria ahoskabetzean segmentua bera indartu egiten da.

Hizkera-maila zainduan, berriz, herskari ahostunaren ahoskera nagusitu da. Kasu honetan, ez da ahoskabetze asimilaziorik gertatu, txistukariaren

ahostuntzea baizik; hau da, txistukaria ondoren duen herskariaren ahostuntasunera hurbildu da. Honela, [ʃ] txistukari ahoskabea ahoskatu beharrean, [ʒ] ahostuna ahoskatu dute hiztun guztiek: *e[ʒ] da, e[ʒ] dugu, e[ʒ] den, e[ʒ] dira*.

Kontsonante ahostunen aurreko txistukariaren ahostuntzea ohikoa da, besteak beste, gaztelaniaz. Hurch-ek (1988: 347) dioen bezala, hizkuntzek bilakabide ezberdinak hauta ditzakete arazo (zailtasun artikulatorio bat edo oharrenari dagokion zailtasun bat) beraren aurrean. Aztergai dugun bilkuren kasuan, kontsonante multzo bakarrean ahotsaren bi balio (ahoskabe/ahostun) “konbinatu” beharrak sortzen du zailtasuna, ahots kordek dardara ez egitetik dardara egitera igaro beharko bailukete segmentu bilkuran. Zailtasun honen aurrean, ahoskagarritasunaren mesedetan, ahotsaren balio bakarra izatearen alde egiten da. Aukera ezberdinak egiten dituzte, ordea, euskarak eta gaztelaniaz: euskaraz herskaria ahoskabetzearen alde egiten da (*ez [t]a*) eta gaztelaniaz, berriz, txistukaria ahostuntzearen alde (*la[ʒ] damas* ‘damak’). Honela, lehenengoaren kasuan, segmentu bilkura osoa ahoskabe bihurtzen da eta bigarrean, berriz, ahostun.

Aztergai ditugun datuetan ikusi dugun moduan, euskaraz igurzkari ahoskabe eta herskari ahostun bilkura baldin badugu, herskariaren ahoskabetzea gertatu ohi da: *ez [t]akit* (MB). Hitz barnean ere euskaraz txistukariaren ondorengo herskaria ahoskabea izan ohi da: *ez[p]ain, ez[t]i, kez[k]a, as[p]ertu, es[t]u, nes[k]a*. Txistukariaren ondorengo herskaria ahostun ahoskatzen deneko forma gutxi batzuk baino ez dira topatzen, gehienak hitz eratu eta mailegu erlatiboki berriak lirake: *des[b]erdin, ez[b]erdin, des[b]ideratu, ez[d]eus, les[b]iana, ez[g]auza*. Aurreko lerroetan adierazi bezala, gaztelaniaz, aldiz, ingurune berean igurzkaria ahostuntzen da, ez da herskaria ahoskabetzen (Hurch 1988: 347): *a la[ʒ] doce* ‘hamabietan’, *ha[ʒ] dicho* ‘esan duzu’.

EBAZ arau edo proposamenetan txistukariaren ondoko herskaria ahoskabe ahoskatzea hobesten da; izan ere, gorago azaldu dugun bezala, asimilazioa gertatzen bada ere, ebakeraren indartzea dakar ahoskabeak, nabarmenago baita oharrenaren aldetik eta, beraz, hizkera zaindurako aproposa da, maila zainduetan ohargarritasuna arduragabeetan baino gehiago zaindu

ohi baita (gogoratu 4.1. atalean esandakoa). Hitzunek, hortaz, ez dute EBAZ arau edo proposamena bete, maila zainduko ahoskerek erakusten duten bezala, guztiek txistukari ondoko herskaria ahostun ahoskatu baitute. Badirudi idatzi bezala irakurtzeko joera nagusitu dela eta gaztelaniaren (kasu honetan) ahoskerara hurbildu direla.¹⁷

Galdetegian hitzunei galdetu zaie nola esango luketen euskaraz *comer sano no es caro* bi egoeratan, Alegian lagunartean (hizkera-maila arduragabea) eta balizko ETB1eko dokumentalean (hizkera-maila zaindua). Lagunartean baleude, *ex [t]a* ahoskatuko omen lukete, eta ETB1eko dokumentalean, berriz, *ex [d]a*.¹⁸ Euren esanetan, euskara estandarreko araua txistukari ondorengo herskaria ahostun ahoskatzea omen da. AO hitzunik, galdetu zaionean ETB1eko dokumentalean nola esango lukeen esaldia, lehendabiziko aldiak *ex [t]a* ahoskatu du, baina berehala zuzendu du, nabarmenduz [t] herskari ahoskabea “atera” zaiola, baina badakiela euskara batuan *ex [d]a* ahoskatu beharko litzatekeela, ahostuna, alegia.

Honekin batera, idatzi bezala ahoskatzeko joeraren erakusle izan liteke, irakurtzeko testua emandakoan, OB hitzunik esan izana ez duela asko “bel-durtzen” zeregin horrek, testua euskara batuan dagoenez, ez omen du eta aldaketarik egin beharrik, idatzita dagoen bezala irakurtzearekin nahikoa omen du. Beraz, badirudi, hitzun honen arabera, batuaz ahoskatzea idatzi bezala irakurtzearekin lotzen dela.

Idatziaren estandarizazioa nahiko berria izateak indartu egiten du letren ahoskerarako joera; hau da, hitzuentzat (batzuentzat besteentzat baino gehiago) batu idatzia forma berria izanik eta ahoskatzen ez delako irakatsi, letrak fonemekin erabat berdintzeko joera nagusitu ohi da (Haugen 1966: 930), are gehiago euskararen idazkera nahiko “fonetiko” dela kontuan har-

¹⁷ Idatzi bezala irakurtzeko joera antzematen da baita ere hitz mugako kontsonante ozen ondorengo txistukariaren ahoskeran. Maila arduragabean hitzun guztiek afrikatua ahoskatu dute (*esan [tʃ]ion* ‘esan zion’), eta zainduan, berriz, igurzkaria (*izan [ʃ]utenean*). Kontsonante bilkura hauen ahoskeraren azterketarako, ikus Urreta (inprimategian), bertan landu baitugu bilkura hauen ahoskera.

¹⁸ Zehazki, honela itzuli dute esaldia: *sano/osasuntsu [x]atea ex [t]a garestie* lagunarterako eta *osatsuntsu [x]atea ex [d]a garestia* ETB1eko dokumentalerako. Bide batez, beste behin <j> [x] belar ahoskabe ahoskatu dute guztiek balizko dokumentalerako (maila zaindurako).

tuta (Oñederra 1994: 1594). Gorago aztertu ditugun hiztunen datuek erakusten duten bezala, letren ahoskerarako joera horrek erdaren (gaztelania-rena, kasu honetan) eredu nagusitzea ekarri ohi du maiz. Ez da ahoskatzen irakatsi (ikus 2.1. atala) eta, hortaz, hiztunek euren kabuz “bilatu” eta “eratu” behar izan dute hizkera berrirako eredu fonikoa. Horretarako, besterik ezean, erdarara jotzea da “errazena” eta ohikoena (eskura duten eredu hori da). Horrela, ahoskera berri bat hartzen du hizkera berriak. Hau batuaren hasierako garaietan (berria zenean) gertatuko zen, baina orduan sortutako aukera egonkortu eta eredu gisa zabaldu da (Oñederra eta beste 2015: 508), besteak beste, ez zaiolako hiztunari, oro har, beste eredurik (EBAZen proposatzen denari jarraituta) irakatsi.

6. Ondorioak

Lan honetan euskararen ahoskera eta hizkera-mailak izan ditugu aztergai. Hain zuzen ere, euskararen ahoskera aztertu dugu hizkera-maila arduragabeen eta zainduan, hizkera-mailaren arabera, ahoskera aldatzen den edo ez jakiteko helburuarekin. Lehenengo ataletan ahoskeraren estandarizazioaren (2. atala), EBAZ arau edo proposamenen (3. atala) eta hizkera-mailen (4. atala) inguruko alderdi batzuk azaldu ditugu eta, jarraian, horietako zenbait kontu lanaren oinarri izan den corpusa lantzerakoan (5. atala) jorratu ditugu. EBAZ arau edo proposamenak erreferentziatzat hartuta, sei hiztunen hizkera-maila arduragabeko eta zainduko jardunetako ahoskerak aztertu ditugu. Bi mailetako ahoskerak erkatuta, oro har, joera ezberdinak topatu dira.

Batetik, batzuetan hiztunek zenbait hotsen ahoskera bera erabili dute bi hizkera-mailetan. <r> eta <rr> kontsonanteen ahoskera eta <j>-rena dira joera horren erakusle. Lehendabizikoen kasuan, hizkera-mailaren arabera aldagarritasunik ez da topatu, Hegoaldean batez ere, kontsonante hauek hobikari ahoskatzen baitira, hizkera-maila edozein izanda ere. Honekin, EBAZ arau edo proposamena (hobikari ahoskatzea hobesten da) “besterik gabe” bete da; MLE hiztunaren kasua izan da salbuespen, honek bi mailetan horzkari ondorengo dardarkaria [R] ubular ahoskatu baitu.

Bigarrenaren (<j>-ren ahoskeraren) kasuan, berriz, EBAZ arau edo proposamenetan hobesten den ahoskera zein den jakinda ere, maila zainduan ez da aldatu maila arduragabeko ahoskera. Hitzun guztiek bi hizkera-mailetan, oro har, [x] belar ahoskabea ahoskatu dute, nahiz eta galdetegian hitzun batzuek adierazi badakitela hizkera zainduan ahoskera sabaikaria hobesten dela. Hortaz, EBAZ arau edo proposamenetan hobesten diren zenbait ahoskera erabiltzerakoan hitzunek jarrera “ezkor” samarra edo ezintasuna erakutsi dute. Ezintasun hori lotua egon daiteke hitzunek, ohituta ez dauden ahoskerak erabiltzerakoan, izan ohi duten artifizialtasun sentipenarekin (3.1. atala). Sentipen horren adierazle da, esaterako, zenbait hitzunek galdetegian esan izana ahoskera batzuk (<j> sabaikari ahoskatzea, besteak beste) arrotz edo “ez-natural” iruditzen zaizkiela. Artifizialtasun sentipenak maiz lotsa ere ekarri ohi dio hitzunari ohituta ez dagoen ahoskeraren bat erabiltzerakoan; honela, ahoskera hori erabiltzeko ezina nagusitu ohi da.

Bestetik, beste kasu batzuetan bi hizkera-mailetan ahoskera ezberdinak erabili dituzte hitzunek. Esaterako, bokalarteko <b, d, g, r> kontsonanteak maila arduragabean ez dituzte askotan ahoskatu (*proatzea* ‘probatzea’ (OB), adibidez) eta, aldiz, zainduan beti ahoskatu dituzte (*pro[β]atuko*, esate baterako). Aldagarritasuna norabide egokian gauzatu da kasu honetan. Bi mailetan ahoskera ezberdinak erabili diren beste batzuetan, ordea, ez dituzte EBAZ arau edo proposamenak bete. Joera hori erakusten du <zd> bilkurako <d> maila arduragabean hitzun guztiek [t] ahoskabe eta maila zainduan, berriz, [d] ahostun ahoskatzeak. Kasu honetan, idatzi bezala ahoskatzeko joera nagusitu da eta aldagarritasuna ez da norabide egokian gauzatu.

Idatzi bezala ahoskatzeko joerarekin lotuta, pentsa liteke, agian, aldagarritasuna norabide egokian gertatzen den zenbaitetan ere, ez dela EBAZ arauari berariaz jarraitzeagatik gertatzen, baizik eta letren eraginagatik gertatzen dela. Honela, letrak lirateke aldagarritasunaren norabidearen baldintzatzaile. Aipatu dugu, esate baterako, *ex [t]a* ahoskatzen duenak maila arduragabean, maila zainduan, idatziaren eraginagatik (gogoratu hitzunek galdetegian esana), *ex [d]a* ahoskatzen duela, EBAZ arau edo proposamena ez betez. Era berean, pentsa liteke, adibidez, *proatu* ‘probatu’ ahoskatzen duenak maila arduragabean, maila zainduan *pro[β]atu* ahoskatzea letren

eraginagatik gertatzen dela, ez EBAZ arau edo proposamenak berariaz betetzeagatik.

Dena den, ideia honek ikerketa sakonago bat eskatuko luke; uler bedi, beraz, lan hau etorkizuneko ikerketen abiapuntu edo hasiera gisa. Corpus zabalagoa izateak lagunduko liguke, besteak beste, azterketa osatzen, hiztunek erakusten duten joera hemen aipatutako ideiarekin bat datorren edo ez egiaztatzeko. Aurrera begira, hortaz, ikuspegi osoago baterako, corpus zabalagoa biltzea litzateke asmoa. Honez gain, batetik besterako bidea graduala izan arren, hizkera-mailak ahalik eta gehien finkatzea litzateke etorkizuneko erronketako bat, EBAZ arau edo proposamenen erabilera hobeto ulertu ahal izateko eta hiztunen datuak zehatzago kokatu eta aztertu ahal izateko. Ahoskera estandarizatzearen helburua ez da eredu bakarreko hizkuntza bat sortzea, lanean adierazi bezala, asmoa da egoera zainduetarako baliabideak eskaintzea (Euskaltzaindia 1998: 485). Honela, bada, ezinbestekoa litzateke hizkera-mailak zehaztea eta bakoitzari dagokion lekua ematea. Euskararen kasuan, bereziki beharrezkoa da eginbehar hau, artikuluan adierazi bezala, hizkuntza gutxitua izanik, denbora-tarte luzean hizkera formalik ez izateak hizkera-mailen arteko egitura eta antolaketarik ez izatea ekarri baitu.

Espero dugu etorkizuneko ikerketak gai izango direla aipatutako alderdi hauei eta ikertzeke dauden beste hainbati erantzuteko.

Erreferentzia bibliografikoak

AUER, Peter (2005). «Europe's sociolinguistic unity, or: A typology of European dialect/standard constellations», in Nicole Delbecque, Johan Van Der Auwera & Dirk Geeraerts (arg.), *Perspectives on Variation. Sociolinguistic, Historical, Comparative*. Berlin-New York: Mouton de Gruyter, 7-42.

CESTERO, Ana María & PAREDES, Florentino (2018). «Creencias y actitudes hacia las variedades cultas del español actual: el proyecto PRECAVES XXI», *Boletín de Filología* 53 (2): 11-43.

CORTÉS MORENO, Maximiano (2002). «Didáctica de la entonación: una asignatura pendiente», *Didáctica (Lengua y Literatura)* 14: 65-75.

DARQUENNES, Jeroen (2011). «Minorities, language politics and language planning in Europe», in Bernd Kortmann & Johan Van Der Auwera (arg.), *The languages and linguistics of Europe: a comprehensive guide*. Berlin-Boston: Mouton de Gruyter, 547-560.

DEMONTE, Violeta (2003). «Lengua estándar, norma y normas en la difusión actual de la lengua española», *Congreso de la ACIS (Association for Contemporary Iberian Studies)*. Valentzia. <https://digital.csic.es/bitstream/10261/13074/1/Documento1.pdf>. [2021-01-29].

DONEGAN, Patricia & STAMPE, David (1979). «The study of Natural Phonology», in Daniel Allan Dinnsen (arg.), *Current Approaches to Phonological Theory*. Bloomington: Indiana University Press, 126-173.

——— (2004). «Rhythm and synthetic drift of Munda», in Rajendra SINGH (arg.), *The Yearbook of South Asian Languages and Linguistics 2004*. Berlin-New York: Mouton de Gruyter, 3-36.

DURAND, Jacques (2014). «Corpora, variation, and phonology: an illustration from French liaison», in Jacques Durand, Ulrike Gut & Gjert Kristoffersen (arg.), *The Oxford Handbook of Corpus Phonology*. Oxford: Oxford University Press, 240-264.

ESKÉNAZI, Maxine (1993). «Trends in Speaking Styles Research», *EUROSPEECH'93*. Berlin, http://www.isca-speech.org/archive/eurospeech_1993. [2021-01-29].

EUSKALTZAINDIA (1998). «Euskara Batua Ahoskera Zaindua», *Euskera* 43 (2): 485-490.

FERGUSON, Charles Albert (1996). «Standardization as a Form of Language Spread», in Thom Huebner (arg.), *Sociolinguistic Perspectives: Papers on Language in Society, 1959-1994*. Oxford-New York: Oxford University Press, 189-199.

GONZÁLEZ, Francesc (2002). «Los conceptos de codificación y estandarización según las experiencias catalana y asturiana», *Ianua. Revista Philologica Románica* 3: 13-33.

HARMER, Jeremy (2007). «Teaching pronunciation», *The Practice of English Language Teaching*. Londres: Pearson Education Limited, 248-264.

HAUGEN, Einar (1966). «Dialect, language, nation», *American Anthropologist* 68: 922-935.

HUALDE, José Ignacio (1995). «Euskal azentuen sailkapenez eta historiaz», in Ricardo Gómez & Joseba Andoni Lakarra (arg.), *ASJU Gehigarriak 28: Euskal dialektologiako kongresua*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 189-208.

HUALDE, José Ignacio & ZUAZO, Koldo (2007). «The standardization of the Basque language», *Language Problems and Language Planning* 31 (2): 143-168.

HURCH, Bernhard (1988). «Phonetics and phonology. Phonology and phonetics», *Zeitschrift für phonetische Sprachwissenschaft und Kommunikationsforschung* 41 (3): 346-352.

JAUREGI, Oroitz (2007). *Euskararen silaba: egitura eta historia*. UPV/EHU. http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Oroitz_Jauregi_TESA.pdf. [2021-01-29].

JAUREGI, Oroitz & EPELDE, Irantzu (2019). «Standard Basque», in Lenore Grenoble, Pia Lane & Unn Røyneland (arg.), *Linguistic Minorities in Europe Online*. Berlin: Mouton de Gruyter.

JOOS, Martin (1968). «The isolation of styles», in Joshua Aaron Fishman (arg.), *Readings in the Sociology of Language*. Haga: Mouton de Gruyter, 185-191.

LABOV, William (1972). «The isolation of contextual styles», *Sociolinguistic Patterns*. Filadelfia: University of Pennsylvania Press, 70-109.

LARRINAGA, Asier (1998). «Ahoskeraren araugintza komunikabideetan», *Euskera* 43 (2): 459-466.

LLISTERRI, Joaquim (1992). «Speaking styles in speech research», *ELNET/ESCA/SALT Workshop on Integrating Speech and Natural Language*. Dublin, uztaialak 15-17, http://liceu.uab.es/~joaquim/publicacions/SpeakingStyles_92.pdf. [2021-01-29].

MILROY, James (1994). «The notion of “standard language” and its applicability to the study of Early Modern English pronunciation», in Dieter Stein & Ingrid Tieken-Boon Van Ostade (arg.), *Towards a Standard English: 1600-1800*. Berlin-New York: Mouton de Gruyter, 19-29.

MILROY, James & MILROY, Lesley (1999 [1985]). *Authority in Language: Investigating Standard English*. Londres-New York: Routledge.

MITXELENA, Koldo (1968). «Ortografia», *Euskera* 13: 203-219, https://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauek/Araua_0000.pdf. [2021-01-29].

——— (1972). «A Note on Old Labourdin Accentuation», *ASJU* 6: 110-120.

——— (1990 [1961]). «Fonética Histórica Vasca», *ASJU Gehigarriak* 4. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

MONTGOMERY, Martin (2008). «Language and situation: register», *Langage et société* 124 (2): 89-93, <https://www.cairn.info/revue-langage-et-societe-2008-2-page-89.htm>. [2021-01-29].

OÑEDERRA, Miren Lourdes (1994). «Ahoskera araupetzeaz II», *Euskera* 39 (2): 1.589-1.605.

——— (1998). «Prosodiaren oraina eta ahoskera arauak», *Euskera* 43 (2): 439-449.

——— (2004). *Fonetika fonologia hitzez hitz*. Bilbo: UPV/EHU.

——— (2016). «Standardisation of Basque: From grammar (1968) to pronunciation (1998)», *Sociolinguistica: International Yearbook of European Sociolinguistics* 30 (1): 125-143.

——— (2017). «The Standardisation of Pronunciation: Basque Today, between Maintenance and Variation», in Ingrid Tieken-Boon Van Ostade & Carol Percy (arg.), *Prescription and Tradition in Language. Establishing Standards across Time and Space*. Bristol: Multilingual Matters, 342-354.

——— (2019). «Ahoskera arautu eta i(ra)kas al daiteke?», *Eta ahoskera zer? jardunaldia*. Gasteiz (Artium), 2019ko otsailaren 14a.

OÑEDERRA, Miren Lourdes, JAUREGI, Oroitz & EPELDE, Irantzu (2014). «Hiztunaren fonema inbentarioa eta elebitasun goiztiarra: euskara gehi frantsesa vs. euskara gehi gaztelania», *Lapurdum* 18: 75-95.

OÑEDERRA, Miren Lourdes, ELORDUI, Agurtzane, EPELDE, Irantzu, ETXEBERRIA, Pilartxo, JAUREGI, Oroitz & SALABERRIA, Jasone (2015). «Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordearen txostena (Ahoskerak axola du)», *Euskera* 60 (2): 499-531.

PEREZ, Elixabete & AZKARATE, Miren (2020). «Euskara estandarrak bernalarizazio aldian», in Iñaki Camino, Xabier Artiagoitia, Irantzu Epelde & Koldo Ulibarri (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena. Koldo Zuazori gorazarre*. Bilbo: UPV/EHU, 601-615.

POCH-OLIVÉ, Dolors (1998). «La estandarización de la pronunciación y la variabilidad lingüística», *Euskera* 43 (2): 391-398.

PURHOSEIN, Abbas (2016). «English pronunciation instruction: a literature review», *International Journal of Research in English Education* 1 (1): 1-6.

RISAN, Maiken (2014). «Fake it till you make it»-Attitudes towards L2 accents among prospective English teachers in Norway. Trondheim, Master Tesia Norvegiako Zientzia eta Teknologia Unibertsitatean (NTNU).

ROMERO, Joaquín (1996). «Articulatory blending of lingual gestures», *Journal of Phonetics* 24: 99-111.

SAPIR, Edward (1949 [1921]). *Language: an introduction to the study of speech*. New York: Harcourt, Brace and Company.

TXILLARDEGI (ALVAREZ, Jose Luis) (1984). *Euskal azentuaz*. Donostia: Elkar.

URRETA, Irati (inprimategian). «Kontsonante ozen ondorengo txistukariaren ahoskera hizkera-maila arduragabe eta zainduan», *Lapurdum*.

VALVERDÚ, Francesc (1986). «Sobre el estándar oral catalán: el modelo de lengua en TV3», *Euskera* 31 (2): 317-326.

VENNEMANN, Theo (1988). *Preference laws for syllable structure*. Berlin: Mouton de Gruyter.

WOOLHISER, Curt (2011). «Border effects in European dialect continua: dialect divergence and convergence», in Bernd Kortmann & Johan Van Der Auwera (arg.), *The languages and linguistics of Europe: a comprehensive guide*. Berlin-Boston: Mouton de Gruyter, 501-523.

ZUAZO, Koldo (2005). *Euskara batua: ezina ekinez egina*. Donostia: Elkar.



Liburu aipamenak

Euskera. 2020, 65, 2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Fontes Linguae Vasconum: 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari / Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca

Santazilia, E.; Krajewska, D.; Zuloaga, E. & Ariztimuño, B. (arg.)
Nafarroako Gobernua. Iruñea: 2020, 609 or.
ISBN: 978-84-235-3561-3

DUHALDE, Maitena
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

1. Liburuaren testuingurua: FLV, 50 urte biltzarra

Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundeak argitaratzen duen *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariaren 50. urtemugaren kariatara, *FLV, 50 urte. Metodo eta joera berriak (euskal) hizkuntzalaritzan* izenburuko nazioarteko biltzarra egin zen 2019ko martxoaren 6an eta 7an, Iruñean, Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Gazteria Sailaren egoitzan. Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak antolatu kongresu honen helburua euskalaritzan hainbat adarretan diharduten euskalarien elkartzea izan zen eta euskalaritza esparruan ikerketa-jarduna aberasteko lagungarri izan daitezkeen ikerketak eta ikerketa-ildoak azalaraztea. Honela, bi egun hauetan 150 lagun elkartu ziren, orotara 35 erakunde eta unibertsitatekoak.

Biltzar horri loturik, Ekaitz Santaziliak, Dorota Krajewskak, Eneko Zu-
loagak eta Borja Ariztimuñok *Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen
berriak euskararen ikerketari / Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca*
liburua argitaratu dute 2020an, non biltzarrean parte hartu zuten ikertzai-

Euskera. 2020, 65, 2. 661-667. Bilbo
ISSN 0210-1564

leek beren ikerketen berri eman ahal izan duten. Biltzar horretan aurkeztu ziren lanen sorta zabala aurkezten du, eta liburuaren argitaratzaileek aitzin-solasean bertan zehazten dute helburua (12):

Liburu honek gaur egungo euskal hizkuntzalaritza- eta literatu-
ra-ikerketan zertan den erakutsi nahi du, *Fontes Linguae Vasconum*
aldizkariaren gorazarre. Eskarmentu handiko ikertzaileek eta belau-
naldi berriek bat egin dute argitalpen honetan, besteak beste, dialek-
tologia, hizkuntzaren didaktika, filologia, gramatika teorikoa, hiz-
kuntz tipologia, hizkuntzalaritza historikoa, itzulpengintza, literatura,
onomastika eta soziolinguistika hizpide dituztela.

2. Liburuaren edukia: deskripzioa ekarpenez

Liburuan, lan horien egileen deituren arabera antolatuta dira; hemen, ordea, edukien ikuspegi orokorra emateko, gaika edo esparruka aipatuko ditugu.

Euskal Filologiari eta testuen azterketari dagokienez, Estarronak, Etxe-berriak, Etxeparek, Padilla-Moyanok eta Soraluek corpus-hizkuntzalaritza-
ren esparrua landu dute “Sintaktikoki etiketatutako euskarazko corpus
historikoa eraikitzen” izeneko lanean. Zehazki, *Basque in the Making* proiektuan dihardute, XV.-XVIII. mendeen arteko euskalki guztietako idazki esanguratsuenen corpus digital etiketatua sortzen eta osatzen. Bertze alde batetik, Uribe-Etxebarriak Debagoieneko lau testu ditu aztergai “XIX. mende-
deko Debagoieneko testuez zenbait argitasun: egiletasuna eta iturriak” saioan. Tradizioz “Oñatiko eskuizkribuak” deitu izan diren testuen eta Antzuolako (1825) zein Gatzagako (1862) dotrinen iturriak eta egiletza-gaiak ditu aipagai. Filologiaren eta testuen azterketaren esparruko hirugarren lana Camus Bergarechek eta Gómez Seibanez sinatutako “Lenguas y socio-
lingüística en el interior del País Vasco en el siglo XIX: testimonios del Archivo Zavala” da. Lan filologikoaz eta soziolinguistika historikoak azken urteotan bultzatutako ikuspegiez baliatuta, Zavala artxiboan gordetzen diren gutuneri-
en egiletza-gaiak eta profil soziolinguistikoak aztertu dituzte.

Onomastikaren esparruan, Bañalesek eta Gorrotxategik euskararen men-
debaleko muga dute aztergai “Somorrostro, mendebaldeko euskararen muga”

lanean. Herrien izenak ikertu ondotik, populazio-guneei interesatu dira, hots, XVI. mendean populatuta zeuden guneei. González de Viñasprek, berriz, “El corónimo navarro *Salazar* / *Zaraitzu*: origen y desarrollo de su doble denominación” lanean, Nafarroako harana eta ibaia izendatzen dituzten *Zaraitzu* eta *Salazar* izenen etimologia aztertu du. Honela, koronimoaren Erdi Aroko lekukotasunak dakartza eta *Salazar* aldaeraren agerpenak zein testuinguruak zehazten ditu. Bertze alde batetik, Martínez Areta “Enkarterriko PI-(h)aran/(h)uri motako euskal toponimoak” artikulua sinatu du. Fernández Palaciosek (2011) dakartzan toponimoak aurkeztu eta agerraldien eta hauen gibelean dauden antroponimoak aztertu ditu, toponimoak multzoka sailkatzeko eta testuinguru historikoa ikertzeko beharra nabarmenduz. Azkenik, Zalduak toponimia du aipagai “Latinaren aurreko osagai indoeuroparra Euskal Herriko toponimian: bukaeran *-(iz)amo* duten leku-izenak” saioan. Honela, hiru multzo aztertu ditu bukaeran *-amo* eta *-izamo(n)* dutenak eta *-amo-* luketenak.

Gramatikaren teoria arloan, Adurizen eta Arriolaren “Testu-corpusen informazio morfosintaktikoaren etiketatze automatikoa hizkuntz ezagutzan oinarrituz: zenbait arazo, hainbat erronka” lana daukagu, hizkuntzalaritza konputazionalaren ikuspegitik. Lan honetan, corpusen etiketatzea eta desanbiguzio morfosintaktikoa landu dituzte. Bertze alde batetik, Elordietak “Azentuazioaren eremu sintaktikoak mugatzen” lanean, asimetria prosodikoa erakusten duen Lekeitioko hizkera du aztergai. Azentuaren ezarpena aztertu du, testuinguru sintaktikoei begiraturaz; hots, bien arteko harremana ikertzen duten teorioren bidetik. Ormazabalek, berriz, “Euskararen postposizioak” izeneko lana sinatu du. Euskal deklinabidearen ohiko sailkapena eztabaidatu du eta postposizio konplexuak eta atzizki lokatiboak kategoria bereko postposizio-multzo irekia osatzen dutela proposatu du. Tokizakik, “Externalization and morphosyntactic parameters in Basque” izeneko lanean, euskararen ezaugarri morfosintaktikoak aztertu ditu, gramatika sortzailea eta *minimalist program* teorioren ildotik. Azkenik, Vela-Plok euskarazko konparazio-egiturak aztertu ditu, “Euskarazko perpausik gabeko azpikonparazioak” izeneko lanean. Zehazki, agerian mendeko perpausik ez daukaten azpikonparazioak ikertu ditu, analisi sintaktikoa eta semantikoa proposaturaz.

Euskal literatura garaikideari dagokionez, Alberrok eta Bijuescak “Bertsolaritzaren genealogia subalternoak” saiakera sinatu dute. Bertsolaritzaren ge-

neologia subalternoak dituzte aipagai eta hiru ardatz nagusi jorratzen dituzte: lehenik, hizkuntza eta kultura; bigarrenik, literatura eta, azkenik, generoa. Bertze alde batetik, Ayerbe Sudupek kritika genetikoa landu du “Berridazketak Sarrionandiaren poesian eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* nobelan: hurbilpen genetiko bat” lanean. Lan honetan sorkuntza-prozesua ikertzeko eskuizkribuen azterketaren garrantzia azpimarratu du. Elizalde Estenagak, berriz, zentsura-ikasketak eta memoria-ikasketak ditu aztergai “Zentsura-ikasketak gaur egun: aplikazioa euskal literaturan” lanean. Alde batetik, nazioarteko zentsuraren gaineko teoria berrien ekarpenak euskal eremura aplikatu beharra, eta, bertzetik, memoria-ikasketetan zentsura-ikasketei eskaini behar zaien lekua azpimarratu ditu. Euskal literatura garaikidearen esparruko laugarren lana Ibarluzea Santistebanek sinaturiko “Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz” da. Itzulpenaren soziologiaren ikuspegia aintzat harturik, euskal literatura itzuliaren historiografia bateratua osatzeko gakoak proposatu ditu. Bertze alde batetik, Madinak Eñaut Etxamendiren obra literarioa du hizpide “Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren ekarpena euskal poetika erruralari” lanean. Bertan, Etxamendiren obra etnokritika literarioaren ikuspuntutik aztertu du, eta euskal erruralitatearen poetikari egiten dion ekarpena azpimarratu du. Manterola Agirrezabalagak, berriz, “Erdaretarako literatura itzulpena: zeharkako eta zuzeneko itzulpenaren arteko muga lau-soa” lana dakar. Euskarazko bertsioaz gain gaztelaniazko (auto)itzulpena ere eskura baita maiz, hirugarren hizkuntzetarako itzulpenetan testu-iturria hautatzeko faktoreak eta bakoitzari eskaintzen zaion inportantzia aztertu du. Azkenik, Olaziregik sinaturiko “Hausnarketa zenbait euskal literatura-ikerketez” lana dugu. Literatura kritikak eta literaturaren teoriaren ekarpenak laburbildu ondotik, azken urteetako euskal literaturaren hainbat ikerketa-lerroren diagnostikoa eskaini du.

Ahozko hizkuntzaren irakaskuntzari dagokionez, Diaz de Gereñu Lasagak, Idiazabal Gorrotxategik eta Larringan Aranzabalek “Testu-generoaren irudikapena eta erabilera ahozkoaren didaktikan” lana sinatu dute. Ahozko euskararen irakaskuntzaren erronken berri eman ondotik, testu-generoa landu dute, eta honen erabilerarako proposamen didaktikoak dakartzate. Bertze alde batetik, Ezeizaren eta Encinaren “Ahozkotasanaren didaktika ikuspegi dialektikotik abiatuta” lana daukagu. Alde batetik, beren esperien-

tziak, eta, bertzetik, eginiko ikerketak aintzat harturik, ahozketasuna ikuspegi dialektikotik lantzeko proposamena egin dute. Garcia-Azkoagak, Bengoetxeak eta Zabalak irakasleen prestakuntza dute aipagai “Ahozko euskararen erabilera eskolan: gako zenbait irakasleen prestakuntzarako” lanean. Lan honetan, irakasleen prestakuntza egokitu baten diseinatzeko helburuarekin, irakas-saio grabatuen analitiko abiaturik, aintzat hartu beharreko gakoak proposatu dituzte. Lascanok, berriz, “Formation linguistique de basque aux enseignants, pour un enseignement bilingue à parité horaire au Pays Basque Nord” lana sinatu du. Irakaskuntza elebiduneko beharrei erantzuteko, Ipar Euskal Herrian martxan jarri den irakasleei zuzenduriko euskarazko formakuntza trinkoa aurkezteaz gain, irakasle profil berri honen inguruko hausnarketa aurkeztu du. Ahozko hizkuntzaren irakaskuntza esparruko bosgarren lana, Manterolaren “Ahozko euskararen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza: berrikuntza didaktikoa eta soziala?” dugu. Lan honetan ahozko euskararen irakaskuntza eta bereziki irakasleen prestakuntza landu dira, berrikuntza didaktikoaren zein sozialaren beharra azpimarratuz. Bertze alde batetik, Murciano Eizaguirrek eta Ozaeta Elortzak “Jardueraren azterketa irakasleak prestatzeko bide: debatearen ikas-irakaskuntzaren adibidea” lana sinatu dute. Lan honetan, Lehen Hezkuntzako irakasleen autokonfrontazio-egoeran ekoizturiko solasaldiak aztertu dira, eta ikaskuntza-irakaskuntzari buruz irakasleek azpimarratu estrategiak, zailtasunak zein erronkak ikertu dira. Azkenik, Olçomendyk eskuliburuak ditu hizpide “Ahozko euskara *Kolegioko ikastresna* ikasmaterialean” lanean. *Kolegioko ikastresna* programa ofizialei egokitzen ote den aztertu da, eta, batez ere, zein garrantzi eskaintzen zaion ahozko hizkuntzaren lantzeko baliabideei.

Hizkuntzaren soziologiaren esparruan, hizkuntza-mudaren prozesua dute aztergai Amorrortuk, Ortegak eta Goirigolzarrik “Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten behin-behineko emaitzak” lanean. Unibertsitate-eremuko euskararen erabilera sustatu ahal izateko, muda-prozesuan erabakigarriak diren faktoreak zein hizkuntza-ohiturak aldatzeko estrategiak identifikatu dira. Bertze alde batetik, Beitiak hizkuntza-sozializazioa lantzen du “Euskara sasoian? Euskararen sozializazioa Gasteizko pilota-elkarrete batean” lanean. Euskararen sozializaziorako beharrezkoak diren baldintzen inguruko hausnarketa egin da. Hizkuntzaren soziologiaren esparruko

hirugarren lana Bereziartua Etxeberriak eta Muguruza Aseginolazak sinatutako “Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa” da. Hiztunak solaskideari zuka edo hika egiteko irizpideak azaltzeaz gain, hizkuntza-mudarekin parekotasunik badagoen aztertu da. Kasaresek, berriz, “Familias vascohablantes: propuesta de definición desde la socialización lingüística” lana dakar. Lan honetan, familia euskaldunaren definitzeko oinarri teorikoak aurkeztu dira, hizkuntza-sozializazioaren ikuspegitik.

Tipologiaren esparruan Creisselsek eta Mounolek aditz psikologikoak dituzte aztergai “Les verbes psychologiques du basque : typologie et diachronie” lanean. Aditz psikologikoen balentzien aldaketa aurkeztu ondotik, horien ezaugarriak aztertu dituzte, tipologiaren ikuspegitik, eta, azkenik, ezaugarri horien bilakaera diakronikoa azaldu dute. Igartuak euskararen ezaugarri tipologikoak ditu hizpide “Basque among the world’s languages: a typological approach” lanean. Azken ikerketa-lanak aintzat harturik, euskararen posizio tipologikoa aztertu du munduko hizkuntzen artean, eta euskararen ezaugarri fonologiko, morfologiko zein sintaktiko nagusiak agerian eman ditu. Bertze alde batetik, Pastorrek izen-aditz ratioa du aipagai “Hitz-ordenaren eragina zenbait ezaugarri gramatikalen erabilera-maiztasunean” lanean. Lan honetan, bi corpus idatziren bitartez, SOA eta SAO hitz-ordena duten hizkuntzak konparatu dira, hots, euskara eta gaztelania. Tipologia alorreko laugarren ekarpena Salaberriren “Differential D-marking on proper names? A cross-linguistic study” lana da. Lan honetan, izen berezi eta izen arrunten berezitasunak konparatu dira, genetikoki eta tipologikoki ahaidetasunik ez duten berrogeita hamar hizkuntza aintzat hartuz.

Dialektologiaren eta soziolinguistikaren esparruan, hizkuntza-aldakortasun diafasikoa du aztergai Artzelus Muxikak “Garaziko euskararen azterketa diafasikoa” lanean. Lan honetan, estilo formalean ahoskerari emaniko garrantzia zein Iparraldeko Batuaren eragina azpimarratu ditu.

Hizkuntzalaritza historikoaren esparruan, Campbellek “Lingüística Histórica: estado actual” lana dakar. Esparru honen bizitasuna eta azken urteetako ekarpenak azpimarratzen ditu. Hainbat alorren garapena agerian eman du, bertzeen artean, hizkuntza familien kopurua, urruneko ahaidetasunaren hipotesia, hizkuntza eremuen definitzeko zailtasunak, hizkuntza eta geneen

arteko korrelazioa. Bertze alde batetik, Gorrochateguik “*Fontes Linguae Vasconum*: orígenes y documentos para una Historia del Euskara” lana sinatu du. Azken hamarkadetan euskarari buruzko ikerketetan egin ekarpenen eta aitzinamenduen berri dakar, euskararen historiaren zein hizkuntzalaritza konparatuaren ikuspegitik. Hizkuntzalaritza historikoaren esparruko hirugarren lana Monfortek sinatutako “Diachronical hypotheses accounting for synchronic variation: the case of the Basque particle *ote*” da. Lakarraren (2019) partikulen azterketa diakronikoaren ildotik, ekialdeko euskalkietan dagoen *omen* / *ote* partikulen mikroaldakortasuna aztertu du, eta hauen garapena erabat gramatikalizatu baino lehen gertatu dela proposatu du.

3. Liburuari buruzko iritzi kritikoa

Kalitate handiko lanak bildu dituen liburu honek euskal ikasketen aniztasuna eta bizitasuna erakusten du. Alde batetik, ikerlarien profila askotarikoa da, eskarmentu handiko ikertzaileek zein gazteagoek beren ikerketen berri eman baitute. Gainera, atzerriko ikerlari zenbaitek ere parte hartu dute, euskarari buruzko ikerketak nazioartean daukan interesa berretsiz. Argitalpen gehienak euskaraz idatziak badira ere, bertze hizkuntzen presentzia azpimarratzekoa da. Zehazki, bi lan frantsesez idatzi dira, bortz gaztekeraz eta lau ingelesez. Bertze alde batetik, ikerketa-ildoan aniztasuna ere nabarmentzekoa da. Nazioartean erabili ohi diren metodologiak eta teoriak gure eremura ekartzeko eta aplikatzeko beharra azpimarratu dute ikertzaileek. Esparruei doakieenez, ikuspegi zabala dakar liburuak; izan ere, dialektologia, hizkuntzaren didaktika, filologia, gramatika teorikoa, hizkuntz tipologia, hizkuntzalaritza historikoa, itzulpengintza, literatura, onomastika eta soziolinguistika lantzen dituzten artikuluak baititugu. Hala ere, ahulezia batzuk sumatu ditugu, dialektologian eta soziolinguistikan lan bakarrak baititugu eta fonetika-fonologiaren esparruari dedikaturiko lanak eskas baititugu liburuan.

Laburbilduz, aitzinsolasean zehaztu helburuak bete ditu *Fontes Linguae Vasconum: 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari* / *Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca* liburuak, euskal hizkuntzalaritzari zein literaturari buruzko gaur egungo ikerketen ikuspegi zabala eta aberatsa eskaini baitu.



Gure literaturak gutxitan zapaltzen du futbol zelaia

Mari Mar BOILLOS eta Jon KORTAZAR (ARG.)
UPV/EHU (Euskal Herriko Unibertsitatea). Bilbo: 2020, 220 or.
ISBN: 978-84-1319-281-9

IBARGUTXI, Felix
Kazetaria

‘Euskal Literatura Saila’ hogeita batgarren alera iritsi da *Eguno euskal literatura eta futbola* liburu honi esker. Badira urteak bilduma honek gizarteko hainbat arlorekin jarri duela harremanetan literatura, eta oraingoan gure arteko kirol nagusi eta herrikoiena aukeratu du aztergaitzat. Eta edukiaren oinarritzko deskripzioa eginda, esan dezadan hamabi idazlanen sorta baten aurrean gaudela; bederatzi artikulua eta hiru narrazio labur.

Ezer baino lehenago: liburuko izenburua eta barruko edukia ez datoz guttiz bat. Bertako hamabi idazlanetatik, parte handi batek egiten du salto ‘euskal literatura’ horretatik harago. Horietan zehar sarri hitz egiten da gaztelaniazko literaturaz eta gaztelaniazko zineaz. Hori bai, liburuko edukia euskaraz da osorik. Era honetara, emaitzak irabazi egin duelakoan nago; editoreek ‘euskal’ hori hitzez hitz eta modu kategorikoan hartu izan balute, liburuak panorama askoz txikiago eta ez hain interesgarria ekarriko zukeen. Azken batean, oso bakanak dira futbolari buruz diharduten (edo behintzat ukitzen duten) euskarazko literatur lanak.

Bestalde, liburu hau, Euskal Herriko Unibertsitateak onartu duen LAIDA (Literatura eta Identitatea) Ikerketa Taldearen eginkizunen barnean

Euskera. 2020, 65, 2. 669-674. Bilbo
ISSN 0210-1564

egin da. Editoreak Mari Mar Boillos eta Jon Kortazar izan dira, bata EHUko Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakaslea, bestea literaturaren aspaldiko ikerlaria, eta bera ere EHUko irakaslea. Biak ala biak dira futbolzaleak. Ba omen dago beste ‘errudun’ bat, ikerketa-bilduma aurrera ateratzen lagundu duena: Yvette Sánchez, futbolzale amorratua eta katedradun gisa ari dena Suitzako Sankt Gallen-eko Unibertsitatean, 2018an mintegia antolatu zuelarik literatura eta kirolaz.

Argitalpenak hiru atal nagusi ditu: Ikerketa (zazpi idazlan), Didaktika (bi lan), eta Sorkuntza (hiru narrazio labur). Bistan da: badago atal bat bereziki irakasle jendeari zuzendua.

Liburuko lehen artikulua Yvette Sánchezena da, ‘Kirol-nitxoak literaturan’ izenburukoa eta Juan Kruz Igerabidek euskaratua. Guztiok geneukan susmoa baieztatu digu: “Gaur, arte, nagusi izan dira literatura genero laburrak (ipuinak, saiakerak, kantzak, kronikak, azken horien artean Eduardo Galeanok egindakoak, besteak beste); ez da ageri maisulan handi bat futbolari buruz; futbolak bere buruarekin aski duela dirudi, eta ez duela behar arte-sublimaziorik”. Basileako futbol-taldearen aspaldi-aspaldiko zalea den ikerlari honen beste ideia gako bat: “Ohikoa da intelektual futbolzaleek beren buruak patologizatzea, sukarraren eta adikzioaren metaforak erabiliz. Galeanok hemen gaixotasuntzat jotzen du zaletasun hori beregan, irtenbiderik gabeko ahuleziatzat”.

Ondoren, Salamancako Unibertsitatean ari den Aiora Sampedro Alegraren ‘Futbola eta literatura euskal eleberrian’. Lan hau liburuaren aztergaiaren muin-muina da, eta egileak laster pasatzen digu abisua: “Euskaraz futbolaren inguruan eraikitako eleberri osoak aipatu beharko bagenu, esku bateko hatzez konta genitzake”. Egia esateko, benetan futbol kontuetan sakondu nahi duten euskal nobelagileak hiru omen dira: Martin eta Xabier Etxeberria zarautzar anaiak eta Joan Mari Irigoien altzatarra. Badira beste bi euskal idazle futbolaren munduan sartu-irtena egindakoak, baina modu ez hain zuzenean: Bernardo Atxaga (*Gizona bere bakardadean*) eta Kirmen Uribe (*Elkarrekin esnatzeko ordua*).

Irigoienen *Derbia* eta *Odolean neraman* lanetan, futbola erdigunean dago. Lehenengo horretan, Realeko eta Athleticen zaleen bizipenetan sakontzen

du Irigoienek, elkarren arteko norgehiagokan oinarrituta. *Odolean neraman*, berriz, berariaz haur eta gaztetxoei begira idatzi zuen Joan Marik; gainera, gazte baten azalean sartuta burutu zuen kontakizuna. Gizon hau, bestalde, idazle atipikoa dugu biografiari dagokionez: gaztetan Real Societateko harrobian jardun zuen eta, klub honek utzita, Gipuzkoako beste zenbait talde-tan ere ibili zen.

